

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkartek argitaratu du
obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

GOGOAREN
FENOMENOLOGIA I

G. W. F. HEGEL

Gogoaren
fenomenologia I

Jatorrizko izenburua:
Phänomenologie des Geistes
Euskaratzailea: *Xabier Insausti eta Ibon Uribarri*
Berrikuslea: *Ibon Uribarri*
Hitzaurregilea: *José María Ripalda*

Lehen argitalpena: 2005eko azaroan

© Itzulpenarena: Xabier Insausti eta Ibon Uribarri
© Klasikoak, 2005
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2005-XI-21

ISBN: 84-96455-08-4 (Obra osoarena)
ISBN: 84-96455-09-2 (Lehen liburuarena)
Lege gordailua: BI.-2928-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

I.

Georg Wilhelm Friedrich Hegelen mendea (1770-1831) aldaketa-garaia izan zen. Mundu zaharraren oinarriak ezbaian geratu ziren Europan. Zientziak eta pentsaera askeak franko egin zuten aurrera «Argien» garaian; laborantzaren ustiapena handitu ahala, XVIII. mendean desagertzeaz ziren goseteak, eta lehengo lurjabeen kalterako, burgesiaren garrantzia hazten zihoan etengabe. Amerikako iraultzaren ostean (1775), Iraultza Frantsesak (1789) erregeari lepoa moztu zion, eta segidan iraultza industrialak hasi zen Ingalaterran. Erdi Europan ere, meatzaritzak, mekanikak eta ezagutza biologikoak aurrera egiten zuten, eta itxurazko egoera politiko egonkorren azpian zurrumbilo mehatxagarriak aditzen ziren. Hegelek berak «Desberdintasunaren idazkia» delakoan (1801)¹ nahiz *Fedea eta Jakintzako* (1802) lehen orrialdeetan nolabait islatzen du egoera hori lema baten pean, hots, gizartearen tinkotasun zaharraren haustura. Segidan, Napoleonen kanpainak Europa-ko mapa politikoa eta erakundeak kolokan jartzen zituztela, konstituzionalismoa hedatu zen.

Bistan denez, garai haren diagnostikoa ez zen ezkorra soilik, Hegel eta bere lagunen gogoak oso kementsua eta sutsua baitzen. Diagnostiko horren hondoan sekulako baikortasuna zegoen; ezin da bestela idealismo alemaniarren ahalegin espekulatibo erraldoia ulertu.

«Ezer ziurta badezaket, zera da, egungo gizadia bere buruari hain duin agertzea gure garaiko zeinu onena dela, zapaltzaileek eta lur

honen jainkoek euren buruen aureola galtzen duten froga bat baita. Duintasun hori filosofoek frogatzen dute, herriak sentitzera ailegatuko dira eta, lurrean arrastaka eskatu ordeztu, euren berreskuratu eta bereganatu egingo dituzte euren eskubideak²».

Lehenbizikoz espekulazio filosofikoa errealtate historikoa bere baitan atzematen saiatzen zen, eta ekintza teoriko berri horrek sormen itzela bultzatu zuen; hortxe bertan dago Hegelen filosofiaren gakoa. Nabarmenki, 'Argien' arrazionaltasuna beste maila batera heldu zen mendeko mugarekin batera. Ideologikoki, askatasun politikoaren ideia modernoa Rousseau eta Hegelen artean garatuz gero, Kantek, Rousseaugen oinarrituz, borondate askea hartu zuen filosofiaren printzipiotzat. Mundua ez zen jadanik kontzeptu estatikoetan endegatzen, Aristotelesen filosofian bezala. Hegel eta Schelling, bere aldetik, Fichtek Kanten transzendentalismoaren inguruan egindako interpretazio erradikala sakondu, besterik egiten ez zutelakoan zeuden.

Alegia, Iraultza Frantsesa aitzindari baino ez zen, azalezko aurrekaria, abstraktua eta odoltsua. Aitzitik, intelektual alemaniar *ilus-tratu* (Kant, Lessing, Klopstock), *klasiko* (Schiller, Goethe, gero Hegel) zein *erromantikoen* (Fichte, Schlegel anaiak, Novalis, Tieck, Schelling bera) ustez, politika berria ez ezik, natura berria eta Jainko berria ere, goitik beherako egiazko iraultza *osoa* etortzeaz zegoen, hots, 'Novum coelum eta nova terra'.

1. 'Novum coelum' : Jainko tradizionala baliogabe geratu zen. Kanten *Arrazoimen hutsaren kritikak* (1781) Jainkoaren existentziaren aldeko argudio arrazionalak ezabatu zituen, transzendentsia oro desagerrarazten zen filosofiatik. Beraz, Friedrich Heinrich Jacobik (1743-1819) honelako arrazionalismo modernoak ekartzen zituen arriskuez ohartarazi behar zela erabaki zuen. *Moses Mendelssohni eskutitzak Spinozaren doktrinaren inguruan* (1785) lanean Jacobik batez ere *Mendelssohnek* zabalduetako bertsio ofizialaren kontra jakinarazten zuen Lessing, alemaniar ilustratuen arteko pertsona errespetatua, ez zela teista izan, Spinozaren legezko panteista baizik; Jacobiren arabera halaber, Goethe ere, idazle berrien arteko idazle famatua, panteista zela erakusten zuen haren argitaragabeko *Prometheus* olerkiak. Baina Jacobik *Gutunen* bidez lortu nahi zuenaren guztiz kontrakoa lortu zuen. Bat-batean, aukera distiratsu bat bezala, Spinozaren panteismoa, Idealismo espekulatiboaren eta Erromantizismoaren per-

tsonaia nagusi bihurtuko ziren intelektual gazte batzuei agerian geratu zitzairen aitzindari bezala.

Honekin batera, orobat neologo zeritzoten teologo berrien –batez ere Storr, Hegelen Tubingako maisuaren– arabera, inperatibo kategoriko moralaren eskutik, Jainkoaren existentzia ondorioztatzeko beste ekimen-alor bat irekitzen zen, inperatibo kategorikoa berez zoriontasunaren aurka izanik, gizabanakoaren zoriontasuna eta bere betebeharra uztartzeko Jainko transzendente bat suposatu behar zelako.

1795eko udaberri eta uda artean Hegelek landutako *Jesusen Bizitzan* sumatzen da oraindik teologo kantiar hauen eragina. Hala ere, Jainkoa ez, baizik eta etika indibiduala erdian finkatzen delarik, teologo kantiarren Jainko transzendentetik gabeko irteera immanentea iradokitzen da. Neronen baitan baitago Jainko pertsonala³. Fichtek 1800 urtean idatzitako *Gizakiaren patuak*⁴ balio beza Jacobik bultzatu zuen panteismoaren inguruko eztabaidaren eta kantismoaren arteko sintesi tipiko bat erakusteko:

«Ni, arrazoiaren legeari men egiten badiot, hilezina *naiz*, betirakoa, eterna; *ez* dut lehenago *bihurtu* behar. Goiko mundua ez da etorkizunerako, gaurkoa da. [. . .] Erabaki honetan betikotasuna biltzen dut, nire hemengo bizitza eta niri eskaini lekizkidakeen beste sentimenen bizitza guztiengandik askatzen dut neure burua eta haien gainetik goratzen naiz».

Izan ere, Hegel, Schelling eta Hölderlin arteko 1795ko gutunetan Fichteren aipamen sutua agertzen da behin eta berriro⁵. Nahiz eta Hegel korrespondentzia honetan hiruren arteko hotzena, erreserbatue-na zen, berak 1788-1793 artean egindako teologia ikasketatik ateratako ondorioa, berriz, izan zen Jainkoa ezin dela era tradizionalen pentsatu, eta horixe izango zen bere filosofiaren behin betiko oinarri bat. Jainkoa munduan bertan aurkitu behar zen, hala ere ez pasiboki, panteismoan bezala, baizik eta historian gure askatasunaren bitartez, izenik gabeko edo beste izen bateko Jainkoa agian. Kanten arabera, gure barruko kontzientzia moral jainkotiarrek, bere hausnarketaren duintasunaz eta askatasunaz, Jainkoa ulertzeko eta era jainkotiarrean aritzeko bide berriak irekitzen zituen.

2. ‘Nova terra’ : Fichteren arabera, kontzientzia moralak berak orain arteko munduarekiko errukigabetasunez mundu berria eraiki behar zuen. Teknologia modernoaz zingirak lehortu, sumendiak itzali,

gaixotasunak ezabatu, hitz batean, gizadi berri batek natura menperatu egingo luke; autopistak baino ez dira falta zerrenda osatzeko! Halako printzipiopean azkenean –zientzia-fikzioko film batean bezala– natura basamortu bihurtuta aurreikus zitekeen, eta gizadia hura subiranotasunez ustiatzen, edo bere asmoa horretara makurtu eta, kontserbatzen, garapenzale garaikideen eran, bere burua naturaren goialdean jartzen.

Schellingek panteismoaren barnetik, naturan, jainkotiarra izanez, begirune nahiz lotura estua mantentzea ezinbestekoa zela objektatu zuen. Schelling jarrera egungo ekologista kontserbadoreen antzekoa izan liteke. Hegelen hasierako postura, aldentzen joan zen arren, Schellingenetik hurbil zegoen. Bi hauek, Goetherekin batera, newtonianismoaren kritikan bat zetozen; zientziaren mekanizismoa, izakiaren batasuna nahiz benetako aniztasuna hondatzen zituenenez, «Argien» abstraktutasunerako molde nabarmenetako bat besterik ez zen.

Nolanahi ere, mende aldaketa hartan newtonianismoa krisian zegoen. Teorian Newtonek proposatuko Jainkoaren eragin zuzena munduko fisikan gero eta onartezinago agertzen zen; Optikan ere krisian zegoen Newtonen koloreen teoria, argiari buruzko haren azalpen korpuskularrak eta Merkurio orbitari buruzkoak teknikoki «irregulartasunak» ere aurkezten zituzten. Muga eta kopuru infinitesimalaren kontzeptu berrien bila zebilen orduko zientzia, eta orokorrean newtonianismoaren hutsune teorikoak agerian geratu ziren, batez ere Biologiaren gorakadaren ondorioz. Hegelen inguruan, politikan despotismo ilustratua bezala ikusten zen newtonianismoa. Kant bera, newtonianismoarekin lotua zegoenez, dinamikoagoa azaldu arren, *Fenomenologia* -ren Sarrerako lehen lerroetatik hasita, Kant *eta* Newton gainditu behar zirela suposatzen zuen Hegelek. Kantek kanpotik abstraktuki kritikatzeko zuena, barrutik, subjektibitate modernoaren bahetik aztertu behar zen. Eta Fisikaren ordez *Fenomenologiaren* V. kapituluaren Biologiak hartzen du nagusitasuna zientzien artean.

Fenomenologiaren eskutik argi dakusagunez, ordea, Hegelek Schelling jarrerari nahasgarria eta Goetherenari intuitiboegia deritze. Naturaren duintasuna, gogoaren menpe dagoenez, kontzeptuaren zehaztasunaren bidez baino ezin liteke gozatu. Azkenean Hegel Fichteren jarrerari hurbildu zitzaion, baina politikan eta bere bizitzan bezala, nolabait bide-erdian gelditu zen, natura kritikoki aztertuz eta ustiatuz,

baina aldi berean bere jainkotasuna eta funtsezko arrazionaltasuna baieztatuz. ‘Nova terra’ ezin liteke begiespenetik, intuiziotik edo naturarekiko batasunetik etorri, baizik eta politika berri eta benetan oso baten ondorio bezala. Funtsean Kanten asmoa, bere «Opus Postumumek» erakusten duenez, ez zegoen hain urrun; alde horretatik Hegel, erromantikoen eta bereziki Schelling-en kontra, Kanten oinordeko geratu zen.

Jarrera horren mamia nolabait ulertzeko, gogora dezagun zirkua Iraultza Frantsesaren emaitza zuzen gisa sortu zela, arte herrikoi berria bihurtuz: lehoiak ustekabe gizasemeen meneko zeuden, elefanteak hanka baten gainean altxatu eta horien jarrera hori miresten zen, naturaren legeek xede iraultzailearen aurrean amore ematen zuten eta giza-kien gorputzak berak ordura arte ez-ikusienak egiteko gai bilakatzen ziren. Eta zirkuetako trapezisten ondotik, globo aerostatikoek ere grabitatearen legeak haustea lortu zuten⁶.

3. Hegelen arabera ‘nova terra’, orduan, batez ere gai politikoa zen. Dena dela, Hegel funtsean jarrera horrekin ados zegoen arren⁷, *Fenomenologiaren* VI. kapituluaren aipamen kritiko bat azaltzen da ‘Argien’ proiektu politikoaz orokorki eta Iraultza Frantsesaz bereziki, ustez hauen baikortasuna handiegia zelako; baina *Fenomenologia*-ren hasi-hasieratik, espresuki izendatua ez den beste etsai bat ia eten-gabe agertzen da, hau da, Erromantizismoa. Erromantikoek sinesten zuten beraien subjektibotasunak Absoluturako berehalako sarrera zuela, politika arloko errealtatea eta arrazionaltasuna gutxiesten zituztelarik; katolizismoa eta Erdi Aroa Antzinasun klasikoa baino nahia-go zuten alde batetik, eta bestetik egoera politiko zaharra erabat onargarri zitzairen. Hegelen iritziz, gizarte-azaldura ez ezik, ilunkeria eta erreakzio hutsa ziren Erromantizismoaren ondorioak.

Fenomenologian Estatua ez da asko agertzen, batez ere leku sistematiko berezi batean. Absoluturantzko prozesua barnekoa izanez gero, erakundeak ez dira hain garrantzitsuak, ezta aldi berean landu zuen *Filosofia errealean* ere. Baina *Fenomenologiaren* azkenaurreko kapituluaren, VII.lean hain zuzen, erlijioaz idatzitakoak mami politiko sendoa dauka. Hegelen ustez, Kalbinismoa erlijio ilustratua, abstraktua, betiko galduriko Jainko aurkituezinagatik beti nostalgiko eta tragiko zenez, bada, askatasun idealista, hau da, modernoa, fededunaren barruko askatasun erradikal bezala ulertutako Luteranismoan oinarritu behar

zen, eta horregatik, urte batzuk geroago, ez zuen Vienako Kongresuaren ostean Protestantismoaren eta Katolizismoaren artean zabaldu zen nahasketa onartuko; Hegelen iritziz, nahasketa dogmatiko eta zuri hau Protestantismo zaharretik zetorren askatasunaren kontra zuzenduta zegoen⁸. Horregatik, behin Berlinen, ikasleek lagunduta, apaiz salatzaille bat klase-gelatik aterarazi zuen.

Kanten arabera, zientziek pentsamendu eredu orokorra osatzen zuten; Schellingentzat, aldiz, intuizio ezin ederragoaren esperientzia gutxientzat gordetako arte ederrek zekarten; Hegelen ustez, azkenik, politikan zetzan guztion etorkizunaren mamia. 1808an Napoleonek Goetheri tragedia klasikoaz galdetu omen zionean bezala, «Zertarako oraindik patua? Egun, politika da gure patua.» 1806ko urriaren 13an Hegelek Napoleon Jenako bataila hasi aitzin ingurua aztertzen ikusi zuenean, «Hemen, puntu zehatz batean bere zaldi gainetik mundu osoa menperatuz honelako gizasemea ikustea zoragarri da» zioen. «Munduaren arima», «miretsi beharreko gizaseme aparteko hau» funtsean *Fenomenologiaren* eredia da. Gogoaren mamiari dagokio politika.

Izan ere, une historiko kritiko hartan kontzientzia naturaletik egiaraino iristeko, *Fenomenologiaren* arrazoiak kontzientziaren historia idatzi beharra izango zen, subjektibitatea bere une historikoaren indar nagusi bihurtu baitzen. Subjektibitateari dagokion egia ezagutzen duena bakarrik da historian aritzeko gai; Absolutua bere une kritikoan pentsa dezakeena baino ez da gai benetan pentsatzeko. *Fenomenologiaren* Sarrerak argiki azpimarratzen duena Hitzaurreak, berriz, espresuki adierazten du. Eta antza, jarreraz teorikoagoak diren lehenengo kapituluak «Kontzientziaren esperientziaren jakintza» hasieran pentsatutako izenburua egokia iruditu arren, erdi ezkutuzko aipamenik gabe ez ditza-kegu ulertu, sarritan diskurtso espekulatiboak bideratzen edo hibridatzen dituztelako. Horregatik, liburuaren bigarren zatian kontzientziak, bere muga hurbilak gainditzeko, Gogoaren mailara jo beharko du; hau da, bere egoera historikora eta horrekin batera kontzientziaren esperientzia historia osora hedatu behar du. Horregatik, artean, nahiz eta egi- tasmo teorikoa zabaldu eta idaztear zegoen, *Fenomenologiaren* egitura koherentea geratu zen. Bermatuta dauden «Kontzientziaren esperien- tziaren jakintza» eta «Gogoaren Fenomenologia» bat datoz⁹.

4. Azkenean, susma daiteke Hegelen sistema nahiz beste idea- listen kontrako eztabaida ez direla filosofia horren kontu garrantzitsue-

na, Hegelek bere egitasmoa kontzeptuetan ikaragarri landu arren. Idealista guztiek, halaber, sinesten zuten ideiek, eta bakarrik ideiek, mundua alda zezaketela. Azken buruan, mundu tradizionalan horrelakoak ziren azalpenak . . . , eta askotan gurean ere bai.

Laburbilduz, egia da *Fenomenologiaren* Sarrera lehen lerroetatik Kanten *Arrazoimen hutsaren kritikari* erantzun gisa agertzen dela. Baina hori ez da denborarik at dagoen arrazoimen kritiko batetik soilik isurtzen, baizik eta aro bateko esperientziatik. «Desberdintasunaren idazkiaren» sarreratik filosofia garaiko behar sakon bezala aurkezten da eta itxuraz ezinbesteko joera batetik dator. Sarrera honetan ikusita-koaren arabera, garaiko sen onak eta filosofia guztiek proba gainditu edo suntsitu behar dute, hots, guztiz hondoratu ziren. Esperientzia honi aurre egiteko gauza ez omen ziren Schelling-en begiespenaren eta Fichteren subjektibismoaren kontra doa *Fenomenologia*¹⁰. Izan ere, *Fenomenologia* ez datza bakarrik dedukzioan edo doktrinan, garai osoaren laburpen sekretua baita, eta puntu honetan, Hegelen ustez, gizadiaren historia osoa biltzen da behin eta berriro.

Rosenkranz-ek, Hegelen biografoak, jakinarazi zigunaren ildotik, filosofoak honela amaitu zuen *Fenomenologiari* buruzko ikastaroa, ziur aski gaiak eman zuen azken klasea izango zena, Jenako unibertsitatean 1806ko irailaren 18an :

«Hau da, jaunak, filosofia espekulatiboaren eraketan lortu dudana puntu urrunena. Har ezazue zuek eutsiko diozuen filosofiaren hasiera bezala. Gogoak bultzada bat eman eta bere lehengo irudia goititu nahiz beste berri bat lortu duen garai garrantzitsu batean gaude, hartziduraren erdian. Lehengo irudien eta kontzeptuen multzo osoa, munduko loturak, urtu eta amets bat bezala eraisten ari dira. Gogoaren sorrera berri bat prestatzen ari da. Haren agerpena agurtzea eta ezagutzea da, berriz, filosofiaren eginbehar nagusia, besteei, nahiz indargabe izan, berriaren kontra eginez, iraganari eusten badiote ere eta gehienak, berriz, jakin gabe, agerpen haren multzo baino ez badira ere. Filosofiak Gogoak betiereko bezala aitortu eta ohoratu behar du».

II.

Honelako testuinguruan eratzen da Hegelen espekulazioa Jenako garaian (1801-1806). Itxuraz bat-batean, 1805eko erdian, azkenean

sistemaren sarrera idaztear zegoela, sistema osoa oraindik garatu gabe zegoen arren, ebatzi zuen Hegelek arazo espekulatiboa. Azken hiru urteetan saiatu zen Hegel Lur berria eta Politika berria Schellingean eran uztartuz, nolabait ‘novae terrae’ batasuna kontzeptualki azaltzen. Azalpen hau Hegelen partez beti Schellingena baino kontzeptualki zorrotzagoa izan zen; baina batez ere bere asmoa politikoa zenez gero, zuzenbide tradizionalaren ordeztu, zuzenbide arrazional berria, Estatu konstituzionala eta gizarte zibila agertzen ziren bere urte horietako idazkietan¹¹. Azkenean, mundu modernoan jasotako azturarekin jarraitzeak bere onespena nahiz birmoldaketa suposatzen zituelarik, izadiak eta askatasunak ezin zituzten garrantzi eta maila berdinak izan, ezta antzekoak ere. Identitate gorenaren postulatuari eta zatiketa modernoaren arazoari ezin zitzaion izadiaren eta subjektibotasunaren arteko espekulazio neutralaren bitartez ekin. Askatasunaren lehentasunak iradokitzen zuen kontzientziaren egitura formala oinarri bezala hartzea. Beraz, kontzientziaren bidean jarraituz garatuko da *Fenomenologia*, Batasun gorenaren eta aberatsaren, hots, Absolutuaren, bila.

Mundu osoa Gogoak, hau da, Askatasun mugaezinak eginda dago, edo, zehatzago, Askatasun honen mugimendu geldiezina besterik ez da mundua. Hegelen arabera, intuizioak (adibidez erromantikoa) nahiz ulermen zuzenak, abstraktuak (adibidez ilustratuak), hori ezin zuten ez ulertu, ez pentsatu. Gogoak, berriz, gure barruko hausnarketan munduan bestela ezkutuan geratzen den askatasun osoa eta erreala erartortzen du; prozesu honi, hau da, kontzientziaren garapenari, jarraitzen dio *Fenomenologiak*, azkenean kontzientzia bera atzean utzi arte.

Hari honi, ez eskema logiko zehatzari hertsiki eutsiz, baizik eta printzipio erreflexibo orokorrago bat erabiliz, segitzen dio *Fenomenologiak*. Ez da pentsatu behar bere irudien segida logikoki beharrezkoa dela; *Fenomenologiak*, bere antolaketa orokorra beharrezkoa izan arren, ziur aski beste ibilbide bat har zitekeen kasu batzuetan eta oro har beste era batean zehaz zitekeen. «Logika» hurrengo urteetan, batez ere Nürenbergeko *Logikaren Jakintzatik* (1812) aurrera, Hegelen filosofia-aren antolamendu-printzipio zehatz bihurtuko da, nahiz eta azalpenaren askatasuna inoiz guztiz itxi gabe geratu zen. 1806an Hegelen Logika, lehengo zirriborroak gauditututa, *Filosofia erreala*ren azken orrialdeetan iradokitzen den eskema laburrean datza. Beraz, hau da ziur aski bere gida logiko bakarra¹².

Mundu tradizionala desagertzeaz zegoenez, horren ustezko oinordekoen kontra, Erromantizismoaren eta Argien kontra aritzen da *Fenomenologia*, gure garaia mugan. Eta Hegelen beste liburuek sistematikoki ez badute gutxiago balio, dena den lan honek benetako jendioaren tximistak distiratzten ditu. Nagusiaren eta morroiaren arteko borrokaren pasartea ospetsua da, baina Antígona (Lurraren legea) eta Kreonen (Estatuaren legea) arteko eztabaida edo bihotzaren legea eta arima ederra ere maila berean dira famatuak. Testuaren bazter guztietan iradokizunak eta aipamenak daude ezkutuan, literatura unibertsalaren obra handietan bezala interpretazioen sorta behin eta berriro ireki behar da, ia modu mugaezinean. Aztertu gabe daude oraindik mailegu literario ugariak eta Hegel bera ezin zen han eta hemen agertzen edo erdi ezkutatuak zeuden ahotsen aniztasunaz jabetu. Hala ere, *Fenomenologiaren* arazo nagusia zera da, bere pasarte distiratsuak ezin direla zuzen gozatu, zeren eta funtsean lan handia eta zakarra egin baita kontzeptuekin, eta *Fenomenologiaren* indarra lan honetan murgilduta baitago. Hegelek kontzeptu tradizionalekin egiten duena ez da kritika edo des-erakuntza, baizik eta berr-erakuntza. Eta berr-erakuntza honetan ezkutatuta dagoena indar iraultzaile itzela, berriztapen suntsitzaile ikaragarria, etorkizunaren nolabaiteko aurrerapen indartsua da¹³.

Hegelen bizitza ez zen batere erraza *Fenomenologia* idazten zuen bitartean eta liburuak kondentsatzen duen indarra horren arabera neur liteke; kontzeptuen ahaleginaz estalia izan arren azalean, bere orriak uholdeak sortzen dituzte filosofiaren historiako beste liburuen artean. 1805eko udako seihileko akademikoan, agian lehenago, hasi zen idazten *Fenomenologia*; baina artean urte bat geroago *Fenomenologia* sistema osoarekin batera agertuko zela uste zuen Hegelek. Egia esan, bere ezagunen artean ikusmin handia zegoen ‘tip for insiders’ bezalako izar ezkutatu hori zela eta. Baina, nahiz eta bere argitarapen-kontratuan sistema osoa agertzen zen, azkenean bere sarrera bakarrik eta, aldi berean, lehen zatia agertu ziren, hau da *Gogoaren Fenomenologia*. 1806an, aitaren ondarea xahututa, Jenako unibertsitatearen distira joanda, ikasle gero eta gutxiagorekin, irakasle ospetsuenek, Schelling bere laguna barne, handik ihes egin zuten. Hegel ere saiatu, saiatu zen beste unibertsitate baten deia lortzen; baina 1805an Heidelbergeko unibertsitateak Fries deitu zuen, Hegelek gutxiesten zuen aurkaria eta etsaia, ez Hegel, bere samin sakonerako¹⁴. Barruko krisian eta

pobreziaren nahiz gudaren mehatxupearan penagarri bizi zen Hegel. Liburu erdia inprimatzear zegoela, agindutako ordainsariaren erdia kobratzeko premia izan zuen, baina editorearekin zituen harremanak txarrak ziren; izan ere, honek lehenengo liburu osoa eduki nahi zuen, Hegelek, berriz, uste zuen editoreak argitalpena atzeratzen zuela ez ordaintzeagatik, besteak beste. Ziur aski, 1806ko uda hasieran, gutxi gorabehera, *Fenomenologia* bakarrik, Sistemaren beste zatirik gabe, argitaratzea erabaki behar izan zuen Hegelek.

Soldadu prusiarren joan-etorriek, batez ere koarteleratzeek, hiria garestitu eta pobretu zuten 1805ean; baina 1806ko irailaren 13tik, Napoleonen kontrako guda berriaren ondorioz, benetako okupazio bihurtu zen horien presentzia. Bezperan Hegelek *Fenomenologiaren* lehen 21 koadernoak inprimatu zirela idatzi zion Niethammeri¹⁵. Irailaren 20an agertzen da lehen aldiz «Gogoaren Fenomenologia» izena, hurrengo unibertsitate-ikastaro baten izenburu bezala¹⁶. 29an Hegelek eta Göbhardt, Niethammerren bitartez, kontratu berria sinatu zutela, Hegel azkenean ordainsaria kobratzen hasi zen, baina liburuak urriaren 18an idatzita egon behar zuen.

Urriaren hasieran, gudaren nahasmena nahasmen, Hegelek *Fenomenologiaren* zati nagusia Bambergera, Goebhardt editorearengana bidaltzea lortu zuen. Frantsesak urriaren 13an Jenan sartu baino lehen, beste lagun baten etxera ihes egin behar izan zuen Ch. Ch. Johanna Burkhardt bere amorante eta ugazabandre haurdunarekin eta horren beste bi semeekin. Gau honetan amaitu zituen Hegelek *Fenomenologiaren* azken orriak. Hurrengo egunean, Jena-Auerstadt batailan Jenako kale nagusia bonbardatuta eta Hegelen etxea bera arpilatuta, arazoak izan zituen, hara itzulita, bizirik ateratzeko, *Fenomenologiaren* azken orriak soingainekoan josita zeramatzala. Bere bizitza osoan gogoratu zuen Hegelek guda eta heriotza hurbiletik ikusi zituela. «Inork ez du guda guk ikusi dugun bezala irudikatu», idatzi zion Niethammerri.

Gutziz porrot eginda zegoen Hegel. Ez zen kasu bakarra; Goethek, Weimargo ministroak, erremusinak banatu behar zituen bere irakasle batzuen artean. Azaroaren 3an, ikasturte berria hasi zenean, 31 irakasle berri baino ez zeuden matrikulatuta unibertsitate osoan. Hegelen bizitza pertsonala ez zebilen hobeto, batez ere berak haurdundutako Burkhardt andrearekin zituen harremanak hoztu egin baitziren. *Fenomenologiako* zuzenketen aitzakiaz baliatuz -susma daitekeen

bezala- Hegelek aste batzuk, irailaren erditik urteko amaiera arte, Bam-
 bergen bere lagun Niethammerren etxean pasa zituen. Ia berrehun kilo-
 metroko bidaia, gudagatik arriskutsu samarra, diru garraio batekin egin
 zuen. Baina gero oso ondo pasa zuen Bambergeko gizartean. *Fenome-
 nologi*atik azken ordainketa zela eta pozik bizi ziren egunotan, zeren
 eta orduan ziur aski Hegelek zor batzuk ordaindu ahal izan baitzizkion
 Niethammerri. Jenan ez bezala, emakumeak karta-jokoan aritzen ziren
 gizartean eta Hegelek Niethammer bere lagunarekin asko jokatu zuen
 ‘l’homme’; garagardo dezente ere edan zuten. Liburuaren zuzenketei
 dagokionez, irakurri bai irakurri zituen Hegelek, baina ez zuen askoz
 gehiago egin. Jenara itzulita, sistema osoarena zen, baina *Fenomenolo-
 gi*aren aurrean argitaratu zen hitzaurre berriari ekin zion. 1807ko otsai-
 laren 5ean jaio zen Ludwig semea. Berriro lagun batek, Frommann edi-
 toreak, eman behar izan zion dirua semea eta haren amarentzat. Jenako
 unibertsitatean beste aukera bat aurkitzeko ahaleginak porrot eginda,
 azkenean otsailaren 16an lanpostu bat eskaini zion Niethammerrek,
 beti Niethammerrek, Bambergen, kazetari bezala. Eskaintza hau onar-
 tuz gero, unibertsitatea utziko luke Hegelek; horregatik bilatzen jarrai-
 tu zuen norabide guztietan, Jenan bertan Goetheren bitartez, Schelve-
 ren bitartez Heidelbergen, eta azkenean Schelling en bitartez Bavarian,
 beste irteera bat aurkitzen saiatuz, baina alferrik. Martxoaren hasieran
 egon behar zuen Bambergen, amorante ohia eta semea Jenan utzita. Hil
 honetan hitzaurre berriaren probak irakurri zituen. Apirilean ageri zen
Gogoaren Fenomenologia, agindutako sistemaren lehen zatia. Presak
 eta bere egoera sumatzen dira Hegelen liburuen artean inprimaketa txar-
 rrena duenean; idazkera ere ez da beti dotorea, ezta zuzena ere. Libu-
 ruaren garrantziak ez du horregatik kalterik jasotzen; Hegelek idatzita-
 ko orrialde ederrenetako batzuk *Fenomenologian* aurki daitezke.

III.

750 ale bakarrik inprimatu zituen azkenean Goebahrdrdt editore-
 ak, eta 24 urte behar izan ziren ale guztiak saltzeko. Orduko liburuen
 merkatua gurea baino askoz mugatuagoa izan arren, benetan mantso
 hasi zen bere bidea egiten *Fenomenologia*. Lehendabizi Hegelek berak,
 bere *Bamberger Zeitung* egunkarian, argitaratu zuen 1807ko ekainaren
 28an laburpen bat iragarki moduan¹⁷:

[. . .]

«*Garatzen den jakintza* azaltzen du liburuki honek¹⁸. Jakintza-ren oinarriei buruzko azalpen psikologikoen nahiz argibide abstraktuen aurka egin behar du *Gogoaren Fenomenologiak*. Jakintza-ren *prestake - ta* [. . .] honek Gogoaren tankera anitz bere baitan egiten duen bidaia-ren geldigune gisa iragartzen ditu. Beraz, jakintza honen zati nagusietan nahiz beraien azpizatietan kontzientziaGogo bera, gogo etikoa, kultua eta morala, azkenean, bere era desberdinetan, erlijiozkoa, hartzen dira kontuan. Lehendabizi kaosa dirudien Gogoaren agerpenen aberastasunak jasotzen du antolaketa zientifikoa, bere beharrezkotasunean azaltzen dena, non agerpen osatugabeek, behin urtuak, euren egia beste goi-mailako batzuetan aurkitzen duten. Azken egia, berriz, erlijioan aurkitzen dute, eta gero horren guztiaren emaitza den jakintzan.

Hitzaurrean egileak oraingo filosofiaren beharra zein den adierazten du, eta gainera filosofia gutxiesten duten molde filosofikoen harrokeria eta larderia azaltzen du; halaber, filosofia eta haren ikasketaren betekizuna zertan datzan argitzen du».

[. . .]

Haatik, Hegelen lagun eta ingurukoengan, ia aho batez, «azaldutako antolaketa zientifikoak» «kaosa zirudien», hain zail eta ilun izan zitzairen *Fenomenologia*. Agian horregatik behar izan ziren ia bi urte Windischmann Hegelen ezagun batek idatzitako lehenengo aipamen zabala agertu arte, non iluntasunari buruzko kezkak eta laudorioak nahasten ziren. Baina hurrengo urtean, 1810ean, agertu zen Heidelberger Jahrbücheretan Bachmann Hegelen ikasle ohiak idatzitako aipamena, iritzi kanoniko bihurtuko zena. Gainera, 1812 eta 1816an agertu zen, bi liburukietan, *Logikaren Jakintza. Fenomenologia* eta *Logikari* esker Hegel lehenengo mailako filosofotzat hartu zuten, eta 1816an Heidelbergeko Unibertsitateak deitu zion katedradun bezala.

1812ko martxoan, zehazki bost urte igaro ziren *Fenomenologia* agertu zenetik, *Logikan* idatzitako Hitzaurrean *Fenomenologia* oraindik sistemaren sarrera *eta* haren lehen zatia zen. Dena dela, 1816tik aurrera sarrera honek, *Fenomenologiaren* amaieran aurkitutako kontzeptuaren ahalegin sistematikoan zetzanez, *Kontzeptuaren esperientziaren jakintza* –lehenengo izenburuaren arabera– ez zuen sistemaren «lehen zatia» izaten jarraituko, Logika sartuko zen zeregin honetan, ordea. Eta

Fenomenologiak, alde historikoa galduta, Antropologia eta Psikologia-ren arteko leku berezia hartuko zuen sistemaren hirugarren zatia-
ren hasieran. Horrela azaldu zen jada *Fenomenologia Logikaren Jakintza -*
ren bigarren liburukian (1816) nahiz Heidelbergeko *Entziklopedian*
(1817).

Hala ere, *Fenomenologiak* garrantzi sistematikoa eta bere
mamiaren zati handi bat galdu arren, Hegelek liburu hau beti maite izan
zuen. 1831n, justu hil baino lehen, berrargitaratzeko zuzenketak egiten
hasi zenean, hau idatzi zuen Hegelek :

Aitzineko lan bitxia,
ez ukitu; haren garaiarekin
lotutako Hitzaurrea. Absolutu abstraktuak
gainezka egin zuen orduan.

Izan ere, abstrakzioaren kontra askatasuna bere errealitatean
azaltzea izan zen *Fenomenologiak* saiatu zuena. Orduan, behin kon-
tzeptuzko zehaztasuna eta errealitate funtsezkoa lortuta, eskailera hau
ez zen beharrezkoa. Horrela azal liteke ohar berantiar hau.

Hasieran *Fenomenologiak* eragin txikia izan zuen arren, batez
ere Berlingo Historiaren filosofia orokorrari buruzko eta Zuzenbidea-
ren filosofiako eskolekin alderatzen bada, etorkizunean, batez ere
hogeigarren mendeko erdialdetik aurrera heldu zitzaion benetako adi-
pena eta oniritzia. Marx eta Bloch, Lukács, Kojève eta Fukuyama,
Wahl eta Gadamer, Heidegger, Derridak hizketa-gai zuten liburu hau
behin eta berriro. Gaur egun, berriz, behin eztabaida filosofiko hauen
garaia iraganda, ideologiak ere mediatikoak eta sinpleagoak bihurtu
dira. Errealitate modernoak, batez ere askatasunaren grina, betiko filo-
sofia espekulatiboarekin lotzean zetzan Hegelen lorpen nagusia. Egun,
«askatasuna» ideologikoki erabiltzen da, batez ere «Mendebaldeko»
gizarteak egonkortzeko, eta izen bezala agian handiegi deritzogu; his-
toriaren eta eguneroko zehaztasunek ez dute jadanik kontzeptu espek-
ulatiboen beharrik, baizik eta beren kontzeptu eta arrazoiketa bereziak
sortzen dituzte, garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigunak. Orduan,
Fenomenologiak bere estatus pribilegiatua galdu duen heinean, batez
ere ikasgai bihurtu da, nahiz eta, beste era batean, nolabaiteko garran-
tzia berreskuratu duen azken urteotan. Horregatik, bibliografian bi
liburu mota bereizten dira, gaur egun gailentzen diren azalpen literalak

eta hogeigarren mendearen erdialdean gailentzen ziren interpretazio askeak; amaieran, oraingo ekarpen nagusi batzuk ere aipatzen dira.

José María Ripalda

Oharrak

¹ *Fichteren eta Schellingin filoso - fia sistemen arteko desberdintasuna.* Frantsesez, *Différence entre les systèmes de Fichte et de Schelling* : G.W.F. Hegel *Premières publications*, M. Mér-ek itzulia.

Gap : Ophrys, 1964. Espainera bitan dago itzulita : *Diferencia entre el sistema de filosofía de Fichte y el de Schelling*. J.A. Rodríguez Tous (itz.). Madrid : Alianza, 1989. *Dife - rencia entre los sistema de filosofía de Fichte y de Schelling*. M^a C. Paredes (itz.). Madrid : Tecnos, 1990.

² 1795eko apirilaren 16an, Hegelek Schellingi bidalitako gutuna.

³ Ikusi Hegelek Schellingi 1795ean bidalitako hiru gutunak.

⁴ 3. liburuan, «Fedea» : *Fichte Gesamtausgabe*. I, 6. 285.

⁵ Hegelen *Correspondence* itzuli du frantsesera Jean Carrèrek (Paris : Gallimard, 1962. 3 liburuki). Aipatu - tako gutunak espainierara itzuliak daude : *Hegel. Escritos de juventud*. J. M^a Ripalda (itz.). Madrid, México : FCE, 1978.

⁶ Ikusi Oskar Negt, Alexander Kluge, *Öffentlichkeit und Erfahrung*. Zur Organisationsanalyse von bür

gerlicher und proletarischer Öffent - lichkeit. Frankfurt/M.: Suhrkamp, 1972. 456.

⁷ Ikusi Hegel, *Filosofía real*. J.M^a Ripaldak itzulia. Madrid, México : FCE, 1984. xlv. Han Gabler-ek kon - tatzen du oilaskoei buruzko Hegelen esaldi bitxia; *Fenomenologiako* I. kapituluaren amaieran antzeko zer - bait aurki daiteke Eleusiar misterio - ez.

⁸ Alemaniako ekialdean luteranis - moa batez ere apolitikoa zen bitarte - an, mendealdean espresuki politi - koa zen. Horrela, ekialdeko Fichtek Estatua polizialki ulertzen zuen bitartean, Hegelen arabera, berri - z, herriak bere jaraunspen politikoare - kiko adostasuna erabaki behar zuen. Ikusi Horst Althaus, *Hegel und die heroischen Jahre der Philosophie*. München, Wien: Hanser, 1992. 160.

⁹ Ikusi infra 16. oin-oharra.

¹⁰ Beste aldetik eta arrazoi beragatik Fichteren kontzientzia indartsuan eta kontzeptualki sistematikoan zein Schellingek proposatutako kontzien - tziaren dedukzio errealean oinarrit - zen da Hegelen egitasmoa, baita Kant urratzen hasi zen askatasunaren filosofian ere.

¹¹ Batez ere 1802an idatzitako *Zuzenbide naturala zientifikoki jorratzeko moduei buruz* eta *Etikotaren sistema* lanetan eta 1803ko klaseko apunte zabaletan. 1803/04 klaseko apunteetan kontzientzia, oraindik Schelling-en «Potenzen» eran garatzen den arren, lehentasuna lortzen joan zen Gogoaz azaltzeko.

¹² «Filosofia espekulatiboa: izate absolutua beste bihurtzen da (harremana), bizitza eta ezagupena; eta jakiten duen jakintza, Gogoaz, Gogok berari buruz duen jakintza» (*Filosofia erreala*. 232/35 - 233/2.) *Fenomenologiaren* 1. kapitulua «Izate absolutuari» dagokio ; 2.a, «harremanari» ; «bizitza» 3. kapituluaren amaieran agertzen da ; 4. kapitulua «ezagupenari» dagokio ; 5.a, «badakien jakintzari». «Gogoa», azkenik, 6. kapituluaren izenburua da eta 8.a «Gogoari berari buruzko jakintzarekin» bat dator.

¹³ *Fin del Clasicismo* liburuan (Madrid: Trotta, 1992) «berrezar-kuntza» erabili nuen, baino «berreraikuntzak» hobeto erakusten du «des-erai-kuntzarekin» kontrastea. Bi operazio filosofiko desberdinak kontrakoak nahiz funtzezkoak dira. Berreraikuntzak, kontzeptuen sistema zaharra erabiliz, esanahi berria ematen dio indarrez; deserai-kuntza, berriz, kontzeptuen sistema zaharra astinduz, askatasunerako esparru aske berriak lortzen saiatzen da.

¹⁴ 1816 arte ez zuen lortu Hegelek unibertsitatara itzultzea. Hori Heidelberg-en geratu zen, eta Friesen esanetara. Urte batzuk geroago, Friesek jazarpen politikoa pairatu zuen, eta Hegelek haren aurka egin zuen. Ikusi Jacques D'Hondt, *Hegel*. Paris: Calman-Lévy, 1998 (Barcelona: Tusquets, 2002). 15. kap.

¹⁵ Gablerren txosten berantiarren arabera, Hegelek *Fenomenologia* 1806ko udako seihilekoan zeukan guztiz antolatuta. Orriak inprimatu ahala banatzen omen zituen Hegelek ikasleen artean Ikusi, *Filosofia erreala*. Sarrera, xlv.

¹⁶ Hori geratuko da behin betiko izenburu gisa, jakintzaren sistemaren lehen zati bezala. Hasieran aurreikusitako titulua, «Lehen zatia, Kontzientziaren esperientziaren zientzia», desagertu egin zen eta obraren mugak zabaldu egin ziren historia osoa besarkatuz. (Ikusi edizio kritikoaren argitaratzaileen txostena). Behin betiko izenburua hau izan zen azkenean: *Jakintzaren Sistema. Lehen zatia, Gogoaren Fenomenologia*.

¹⁷ Aurkezpen hau hiru aldiz ageri zen berriro 1807ko otsailaren eta azaroaren artean egunkari honetan eta beste aldizkari batzuetan.

¹⁸ Izan ere, liburu osoaren izenburua *Jakintzaren sistema* zen, eta beste liburu batek osatzen zuen, Logika, Natur Zientzia eta Gogoaren Jakintza jasotzen zituen liburu batek.

Bibliografia

1. ITZULPENAK

1. JEAN HYPPOLITE: G.W.F. Hegel, *Phénoménologie de l'esprit*. 2 ts. Paris : Aubier, 1939-1941.

Ez da itzulpen zehatzena, baina ulergarritasuna bereziki zaintzen duenez, erabilgarria da, batez ere Hypoliteren iruzkina (ik. beherago) erabiltzen bada.

2. JEAN-PIERRE LEFEBVRE : G.W.F. Hegel, *Phénoménologie de l'esprit*. Paris : Aubier, 1991.

3. GWENDOLINE JARCZYK eta PIERRE-JEAN LABARRIÈRE : G.W.F. Hegel, *Phénoménologie de l'esprit*. Paris : Gallimard, 1993.

Aldi berean idatzitako bi itzulpen berriago hauen artean Lefebvrerena dotoreagoa, Jarczyk-Labbarrièrerena zehatzagoa da.

4. WENCESLAO ROCES : G.W.F. Hegel, *Fenomenología del Espíritu*. México : Fondo de Cultura Económica, ¹1966.

Terminologikoki ez da zehatza, ezta oso ulergarria ere.

2. AZALPEN LITERALAK

1. JEAN HYPPOLITE, *Genèse et structure de la «Phénoménologie de l'Esprit» de Hegel*. Paris : Aubier, 1946.

Hypoliteren doktorego tesia zenez, ez zen bere ikerketa onena.

1 bis. JEAN HYPPOLITE, *Génesis y estructura de la «Fenomenología del Espíritu» de Hegel*. F. Fernández Buey-ek itzulia. Barcelona : Península, 1974.

2. Ramón Valls Plana, *Del yo al nosotros*. (Lectura de la Fenomenología del Espíritu de Hegel.) ¹Barcelona : Estela, 1971.

Azalpen hau ere doktorego tesia zen eta laguntza mugatu batzuk besterik ez ditu eskaintzen.

3. PIERRE-JEAN LABARRIÈRE, *Structures et mouvement dialectique dans la «Phénoménologie de l'Esprit»*. Paris : Aubier, 1968.

Egitura diskurtsiboa ondo aztertzen du, nahiz eta agian Hegel baino «hobeto» eta zorrotzago.

4. PIERRE-JEAN LABARRIÈRE, *La Phénoménologie de l'Esprit*. Introduction à une lecture. Paris : Aubier, 1979.

Laburra, baina erabilgarria.

4 bis. PIERRE-JEAN LABARRIÈRE, *La Fenomenología del Espíritu de Hegel*. Introducción a una lectura. G. Hiratak itzulia. México : Fondo de Cultura, 1985.

AZALPEN BERRIAK ALEMANEZ :

5. D. KÖHLER, O. PÖGgeler (eds.), *G.W.F. Hegel. Phänomenologie des Geistes*. Berlin : Akademie, 1998.

6. LUDWIG SIEP, *Der Weg der Phänomenologie des Geistes*. Ein einführender Kommentar zu Hegels >Differenzschrift< und >Phänomenologie des Geistes<. Frankfurt : Suhrkamp, 2000.

3. IRUZKIN KLASIKO BATZUK

1. JEAN WAHL, *Le malheur de la conscience dans la philosophie de Hegel*. Paris 1929.

Fenomenologiaren 4. kapituluaren azken zatian aurkitu ei zuen Wahlek Hegelen filosofiaren mamia. Iruzkina intuitiboa eta espiritualista da.

2. ALEXANDRE KOJÈVE, *Introduction à la lecture de Hegel*. Leçons sur la «Phénoménologie de l'Esprit» professées de 1933-39 à l'école des Hautes Études. Ed. R. Queneau. Paris : Gallimard, 1947.

Fenomenologiaren zati handia azaltzen du, baina batez ere 4. kapituluaren agertzen den nagusia eta morroiaren gaiari egindako iruzkinak oso famatuak ziren. Originala, existentzialismoaren eta marxismoaren arteko garai baten emaitza tipikoa.

2 bis. ALEXANDRE KOJÈVE, *La dialéctica del amo y el esclavo en Hegel*. Buenos Aires : Pléyade, 1965.

3. GYÖRGY LUKÁCS, *Le jeune Hegel*. Paris : Gallimard, 1981.

1938an idatzia, baina II. Munduko Gudaren ondorioz 1948 argitaratua. Nahiz eta 4. kapitulua soilik *Fenomenologiaren* aritu, II. Liburuki osoa interesgarria da horretaz.

3 bis. GYÖRGY LUKÁCS, *El joven Hegel y los problemas de la sociedad capitalista*. M. Sacristán-ek itzulia. Barcelona : Grijalbo, 1969.

4. ERNST BLOCH, *Sujeto-Objeto* (El pensamiento de Hegel.) W. Roces-ek e. a.ek itzulia. México, Madrid : Fondo de Cultura, 2^a 1982.

II. Munduko Gudan idatzita, 1949an agertu zen espainieraz, 1962an alemanez. VII. Kapituluak *Fenomenologiaren* aritzen da.

4 bis. ERNST BLOCH, *Sujet-Objet*. Paris : Gallimard, 1977.

IRUZKIN BERRI BATZUK

5. SLAVOJ ZIZEK, *The Ticklish Subject* : A Treatise in Political Ontology. London, New York: Verso, 2000.

5 bis. SLAVOJ ZIZEK, *Die Tücke des Subjekts*. Frankfurt : Suhrkamp, 2001.

5 ter. SLAVOJ ZIZEK, *El espinoso sujeto*. El centro ausente de la ontología política. J. Piatigorskyk itzulia. Buenos Aires : Paidós, 2001.

Itzulpen akats gogaikarri batzuk.

6. SLAVOJ ZIZEK, *Der erhabenste aller Hysteriker*. Lacans Rückkehr zu Hegel. Wien, Berlin : Turia & Kant, 1991.

EGILEAREN HITZAURREA

Ohi denez idazki baten aurretik autoreak bertan duen helburuari buruz hitzaurre bat jartzea argipen gisa, baita idazkiaren jatorriari eta haren ustez idazkiak gai beraren aurreko edo egungo ikuspegiekin omen duen harremanari buruz ere, idazki filosofiko baten kasuan alferrikakoa ez ezik, badirudi gainera gaiaren beraren izaera dela eta desgokia eta helburuaren beraren aurkakoa dela. Izan ere, filosofiaz hitzaurre batean egokiro esan daitekeena eta esateko modua bera, adibidez, joera eta ikuspuntuaren, eduki orokorraren eta emaitzen *adierazpen* historikoa, egiari buruzko baieztapen eta ziurtapen aldakorren lotura, ezin daiteke onartu egia filosofikoa aurkezteko eratzat. Gainera, filosofia zerizanez berezi-dena bere baitan jasotzen duen orokortasunaren barne dagoenez, bertan beste jakintzetan baino sarriago sortzen da lilura hau, alegia, gaia bera helburuan edo azken emaitzetan adieraziko litzatekeela eta, gainera, bere zerizan betean, horren aurrean egitaritzapena benetan zerizangabe-dena izaki. Adibidez, anatomia orokorrean zer den bururatzean, alegia, gorputzaren zatien ezagutza euren izate bizigabearen arabera kontsideratuta, konbentzituta gaude gaia bera, jakintza horren edukia, ez dugula gureganatu, baizik eta gainera berezi-dena lortzen ahalegindu behar dugula. - Horrez gain, jakintza izena izatea zilegi ez zaion halako ezagutzen agregatuan helburua eta halako orokortasunei buruzko elkarrizketa ez da bereizten edukitik, zain, gihar, eta abarrei buruz ere hitz egiten den modu historiko eta adi-

gaigabekotik. Filosofian, aitzitik, halako desberdintasuna sortuko litza-teke, alegia, halako modu batez usu egitea eta hala ere hori egia bilatzeke ezgaitzat jotzea.

Lan filosofiko batek gai berdinari buruzko beste ahaleginekin omen duen harremanaren determinazioaren bitartez ere interes arrotza erakartzen da eta egiaren ezagutzaren kontua iluntzen da. Egia-dena eta okerra-denaren aurkakotasuna iritzi irmo bihurtzen den mailan berean espero du iritziak aurreko sistema filosofiko baten onarpena edo kontraesana, eta halako bati buruzko argipenean bata edo bestea soilik ikustea. Ez du sistema filosofikoen arteko ezberdintasuna egiaren garapen aurrerakorra gisa hartzen, baizik eta ezberdintasunean kontraesana soilik ikusten du. Pipila desagertu egiten da lorea sortzean, eta esan daiteke horrek hura kontraesaten duela; era berean, fruituaren bitartez lorea landarearen izate faltsu gisa agertzen da, eta hori dator haren orde, haren egia gisa. Forma horiek ez dira ezberdinak soilik, baizik eta elkar baztertzen dira elkargaitz balira bezala. Baina euren izaera jariakorrak aldi berean batasun organikoaren une bihurtzen ditu, non ez soilik ez diren aurkakotzen, baizik eta bata bestea bezain beharrezkoa den, eta beharrezkotasun berdin horrek soilik osatzen du osokiaren bizitza. Baina sistema filosofiko bat kontraesatea alde ez da ulertzen era horretara, alde kontzientzia ulertzaileak arrunki ez du jakiten aldebakartasun horretatik askatzen edo aske mantentzen eta gatazkan eta itxuraz aurkakotzen denaren forman elkar beharrezkoak diren uneak berrezagutzen.

Halako argipenak eskatzea eta horiek asebetetzea erraz jotzen da zerizanezko-denaren jorraketa gisa. Non azal daiteke hobekien idazki filosofiko baten barne-barnekoa horren xede eta emaitzetan ez bada, eta zeren bitartez ezagut daitezke horiek zehazkiago garaiak eremu berean sortzen duenarekiko ezberdintasunaren bitartez ez bada? Baina halako egitea ezagutzearen hasiera baino gehiagotzat hartu behar bada, egiazko ezagutzetaz hartu behar bada, egitatean gaia bera saihesteko eta seriotasunaren eta ahaleginaren itxura hauen aurrezpenarekin lotzen dituzten asmakizunen artean hartu behar da. - Izan ere, gaia ez da bere *xedean* agortzen, baizik eta bere *osaketan*, era berean *emaitza* ez da *egiazko* osokia, baizik eta bere bilakaerarekin batera; berbaitarako xedea orokor-den bizigabea da, joera bere errealitatea falta zaion bul-tzada den bezalaxe, eta emaitza gordina joerak atzean uztean duen gor-

pua. - Era berean *ezberdintasuna* are gehiago da gaiaren *muga*; gaiak izateari uzten dion tokian da, edo gaia bera ez dena da. Halako ahaleginak egitea xedearekin edo emaitzekin, eta ezberdintasunekin eta batarren eta bestearen juzgaketarekin, beraz, dirudiena baino lan errazagoa da. Izan ere, gaia beraz jardun beharren halako egitea beti hartaz haraindi doa; bertan iraun beharrean eta bere burua bertan ahaztu beharrean, halako jakiteak Beste zerbait atzematen du eta, hala ere, bere baitan geratzen da, gaiaren baitan izan beharrean eta horri lotu beharrean. - Errazena edukia eta irmotasuna duena juzgatzea da, zailagoa da hori ulertzea, eta zailena biak batzen dituen da, horren aurkezpena ekoiztea.

Garapenaren eta bizitza substantzialaren bitartegabekotasunetik ateratzearen hasiera beti printzipio eta ikuspuntu *orokorren* ezagutzak bereganatuz egiten da, norbera *oroharrezko* gaiaren *pentasamendura* goratzearen bitartez eta oinarrien bidez sustatu edo errefusatzuz, betetasun konkretu eta aberatsa determinatutasunen bidez ulertuz, eta beraz, informazio zuzena izanez eta, beraz, judizio serioa emanez. Garapenaren hasiera horrek, ordean, lehen eta behin, bizitza betearen seriotasunari egingo dio lekua, zeina gaiaren esperientzian barneratzen den, eta gainera adigaiaren seriotasuna gaiaren sakonera goratzen bada, halako ezagutzak eta juzgaketak dagokion lekua gordeko du elkarriketan.

Egiaren egiazko tankera bere jakintza-sistema soilik izan daiteke. Nire asmoa filosofia jakintzaren formara hurbiltzeko lan egitea da, *jakintzaren maitasuna* izena utzi eta *egiazko jakintza* izateko helburura. Jakitea jakintza izateko barne beharrezkotasuna jakintzaren izaeran datza, eta horretaz eman daitekeen argipen gogobetegarria filosofiaren beraren aurkezpena da. *Kanpoko* beharrezkotasuna, ordean, pertsonaren eta banakako inguruabarren ausazkotasuna alde batera utziz, modu orokor batean ulertzen den heinean, *barnekoaren* berdina da, baina denborak bere uneen hor-izatea errepresentatzeko duen tankeran, hain zuzen. Filosofia jakintzara goratzeko denbora iritsi dela erakustea, beraz, xede hau duten saiakera guztien egiazko legeztapen bakarra litzateke, zeren horren beharrezkotasuna adierazi ez ezik aldi berean hori garatu ere egingo bailuke.

Egiaren egiazko tankera jakintzazkotasun horretan ezartzen den heinean, edo, berbera dena, baieztatzen den heinean egiak *adigai*an soilik duela bere existentziaren osagaia, badakit itxuraz hori kontraesane-

an dagoela hantuste izugarria nahiz garaiko konbentzimenduan zabalpen handia duen errepresentazio batekin eta bere ondorioekin. Kontraesan hori argitzeak ez dirudi alferrikakoa, beraz; nahiz eta hemen ezin duen izan baieztapen bat baino, horrek aurka egiten diona bezalakoa. Baldin eta, hain zuzen, egia-dena behin begiespen, behin absolutudenaren bitartegabeko jakite, erlijio, izate (ez jainkotiar maitasunaren erdigunean, baizik bere izate bera) deitzen denean edo, are hobeto, horrela deitzen dena bezala soilik existitzen bada, orduan horrela aldi berean are gehiago eskatzen da filosofiaren aurkezpenerako adigaiaren formaren aurkakoa. Absolutu-dena ez litzateke aditu behar, baizik eta sentitu eta begietsi, horren sentimenduak eta begiespenak lukete hitza eta horiek ahoskatu beharko lirateke, ez bere adigaia.

Horrelako eskakizun baten agerpena bere testuinguru orokorren arabera ulertzen bada, eta egun *norberaren buruaz jabetzen den gogoak* hartzen duen mailari begiratzen bazaio, orduan hori pentsamenduaren barne daraman bizitza substantzialaz haraindi dago, bere sinestearen bitartegabekotasunaz haraindi, kontzientziak zerizanaren eta bere barne eta kanpoko orainaldiarekin berradiskidetzeaz zuen ziurtasunaren asegarritasun eta segurtasunaz haraindi. Ez da soilik hartaz gaindi joan, norberaren substantziagabeko islapenaren beste muturrera, baizik eta horretaz haraindi ere bai. Bere zerizanezko bizitza galtzeaz gain galtze horretaz eta bere edukia den mugatasunaz jabetzen da. Kasikaletatik aldentuz, bere beherapena onartuz eta horregatik lotsatuz, gogoak filosofiari ez dio hainbeste eskatzen nor *den jakitea*, baizik eta horren bitartez berriro substantziatasun hura eta izatearen irmotasuna sortzera iristea. Premia horri ez dio aurre egingo hainbeste substantziaren giltzapeko itxitura irekiz, eta bera autokontzientziara goratuz; ez hainbeste bere kontzientzia kaotikoa ordena pentsatura eta adigaiaren sinpletasunera itzularaziz, baizik eta pentsamenduaren banaketak osatuz, adigai ezberdintzailea zapalduz eta zerizanaren *sentimendua* sortuz, ez *ulermena* baizik eta *onbiderapena* emanaz. Ederra-dena, santudena, betiko-dena, erlijioa eta maitasuna hoska egiteko gogoia pizteko garnata dira; ez adigaia, baizik eta estasia, ez gauzaren beharrezkotasun aurrerakor hotza, baizik eta gogobizi hartzigarriak izan beharko luke substantziaren erresumaren sostengu eta zabalpen aurrerakorra.

Eskakizun horri erantzuten dio ahalegin neketsu eta sutsu eta zirraraz beteak gizakiak sentipenezko-den, arrunt-den eta bakan-dene-

an hondoratuta izatetik ateratzeko eta euren begirada izarretara zuzentzeko; jainkotiar-dena erabat ahazturik, gizakiak hautsarekin eta urarekin asetzeko prest baleude bezala, harren gisara. Lehen gizakiek pentsamenduen eta irudien aberastasun zabalekin hornitutako zerua zuten. Den guztiaren esanahia hori zerura lotzen zuen argizko harian zetzan; bertan, orainaldia *horretan* geratu beharrean, begirada harantzago joaten zen, jainkotiar zerizanera, haratagoko orainaldi batera, horrela esan badaiteke. Gogoaren begia behartuta zuzentzen zen lurtar-denera eta bertan lotzen zen, eta denbora oso luzea behar izan zen lurgainekodena zuen argitasun hura hemengo-denaren zentzua jasotzen duen moteltasun eta nahasmenera ekartzeko, eta orainaldiari hala gisa zaion arreta, *esperientzia* deitu zena, interesgarri eta balioudun bihurtzeko. - Orain badirudi aurkakoaren beharra dagoela, zentzua lurtar-denean hainbeste errotzea, non bortxa bera behar baita, hura hortik goratzeko. Gogo hain txiro azaltzen da, non basamortuko ibiltaria tragoxka bat uren irrikan dagoen bezala bera jainkotiar-denaren sentimendu ahularen irrikan dagoela baitirudi freskatzeko. Horrexek asebetetzen du gogo eta horren arabera neurtu behar da horren galeraren handiera.

Hala ere, jasotzearen urritasun edo ematearen zuhurtasun hori ez dagokio jakintzari. Onberatasuna baino bilatzen ez duenak, bere izatearen eta pentsamenduen aniztasun lurtarra laino artean ezkutatu eta jainkotasun determinatugabekoaren gozamen determinatugabea eskatzen duenak ikus dezala hori non aurkituko duen; erraz aurkituko du bere burua gogoberotzeko eta goratzeko bitartekoa. Filosofiak, ordea, onbera izateko nahitik babestu behar du bere burua.

Jakintzari muzin egiten dion urritasun horrek are gutxiago izan behar du honako uzia, alegia, gogoberotasun eta sorgortasun hori jakintza baino gehiago izatea. Hitz egite era profetiko horrek uste du erdigunean eta sakonean geratzen dela zehazki, determinatutasunari (*horo* - *sa*) mespretxuz begiratzen dio, eta adigaitik eta beharrezkotasunetik urrun geratzen da, baita hausnarketatik ere, zeinak mugatasunean baino ez duen etxea. Baina zabaltasun kaskala dagoen bezala, sakontasun kaskala ere badago, aniztasun mugatuan barreiatzen den substantziaren hedadura bezala, aniztasun hori guztia biltzeko indarririk gabe; era berean edukirik gabeko intentsitatea dago, azalkeria baino ez dena, hedaturarik gabeko indarra besterik ez denez. Gogoaren indarra bere adierazpena bezain handia da, horren sakontasuna bere interpretazioan zabal-

tzera eta bere burua galtzera ausartzen den adinakoa. - Aldi berean, adigabeko jakite substantzial hori harrotzen denean norberaren berezitasuna zerizanean hondoratu duelako eta egiaz eta santuki filosofatzen duelako, egia ezkutatzen dio bere buruari: neurriaren eta determinazioaren mespretxua dela eta Jainkoari eman ordeztu bere baita onartzen duela orain edukiaren ausazkotasuna, orain norberaren apeta. - Substantziaren hartzigarri askatuari ematen zaizkion heinean, uste dute autokontzientziaren ezkutaketa eta adimenaren uzketaren bitartez Jainkoak lotan daudenean jakintasuna ematen *dien horiek* direla; egitatean horrela lotan jasotzen eta sortzen dutena, beraz, ametsak baino ez dira.

Gainera, ez da zaila ikustea gure garaia denbora berri baten jaiotza eta horretarako igarobidea dela. Gogoak bere izatearen eta errepresentatzearen gaurko mundua hautsi du eta prest dago lehenaldian murgiltzeko, eta bere eraldaketaren lanean ari da. Noski, inoiz ez dago geldi, baizik eta beti ere higidura aurrerakorrean dabil. Baina haurrarekin bezala, elikadura luze eta lasaiaren ondoren lehen arnasketak aurreabide gehigarria soilik zena mozten du (jauzi kualitatiboa) eta orain haurra jaio da, horrelaxe heltzen da eratzen ari den gogoak poliki eta lasai tankera berrirantz, bere aurreko *munduaren* zatitxoak desagertarazten ditu bat bestearen atzetik, bere higidura sintoma banakoen bidez nabarmentzen doa; utzikeria eta asperkeria, irauten duenean sartzen direnak, ezezagun baten susmo indeterminatua, aldagetaren aurrekariak dira. Pixkanakako pitzadura hori, osokiaren fisionomia aldatzen ez zuena, mundu berriaren irudia dakarren egunsentiak mozten du bat-batean tximistak egiten duen moduan.

Baina berritasun horrek ez du errealitate osorik, oraintxe jaiotako haurrak ez duen bezalaxe; eta hori ezin da inolaz ere kontuan hartu gabe utzi. Lehen agerpena lehenik bere bitartegabekotasuna edo bere adigaia da. Eraikin bat bere oinarria ezartzean osatua ez dagoen legez, osokiaz lortu den adigaia ez da osokia bera. Haritza ikusi nahi dugunean bere enborraren indarrarekin, bere adarren hedadurarekin eta bere hostoen neurriarekin, ez gaude gustura bere ordeztu ezkurra erakusten bazaigu. Horrela, jakintza, gogoaren munduaren koroa, ez da osatzen bere hasieran. Gogo berriaren hasiera eraketa-forma anitzen iraultza zabal baten produktua da, bide oso bihurri eta neke eta ahalegin anitzen saria. Hurrenkeratik eta hedaduratik abiatuta bere baitara itzultzen den osokia da, horren *adigai sinple* bihurtua. Osoki sinple horren errealita-

tea, ordea, zera da: une bihurtu diren tankera haiek zentzu berrian garatu eta tankera berria hartzen dutela berorien osagai berrian.

Alde batetik, mundu berriaren lehen agerpena lehenik bere *sinpletasunean* ezkatututako osokia edo bere oinarri orokorra den heinean, kontzientziak gogoan du oraindik aurreko izatearen aberastasuna. Berri agertzen den tankeran edukiaren zabalpenaren eta berezitasunaren falta sentitzen du; are gehiago formaren garapena, horren bitartez ziurki ezberdintasunak determinatu eta harreman irmoetan ordenatzen baitira. Garapen hori gabe jakintzak ez du *ulergarritasun* orokorrik, eta banako batzuen jabetza esoterikoa dirudi; jabetza esoterikoa, bai, bere adigaian edo bere barnean soilik agertzen baita; banako batzuk, bai, bere hedadurarik gabeko agerpenak bere izatea banako bihurtzen baitu. Bete-beteen determinatua dena soilik da aldi berean exoterikoa, adigarria, eta ikasia izateko eta denon jabetza izateko gai. Jakintzaren forma ulergarria denontzat irekia eta denontzat berdina den bidea da hartara iristeko, eta jakintzara hurbiltzen den kontzientziaren eskakizun zuzena da adimenaren bitartez arrazoizko jakitera iristea; izan ere, adimena pentsatzea da, nia hutsa oro har; eta adigarri-dena jada ezagutzen-dena eta jakintzak eta kontzientzia ez-zientifikoak komun dutena, zeinaren bitartez azken horrek beste hartara sarbidea baitu bitartegabe.

Hastapenetan dagoen jakintzak, beraz, ez xehetasunaren osotasunera ezta formaren betetasunera ere iritsi ez denak, gaitzespenak jasotzeko arriskua du. Baina horrek bere zerizana ukitu behar badu, hori ez litzateke zilegi, garapen haren eskakizuna berrezagutu nahi ez izatea onartezina den bezalaxe. Badirudi aurkakotza hori dela egungo garapen zientifikoaren ahaleginaren funtsezko gakoa, oraindik egokiro ulertzen ez duena. Atal batek materialen aberastasuna eta adigarritasuna goraipatzen ditu, besteak horiek gutxienez mespretxatzen ditu eta bitartegabeko arrazoizkotasuna eta jainkotasuna goraipatzen ditu. Lehen atal hura isilarazten badute, egiaren indar soilaren bidez edo beskeen oldarraren bidez, eta gaiaren oinarria gailentzen zaiola sentitzen badu, ez da horregatik eskakizun haiei dagokienez asetu; izan ere, zuzenak baitira, baina ez beteak. Horren isiltasuna aldez garaipenetik dator, eta aldez asperkeria eta axolagabekeriatik, jarraikorki pizten den itxaropena eta aginduak ez betetzearen emaitzak izan ohi direnetatik.

Edukiari dagokionez, besteek noizean behin oso erraz lortzen dute hedapen handia izatea. Material kopuru handia ekartzen dute

euren zorura, hau da, jada ezagun-dena eta ordenatu-dena, eta batez ere berezitasunekin eta bitxikeriekin zer ikusia duten heinean, badirudi jakiteak jada landu duen gainerakoa ere badutela, eta aldi berean oraindik antolatu ez denaren maisu direla, eta horrenbestez badirudi dena ideia absolutuari menperatzen zaiola, zeina horrela gauza denen ezagun den eta jakintza zabaldura iritsi den. Baina hedapen hori hurbilagotik begiratzen bada, ikusten da ez dela sortu zera bat eta berberak bere buruari tankera ezberdina eman diolako, baizik eta hura bat eta berberaren errepikapen tankeragabea da, material ezberdinari kanpotik aplikatzen zaiona eta ezberdintasunaren itxura aspertua duena. Bere baitarako egiazkoa den ideia egitatean beti ere bere hasieran geratzen da, garapena formula berberaren halako errepikapena besterik ez bada. Subjektu jakitunak forma higigaitz bat aurrean duenaren inguruan higitzen badu, materiala osagai geldikor horretan kanpotik sartzen bada, hori dena ez da eskatzen denaren osaketa, edukiari buruzko burutazio nahierazkoak ez diren bezala, alegia, bere baitatik sortzen den aberastasuna eta bere burua determinatzen duen tankera-bereizketa. Aitzitik, kolore bakarreko formalismoa da, materialaren bereizketara soilik iristen dena, eta gainera, hori jada prestatua eta ezaguna delako.

Hala ere, monotonia hori eta orokortasun abstraktua absolutu-dentzat hartzen ditu; eta beraz, esaten du ezen dugun asegaiztasuna ikuspuntu absolutua hartzeko eta bertan irauteko ezgaitasuna dela. Nahiz eta beste kasuetan nahikoa zen zerbait beste era batera errepresentatzea errepresentazio bat errefusatzeko, eta ahalgarritasun huts berberak, pentsamendu orokorrak, gainera ezagutze errearen balio positibo osoa zuen, hemen ikusten dugu era berean ideia orokorrari egozten zaiola balio dena errealitate-ezaren forma horretan, eta ikusten dugu ezberdindua eta determinatua izan denaren desegiteak edo, are gehiago, garatu ez den eta legeztatu ezin daitekeena ezerezaren leizera baztertzek ikuskera espekulatibo gisa balio dutela. Edozein horizate *absolutu-denean* bezala kontsideratzea ez da hemen beraz zerbait gisa hitz egiten dela baino esatea; baina absolutu-denean, zeinarentzat $A=A$, ez dago horrelakorik, baizik eta bertan dena bat da. Jakite jakin hori, hots, absolutu-denean dena berdina dela, ezagutza bereizle eta beteari edo beteketaren bila eta eske dabilen ezagutzari aurkakotzea (edo bere *absolutu-dena*, esan ohi denez, behi guztiak beltz bihurtzen dituen gautzat hartzea) ezerezaren inozotasuna da ezagutzan. - Filosofia berrienak

salatzen eta mespretxatzen duen formalismoa, bere baitan behin eta berriz sortzen dena, ez da desagertuko jakintzatik, nahiz eta bere eznahikotasuna ezagutu eta sentitu, harik eta errealtate absolutuaren ezagutzeak bere izaera erabat argi ulertu arte. - Kontuan izanik errepresentazio orokorra bere garapenaren saio baten aurretik joateak horren ulermenaren errazten duela, baliagarria da hemen hori gutxi gora-behera aurkeztea, aldi berean ohitura bihurtu diren formak baztertzeko asmoa izanik, ezagutze filosofikoarentzat oztopoa direnez.

Nire ulermenaren arabera, zeina sistemaren aurkezpenak soilik legeztatu behar duen, kontua egia-dena ez *substantzia* gisa, baizik eta era berean *subjektu* gisa ulertu eta azaltzea da. Aldi berean ohartu behar da substantziatasunak bere barnean jasotzen duela orokor-dena, edo *jakintzaren bitartegabekotasuna*, edo baita *izatea* edo *jakintzarako bitartegabekotasuna* ere. - Jainkoa substantzia bakar gisa ulertzeak determinazio hori adierazi zuen garaia sumindu bazuen, horren oinarria aldeztu izan zen horrela autokontzientzia hondoratu eta mantentzen ez zelako sena, aldeztu ordea aurkakoa, pentsatzea pentsatze gisa mantentzen duena, *orokortasuna* bere horretan, sinpletasun berbera edo substantziatasun bereizgabea, higitasuna; eta hirugarrenik, pentsatzeak substantziaren izatea berekin batzen badu eta bitartegabekotasuna edo begiestea pentsatze gisa ulertzen badu, kontua izango da adimenduaren begiestea hori ez ote den berriro sinpletasun bizigabearen eroriko eta errealtatea bera ez ote duen era irrealen aurkeztuko.

Substantzia bizia gainera izatea da, zeina egiatan *subjektua* den, edo berbera esan nahi duena, egiatan erreala den, norbere buruaren ezarpenaren higidura edo bestelakotzearen bitartekotza den heinean. Subjektu gisa *negatibotasun sinple* hutsa da, eta horrenbestez, sinple-denaren bitan banatzea, edo bikoizketa aurkakotua, zeina era berean ezberdintasun axolagabe horren eta bere aurkakoaren negazioa den; egia-dena *berriro sortzen den* berdintasuna edo bere baitarako islapena da beste izatean, ez *jatorrizko* batasuna bere horretan, edo batasun *bitartegabekoa* bere horretan. Norbere buruaren garapena da, itzulintzaren, bere amaiera bere xede gisa aurreuposatzen duena eta hasiera gisa duena eta bere egikaritzan eta amaieran baino ez dena erreala.

Jainkoaren bizitza eta jainkotiar ezagutza maitasunak bere buruarekin duen joko gisa azal daitezke; ideia hori, ordea, eraikigarritasunean hondoratzen da, baita gezatasunean ere, negatibo-denaren

seriotasuna, mina, egonarria eta lana falta direnean. *Bere baitan* bizitza hura norbere buruarekiko berdintasun eta batasun lasaia da, bestelako izatearen eta bestelakotze horren gaindipena serio hartzen ez duena. Baina *berbaitan* hori orokortasun abstraktua da, non *bere baitarako izateko* natura eta formaren auto-higidura alde batera uzten den. Forma zerizanarekin bateratzen bada, orduan horregatik gaizkiulertua da iriztea ezen ezagutzea berbaitanarekin edo zerizanarekin asetzen dela eta hark forma alde batera utz dezakeela; printzipio absolutuak edo begiespen absolutuak lehenaren egikaritzapena edo bestearen garapenaren beharra ezabatzen dutela. Hain zuzen forma zerizanari bere burua bezain zerizanezkoa zaiolako, ezin da ulertu eta adierazi zerizan gisa soilik, hau da, substantzia bitartegabeko gisa, edo jainkotiar-denaren autobegiespen huts gisa, baizik eta era berean *forma* gisa eta forma garatuaren aberastasun osoan; horren bidez ulertzen eta adierazten da lehenik erreal-dena gisa.

Egia-dena osokia da. Osokia, ordea, bere garapenaren bidez osatzen doan zerizana da. Absolutuaz esan behar da funtsean *emaitza* dela, *amaieran* dela egiatan dena; eta honetan datza bere natura: errelkia, subjektua edo norbere garapena izatea. Absolutu-dena zerizanez emaitza gisa ulertu beharrak hain kontraesankorra badirudi ere, hausnarrekta txiki batek zuzentzen du kontraesan hori. Hasiera, printzipioa edo absolutu-dena, hasieran eta bitartegabeki adierazten denez, orokor-dena soilik da. Abere *oro* esatean hitz horrek zoologiatzat balio ez duen bezala, jainkotiar-denaren, absolutu-denaren, betiko-denaren eta abarren hitzek ere ez dute adierazten beraietan barnebildua dagoena; eta halako hitzek soilik adierazten dute egitatean begiespena bitartegabedena bezala. Halako hitza baino gehiago denak, esakune batera igarobidea besterik ez bada ere, *beste-bihurtze* bat barnebiltzen du, bere baitan jaso behar duena, bitartekotza bat. Baina horixe da izuz beteta ukatzen dena, ezagutza absolutua utziko balitz bezala bitartekotza hau baino gehiago bihurtzean, absolutu-den ezer eta absolutu-denean ezer ez dela.

Hala ere, izu hori egitatean bitartekotzaren eta ezagutze absolutuaren izaera ezagutzen ez delako sortzen da. Izan ere, bitartekotza ez da higitzen den norbere buruarekin berdintasuna baino, eta bere baitara islatzea da, berbaitarako niaren unea, negatibotasun hutsa edo, bere abstrakzio hutsera behetitura, *bilakatzeko sinplea*. Nia, edo garatzea oro

har, bitartekotze hori bere sinpletasunaren kariaz garatzen den bitartegabekotasuna eta bitartegabe-den bera da. - Arrazoimena ezezagutzea da, beraz, hausnarketa egia-denetik baztertu eta ez bada absolutu-denaren une positibo gisa ulertzen. Horrek bihurtzen du egia-dena emaitza, baina era berean bere garatzearekin aurkakotasuna ere gaingitzen du, garatze hori era berean sinplea baita eta horregatik egia-denaren formatik ez da bereizten, alegia, emaitzan *sinple* gisa azaltzetik; aitzitik, sinpletasunera itzuli-izan hori da. - Enbrioia *bere baitan* gizakia bada, ez da ordea *bere baitarako*; bere baitarako izango da arrazoimen landu gisa, hori *bere baitan* dena *bihurtu* duena. Hau da lehenik eta behin bere errealitatea. Baina emaitza hori bera bitartegabekotasun sinplea da, askatasun autokontzientea baita, bere baitan oin hartzen duena, eta aurkakotza baztertu eta alboan utzi beharrean berriro horrekin adiskidetu dena.

Esandakoa honela ere adieraz daiteke: arrazoimena *ekintza xededuna* da. Ustezko natura pentsatze ezezagutuaren gainera gora-
ketak eta bereziki kanpoko xedetasunaren debekuak *xedearen* formak oro har izena galtzea eragin dute. Hala ere, *Aristotelesek* ere natura ekintza xededun gisa determinatu duenez, xedea bitartegabe-dena da, *geldi dagoena*, *berez higitzailea* den higitaitz-dena; beraz, *subjektua* da. Higitzeko duen indarra, abstraktuki hartuta, *berbaitarako izatea* da edo negatibotasun hutsa. Emaitza hasieran berbera da *hasiera xedea* delako; edo erreala-dena bere adigaiaren berbera da, bitartegabe-denak xede gisa norbera edo errealitate hutsa bere baitan daukalako. Xede egikaritua edo baden erreal-dena higidura da eta garatze hedatua; ezinegon hori bera da norbera, eta hasieraren bitartegabekotasun eta sinpletasun hura berbera dira, zeren hori emaitza baita, bere baitara itzuli-dena, eta bere baitara itzuli-dena norbera da, eta norbera bere buruarekin harremantzen diren berdintasuna eta sinpletasuna da.

Absolutu-dena *subjektu* gisa errepresentatzeko beharrak esakune hau erabiltzen du: *Jainkoa* betiko-dena da, edo mundu-ordena morala edo maitasuna, eta abar. Halako esakuneetan egia-dena subjektu gisa soilik ezartzen da, ez da ordea bere baitara islatzearen higidura gisa aurkeztzen. Halako esakune batean *Jainkoa* hitza da abiapuntua. Hori berez soinu zentzugabea da, izen hutsa; predikatuak soilik esaten du lehenik *hori zer den*, horren beteketa eta esanahia da; hasiera kaskala amaiera horretan bihurtzen da jakite erreal. Hori horrela izanik, ez da ulertzen

zergatik ez den betiko-denaz, mundu-ordena moralaz eta abarrez, edo, antzinakoek egiten zuten moduan, adigai hutsez, izateaz, bataz, eta abarrez soilik, hots, esanahia duenaz hitz egiten, soinu *zentzugabea* gaineratu gabe. Baina hitz horren bidez, hain zuzen, izendatzen da ez dela izate bat edo zerizan bat edo orokor-den bat oro har ezartzen, baizik eta bere baitara islatu-den bat, subjektu bat ezartzen dela. Hala ere, aldi berean hori aitzinatu baino ez da egiten. Subjektua puntu finko gisa hartzen da eta berari lotzen zaizkio predikatuak euren sostengu gisa bera ezagutzen duenari dagokion higidura baten bidez, zeina ez den ulertzen puntuari berari dagokion zera gisa; hala ere, higidura horren bidez baino ezin daiteke errepresentatu edukia subjektu gisa. Higidura horren antolaera dela eta, ezin zaio puntuari egokitu; baina puntuaren auresuposizioaren ondoren hark ezin du bestelakoa izan, kanpokoa soilik izan daiteke. Aitzinapen hark, absolutu-dena subjektua dela, beraz, adigai horren errealitatea ez izateaz gain hura gainera ezinezko bihurtzen du; izan ere, hark puntu egonkor gisa ezartzen du, hau ordea norberaren higidura da.

Esandakotik eratoritzen diren hainbat ondorioztapenen artetik hau azpimarra daiteke, jakitea jakintza gisa soilik edo *sistema* gisa dela eta aurkez daitekeela benetan. Gainera, filosofiaren oinarri edo printzipio esaten zaiona, egiazkoa denean, horregatik jada faltsua dela, oinarri edo printzipio delako. - Horregatik erraza da hori errefusatzea. Errefusapena haren gabezia azaltzean datza; gabezia du, ordea, orokor-dena edo printzipio delako, hasiera. Errefusapena sakona bada, horretatik hartzen eta garatzen da, ez da osatzen kanpotik datozen baieztapen eta burutazio aurkakotuen bidez. Errefusapena bere garapena izango litzaiteke benetan, eta horrenbestez bere gabeziaren osaketa, ez bada erratzen bere egite *negatiboa* soilik begiratzuz eta bere aurrerapenaz eta emaitzaz jabetu gabe alde *positibo* gisa. - Hasieraren garapen benetan *positiboa* aldi berean alderantziz horrekiko jokaera negatiboa da era beran, hots, horren forma aldebakarrarekiko, hau da, *bitartegabe* baino ez izatearekiko edo *xede* izatearekiko. Beraz, era berean sistemaren *oinarria* osatzen duenaren errefusapentzat har daiteke, baina hobeto sistemaren *oinarria* edo printzipioa egitatean haren *hasiera* baino ez dela erakusteko egintzat.

Egia-dena sistema gisa baino ez dela erreal, edo substantzia funtsean subjektu dela, absolutu-dena gogo gisa adierazten duen erre-

presentazioan azaltzen da, eta hori da dagoen adigai bikainena, garai berriari eta horren erlijioari dagokiona. Gogozko-dena baino ez da *erreal-dena*; zerizana da edo *berbaitan dena* da, *bere buruarekin erla - zionatzen dena* eta *determinatu-dena*, *beste-izatea* eta *berbaitarako iza - tea*, edo bere baitatik at izatean bere baitan geratzen dena; edo *berbai - tan eta berbaitarako* da. - Berbaitan eta berbaitarako izate hori, ordea, lehenik gureztat edo *bere baitan* da, edo gogozko *substantzia* da. Eta horrek *bere baitarako* ere izan behar du, gogozko-denaren jakitea eta bere buruaren jakitea izan behar du gogo gisa; horrek esan nahi du *objektu* gisa izan behar duela, baina era berean bitartegabe objektu bitartekotu, alegia, gainditu, bere baitara islatutako objektu gisa. Guret - zat baino ez da bere baitarako, haren gogozko edukia hark berak sortu duen heinean; baina hura berbaitarako harentzat berarentzat ere baden heinean, bere burua sortze hori, adigai hutsa, harentzat aldi berean osa - gai objektiboa da, non hark bere hor-izatea daukan; eta era horretara bere hor-izatean berbaitarako bere baitara islatutako objektua da. - Horrela, bere burua gogo gisa dakien gogo *jakintza* da. Hori gogoaren errealitatea da eta gogoak bere osagaian eraikitzen duen erresuma.

Norberaren ezagutze *hutsa* beste-izate absolutuan, eter hori *halakoa den aldetik*, jakintzaren oinarria eta lurra da, edo *jakitea oro - korrean*. Filosofiaren hasierak auresuposizio edo eskakizun hau egiten du, kontzientzia *osagai* horretan dagoela. Baina osagai horrek bere betetasuna eta gardentasuna bere bilakaeraren higiduraren bidez baino ez du lortzen. Gogozkotasun hutsa da bitartegabekotasun sinplearen modua duen *orokor-dena* den aldetik. Sinple-den hori, horrelakoa den aldetik *existentzia* duena, gogoan baino ez den lurra, pentsatzea da. Osagai hori, gogoaren bitartegabekotasun hori gogoaren substantzia denez oro har, hori *zerizantasun santua* da, berez sinplea den hausnar - keta da, berez bitartegabekotasuna dena bere horretan, bere baitara doan islapen den *izatea*. Jakintzak bere aldetik autokontzientziari eska - tzen dio eter horretara goratzeko, horrekin eta horretan bizi ahal izate - ko eta bizitzeko. Alderantziz, indibiduoak eskubidea du eskatzeko ezen jakintzak ikuspuntu horretara iristeko eskailera eman diezaiola. Haren eskubideak bere beregaintasun absolutuan hartzen du oin, bere jakitea - ren tankera orotan daukan beregaintasunean; izan ere, horietako edo - zeinetan, jakintzak berrezagutu ala ez, eta edukia edozein izanda ere, hura forma absolutua da aldi berean, edo bere buruaren *bitartegabeko*

ziurtasuna du; eta, adierazpen hau nahiago bada, horrenbestez *izate* baldintzatugabekoa da. Baldin eta kontzientziaren ikuspuntua, gauza objektiboez bere buruari aurkakotuz eta bere buruaz haiei aurkakotuz jakitea, jakintzarentzat *bestea* bada (non bere baitan dagoen baina gogoaren galera bezala), orduan harentzat jakintzaren osagaia beste aldean dagoen urrunera da, non hura ez den norberaren jabe. Bi alde horietako bakoitza besteari egiaren iraulitakoa izatea iruditzen zaio. Berezko kontzientziak bere burua bitartegabe jakintzaren eskuetan jartzeari buruz behera ibiltzeko egiten duen saioa da, horretara zerk bultzatzen duen jakin gabe; jarrera ezohiko hori hartzeko eta horretan higitzeko hertsapena itxuraz prestakuntzarik eta beharrik gabe bere buruari egin behar omen dion bortxa da. - Jakintza bere baitan edozer gauza dela ere, bitartegabeko autokontzientziarekin erlazioan bere burua horren iraulitakoa bezala aurkezten du, edo bitartegabeko autokontzientzia errealtatearen printzipioa denez, hark errealtate ezaren forma darama, berbaitarako hartatik at den heinean. Hark, beraz, osagai hura norberarekin batu behar du, edo erakutsi behar du berari dagokiola eta nola dagokion. Errealiterik gabe, hura edukia baino ez da *berbaita* - *naren* gisara, oraingoz *barnekoa* baino ez den *xedea*, gogo gisa ez dena, oraingoz gogozko substantzia baino ez dena. *Berbaitain* horrek bere burua kanporatu behar du eta *berbaitarako* bihurtu behar du, eta horrek haxe esan nahi du: autokontzientzia norberarekin batuta bezala ezarri behar du.

Jakintzaren bilakaera hori da *oro har*, edo *jakitearena*, gogoaren fenomenologia honek, sistemaren lehen zati gisa, aurkezten duena. Jakitea, hasiera batean den bezala, edo *bitartegabeko gogoa*, gogo eza da, edo *sentipenezko kontzientzia* da. Benetako jakite bihurtzeko, edo jakintzaren osagaia sortzeko, haren adigai hutsa dena, bide luze batean ahalegindu behar du. - Bilakaera hori, bere edukian eta bere baitan erakusten diren tankeretan azalduko denez, itxuraz kontzientzia ez zientifikoak jakintzan duen sarrera ez beste gauza bat da, jakintzaren oinarritzapena ez beste gauza bat era berean; eta era berean pistolatik irten da bezala jakite absolutuarekin bitartegabe hasten den gogo bizia ez beste gauza bat, eta beste ikuspuntuak alde batera uzten ditu horietaz ezer ez duela jakin nahi adieraziz.

Indibiduoa, ordea, horren ikuspuntu garatugabetik abiatuta jakiteraino gidatzeko eginkizuna bere zentzu orokorrean ulertu behar da,

eta banako orokorra, norberaren buuraz jabetzen den gogo bere garapenean behatu behar da. - Bien arteko erlazioari dagokionez, indibiduo orokorrean hark forma konkretua hartzeko eta tankeratze propioa lortzeko une bakoitza agertzen da. Indibiduo berezia, orde, gogo osatugabea da, tankera konkretua, zeinaren hor-izate osoan determinatutasun *bat* gailentzen den eta non besteek ezaugarri nahasiak baino ez dituzten. Gogoan, beste baten mailatik gorago dagoenean, hor-izate konkretu baxuena une hutsal izateraino beheratu da; lehen gaia bera zena orain aztarna bat baino ez da; haren tankera ezkutatuta dago eta itzal ezdeusa baino ez da. Lehenaldi hori zeharkatzen du substantzia gisa gogo gorena duen indibiduoak, jakintza garaiago bat jorratzen duenak, aspalditik lortu dituen aurre-ezagutzak errepasatzen dituen bezala horien edukia gaurkotzeko; haiek gogora itzuli nahi ditu, baina horretan interesik izan gabe eta horretan geratu gabe. Horrela zeharkatzen ditu banako bakoitzak gogo orokorroren garapen mailak, baina gogoak dagoeneko baztertu dituen tankerak bezala, jorratua eta zelaitua izan den bide baten mailak bezala; horrela ikusten dugu ezagutzei dagokienez aurreko garaietan gizonen gogo helduak jorratzen zituenak, gaztetxoek ezagutza, ariketa eta joko ere izateraino beheratu direla, eta munduaren garapenaren historia itzal-irudietan marraztuta bezala berrezagutuko dugu irakaskuntzaren aurrerapenean. Lehenaldiko hor-izate hori gogo orokorraren lortutako jabegoa da, zeinak indibiduoaren substantzia osatzen duen edo haren izaera ez-organikoa osatzen duen. - Indibiduoaren ikuspegitik garapena honetan datza, hots, eskura duena jasotzen duela, bere izaera ez-organikoa bere baitan iraungitzen duela eta bere baitarako jabego bihurtzen duela. Baina hori era berean gogo orokorraren ikuspegitik substantzia den aldetik horrek bere buruari autokontzientzia ematea besterik ez da, bere bilakaera eta bere baitara doan islapena ekoiztea.

Jakintzak bere tankeratzean aurkezten du higidura garatzaile hori, bai zehaztasunez baita beharrezkotasunez ere, gogoaren une eta jabego izatera dagoeneko beheratu dena bezala. Xedea gogoak jakintza zer den sakonki ulertzea da. Ezinegonak ezinezkoa dena eskatzen du, alegia, xedea lortzea bitartekorik gabe. Alde batetik, bide horren *luzea* jasan behar da; izan ere, une bakoitza beharrezkoa da; bestalde, une bakoitzean *geratu* behar dugu; izan ere, bakoitza tankera oso banako bat da eta absolutuki hartzen da, haren determinatutasuna osoki edo

konkretu-den bezala edo osokia determinazio horren berezitasunean ulertzen den heinean. - Indibiduoaren substantziak, munduaren gogoak egonarria izan dutenez forma horiek denboraren hedapen luzean zehar-katzeko eta munduaren historiaren lan izugarriaren ardura hartzeko (horretan tankera bakoitzean horrek jaso zezakeen eduki guztia jasoz), eta horri lan gutxiagorekin ezinezkoa zitzaionez bere buruaz duen kon-tzientzia lortzea, orduan indibiduoak ezin du bere substantzia lan gutxiagorekin aditu. Aldi berean, ordea, ahalegin txikiagoa egin behar du, zeren *bere baitan* bete baita edukia dagoeneko ahalgarritasun izate-ra baliogabetu den errealtate eta bitartegabekotasun menperatua izatea. Dagoeneko *pentsatua* izan denez, banakotasunaren *jabegoa* da; ez da gehiago hor-izatea *bere baitan izatean*, ez jatorrizko forman ezta hor-izatean hondoratuta, baizik eta *aipatutako berbaitana berbaitarako iza-tearen* forma bihurtuta; hori gertatzeko era zehazkiago determinatu behar da.

Higidura hori hartzean dugun ikuspuntuan oro har hor-izatearen gaindipena aurrezten zaigu; geratzen dena *errepresentazioa* eta formen *ezagupena* da. Substantzia atzera hartuta dagoen hor-izatea lehen nega-zio haren bidez baino ez da ezartzen *bitartegabe* norberaren osagaian; beraz, oraindik bitartegabekotasun aditugabearen edo axolagabetasun higigaitzaren izaera berbera dauka hor-izatea bera bezala, edo *errepre-sentaziora* igarotzea baino ez du egin. - Aldi berean horren bidez *eza-gutu-den* bat da, gogoak harekin egin du egin behar zuena, eta beraz, horren egiletasuna eta horrenbestez horren interesa ez dago jadanik hor. Hor-izatearekin egin beharrekoa egin duen egiletasuna bitartekotza bitartegabekoa edo baden bitartekotza bada, eta beraz, bere burua adi-tzen ez duen gogo bereziaren higidura bada, orduan jakitea, aitzitik, horren bidez sortu den errepresentazioaren aurka dago, ezagutua izate horren aurka; *norbera orokorraren* egitea da eta *pentsatzearen* interesa.

Oro har ezaguna den hori, ez da *ezagutzen*, hain zuzen, *ezaguna* delako. Norberaren iruzur ohikoena eta besteen iruzur ere bada ezagu-tzean zerbait ezagun gisa auresuposatzea eta hori ontzat ematea; hala-ko jakitea, nola gertatzen den jakin gabe, ez da tokitik desagertzen horri buruzko berriketa guztia dela ere. Subjektua eta objektua, eta abar, Jainkoa, natura, adimena, sentipena eta abar aztertu gabe hartzen dira ezagun gisa eta oinarrian ezartzen dira baliogarri gisa, eta bai irteeraren bai itzuleraren puntu finko bihurtzen dira. Higidura higitu gabe dirau-

ten horien artean dabil gora eta behera, eta beraz, azalean baino ez da gertatzen. Horrela, atzematea eta probatzea bakoitzak eurei buruz esaten dena euren errepresentazioan aurkitzen ote duten ikustean datza, ea horrela iruditzen zaion eta horrela ezaguna zaion ala ez ikustean.

Errepresentazio bat *analizatzea*, egiten zen moduan, haren eza-guna izatearen forma gainditzea baino ez zen. Errepresentazio bat bere oinarritzko osagaietan banatzea haren uneetara itzultzea da, zeintzuek gutxienez aurretik aurkitutako errepresentazioaren forma ez duten, baizik eta norberaren jabego bitartegabekoa osatzen duten. Analisi horrek determinazio ezagun, irmo eta lasaiak baino ez diren *pentsamenduak* lortzen ditu. Baina *banandu-den* hori, irreal-den hori bera zerizanezko unea da; izan ere, konkretu-denak bere burua banatzen duelako eta irreal bihurtzen duelako soilik da hura bere burua higitzen duen hori. Banatzearen egiletasuna da *adimenaren* indarra eta lana, botere miresgarriarena eta handienarena, edo are botere absolutuarena. Bere baitan lasai itxita dirauen zirkulua eta substantzia gisa bere uneak mantentzen dituen erlazio bitartegabekoa da eta, beraz, miresgarria ez dena. Baina bere zabalpenetik banandua dagoen akzidentalak-denak halako gisa, lotuta dagoen eta beste batekin loturan baino ez den errealak, hor-izate propioa eta askatasun bereiztua lortzea da negatibo-denaren botere izugarria; pentsatzearen energia da, nia hutsarena. Heriotza, irrealtasun hari horrela deitu nahi badiogu, ikaragarriena da, eta hildakoari eustea indar handiena eskatzen duena. Edertasun indargeak gorroto du adimena, horrek hari eskatzen diolako egin ezin duena. Ez, ordea, heriotzaren beldur den eta triskantzatik urrun aratz mantentzen den bizitza, baizik eta hura jasaten duena eta bere baitan mantentzen duena da gogoaren bizitza. Bere egia ezin du lortu norberaren urradura absolutuan bere burua aurkitu gabe. Gogoa ez da botere hori negatibo-denetik baztertzen den positibo gisa, zerbaitez esaten dugun bezala ezer ez dela edo faltsua dela eta orduan horrekin amaiturik beste zerbait egitera igaroz; baizik eta botere hori da negatibo-denari aurpegira begiratzen dion heinean eta harekin geratzen den heinean. Geratze hori da negatibo-dena izatera itzultzen duen azti-indarra. - Hori lehenago subjektu deitu dugun gauza berbera da, zeinak, determinatutasunari bere osagaian hor-izatea emanaz bitartegabekotasun abstraktua, hau da, oro har *dena* gainditzen duen, eta horren bidez egiazko substantzia den, bitartekotza bere baitatik at

izan beharren bere baitan daukan edo hori bera den izatea edo bitartegabekotasuna.

Errepresentatu-dena autokontzientzia hutsaren jabego bihurtzea, orokortasunera goratzea, hori oro har alde bat baino ez da, ez da oraindik garapen betea. - Garai zaharren ikasketa mota berriak honetan bereizten da, hura berezko kontzientziaren benetako garapen osoa izatean. Bere hor-izatearen zati orotan bereziki saiatur eta gertatzen den orotaz filosofatuz, orokortasuna erabat eragile bihurtu zen. Garai berrietan, berriz, indibiduak forma abstraktua prest aurkitzen du; hura lortzeko eta bereganatzeko ahalegina gehiago da barneko-denaren intera bitartekotugabea eta orokor-denaren sorrera mugatua, haren sorrera baino konkretua denetik eta hor-izatearen aniztasunetik. Orain egin-kizuna ez da indibiduoa sentipenezko modu bitartegabekotik araztea eta substantzia pentsatu eta pentsatzaile bihurtzea, baizik eta aurkakoa, pentsamendu determinatu finkoa gaindituz orokor-dena egikaritzea eta biziaraztea. Askoz ere neketsuagoa da, ordea, pentsamendu finkoak jariakor bihurtzea sentipenezko hor-izatea baino. Arrazoiak lehen emandakoa da; determinazio horiek nia, negatibo-denaren boterea edo erre-alitate hutsa dute substantzia gisa eta euren hor-izatearen osagai gisa; sentipenezko determinazioek, aitzitik, bitartegabekotasun abstraktu boteregabea edo izatea halako gisa. Pentsamenduak jariakor bihurtzen dira, pentsatze hutsak, barneko *bitartegabekotasun* horrek bere burua une gisa ezagutzen duen heinean edo ziurtasun hutsak bere buruaz abstraitzen duen heinean; ez du alde egiten, ez da baztertzen, baizik eta bere buruaren ezarpenean *finko-dena* gainditzen du, bai konkretu huts denean finko dena, zeina nia bera den eduki bereiztuaren aurka, baita bereiztua denean finko dena ere, zeinak pentsatze hutsaren osagaian ezarrita baldintzatugabetasun hartan parte hartzen duen. Higidura horren bidez pentsamendu hutsak *adigai* bihurtzen dira, eta horrela dira lehenik egiatan diren hori, norberaren higidurak, zirkuluak; euren substantzia den hori dira, gogo-zerizantasunak.

Zerizantasun huts horien higidura horrek osatzen du jakingarritasuna oro har. Haren edukiaren lotura bezala hartzen bada, horren beharrezkotasuna da eta horren hedapena osoki organiko izateraino. Jakitearen adigaia lortzeko bidea higidura horren bidez era berean bilakaera beharrezko eta osoa bihurtzen da, halako moldez non prestaketa horrek filosofatze ausazkoa izateari uzten baitio, zeina kontzientzia

osatugabearen objektu, erlazio eta pentsamendu horri edo besteari lotzen zaion, ausak dakarren bezala, edo egia dena oinarritzen ahalegintzen dena pentsamendu determinatu batzuetatik noraezean dabilen arrazoiketa, silogismo eta ondorioen bidez; baizik eta bide horrek adigaiaren higiduraren bidez kontzientziaren mundutartasun osoa jasoko du bere beharrezkotasunean.

Halako aurkezpenak osatzen du gainera jakintzaren lehen zatia, gogoaren hor-izatea lehen gisa bitartegabe-dena edo hasiera baino ez delako, eta hasiera ez delako oraindik bere baitara doan itzulera. *Bitartegabeko hor-izatearen osagaia* da, beraz, jakintzaren zati hau bestee-tatik bereizten duen determinatutasuna. - Bereizketa horren aipamenak arrunki une horretan agertzen diren pentsamendu finko batzuen azalpena dakar.

Gogoaren hor-izate bitartegabekoak, *kontzientziak*, bi uneak ditu, jakitearena eta jakiteari dagokion objektibotasun negatiboarena. Gogoa osagai horretan garatzen den heinean eta bere uneak zabaltzen dituen heinean, aurkako hau sortzen zaie, eta guztiak kontzientziaren tankera gisa agertzen dira. Bide horren jakintza kontzientziak egiten duen *esperientziaren* jakintza da; substantzia aztertzen da, hura eta haren higidura kontzientziaren objektu izanik. Kontzientziak ez daki eta ez du aditzen bere esperientzian dagoena baino; izan ere, hor dagoena gogozko substantzia baino ez da, eta gainera horren norberaren *objektu* gisa. Baina gogoa objektu bihurtzen da; izan ere, *hori* higidura hura da, hots, *beste bat* bihurtzea, alegia, *norberaren objektu* bihurtzea, eta beste-izate hori gainditzea. Eta esperientzia deitzen zaio, hain zuzen, higidura horri, non bitartegabe-dena, esperientziatzen ez dena, alegia, abstraktu-dena bestelakotu egiten den, sentipenezko izateari edo simple-den pentsatuari dagokiola ere, eta orduan bestelakotze horretatik bere baitara itzultzen da, eta horrela orain lehenik aurkezten da bere errealitatean eta egian kontzientziaren jabego gisa.

Kontzientzian niaren eta horren objektu den substantziaren artean dagoen ezberdintasuna haren bereizketa da, *negatibo-dena* oro har. Bien *gabezia* bezala har daiteke, baina horien arima edo horiek higitzen dituen da; horregatik, antzinako batzuek *hustasuna* higitzaile-dena bezala ulertzen zuten, haiek higitzen duena *negatibo-dena* gisa bai, baina hori norbera gisa ulertzen ez zuten heinean. - Baldin eta orain negatibo-dena hasiera batean niaren eta objektuaren arteko desberdin-

tasun gisa agertzen bada, orduan era berean substantziak bere buruarekin duen desberdintasuna da. Bere baitatik at gertatzen dena, haren aurkako egiletasuna dena itxuraz, haren beraren egitea da, eta funtsean subjektu dela erakusten du. Hark hori erabat erakusten duen heinean, gogoak bere hor-izatea bere zerizanarekin berdindu du; bere objektua da, den bezala, eta bitartegabekotasunaren osagai abstraktua eta jakitearen eta egiaren arteko banaketarena gainditzen da. Izatea absolutuki bitartekotzen da; substantziazko edukia da eta era berean bitartegabe niaren jabegoa, norbera da edo adigaia. Horren bidez amaitzen da gogoaren fenomenologia. Gogoak hor prestatzen duena jakitearen osagaia da. Hor zabaltzen dira gogoaren uneak *sinpletasunaren forman*, zeinak bere objektua bere buru balitz bezala dakien. Une horiek ez dira banantzen izatearen eta jakitearen aurkakotzan, baizik eta jakitearen sinpletasunean irauten dute, egia-dena dira egia-denaren forman, eta haien ezberdintasuna edukiaren ezberdintasuna baino ez da. Haien higidura, osagai horretan osoki izateraino antolatzen dena, *logika* da edo *filosofia espekulatiboa*.

Gogoaren esperientziaren sistema hark haren *agerpena* baino biltzen ez duenez, orduan itxuraz hartatik *egia-denaren* jakintzara, *egia-denaren tankeran* dagoen horretara doan aurrerapena negatiboa baino ez da, eta nahi liteke negatibo-denarekin zer ikusirik ez izatea *faltsu-denarekin* bezala, eta eskatzea besterik gabe egiara gidatua izatea; zergatik arduratu, bada, faltsu-denaz? - Lehen ere esan zen berehala jakintzatik abiatu beharko genukeela, eta hemen horri erantzun behar zaio esanez zein eraketa duen negatibo-denak faltsu-den gisa oro har. Horri buruzko errepresentazioek oztopatzen dute bereziki egiaranzko sarrera. Horrek beta emango digu ezagutze matematikoaz hitz egiteko, zeinak jakite ez-filosofikoa, filosofia oraingoz alferrik izan bada ere lortzen ahalegindu beharko litzatekeena, ideal gisa hartzen duen.

Egia-dena eta *faltsu-dena* pentsamendu determinatuei dagozkie, zeinak higigaitz zerizan propiotzat hartzen diren, bata hemen, bestea han, elkarrekin loturarik izan gabe bakartuta eta irmo izaki. Aitzitik, baieztatu behar da egia ez dela diru landua, berehala eman eta horrela jaso daitekeena. Ez *dago* faltsu-dena, gaizto-dena ez dagoen bezala. Gaizto-dena eta faltsu-dena ez dira deabrua bezain txarrak; izan ere, hori bezala *subjektu* berezi bihurtzen dira; faltsu-dena eta gaizto-dena gisa *orokor-dena* baino ez dira, baina zerizantasan propioa dute beste-

aren aurrean. - Faltsu-dena, hemen horretaz baino ez baitihardugu, bestea litzateke, substantziaren negatibo-dena, zeina jakitearen eduki gisa egia-dena den. Baina substantzia bera funtsean negatibo-dena da, aldez edukiaren bereizkuntza eta determinazio gisa, aldez bereizte *simple* baten gisara, hau da, norbera eta jakite gisa oro har. Jakin daiteke, bai, faltsuki. Zerbait faltsuki dakigula esateak esan nahi du jakitea bere substantziazatik desberdintzen dela. Baina hain zuzen desberdintasun hori da bereiztea oro har, zeina zerizanezko unea den. Baina bereizkuntza horretatik haren berdintasuna sortuko da, eta berdintasun bilakatu hori da egia. Baina ez da egia desberdintasuna baztertuta izango balitz bezala, zepa metal hutsetik bezala, ezta lantresna edukiontzia egin ondoren alde batera uzten den moduan ere, baizik eta desberdintasuna, negatiboa den aldetik, norbera gisa egia-denean han dago halako gisa oraindik bitartegabe. Horregatik ezin da esan, ordea, *faltsu-denak* egia-denaren une bat edo are osagai bat osatzen duenik. Faltsu-den bakoitzean egia-den zera dagoela, adierazpen horretan biak olioia eta ura bezala dira, nahastezin izaki kanpotik baino ez dira lotzen. *Besteizate osatuaren* unea izendatzeak duen garrantzia dela eta, haren besteizatea gainditu denean ez litzateke haren adierazpenik erabili behar. Subjektuaren eta objektuaren, mugatu-denaren eta mugagabe-denaren, izatearen eta pentsatzearen eta abarren *batasunaren* adierazpenak eragozpen hau duen bezala, hots, objektuak eta subjektuak eta abarrek euren *batasunetik* at direna esan nahi dutela, eta batasunean, beraz, ez dutela esan nahi euren adierazpenak esaten duena, bada, era berean faltsu-dena ez da jadanik bere horretan egiaren une bat.

Pentsaeraren *dogmatismoa* jakitean eta filosofiaren ikasketan ez da egia-dena ondorio finko bat den edo bitartegabe jakina den esakune batean datzala dioen iritzia baino. Honako galderei erantzun *zehatza* eman beharko litzaieke: noiz jaio zen Zesar? Zenbat oin ditu estadio batek? Eta era berean guztiz egia da hipotenusaren berredura hiruki angeluzuzenaren beste bi aldeen berreduren batuketaren berdina dela. Baina halako egia deitzen den horren izaera egia filosofikoen izaeratik ezberdina da.

Egia *historikoei* dagokienez, horiek labur aipatzearren, horien alderdi historikoa baino aztertzen ez den heinean, erraz onartuko da haiek hor-izate banakoa ukitzen dutela, eduki bat ausazkotasunaren eta arbitrarietatearen ikuspegitik, beharrezkoak ez zaizkion determinazio-

ak. - Baina egia gordin halakoak ere, adibide gisa aipatutakoak bezalakoak, ez dira autokontzientziaren higidurarik gabe. Horietako bat ezagutzeko asko alderatu behar da, liburuetan begiratu behar da edo nolahi ere aztertu behar da; begiespen bitartegabeko batean ere haren ezagutza haren oinarriarekin batera har daiteke lehenik egiazko balio duen zerbait bezala, nahiz eta benetan ondorio gordinaz baino ez litzatekeen hartu beharko ardurarik.

Egia *matematikoei* dagokienez, are gutxiago hartuko genuke geometrialaritzat Euklidesen teorema *buruz* dakien hori, haren frogapenak, haren *barrenak* jakin gabe, aurkako moduan adieraz daitekeenez. Era berean norbaitek hiruki angeluzuzen askoren neurketaren bidez lortuko lukeen ezagutza, ezen aldeok euren artean erlazio ezagun hori dutela, ez litzateke hartuko asebetegarritzat. Frogapenaren *zerizantasu* - *nak*, ordea, ez du ezagutze matematikoan ere emaitza beraren unea izateko esanahia eta izaera, baizik eta horretan hura badoa eta desagertzen da. Emaitza gisa teorema *egiazkotzat hartzen dena* da, jakina. Baina ondoren datorkion inguruabar hori ez dagokio haren edukari, baizik eta soilik subjektuarekin duen erlazioari; frogapen matematikoaren higidura ez dagokio objektua denari, baizik eta gaiari *kanpoko*a zaion egitea da; horrela, hiruki angeluzuzenaren izaerak ez du bere burua xehetzen haren proportzioa adierazten duen esakunearen frogapenarentzat beharrezkoa den eraikuntzan aurkezten den moduan; emaitzaren etorrera osoa ezagutzearen ibilbide eta bitarteko bat da. - Ezagutze filosofikoan ere *hor-izatearen* bilakaera *hor-izate* gisa bereizi egiten da *zerizanaren* bilakaeratik edo gauzaren barne izaeratik. Baina ezagutze filosofikoak hasiera batean biak jasotzen ditu; matematikoak, aitzitik, *hor-izatearen* bilakaera baino ez, hots, gauzaren izaeraren *izatea ezagutzean* aurkeztua ezagutzean den aldetik. Bestalde, hark bi higidura berezi horiek bateratzen ditu. Substantziaren barne sorrera edo bilakaera tarterik gabe kanpoko-denera edo hor-izatera igarotzea da, beste batentzako izatea da; eta alderantziz, hor-izatearen bilakaera zerizanera itzultzea da. Higidura, beraz, osokiaren prozesu bikoitza eta bilakaera da, ezen aldi berean bakoitzak bestea ezartzen duen eta bakoitzak horregatik biak bere baitan dituen bi ikuspegiak; biek batera osokia osatzen dute, biek euren buruak deseginez eta osokiaren une bihurtuz.

Ezagutze matematikoan ulermen sakona gauzari kanpoko a zaion egitea da; hortik ondorioztatzen da egiazko gauza horren bidez

aldatu egiten dela. Bitartekoak, eraikuntzak eta frogapenak jasotzen ditu, beraz, egiazko esakuneak; baina era berean esan behar da edukia faltsua dela. Hirukia aurreko adibideetan txiki-txiki egiten da, eta haren zatiak eraikuntzak hartatik sorrarazten dituen beste figuretara doaz. Amaieran baino ez da birsortzen hirukia, gure ardura bakarra dena, bidean bistatik galdu genuena eta beste osokiei zegozkien zatietan agertzen zena. - Hemen edukiaren negatibotasunak eragiten duela ikusten dugu, zeinari haren faltsutasun deitu beharko geniokeen, finkoak omen ziren pentsamenduak adigaiaren higiduran desagertzeari deitzen diogun bezala.

Baina ezagutze horren benetako gabezia biei dagokie, ezagutze berari eta horren ekaiari. - Ezagutzeari dagokionez, hasiera batean ez da ulertzen eraikuntzaren beharrezkotasuna. Ez da sortzen teoremaren adigaitik, baizik eta ezarria da, eta arau horri, zehazki lerro horiek marraztekoari hainbat eta hainbat marraz litezkeenean, itsuki egin behar zaio men, besterik jakin gabe, salbu uste ona izanik hori frogapena egiteko egokia izango dela. Ondoren erakutsiko da egokitasun hori, kanpoko egokitasuna dena, hain zuzen gero erakusten dela, frogapenean. - Era berean horrek bide bat hartzen du, nonbait hasten dena, eta jakin gabe horrek zer harreman duen lortuko dugun emaitzarekin. Frogapenaren aurrerabideak determinazio eta harreman horiek jasotzen ditu eta besteak uzten ditu, bitartegabe ulertu gabe hori zein beharrezkotasunen arabera gertatzen den; kanpoko helburu batek gobernatzen du higidura hori.

Ezagutze akastun horren *nabaritasunak*, matematika horretaz hain harro izaki, filosofiaren aurka purrust egiteko ere erabiltzen duelarik, haren *xedearen* txirotasunean eta haren *ekaiaren* gabezian hartzen du oin soil-soilik, eta horregatik filosofiak gutxietsi behar duen mota batekoa da. - Haren *xedea* edo adigaia *handiera* da. Hori, hain zuzen, erlazio zerizangabea, adigaigabea da. Jakitearen higidura, beraz, azalean gertatzen da, ez du gaia bera ukitzen, zerizana edo adigaia, eta horrenbestez ez da ezein aditze. - Matematikak egien altxor pozgarria bermatzen dio *ekai* bati, *espazioari* eta *batari*. Espazioa hor-izatea da, non adigaia bere bereizketak inskribatzen dituen, osagai huts, hil batean bezala, non haiek era berean higigaitz eta bizigabe diren. *Errealadena* ez da espazioa duena, matematikak ikusten duen moduan; matematikaren gauzak diren irrealtasun horrekin ez sentipenezko begieste

konkretuak ezta filosofiak ere ez dute zer ikusirik. Halako osagai irrealean, beraz, egia-den irreala baino ez dago, hots, esakune finko, hilak; horietako edozeinetan gera gaitezke; hurrengo hasieratik abiatzen da berriro, lehenak besterantz aurrera egin gabe eta horrela gauza beraren izaeraren bidez beharrezko lotura bat sortu gabe. - Gainera, printzipio eta osagai harengatik, eta horretan datza nabaritasun matematikoaren alde formala, jakiteak aurrera egiten du *berdintasunaren* lerroari jarraiki. Izan ere, hila denak, bere burua higitzen ez duelako, ez du lortzen zerizanaren bereizketarik, zerizanezko aurkakotasun edo ezberdintasunik, eta beraz, ezta aurkakotuaren igarotzerik ere aurkakotura, ez du lortzen nolakotasunezko higidurarik, higidura immanentea, norberaren buruaren higidura. Izan ere, handiera da, zerizangabeko bereizketa, matematikak baino aztertzen ez duena. Espazioa bere dimentsioetan adigaiak banatzen duela eta horien loturak eta horietan dauden loturak determinatzen dituela, horretaz abstraitzen du; ez du kontuan hartzen, adibidez, lerroak azalerarekin duen erlazioa; eta zirkuluaren diametroa perimetroarekin alderatzen duenean horren neurtezintasunarekin egiten du topo, hau da, adigaiaren erlazio batekin, mugagabe-den batekin, haren determinazioari ihes egiten dionarekin.

Matematika immanenteak, matematika hutsa deitzen denak, ez du *denbora* espazioaren aurrean dagoen denbora bezala ezartzen, haren azterketaren bigarren ekai gisa. Matematika aplikatuak denbora jorratzen du, higidura bezala, eta gainera beste gauza errealak, baina esperimentziaz jasotzen ditu esakune sintetikoak, hots, haren adigaiaren bidez determinatuta dauden erlazioaren esakuneak, eta bere formulak auresuposizio horiei soilik aplikatzen dizkie. Honako esakuneen frogapen deitzen zaien horiek, adibidez, burdinagaren orekarena, espazioaren eta denboraren erlazioa erorketaren higiduran, eta abarrena, matematika aplikatuak hainbeste eskaintzen dituen horiek frogapentzat eman eta halakotzat onartzea honen frogapena baino ez da, zein handia den frogatzearen premia ezagutzearentzat, zeren hori ez duenean haren itxura soila ere errespetatzen baitu eta horren bidez asebetetzen baita. Frogapen haien kritika bat bitxia bezain irakasgarria litzateke, aldeztu matematika arazteko, aldeztu haren mugak erakusteko, eta horrela beste jakite baten beharrezkotasuna. - *Denborari* dagokionez, uste izan zitekeenez espazioaren aldean matematika hutsaren beste zatiairen ekaia osatzen duenari dagokionez, beraz, hori baden adigaia bera da. *Han* -

dieraren printzipioak, bereizketa adigaigabearenak, eta *berdintasuna* -*ren* printzipioak, batasun abstraktu bizigabearenak, ezin dute jorratu bizitzaren ardura huts hura eta bereizkuntza absolutua. Beraz, negatibotasuna ezagutze horren bigarren ekai bihurtzen da, baina higigaitz bezala bakarrik, hots, *Bata* bezala, eta ezagutze horrek kanpoko egitea, bere burua higitzen duena, ekai izateraino beheratzen du, horretan eduki axolagabe, kanpoko eta bizigabea izatearren.

Filosofiak, aldiz, ez du *zerizangabeko* determinazioa kontuan hartzen, baizik eta hori zerizanezkoa den heinean besterik ez; haren osagaia eta edukia ez da abstraktu-dena eta *irreal-dena*, baizik eta erreala-dena, bere burua ezartzen duena eta bere baitan bizi dena, hor-izatea bere adigaian. Bere uneak sortu eta zeharkatzen dituen prozesua da, eta higidura oso horrek osatzen du positibo-dena eta haren egia. Beraz, horrek era berean bere baitan negatibo-dena jasotzen du, faltsu-dena deituko litzatekeen hori, baldin eta hura hartatik abstraitu behar dena gisa ikusi ahal izango balitz. Desagertzen dena bera zerizanezko gisa hartu behar da, eta ez finko denaren determinazioan, egia-denetik bananduta eta hartatik at, auskalo non, utzi behar dena, eta era berean egia-dena ez da hartu behar beste aldean lasaitzen dagoena bezala, positibo-den hila bezala. Agerpena sortzen ez denaren eta iraungitzen ez denaren sortzea eta iraungitzea da, bere baitan dagoen eta egiaren bizitzaren errealtatea eta higidura osatzen duen sortzea eta iraungitzea. Egia-dena, beraz, Bakoren eldarnioa da, non kide guztiak mozkor dau-den, eta kide bakoitza, bereizten den heinean, era berean bitartegabe desegiten denez, eldarnio hura era berean lasaitasun gardena eta sinplea da. Higidura haren epaiketan gogoaren tankera banakoek eta pentsamendu determinatuek ez dute irauten, baina hala ere beharrezko une positiboak dira, negatiboak eta desagerkorrak direnez. - Higiduraren *osokian*, lasaitasun gisa ulertuta, hartan bereizten dena eta bere buruari hor-izate berezia ematen diona gorde egiten da *gogoratz*en den halako gisa, zeinaren hor-izatea norberaren jakitea den, hori era berean bitartegabe hor-izate den bezala.

Itxuraz beharrezkoa litzateke higidura horren *metodoaz* edo jakintzaz aurretik askoz gehiago esatea. Haren adigaia, baina, jadanik hor dago esan denean, eta haren benetako aurkezpena logikari dagokio edo, hobeto, logika bera da. Izan ere, metodoa ez da osokiaren eraikina baino, haren zerizantasun hutsean azaldua. Baina horri buruzko ohike-

riak direla eta, argi izan behar dugu metodo filosofiko den horri lotzen zaizkion errepresentazioen sistema ere desagertu den garapen bati dagokiola. - Horrek arranditsu edo iraultzaile izateko zantzurik balu, nik badakidan arren tonu horretatik urrun nagoela, kontuan izan behar da matematikak eskura ematen digun jakintza-erregimena, definizio, sailkaketa, axioma, teorema-ilara, horien frogapenak, oinarritzko esakunek eta horietatik lortzen diren ondorio eta emaitzen erregimena, iritzian bertan jadanik gutxienez *zaharkituta* geratu dela. Haren ezgaitasuna argiki ikusten ez bada ere, hori batere ez edo oso gutxi erabiltzen da, eta bere baitan gaitzetsia ez bada ere, ez da maitatua. Eta guk aurreiritzi hau izan behar dugu bikaiena denaren alde, hots, hori erabileran ezartzen dela eta maitagarri bihurtzen dela. Baina ez da zaila ikustea esakune bat azaltzeko modua, horren aldeko arrazoiak aipatzeko modua eta esakune aurkakotuak era berean arrazoi bidez errefusatzeko modua ez dela egiak agertzeko duen forma. Egia horren higidura da bere baitan; metodo hura, ordea, ekaiari kanpokoak zaion ezagutzea da. Horregatik matematikaren bereizgarria da, zeinak esan den moduan handierak horren printzipioarekin duen erlazio adigaigabea eta espazio hilak eta era berean hila den Batak euren ekaiarekin duten erlazioa jasotzen duen, eta beraz, matematikari utzi behar zaio. Metodo hori modu askeago batean, hots, arbitrarietate eta ausazkotasunarekin nahasiago dagoenean, bizitza arruntean erabil daiteke, ezagutza baino gehiago jakin-minak bultzatzen duen elkarriketa batean edo irakaspen historiko batean, hitzaurre batekin gertatzen den moduan gutxi gorabehera. Bizitza arruntean kontzientziak ezagutzak, esperientziak, sentipenezko konkrezioak, baita pentsamenduak ere, oinarritzko esakuneak, oro har halakoak ditu eduki gisa, eskura daudenak edo izate edo zeriz an lasai finkoak direnak. Aldez kontzientziak bide hori jarraitzen du, aldez lotura hausten du eduki horrekin arbitrarioki jokatzuz, eta haren kanpoko determinatze eta esku-hartze gisa jokatzeko du. Kontzientziak edukia ziurra den zerbaitetara gidatzen du, uneko sentsazioa baino ez bada ere, eta konbentzimendua asebetetzen da geldialdi ezagun batera iristen denean.

Baina adigaiaren beharrezkotasunak debekatzen baditu elkarriketa arrazoitzailearen ibilera dudatia eta jakintzaren arrandiaren ibilera irmoa, lehenago ere gogora ekarri da horren lekua ezin dela ordezkatu iragarpenaren eta gogoberotasunaren metodo ezaren eta hizketa profe-

tikoaren arbitrarietatearen bidez, zeintzuek jakingarritasun hura ez ezik jakingarritasuna oro har gutxiesten duten.

Are gutxiago hartu behar da jakingarritzat hirukoitasunaren erabilera hura, kantiar *hirukoitasuna*, senak soilik berraurkitu zuena, oraindik hila dena, oraindik aditugabea, haren esanahi absolutura goratua, egiazko forma egiazko edukian aldi berean azaltzearren eta jakintzaren adigaia sor dadin; erabilera haren bidez guk jakintza eske ma bizigabe izatera mugatua ikusten dugu, benetako itxura, eta jakintzaren antolaketa taula batera mugatua. - Formalismo horrek, lehen ere aipatu dugunak orokorrean eta orain zehazkiago aztertu nahi dugunak, uste du tankera baten izaera eta bizitza aditu eta adierazi dituela, hartaz eskemaren determinazio bat ahoskatu duenean predikatu gisa, dela hori subjektibitatea edo objektibitatea, edo magnetismoa, elektrizitatea, eta abar, uzkurdua edo zabalpena, ekialdea edo mendebaldea eta horrelakoak, amaigabe errepika daitezkeenak, zeren era horretara determinazio edo tankera oro besteez erabil baitezakete eskemaren forma edo une gisa, eta bakoitzak zerbitzu berbera egin diezaioke besteari esker onez; elkarrekikotasun zirkulu horretan gaia bera zer den ez da espermentatzen, ez bata zer den ezta bestea ere. Hor aldeztipenezko determinazioak jasotzen dira begiespen arruntetik, horiek esaten dutena ez beste zerbaitez *esan nahi* beharko luketena; aldezt, bere baitan esanahia duena, pentsamenduaren determinazio hutsak, subjektu, objektu, substantzia, kausa, orokor-dena eta abar, bizitza arruntean bezain axolagabe eta akritikoki erabiltzen dira, eta era berean indarra eta ahultasuna, zabalpena eta uzkurdua, halako moldezt non metafisika hura sentipenezko erreprezentazio horiek bezain gutxi baita jakintzaren parte.

Barne bizitzaren eta bere hor-izatearen norberaren higiduraren ordez orain begiespenaren halako determinatutasun sinplea adierazten da, eta horrek hemen esan nahi du sentipenezko jakitearena, azalezko analogia baten arabera, eta formularen kanpoko aplikazio hutsalari *eraikuntza* deitzen zaio. - Halako formalismoarekin beste guztiekin bezala gertatzen da. Zein gogorra duen burua ordu laurden batean gaitasun astenikoak, estenikoak eta zeharka astenikoak direnak daudela irakatsi ezin zaionak eta era berean hainbat sendabide, eta irakaspen horiek orain gutxi arte horretarako nahikoa zirenez, mediku arrunt izatetik denbora labur horretan mediku teoriko bihurtu ezin duenak. Natur

filosofiaren formalismoak irakasten badu, adibidez, adimena elektrizitate dela edo animalia nitrogenoa dela, edo baita hegoa edo iparra eta abar ere badela, edo hori errepresentatzen badu, hemen adierazten den bezain gordinki, edo terminologia gehiagoz jantzita, bada, orduan esperientzia falta harridura miresle batean geratuko da itxuraz oso urrun daudenak elkartzen dituen indarraren aurrean, eta lotura horren bidez sentipenezko-den lasaiak jasaten duen bortxaren aurrean, horri horrela adigai baten itxura ematen dion, baina gauza nagusia egiten ez duen lotura, hots, adigaia bera edo sentipenezko errepresentazioaren esanahia adieraztea, bada, esperientzia faltak hori jenio baten ekarpen gisa gurtu dezake, edo halako determinazioen argitasuna dela eta poz daiteke, adigai abstraktua begiesten denaz ordezkatzeko duenez eta atseginago bihurtzen duenez, eta egite loriatsu horrekin susmatutako arimakidetasuna dela eta bere burua zoriondu dezake. Halako jakituriaren amarrua hori aplikatzea erraza den neurri berean ikasten da azkar; haren errepikapena, ezaguna denean, ulertu den eskujoko baten errepikapena bezain jasanezina da. Formalismo tonubakarreko horren tresna ez da zailago erabiltzeko margolariaren bi koloreko paleta baino, adibidez gorria eta berdea, bata eszena historikoak margotzeko eta bestea paisaia behar denean erabiltzeko. - Zaila litzateke erabakitzea zer den handiena, zeruan eta lurrean eta lurrazpian dagoen guztia kolore horiekin ukitzeko erraztasuna, edo orotarako tresna horren bikaintasuna irudikatzea; bata bestea suspertzen du. Zerutar eta lurtar den guztiari, naturaren eta gogoaren tankera guztiei eskema orokorraren determinazio gutxi horiek itsasteko eta horrela dena antolatzeko metodoak lortzen duena unibertsoaren organismoari buruzko txosten argi-argia da, ez gutxiago, alegia, etiketa itsatsiak dituen hezurduraren edo belardenda batean dauden ontzi itxi etiketadunen ilaren antza duen taula bat, bata bestea bezain argi izanik, eta han hezurrei haragia eta odola kendu bazaie, hemen biziduna ez den gauza ontzietan ezkutatu da, eta taula horrek, beraz, gaiaren zerizan bizia baztertu edo ezkutatu egin du. - Kehenago ere esan dugu modu hori aldi berean pintura kolore bakarreko absolutuan osatzen dela, eskemaren bereizketez lotsatuz horiek hausnarketari dagokion zerbait bezala absolutu-denaren hustasunean hondoratzen dituen heinean, horrela identitate hutsa, zuri formagabea ekoizteko. Eskemaren kolore-berdintasuna eta haren determinazio bizi-gabeak eta identitate absolutu hori, eta bata bestera igarotzea, hori guztia adimen hila da eta era berean kanpoko ezagutzea.

Baina bikainenak ere ezin dio ihes egin patuari, hots, bizitza eta gogoia galtzeari, eta horrela, larrututa, bere azala jakite bizigabeaz eta handiputzaz jantzia ikusteari. Aitzitik, patu horretan hark gogamenetan, gogoetan ere ez bada, aplikatzen duen bortxa berrezagutzen dugu, era berean haren osotasuna den orokortasun eta formaren determinatutasun izateraino iristen den formakuntza, horrek soilik ahalbidetzen baitu orokortasun hori azaleko eran erabiltzea.

Jakintza ezin da antolatu adigaiaren bizitza propioaren bidez ez bada; eskematik, kanpotik, izateari itsasten zaion determinatutasuna jakintzan eduki betearen arima da, bere burua higitzen duen arima. Badenaren higidura, batetik, beste bat bihurtzea eta horrela haren eduki immanente bihurtzea da; bestetik, baden horrek hedapen hori edo bere hor-izate hori bere baitan jasotzen du berriro, hau da, bere burua *une* bat bihurtzen du eta determinatutasun gisa sinpletzen da. Higidura hartan *negatibotasuna* bereizte ekintza, eta *hor-izatea* ezartze ekintza da; bere baitara itzultze horretan hura *sinpletasun determinatuaren* bilakakera da. Horrela, edukiak erakusten du bere determinatutasuna ez duela beste baten eskutik jaso eta ez zaiola itsatsia izan, baizik eta hark berak ematen diola bere buruari eta norbera goratzen dela *une* izatera eta osoiaren kokaleku izatera. Adimen tauladunak bere baitarako gordetzen du edukiaren beharrezkotasuna eta adigaia, konkretu-dena, antolatzen duen gauzaren errealitatea eta higidura bizia osatzen duena, edo bestela ez du bere baitarako gordetzen, baizik eta ez du ezagutzen; izan ere, ulermen sakon hori izango balu, hura erakutsiko luke. Baina haren premia ere ez du ikusten; bestela haren eskematizatzea baztertuko luke edo gutxienez horren bidez ez luke aurkibide batekin baino gehiago jakingo; aurkibidea baino ez du ematen eskura, edukia bera ez du eskaintzen. - Determinatutasuna, adibidez magnetismoa bezalakoa, bere baitan konkretua edo erreala den determinatutasuna bada, hala ere hila den zerbait izateraino beheratu da, hori beste hor-izate batetik predikatzen baita eta ez baita ezagutzen hor-izate horren bizitza immanente gisa, edo nola duen horretan norberaren sorkuntza eta aurkezpen jatorrizkoa eta berezia. Kontu nagusi hori gaineratzea besteei uzten die adimen formalak. - Gaiaren eduki immanentea jorratu beharrean osokia goitik ikusten du, eta aipatzen duen hor-izatea banakoaren gainean dago, hau da, ez du ezertxo ere ikusten. Jakintzaren ezagutzeak, ordea, eskatzen du objektuaren bizitzari ematea, edo, gauza berbera dena, haren barne

beharrezkotasuna aurrean izatea eta adieraztea. Bere objektuan hondoratuta, ezagutze hark goitik ikuste hura ahazten du, zeina jakiteak edukitik bere baitara egiten duen islapena baino ez den. Baina materian hondoratuta eta horren higiduran aurrera eginez, bere baitara itzultzen da, baina ez betetzeak edo edukiak bere burua bere baitan jaso aurretik, determinatutasun izateraino sinpletu aurretik, bere burua hor-izate baten alde *bat* izatera beheratu eta bere egia garaiaigora igaro aurretik. Horrela, bere burua goitik ikusten zuen osoki sinplea aberastasunetik agertzen da, hain zuzen, itxuraz haren hausnarketa galduta zeukan aberastasun hartatik.

Oro har, lehenago adierazi denez, substantzia bere baitan subjektu delako, eduki oro horrek bere baitara egiten duen islapena da. Hor-izate baten irautea, edo substantziak bere buruarekin duen berdintasuna da; izan ere, bere buruarekiko desberdintasuna haren desagitea litzateke. Bere buruarekiko berdintasuna, ordea, abstrakzio hutsa da; eta hori *pentsatzea* da. *Nolakotasun* esaten dudanean, determinatutasun sinplea esaten dut; *nolakotasunaren* bidez hor-izate bat beste batetik bereizten da, edo hor-izate bat da; bere baitarako da, edo duen sinpletasun horren bidez irauten du. Baina horren bidez funtsean *pentsamen - du* da. - Hor aditzen da izatea *pentsatzea* dela; *pentsatzearen* eta *izatearen* identitateaz hitz egite arrunt eta adigaigabeari ihes egiten ohi dion ulermena hemen kokatzen da. - Hor-izatearen irautea norberaren buruarekiko berdintasuna edo abstrakzio hutsa denez, hura norbere abstrakzioa da bere baitatik, edo hura bere buruarekiko desberdintasuna da eta bere desagitea, haren beraren barnekotasuna eta bere baitara itzultzea, haren bilakaera. - Badenaren izaera horren bidez, eta badenak izaera hori jakitearentzat duen heinean, hori ez da edukia arrotz baten modura tratatzen duen egiletasuna, ez da edukitik irtenda bere baitara doan islapena; jakintza ez da dogmatismo *baieztatzailearen* ordez *dogmatismo ziurtatzaile* gisa edo *norberaren ziurtasunaren dogmatismo* gisa agertzen den idealismo hura, baizik eta, jakintzak edukia bere barnekotasunera itzultzen ikusten duen heinean, haren egiletasuna hartan hondoratzen da, edukiaren norbera immanentea denez, eta aldi berean bere baitara itzultzen da, norberaren buruarekiko berdintasuna denez beste izatean; beraz, hura itxuraz ekiten ez duen eta begiratzen duen ziria da nola determinatutasunak eta haren bizitza konketuak, itxuraz euren mantenua eta euren interes bereziaz arduratzen direnean, alde-

rantzizkoa egiten duten egitea direla, euren burua desegiten duen eta osokiaren une bihurtzen dituen egitea.

Lehenago *adimenaren* esanahia aipatu denean substantziaren autokontzientziaren ikuspegitik, orduan hor esandakotik argitzen da haren esanahia hark baden gisa duen determinazioaren arabera. - Horizatea nolakotasuna da, bere buruaren berdin den determinatutasuna edo sinpletasun determinatua, pentsamendu determinatua; hori da horizatearen adimena. Horrenbestez **nouß** da, *Anaxagorasek* lehenik zerizana gisa berrezagutu zuena; ondoren hor-izatearen izaera zehazkiago aditu zen **eidoß** edo **ideja** gisa; hau da, *orokortasuna determinatua, mota*. *Mota* adierazpena itxuraz arruntegia da eta gutxiegi da egun izugarri zabaltzen diren ideientzat, eder eta santu eta betiko denarentzat. Baina, egitatean, ideiak ez du ez gehiago ez gutxiago adierazten mota gisa. Baina guk orain sarri ikusten dugu adigai bat era determinatuan izendatzen duen adierazpen bat gutxietsi eta beste batez ordezkatzeko dela, zeinak atzerriko hizkuntza bati dagiolako, horregatik bakarrik bada ere, adigaia lainoz inguratzen duen eta horrenbestez onbidezko hotsa esleitzen dion. - Hain zuzen, mota gisa determinatzen delako horizatea pentsamendu sinplea da; **nouß** a, sinpletasuna, substantzia da. Haren sinpletasuna eta norberaren buruarekiko berdintasuna dela eta finko eta gerakor gisa agertzen da. Baina bere buruarekiko berdintasuna hori era berean negatibotasuna da; horren bidez hor-izate finko hura desegitera igarotzen da. Hasieran badirudi determinatutasuna *beste* batekin lotura duelako soilik dela, eta horri higidura bortxa arrotz batek ematen diola; baina hark bere beste izatea bere baitan duela eta norberaren higidura dela, hori, hain zuzen, pentsatzearen *sinpletasun* hartan barnebiltzen zen; izan ere, hori bere burua higitzen duen eta bereizten duen pentsamendua da, eta barnekotasun propioa *adigai* hutsa da. Horrela, beraz, *adigarritasuna* bilakaera bat da, eta bilakaera hori den aldetik *arrazoizkotasuna* da.

Denaren izaera horretan datza, bere izatean bere adigaia izatean, beharrezkotasun *logikoa* oro har; hori baino ez da arrazoizko-dena eta osoki organikoaren erritmoa, hura era berean edukiaren *jakitea* da, edukia adigai eta zerizana denez, edo hura baino ez da *espekulatibo-dena*. - Tankera konkretuak, bere burua higituz, bere burua determinatutasun sinple bihurtzen du, horren bidez forma logiko izatera goratzen da eta bere zerizantasunean da; haren hor-izate konkretua higidura hori baino

ez da, eta hor-izate logiko da bitartegabe. Horregatik, ez da beharrezkoa eduki konketuari formalismoa kanpotik gaineratzea; hura bere baitan da horretara doan igarotzea; horrek, ordea, kanpoko formalismo hori izateari uzten dio, zeren forma eduki konketu beraren jatorrizko bilakaera baita.

Jakintzaren metodoaren izaera horrek, aldez edukitik bereizi gabe izatea, aldez bere kabuz bere buruari erritmoa determinatzea, filosofia espekulatiboan dauka bere benetako aurkezpena, lehen ere gogorra ekarri dugunez. - Hemen esandakoak adierazten du, bai, adigaia, baina horrek aitzinatzen den ziurtapena baino ezin du izan. Haren egia ez datza aldez narrazio modukoa den azalpen horretan; eta horregatik are gutxiago da errefusatua, horren aurka baieztatzen denean, hura ez dela horrelakoa, baizik eta horrela eta hala jokatzen duela, ohiko errepresentazioak egia ezarri eta ezagun gisa gogora ekartzen direnean eta aipatzen direnean, edo gainera barneko begiester jainkotiarren aldaretik zerbait berria asmatzen eta baieztatzen denean. - Horrelako harrera izaten omen da jakitearen erreakzioa ezaguna ez zaionaren aurrean, horrela askatasuna eta norberaren ulermena, norberaren autoritatea arrotzaren aurrean salbatzeko, tankera horrekin agertzen baita lehenik jasotzen dena; eta gainera, zerbait ikastean legokeen itxura eta lotsa mota baztertzeko, eta era berean ezezaguna denaren onarpen txalogarrian mota berbereko erreakzioa dugu, eta beste eremu batean hitz egite eta ekite ultrairaultzailea den horretan datza.

Jakintzaren ikasketan, beraz, adigaiaren ahalegina norberak bere gain hartu behar du. Hark arreata adigaiaren jartzea eskatzen du adigai gisa, determinazio sinpleetan, adibidez, *berbaitan izatean*, *berbaitara -ko izatean*, *norberaren buruarekiko berdintasunean* eta abarretan; izan ere, horiek arima dei ditzakegun norberaren buruaren higadura hutsak dira, haien adigaiak horiek baino garaiagoa den zerbait izendatuko ez balu. Errepresentazioen bidea jarraitzeko ohiturari horren etendura adigaiaren eskutik hara eta hona pentsamendu errealean arrazoitzen duen pentsatze formalari bezain eragozgarri zaio. Ohitura hari pentsatze material deitu behar zaio, ausazko kontzientzia, ekaian hondoratu baino egiten ez dena, eta zeinari garratza suertatzen zaion materiati aldi berean haren norbera huts-hutsean ateratzea eta hartan geratzea. Beste, arrazoitzea, aldiz, edukitik aske izatea eta horri buruzko harropuzkeria da; eskatzen zaio askatasuna uzteko ahalegina egin dezala, eta

arbitrarioki higitzen den edukiaren printzipio izan beharrean, askatasun hori hartan hondoratzea, hura bere izaera propioaren bidez, hau da, norberaren bidez higiaraztea, harena dena bezala, eta higidura hori behatzea. Adigaien erritmo immanentean sartzeari uko egitea, hor arbitrarioki eta edonola lortutako jakituriaren bidez ez ekitea, horretatik begiratzea bera adigaiari arreta eskaintzearen funtsezko unea da.

Jokabide arrazoitzailean pentsatze aditzaileari aurkakotzen zaizkion bi alde azpimarratu behar dira. - Aldez hark negatiboki jokatzeko du atzemandako edukiaren aurrean, badaki hori errefusatzeko eta suntsitzen. Edukia hori ez dela ulertzea *negatibo-dena* besterik ez da, azkena da, bere buruaren gainetik eduki berri batera igarotzen ez dena, baizik eta berriro eduki bat izatearren nonbaitetik *beste* zerbait hartu behar duena. Hura nia hutsera doan islapena da, bere jakitearen harropuzkeria. - Harropuzkeria horrek, ordea, ez du eduki hori hutsala dela soilik adierazten, baizik eta ulermen horren hutsalkeria ere bai; izan ere, bere baitan positibo-dena ikusten ez duen negatibo-dena da. Hausnarketa horrek bere negatibotasuna eduki gisa lortzen ez duenez, hori ez dago gauzan, baizik eta beti haren gainetik; hark irudikatzen du hustasunaren baieztapenaren eskutik edukiz gainezka dagoen edozein ulermen baino harago iritsi dela. Alderantziz, lehenago erakutsi denez, pentsatze aditzailean negatibo-dena edukiari berari dagokio eta *positibo-dena* da bai haren higidura *immanente* eta determinazio gisa baita haren *osoki* gisa ere. Emaizta gisa atzemanek gero, higidura horretatik eratoritzen dena da, negatibo-den *determinatua*, eta horrenbestez era berean eduki positiboa.

Kontuan hartzen badugu, baina, halako pentsatzeak eduki bat duela, direla errepresentazioak edo pentsamenduak edo bien nahasketak, orduan hark beste alde bat dauka, aditzea zailtzen diona. Horren izaera bitxiak zer ikusi estua du lehen aipatu den ideiarekin zerizanarekin edo, areago, ideia hori adierazten du, atzemate pentsatzailea den higidura gisa agertzen den aldetik. - Oraintxe hizketagai izan dugun haren jokaera negatiboan pentsatze arrazoitzailea bera edukiaren itzulera jasotzen duen norbera den bezala, alderantziz bere ezagutze positiboan norbera *subjektu* errepresentatua da, zeinari edukia akzidente eta predikatu gisa lotzen zaion. Subjektu horrek edukia lotzen zaion oinarria ezartzen du, eta higidura horren gainean dabil hona eta hara. Bestela gertatzen da pentsatze aditzailean. Adigaia, bere burua *bere bilakaera*

gisa aurkezten duen objektuaren norbera propioa den heinean, ez da subjektu lasaia, higigaitz akzidenteak jasotzen dituen, baizik eta bere burua higitzen duen eta bere determinazioak bere baitan jasotzen dituen adigaia. Higidura horretan subjektu lasai hura desagertzen da; bereizketetan eta edukian sartzen da eta determinatutasuna osatzen du, hau da, eduki bereizia eta horren higidura, horien aurrean geratu beharrean. Arrazoitzeak subjektu lasaian aurkitzen duen lur irmoak dardar egiten du, eta higidura hori bera soilik bihurtzen da objektu. Bere edukia betetzen duen subjektuak utzi egiten dio horretatik haraindi joateari, eta ezin ditu beste predikatu edo akzidenteak izan. Edukiaren sakabana-tzea, alderantziz, horren bidez norberaren azpian lotzen da; ez da orokor-dena, subjektutik aske askori dagokiona. Edukia horrenbestez egitatean ez da subjektuaren predikatua, baizik eta substantzia da, hizketagai dugunaren zerizana eta adigaia da. Pentsatze errepresentatzailea horren izaera akzidenteei edo predikatuei jarraitzea eta arrazoiz gainera haietaz haraindi joatea denez, haiek ez baitira predikatu edo akzidente gisa, eragotzia da bere aurrerapenean, esakunean predikatuaren forma duena substantzia bera den heinean. Kontrako kolpea jasaten du, horrela irudikatu nahi badugu. Subjektutik abiatuz, hori oinarrian geratuko balitz bezala, aurkitzen du ezen, predikatua substantzia denez, subjektua predikatu izatera igaro dela eta horrenbestez gainditua izan dela; eta horrela predikatu zirudiena masa oso eta beregain bihurtzen denez, pentsatzeak ezin du aske ibili noraezean, baizik eta pisu horrek eusten dio. - Bestalde, lehenik subjektua oinarrian ezartzen da norbera *objektibo* finko gisa; hortik abiatu ondoren beharrezko higidurak jarraitzen du determinazioen edo predikatuen aniztasunerantz; hor subjektu haren ordeztu jakituna bera agertzen da, eta predikatuen elkarlotzea eta haiek bermatzen dituen subjektua da. Baina lehen subjektu hura determinazioetan sartzen den heinean eta haien arima den heinean, bigarren subjektuak, jakitunak alde batera utzi zuen hura eta bere gainetik bere baitara itzuli nahi zuen hura oraindik ere predikatuan aurkitzen du, eta predikatuaren higitzean ekilea izan beharrean arrazoitzaile gisa, hari predikatu hori edo hura egotzi beharko balitzaio bezala, edukiaren norberaz arduratzen da oraindik, bere baitarako izan beharrean harekin elkartu nahi ez badu.

Esandakoa formalki honela adieraz daiteke, ezen judizioaren edo esakunearen izaera oro har, subjektuaren eta predikatuaren arteko

bereizketa bere baitan jasotzen duena, suntsitu egiten da esakune espekulatiboaren bidez, eta lehena bihurtzen den esakune identikoak erlazio haren aurkako kontraerasoa barnebiltzen du. - Oro har esakunearen formaren eta hori deuseztatzen duen adigaiaren batasunaren arteko gatazka erritmoan neurriaren eta akzentuaren artean gertatzen denaren antzekoa da. Erritmoa erdigune zabunkaritik eta bien batuketatik sortzen da. Era berean, esakune filosofikoan subjektuaren eta predikatua-ren identitateak bien arteko bereizketa, esakunearen formak adierazten duena, ez luke deuseztatu beharko, baizik eta horien batasuna sortu beharko litzateke harmonia gisa. Esakunearen forma zentzu determinatuaren edo bere betetzea bereizten duen akzentuaren agerpena da; baina predikatua substantzia adieraztea eta subjektua bera orokor-denean erortzea, *batasun* horretan iraungitzen da akzentu hura.

Esandakoa adibideen bidez argitzearren, *Jainkoa izatea* da esakunean, izatea da predikatua; horrek substantziatzko esanahia dauka, non subjektua urtzen den. *Izateak* hemen ez luke predikatu izan behar, zerizana baizik; horren bidez itxuraz jainkoak utzi egiten dio esakunean duen kokalekuaren arabera izan behar duena izateari, alegia, subjektu finkoa. - Pentsatzeak, subjektutik predikatura doan igarobidean aurrera egin beharrean, sentitzen du, subjektua galtzen denez, eragotzia dela eta subjektuaren pentsamendura atzera jaurtia dela, haren mira duelako; edo subjektua bitartegabe predikatuan aurkitzen du, predikatua bera subjektu gisa, *izate* gisa, subjektuaren izaera agortzen duen *zerizan* gisa adierazten baita; eta beraz, predikatuan bere baitara joan eta arrazoitzearen kokapen askea lortu beharrean, edukian are sakonago joan da, edo gutxienez hartan sakonago joateko eskaera hor dago. - Esaten denean *erreala-dena orokor-dena* dela, erreala-dena subjektu gisa bere predikatuan iraungitzen da. Orokor-denak ez luke predikatua-ren esanahia soilik izan behar, halako moldez non esakuneak hau adieraziko lukeen, hots, erreala-dena orokorra dela, baizik eta orokor-denak erreala-denaren zerizana adierazi beharko luke. - Horregatik, pentsatzeak subjektuan zuen oinarri objektibo finkoa galtzen du, predikatura atzera jaurtia denean, eta horretan ez da bere baitara itzultzen, baizik eta edukiaren subjektura.

Eragozpen ezohiko horretan hartzen dute oin neurri handi batean idazki filosofikoen adigaitzasunari buruzko kexak, bestalde indibiduoak hura ulertzeko behar diren formazioaren beste baldintzak ditue-

nean. Esandakoan idazki horiei egiten zaien gaitzespen oso zehatzaren oinarria ikusten dugu, hots, hainbat gauza lehenik behin eta berriz irakurri behar dela, ulertu ahal izateko; gehiegizkoa eta azkena den zerbait barnebildu behar du gaitzespen horrek, halako moldez non, oinarritua baldin badago, ez baitu erantzunik onartzen. - Aurrekotik argitzen da horrek zer esan nahi duen. Esakune filosofikoak, esakunea delako, subjektuaren eta predikatuaren arteko erlazio ohikoaren eta jakitearen jokabide ohikoaren iritzia iratzartzen ditu. Jokabide horrek eta horretaz dugun iritziak haren eduki filosofikoa suntsitzen du; iritziak esperimentatzen du esan nahi zuena ez beste zerbait esan nahi dela, eta haren iritziaren zuzenketa horrek behartzen du jakitea esakunera itzultzea eta hura beste era batera ulertzea.

Baztertu beharko litzatekeen zailtasun batek modu espekulatiboaren eta arrazoitzailearen arteko nahasketa osatzen du, behin subjektuaz esaten denak haren adigaiaren esanahia badu, beste behin, ordea, haren predikatuaren eta akzidentearen esanahia besterik ez. - Modu batek besteari eragozten dio, eta esakune baten zatien arteko erlazio arruntan mota zehazki baztertuko lituzkeen azalpen filosofikoak baino ez luke lortuko malgua izatea.

Egitatean espekulatiboa ez den pentsatzeak ere badu eskubidea, balio duen eskubidea, baina esakune espekulatiboaren moduan kontuan hartzen ez dena. Esakunearen forma gainditzeak ez du gertatu behar *bitartegabe* soilik, esakunearen eduki soilaren bidez soilik. Baizik eta higidura aurkakotu hori adierazi behar da; hark ez du barneko eragozpen hura bakarrik *aurkeztu* behar, baizik eta adigaia bere baitara itzultze hori ere bai. Higidura hori, zeinak bestela frogapenak lortu behar zuena osatzen duen, esakunearen beraren higidura dialektikoa da. Hori bakarrik da espekulatibo-den *erreal*a, eta horren adierazpena baino ez da aurkezpen espekulatiboa. Esakune gisa espekulatibo-dena *barne* eragozpena baino ez da, eta zerizanaren bere baitarako *hor ez-den* itzuler. Horregatik, sarri azalpen filosofikoek *barne* begiester horretara bidaltzen gaituzte eta horren bidez eskatzen genuen esakunearen higidura dialektikoaren aurkezpena aurrezten zaigu. - *Esakuneak* adierazi beharko luke egia *zer* den, baina hori funtsean subjektua da, eta horren bestez higidura dialektikoa baino ez da, bere burua sortzen duen, aurrea egiten duen eta bere baitara itzultzen den ibilbidea. - Bestelako eza-gutzetan frogapenak osatzen du barnekotasun adieraziaren alde hori.

Baina dialektika frogapenetik banandu ondoren, egitatean, frogatze filosofikoaren adigaia galdu egin da.

Gogora ekar daiteke hemen higidura dialektikoak era berean esakuneak dituela bere zati edo osagai gisa; azaldu den zailtasuna, beraz, itxuraz beti itzultzen da, eta itxuraz gaiaren beraren zailtasuna da. - Frogapen arruntean gertatzen denaren antzekoa da hori: behar dituen oinarriek euren aldetik oinarritzapen bat behar dute eta horrela amaigabeki. Oinarritzearen eta baldintzatzearen forma hori higidura dialektikotik ezberdintzen den frogatze hari dagokio eta horrenbestez kanpoko ezagutzeari dagokio. Horri berari dagokionez, horren osagaia adigai hutsa da, horren bidez eduki bat du, zeina oso-osorik subjektu den bere baitan. Ez da agertzen oinarrian datzan subjektu gisa jokatu-ko lukeen eta zeinari bere esanahia predikatu baten gisara dagokion edukirik. Esakunea bitartegabe forma hutsala baino ez da. - Sentipenaren bidez begietsitako edo errepresentatutako Norberaz at subjektu hutsa bereziki izena da izen gisa, bata adigaigabe hutsala izendatzen duena. Horregatik, erabilgarria izan daiteke adibidez *Jainkoaren* izena alde batera uztea, zeren hitz hori ez baita bitartegabe aldi berean adigai, baizik eta benetako izena, oinarrian datzan subjektuaren lasaitasun finkoa. Aitzitik, adibidez, izateak, edo Batak, subjektuak berak ere, eta abarrek bitartegabe adigaiak iradokitzen dituzte. Nahiz eta subjektu hartaz egia espekulatiboak esaten diren, haren edukiak ez du adigai immanenterik, zeren hura hor subjektu lasai gisa baino ez baitago eta egia haiek egoera horren ondorioz erraz lortzen baitute onbidezotasun soilaren forma. - Eta alde horretatik predikatu espekulatiboa esakunearen formaren arabera, eta ez adigai eta zerizan gisa, ulertzeko ohituran datzan oztopoa handitu edo txikitu daiteke azalpen filosofikoaren erruz. Aurkezpenak, espekulatibo-denaren izaeraren ulermen sakonari leial, forma dialektikoa mantendu behar du, eta ez du ezer jaso behar, ez bada aditzen eta adigaia ez bada.

Jokaera arrazoitzailak bezainbat oztopatzen du filosofiaren ikasketa egia ezarritakoen irudikapen ez-arrazoitzailak; haien jabe denak uste du ez duela haietara itzultzeko beharrik, baizik eta oinarrian ezarri eta haiek ahoskatu ditzakeela uste du eta haien bidez epaitu eta zigortu dezakeela. Alde horretatik, beharrezkoa da bereziki filosofia-tzea berriro zeregin serio bihurtzea. Jakintza, antze, trebezia, artisautza oroz konbentzimendu hau dugu, hots, horiek lortzeko horiek ikasteko

eta horiekin aritzeko ahalegin askotarikoa beharrezkoa dela. Filosofia-ri dagokionez, aldiz, badirudi orain aurreiritzi hau nagusitzen dela, hots, edonork begiak eta hatzak dituenean eta larrua eta tresnak jasotzen dituenean horregatik gai ez den arren oinetakoak egiteko, edonork dakiela filosofatzen eta filosofia epaitzen, horretarako eredua bere berezko arrazoimenean duelako, bere oinetakoaren eredua bere oinean izango ez balu bezala. - Badirudi zehazki filosofiaren jabegoa ezagutzen eta ikasketaren gabezia ezar daitekeela eta horiek amaitzen direla haiek hasten direnean. Sarri jakite edukigabeko formalizat hartzen da, eta ez da inolaz ere ulertzen edozein ezagutza eta jakintzan egia denak, baita edukia arabera ere, izen hori lortzen duela filosofia sortzen duenean; beste jakintzek, filosofiari gabe arrazoitzen saiatzen badira ere, nahi duten adina, hura gabe ezin dute euren baitan bizitzarik, gogorik, egirik izan.

Benetako filosofiari dagokionez, Jainkotiar-denaren agerkunde bitartegabekoak eta giza adimen arruntak, ez beste jakiteak ezta benetako filosofatzea lortzen ahalegintzen den eta horietan formatzen denak ere, bitartegabe garapenaren bide luzearen, gogoak jakitea lortzeko behar duen higadura aberats eta sakonaren baliokide bete eta ordezkotzat jotzen dute euren burua, adibidez atxikoria kafearen ordezkotzat ona dela esaten denean bezala. Ez da atsegina ohartaraztea ezen jakingabeziak eta gordintasun formagabe eta zakarrak, zeina ez den gai bere pentsatzea esakune abstraktu batean mantentzeko, are gutxiago esakune askoren loturan mantentzeko, orain askatasuna eta tolerantzia direla baieztatzea, gero ordea jeinutasuna direla. Azken hori era berean oso zabaldua zegoen garai batean poesian, orain filosofian dagoen bezala, ezaguna denez; baina poesia sortu beharrean, jeinutasun horren produkzioak zentzua zuenean prosa hutsala sortzen zuen edo, hortik haraindi joaten zenean, hitzaldi eroak. Eta berdin orain berezko filosofatzearekin, adigairentzat onegi eta horren gabezia dela eta pentsatze begiesle eta poetikotzat hartzen den horrek pentsamenduaren bidez desantolatu baino egiten ez den irudimen baten konbinazio arbitrarioak merkaturatzen ditu, ez arrain ez haragi ez diren, ez poesia ez filosofia ez diren irudi multzoa dira.

Aitzitik, giza adimen arruntaren ohe lasaiaren bidetik joatean berezko filosofatzeak egia hutsalen erretorika bat sortzen du onenean. Horien hutsaltasuna aipatzen zaionean baieztatzen du zentzua eta bete-

tzea bere bihotzen daudela eta besteengan ere izan behar dutela, oro har bihotzaren inozotasunarekin, kontzientzia moralaren garbitasunarekin eta halakoekin azken hitza esan duela uste duen heinean, zeinaren aurka ezin baita ezer erantzun ezta ezer eskatu ere. Baina egin behar zena ez zen onena barnean uztea, baizik eta zulo horretatik argitara ekartzea. Mota hartako azken egiak sortzea aspaldi aurreztu ahal izango litzatekeen ahalegina da; izan ere, aspalditik aurki daitezke katiximan, atso-titz herrikoietan eta antzekoetan. - Ez da zaila halako egietan euren determinatutasun eza edo okertasuna sumatzea, eta bere kontzientziari bere baitan zuzenki aurkakoa erakustea. Eta kontzientzia hartan sortu den nahasmendutik irteten ahalegintzen denean beste batean erortzen da, eta baliteke zakarki esatea erabakita dagoela hori *horrela* edo *hala* dela, baina beste haiek *sofistikeria* direla, giza adimen arruntaren lema arrazoimen formatuaren aurka, filosofiaren ezjakintasunak *ameskeriak* adierazpena erabiliz filosofia behin betiko ezaugarritzen duen bezala. - Hark sentimendura, bere barne orakulura jotzen duen heinean, ados ez dagoenarekin amaitu du; azaldu behar du ez duela besterik esateko, bere baitan aurkitzen eta sentitzen duena ez bada; beste hitzekin, gizatasunaren erroak zapaltzen ditu. Izan ere, horren izaera da besteekin adostasuna bilatzea, eta haren existentzia kontzientzien elkartasun lortuan baino ez datza. Gizatiar denaren aurkakoa, aberetar dena sentimenduan geratzean eta horren bidez soilik komunikatu ahal izatean datza.

Jakintzaren erregebideaz galdetuko balitzateke, ezingo litzateke giza adimen sendoa baina bide erosoagorik aipatu, eta gainera garaia-rekin eta filosofiarekin aurreratzeokotan, idazki filosofikoen laburpenak eta agian baita aitzin-solas eta lehen paragrafoak irakurtzea; izan ere, horiek ematen dute kontua biltzen duten lehen oinarritzko esakuneak, eta haiek berri historikoaz gain juzgaketa, zeina juzgaketa den aldetik juzgatua denaren gain dagoen. Bide arrunt hori etxe barruko janzkiekin egiten da, baina betiko-denaren, santu-denaren, amaigabeko-denaren goi sentimendua gotzain-janzkiekin azaltzen da, eta bide hori berebat bitartegabeko izatea da erdigunean, ideia sakonago eta orijinalagoen eta pentsamendu-txinparta garaia goen jeinutasuna. Sakontasun horrek zerizanaren iturria agerrazten ez duenez, dirdira horiek ez dira oraindik Enpireoa. Egiatzko pentsamenduak eta ulermen zientifikoa adigaiaren lanean soilik lortzen dira. Berak soilik sor dezake jakitearen orokorta-

suna, zeina ez den ez giza adimen arruntaren determinatutasun eza arrunta eta premia, ezta jeinuaren alferkeria eta harrotasunaren bitartez usteltzen ari den arrazoimenaren egituraren orokortasun ez-arrunta, baizik eta ezagutza hezitua eta osatua eta bere etxeko formara emana den egia, zeina gai den arrazoimen autokontziente ororen jabetza izateko.

Jakintzaren oinarria adigaiak bere burua higitzean ezartzen dudan heinean, orduan badirudi egiaren izaera eta tankerari buruz aipatu diren garaiko errepresentazioak eta hauen beste kanpoko aldeak guretatik aldentzen direla, erabat aurkakoak ere badirela, eta horrek itxuraz ez dio agintzen harrera onik jakintzaren sistema determinazio hartan aurkezteko saioari. Hala ere, kontuan har dezaket, ezen, adibidez, batzuetan *Platonen* filosofiaren alde garrantzitsuena jakintzaren aldetik baliorik ez duten mitoetan ezarri bada, garaiak ere egon direla, gogoberotasunaren garai deitu direnak gainera, non Aristotelesen filosofia haren sakonera espekulatiboagatik errespetatzen zen eta Platonen *Parmenides*, antzinako *dialektikaren* antzelan handiena izan daitekeen, *bizitza jainkotiarren adierazpen positibo* eta egiazko azalpenez hartzen zen, eta *estasiak* sortu zuen horretaz iluntasun asko zegoen arren, gaizki ulertutako estasi horrek egitatean ezin zuen *adigai hutsa* baino izan; eta gainera uste dut gure garaiko filosofiaren alde bikainak bere balioa jakingarritasunean ezartzen duela, eta besteek bestela irizten badute ere, horren bidez baino ez duela lortzen egitatean bere eraginkortasuna. Horrela itxaron dezaket jakintza adigaiarentzat aldarrikatzeko eta hori bere osagai bereizgarrian aurkezteko saio horrek bidea bilatzen jakingo duela gaiaren barne egiaren bidez. Konbentzitutak egon behar dugu egia-denak bide egiteko izaera duela bere garaia iritsi denean, eta hori iristean baino ez dela agertzen, eta horregatik ez dela inoiz goizegi agertzen eta ez duela publiko prestatugabea aurkitzen; era berean, indibiduoak ondorio hori behar duela bere buruari bermea emateko oraindik bere gai bakartua den horretan eta orain bereiztasuna baino ez den konbentzimendua zerbait orokorra bezala esperimentatzeko. Horretan, ordea, sarri publikoa eta horren ordezkari eta bozeramaile gisa aurkezten direnen artean bereiztu behar da. Hark zenbait ikuspuntutan beste horiek ez bezala jokutzen du, are aurkako moduan ere. Hark bihotz onez idazki filosofiko batek ezer ez esatearen errua bere buruari egozten dio; haiek, euren gaitasunaz ziur, errua idaz-

leari egozten diote. Eragina harengan hildakoak lurperatzen dituzten hildako horien egitea baino lasaiagoa da¹. Eta orain ulermen orokorra garatuagoa badago oro har, haren jakin-mina esnatuago badago eta haren judizioa azkarrago zehazten bada, halako moldez non lurperatu behar zaituztenen hankak atearen aurrean baitaude jadanik², orduan horretatik sarri ezberdindu behar da baieztapen boteretsuen bidez ezarritako arreta eta gaitzespen gutxiesgarriak zuzentzen dituen eragin makalagoa, zeinak alde bati irakurle garaikideak ematen dizkion aldi baten ondoren, halako moldez non besteari aldi horren ostean ez baitzaio ondorengo irakurlerik geratzen.

Bestalde, gogoaren orokortasuna asko indartu den eta banakotasuna, dagokion bezala, neurri berean axolagabetu den garai batean, non hura bere hedapen osoan eta aberastasun garatuan mantentzen den eta hori eskatzen duen, gogoaren lan osoan indibiduoaren egiletasunari dagokion zatiak ezin du txikia baino izan, eta horrek, beraz, jakintzaren izaerak eskatzen duen moduan, bere burua ahaztu behar du eta ahal duen hori bihurtu eta egin behar du, baina era berean gutxiago eskatu behar zaio, horrek berak bere buruaz gutxi itxaroten duenez eta bere buruari gutxi eskatu ahal dionez.

SARRERA

Berezko bururapen bat da filosofian gaira, hots, egiatan denaren benetako ezagutzara jo baino lehenago beharrezkoa izatea aldez aurretik ezagutzari buruz ados jartzea, berau edo absolutu-dena eskuratzeko lantresnatzat hartzen dela edo hura begiratzeko bitartekotzat. Ardurak bidezkoa dirudi, alde batetik, ezagutza modu ezberdinak izan litezkeelako, beraien artean bata bestea baino egokiagoa izanik azken helburu hori lortzeko, eta horrela haien arteko aukera okerra egin daitekeelako; eta bestetik ere bai, ezagutza modu eta hedapen determinatutako ahalmena denez gero, bere izaera eta mugen determinazio zehatzik gabe egiaren zeruaren ordeztuaren hodeiak atzitu genituzkeelako. Ardura horrek konbentzimendu honetan ere eraldatu behar du, alegia, bere baitan dena ezagutzaren bidez kontzientziarentzat lortzen hastea bere adigaiari kontraesankorra dela, eta ezagutza eta absolutu-denaren artean hauek zeharo banatzen dituen muga dagoela. Izan ere, ezagutza absolutu-dena eskuratzeko lantresna bada, orduan zera ohartzen dugu, lantresna bat gauza bati aplikatzean horrek gauza ez duela bere baitan den gisara uzten, baizik eta horren eratze eta aldaketa bat sortzen duela. Edo ezagutza ez bada gure ekimenaren lantresna, baizik eta neurri batean baliabide pasiboa, zeinaren bidez egiaren argia guregana iristen den, orduan hori ez dugu bere baitan den gisara jasotzen, baizik eta baliabide horren bitartez eta bertan den gisara. Kasu bietan bere helburuaren aurkakoa sortzen duen bitarteko bat erabiltzen dugu; edo zentzugabea

da, aitzitik, guk oro har bitarteko bat erabiltzea. Badirudi egoera gaitz hau *lantresnaren* eraginaren eraren ezagupenaren bitartez konpon daitekeela, horrek ahalbidetzen baitu emaitzatik absolutu-denaz jasotzen dugun errepresentazioan bitartekoari dagokiona kentzea horren bidez, eta horrela egia-dena huts-huts mantentzea. Hala eta guztiz ere, hobekuntza horrek egitatean lehen geunden lekura bidali baino ez gaitu egingo. Gauza eratu batetik berriro kentzen badugu bitartekoak hartan egin duena, orduan guretzat gauza (kasu horretan absolutu-dena) aha- legin alferrikako hori egin aurretik zena bezainbat da. Absolutu-dena bitartekoaren bidez gurera hurbilduko balitz, hartan ezer aldatu gabe, txoria adar itsasgarriaren bidez hurbiltzen zaigun bezala, orduan hark iseka egingo lioke azerikeria horri, dagoeneko berbaitan eta berbaitarako gurekin egongo ez balitz edo egon nahiko ez balu; izan ere, kasu horretan ezagutzea azerikeria litzateke, hainbat ahaleginen bidez harreman bitartegabekoa eta, beraz, ahaleginik behar ez duena sortu beharrean beste edozer egiteko itxurak egingo bailituzke. Edo *elkargune* gisa errepresentatzen dugun ezagutzearen probak haren errefrakzioaren legea ezagutarazten badigu, ez du ezertarako balio hori emaitzatik kentzeak; izan ere, ez da izarren errefrakzioa, baizik eta izarra bera, egia ekartzen digun hori da ezagutzea, eta hori kenduz gero, guri norabide hutsa edo toki kaskala baino ez litzaiguke izendatuko.

Bitartean, errakuntzan gertatzeko ardurak jakintzan dugun konfiantza galtzea erakartzen badu, halako zalantzarik ez dagoenean berez lanean jartzen den eta benetan ezagutzen duen jakintzan, alegia, orduan ezin da ulertu zergatik ez den alderantziz konfiantza eza horretan konfiantza galtzen, eta erratzeko beldurra jadanik errakuntza bera izateaz arduratu behar izatean. Egitatean, beldur horrek egiazat onartzen du zerbait, hainbat gauza, eta horretan oinarritzen ditu eragozpenak eta ondorioak, baina aurretik probatu beharko litzateke ea hura egia den. Hain zuzen, *ezagutzearen errepresentazioak* onartzen ditu *lantresna* eta *elkargune* gisa, baita *gu eta ezagutze horren arteko bereizketa* ere; baina bereziki onartzen du absolutu-dena *alde batean* dagoela eta ezagutzea *beste aldean* bere baitarako eta erreala den absolutu-denetik bereizita, edo horren bidez onartzen du ezagutzea, absolutu-denetik at dagoen heinean, egiatik at dagoena, dena den, egiazkoa dela; eta onarpen horren bidez adierazten da errakuntzaren aurrean beldurra izatea egia- ren aurrean beldurra izatea dela.

Ondorio hori hemendik dator: absolutu-dena bakarrik dela egia edo egia-dena bakarrik dela absolutua. Arbuiatu dezakegu bereizketa bat eginez, hots, absolutu-dena ezagutu ez arren, jakintzak nahiko lukeen moduan, ezagutze bat egiazkoa izan daiteke, eta ezagutzea oro har, absolutu-dena atzemateko ezgai izan arren, beste egiak lortzeko gai izan daiteke. Baina, ondorioz, ikusten dugu horrela eta hala hitz egiteak eramaten gaituela egia-den absolutu baten eta beste egia-den baten arteko bereizketara, eta absolutu-dena, ezagutzea, eta abar, halako hitzak dira, ezen esanahi bat aurreuposatzen baitute, oraindik ere aurkitu behar dugun esanahia.

Ezagutzari buruzko horrelako errepresentazio eta hitz egiteko era alferrikakoa, absolutu-dena atzemateko lantresna balitz bezala, edo egia behatu ahal izateko bitarteko balitz bezala, eta abar (erlazio horiek ditu ondoriotzat ezagutzea absolutu-denetik bereizita eta absolutu-dena ezagutzetik bereizita errerepresentatzeak); erlazio halakoen aurreuposiziotik jakintzaren ezgaitasunak ateratzen dituzten aitzakien ordezt, aldi berean jakintzaren ahaleginetik askatzeko, eta aldi berean ahalegin serio eta bizi baten itxurak sortuz; gainera, norberaren burua hori guztiari eman beharreko erantzunekin aztoratu beharrean, errepresentazio horiek ausazko eta arbitrarior gisa bazter zitekeen, eta horri lotutako hitzen erabilera, absolutu-dena, ezagutzea, objektibo-dena eta subjektibo-dena, oro har edonorentzat esanahi ezaguna duten beste hainbat iruzurtzat ere hartzea. Izan ere, aitzakia dirudi alde batetik horien esanahia eskuarki ezaguna dela, bestetik horien adigaia badugula esatea, arazo nagusia baztertu nahi duen aitzakia, alegia, adigai hori eskaintzea. Are arrazoi gehiagor aurreztu ahal izango genuke oro har jakintza bera baztertuko luketen errepresentazio eta hitz egiteko modu horien berri izatea; izan ere, jakitearen agerpen hutsala baino ez dute osatzen, zeina bitartegabe desagertzen den badatorren jakintzaren aurrean. Baina jakintza, agertzen denean, hori bera agerpena da; haren agertzea ez da oraindik hura bere egian gartua eta hedatua. Hori dela eta, alferrikakoa da hura agerpena dela errerepresentatzea, beste jakite baten *aldamenean* agertzen delako, edo beste jakite ez-egiazko horri haren agertzea deitzea. Jakintzak itxura horretatik askatu behar du bere burua; eta horren aurka eginez soilik egin dezake. Izan ere, ezin du besterik gabe egiazkoa ez den jakite bat arbuiatu gauzen ikuspegi arrunta delako, eta segurtatu bera guztiz bes-

telako ezagutza dela eta jakite hura berarentzat ez dela ezer; ezin du era berean bere baitan legokeen jakite hobe baten susmora jo. *Baiez - tapen* haren bidez adierazi zuen indarra *izatean* duela, baina jakite ez-egiazkoak ere horretara jotzen du, *badela*, eta *baieztatzen du* jakintza ez dela ezer berarentzat; baina baieztatze lehor *batek* beste batek adina balio du. Eta nekezago jo dezake susmo hobe batera, egiazkoa ez den ezagutzean legokeena, eta bere baitan haren aipamena litzatekeena; izan ere, batetik, era berean berriro izate batera joko luke; bestetik, bere baitara joko luke egiazkoa ez den ezagutzean den moduan, alegia, horren izatearen modu txar batean, eta are bere agerpenera eta ez berbaitan eta berbaitarako denera. Horregatik, agertzen den jakitearen aurkezpena jorratu behar dugu orain.

Baina aurkezpen horren objektua agertzen den jakitea baino ez denez, orduan itxuraz ez da jakintza askea, bere tankera propioan higitzen den jakintza, baizik eta ikuspegi horretatik begiratuta egiazko jakiterantz bultzatzen duen berezko kontzientziaren bide gisa har daiteke, edo arimaren bide gisa, zeinak bere tankeren ilara zeharkatzen duen bere izaerak jartzen dizkion geldialdi gisa, horrela gogo izateraino araztuz, bere buruaren esperientzia osoaren bidez bere baitan den horren ezagutza lortzen duen heinean.

Berezko kontzientzia jakitearen adigaia baino ez dela gertatuko da, edo jakite erreala ez dena. Baina bitartegabe bere burua jakite errealtzat duenez, bide horrek harentzat esanahi negatiboa dauka, eta adigaiaren errealizazioa dena harentzat bere buruaren galera da; izan ere, bide horretan bere egia galtzen du. Beraz, *zalantzaren* bidetzat jo daiteke, edo, hobe, etsipenaren bidetzat; horretan ez da gertatzen, izan ere, ohiz zalantza esatean ulertzen dena, ustezko egia hau edo haren arteko ezbaia, zeinari zalantzaren desagerpenak eta egia haren itzulerak jarraitzen dion, halako moldez non azkenean gaia hasieran bezala ulertzen baita. Baizik eta hura agertzen den jakitearen egia-ezaren ulermena da, horretaz jabetuz, jakite horrentzat errealea izaki egiatan errealizatzen ez den adigaia baino ez dena. Eszeptizismo osatu hori ez da horregatik egia eta jakintza bilatzeko irrika serioak eurentzat prestatu eta hornitu omen duena; alegia, jakintzan besteen pentsamenduen autoritateari men ez egiteko *asmoa*, baizik eta dena norberak probatzekoa eta norberaren konbentzimenduari besterik ez jarraitzea, edo are hobeto, guttia norberak sortzea eta norberaren egintza baino ez jotzea egia-dentzat.

Kontzientziak bide horretan zeharkatzen dituen tankeren ilara kontzientziak jakintza *bihurtzeko* jasaten duen hazkundearen historia osoa da. Asmo hark hazkundera asmoaren modu sinplean aurkezten du bitartegabe osatu eta gertatu gisa; baina bide hori da benetako egikaritzea egia-eza haren aurrean. Norberaren konbentzimenduari jarraitzea, hala ere, autoritateari men egitea baino gehiago da; baina autoritateagatik ontzat hartzea norberaren konbentzimenduagatik ontzat hartzera bihurtzearen bidez ez da halabeharrez ezer aldatzen edukian eta ez da errakuntza zegoen lekuan egia agertzen. Iritziaren eta aurreiritziaren sistemari eustea besteen autoritatea dela edo norberaren konbentzimenduagatik, biok bigarren moduak biltzen duen handikeria dela eta besterik ez dira bereizten. Aitzitik, agertzen den kontzientziaren hedapen osora zuzentzen den eszeptizismoak behartzen du gogoia berariaz egia zer den probatzera, berezko errepresentazio, pentsamendu eta iritzi gisa ezagutzen diren horietan etsipena sortzen duen heinean, horiek norberarenak edo beste batenak izatea axolagabe zaiola; horiez betea eta horiei lotua dago kontzientzia *hain zuzen* horiek probatzera doanean, eta horrek egitatean ezgaitzen du egin nahi duen hori egiteko.

Errealaz ez den kontzientziaren formen *osotasuna* aurrerapenaren eta elkarloturaren beharrezkotasunaren bidez ondorioztatuko da. Hori ulertzeko eskuarki adieraz daiteke aurretik ezen kontzientzia ez-egiazkoaren aurkezpena ez dela higidura *negatibo* soila ez-egia horren arabera. Halako ikuspegi aldebakarra du berezko kontzientziak bere buruaz oro har; eta halako aldebakartasuna bere zerizan bihurtzen duen jakite bat kontzientzia osagabearen tankeretako bat da, bidean zehar kokatzen dena eta bertan aurkeztuko dena. Eszeptizismoa da, hain zuzen, emaitzan beti *ezereztu* ikusten duena, eta hortik abstraitzen du ezereztu horrek determinatzen duela *jatorritzat emaitza duen ezereza*. Egia, ordea, jatorritzat duen emaitzaren ezereztu gisa hartuta, egitatean ez da egiazko emaitza baino; eta horrenbestez *determinatua* da eta *eduki* bat dauka. Ezereztaren abstrakzioarekin edo hustasunarekin gaina lortzen duen eszeptizismoak ezin du hortik aurrera egin, baizik eta zain egon behar du ea zerbait berria eskaintzen zaion, hori ere leize huts berberera jaurtitzeko. Bestalde, emaitza egiatan den bezala ulertzen denean, negazio *determinatu* gisa, horren bidez forma berri bat sortzen da bitartegabe, eta negazioan igarobide bat sortzen da, zeinaren bidez tankeren ilara osatuaren zehar aurrerapena berez gertatzen den.

Baina *helburua* jakiteari aurrerapenaren ilarari bezain modu beharrezkoan itsasten zaio; hor dago, jakiteak bere baitatik haratago joateko beharrik ez duen tokian, bere burua aurkitzen duen tokian, adigaia objektuari eta objektua adigaiari dagozkien tokian. Helburu horretarainoko aurrerapena, horrenbestez, geraezina da, eta aurreko ezein geldialditan ezin du asebieterik lortu. Berezko bizitza batera mugatua dagoenak ezin du bere kabuz bere bitartegabeko izatetik haratago joan; baina beste batek bultzatuko du harantz, eta erauzia-izate hori da haren heriotza. Baina kontzientzia bere *adigaia* da beretzat, eta horrenbestez bitartegabe mugatu-denetik haratago joatea, eta, mugatu-den hori berea denez, bere baitatik haratago joatea; banako-denarekin batera kontzientzian haratago-dena ezartzen da, espazioaren begiespenean bezala bada ere, mugatu-denarekin *batera*. Kontzientziak, beraz, bortxa hori, asebetetze mugatua zapuztea, jasaten du bere eskutik. Bortxa hori sentitzean baliteke beldurra egiaaren aurrean atzera egitea eta galtzeko arriskua duen hori mantentzeko ahalegina egitea. Baina ezin du lasaitasunik aurkitu; salbu pentsamendurik gabeko moteltasunean geratu nahi badu; pentsamenduak pentsamendu-eza zapuzten du, eta haren lasaitasun-ezak moteltasunari enbarazu egiten dio; salbu irmo ezartzen den sentikortasun gisa, zeinak dena *bere arloan ontzat* hartzen duela baieztatzen duen; baina baieztapen horrek era berean arrazoimenaren bortxa jasaten du, zeinak zerbait ez duen ontzat hartzen, hain zuzen, arlo bat delako. Edo baliteke egiaaren beldurra bere burutik eta besteetatik itxura honen atzean ezkutatzea, hots, egiaaren irrika beroa izango balitz bezala hari hain zaila, ezinezkoa ere egiten diona handikeria honena ez den beste egia bat aurkitzea, alegia, bere baitatik edo beste batetik lortu duen pentsamendu oro baino azkarragoa izatea; egia oro zapuzten eta hortik bere baitara itzultzen dakiena, eta bere adimen propioaz elikatzen dena, zeinak badakien nola koskortu pentsamendu guztiak; eta eduki ororen orde z nia lehorra besterik aurkitzen ez duen handikeria hori bere buruarekin bakarrik utzi behar da, zeren orokor-denari ihes egiten baitio, eta berbaitarako izatea baino ez baitu bilatzen.

Behin-behineko eta eskuarki aurrerapenaren modua eta beharrezkotasunari buruz zerbait esanda, orain erabilgarria izango da *egika-ritzearen metodoari* buruz zerbait esatea. Aurkezpen hori aurkeztean, *jakintzaren jokaera* gisa *agertzen den* jakitearekiko eta *ezagutzearen errealitatearen azterketa* eta *proba* gisa, itxuraz hori ezin da gertatu

oinarrian ezartzen den *eredurik* auresuposatu gabe. Izan ere, proba onartutako eredu baten aplikazioan datza, eta ondorioz probatzen den horren berdintasun edo desberdintasunean; hortik erabakiko da zuzena edo okerra den. Eta hori egitean oro har eredua eta era berean jakintza, eredua izango balitz, *zerizan* gisa edo *berbaitan* gisa onartzen da. Baina hemen, jakintza lehenengoz agertzen den unean, horrexek edo hori denak ez dute euren burua bermatu zerizan gisa eta berbaitan gisa; eta horrelakorik gabe itxuraz ezin da probarik egin.

Kontraesan hori eta horren ezabaketa era zehatzagoan gertatuko dira, lehenik jakitearen eta egiaren determinazio abstraktuak gogoan hartzen baditugu, horiek kontzientzian gertatzen diren bezala. Horrek, hain zuzen, zerbait bere baitatik *bereizten* du eta aldi berean horri *lotzen* zaio, edo hori adierazten ei denez: zerbait da *harentzat*, eta zerbaiten *lotze* edo *izate* horren alderdi determinatua da *jakitea kontzientzia batentzat*. Beste batentzat izate horretatik *berbaitan izatea* bereizten dugu; jakiteari lotzen zaiona era berean horretatik bereizten da eta *iza - ten* ezartzen da lotura horretatik at; berbaitan horren aldeari *egia* esaten zaio. Hemen ez dugu determinazio horien ardura gehiago hartu behar; izan ere, agertzen den jakitea gure objektua den heinean, orduan lehenik horren determinazioak jasoko dira, horiek bitartegabe eskaintzen diren bezala; eta beraz, jasoak izango direnez, ondo da haiek euren burua eskaintzea.

Orain jakitearen egia aztertzen badugu, itxuraz *bere baitan* dena aztertzen dugu. Baina azterketa horretan *gure* objektua da, *guretzat* da; eta horren *berbaitana*, ondorioztatuko litzatekeena, haren *guretzako* izatea litzateke; haren zerizan gisa baieztatuko genukeena, ez litzateke ordea haren egia, baizik eta guk dugun haren egia. Zerizana edo eredua gudan legoke, eta horrekin alderatu beharko litzatekeenak, zeinari buruz alderaketaren bidez erabaki beharko litzatekeen, ez luke hura berrezagutzeko beharrik halabeharrez.

Baina aztertzen ari garen objektuaren izaerak banaketa hori edo banaketa eta presuposizio itxura hori gainditu egiten du. Kontzientziak bere baitan ematen du bere eredua, eta horrenbestez azterketa hura bere buruarekin alderatzean datza; izan ere, oraintxe egin den bereizkuntza kontzientzian datza. Hartan beste *batentzako* bat dago, edo bere baitan dauka oro har jakitearen unearen determinatutasuna; aldi berean, beste hori ez zaio *beretzat* bakarrik, baizik eta harreman horretatik kanpo edo

bere baitan ere bai: egiaren unea. Kontzientziak, beraz, bere barnean *berbaitana* edo *egia-dena* gisa adierazten duen horretan dugu hark ezartzen duen erdua, haren jakitea horren arabera neurtzeko. *Jakitea - ri adigai* deitzen badiogu, zerizanari edo *egia-denari*, ordea, badena edo *objektua*, orduan proba honetan datza, hots, ikustea ea adigaia objektuari dagokion. Baina *zerizanari* edo *objektuaren* berbaitanari *adigai* deitzen badiogu, eta *objektuaz* ulertzen badugu hori objektu gisa, alegia, *beste batentzat* den bezala, orduan proba honetan datza, hots, ikustea ea objektua bere adigaiari dagokion. Erraz ikusten da biak gauza berbera direla; baina funtsezkoa da azterketa osoan bi une horiek kontuan izatea, *adigaia* eta *objektua*, *beste batentzat* eta *berbaitan iza - tea*, aztertzen ari garen jakitean datzatela, eta horrenbestez ez dugu zertan geuk ereduak ekarri behar eta *gure* burutazio eta pentsamenduak azterketan aplikatu behar; horiek alde batera utziz lortzen dugu gaia *berbaitan* eta *berbaitarako den* bezala aztertzea.

Baina gure ekarpena alferrikakoa da, ez soilik adigaia eta objektua, erdua eta probatu behar dena kontzientzian bertan daudelako, bai- zik eta gainera kendu egiten zaigulako bien arteko alderaketa egitearen eta benetako *proba* egitearen ahalegina, halako moldez non kontzien- tziak bere burua probatzen duen heinean guri alde horretatik ere ikus- tea baino ez baitzaigu geratzen. Izan ere, kontzientzia alde batetik objektuaren kontzientzia da, bestetik bere buruaren kontzientzia; hari egia-dena zaionaren kontzientzia eta horretaz duen jakitearen kontzien- tzia. Biak *berberarentzat* diren heinean, hori bera da alderaketa; *haren - tzat* gertatzen da objektuaz duen jakitea hari dagokion ala ez. Objektua itxuraz bada harentzat hark hura dakien bezala; badirudi era berean ezin duela haratago joan, horrela *ez harentzat*, baizik eta *berbaitan* nola den ikusteko, eta badirudi, beraz, haren jakitea objektuan bertan ezin duela probatu. Baina hain zuzen horregatik, oro har objektu batez dakielako, hor dugu bereizketa dagoeneko: *harentzat* zerbait *berbaitana* dela eta jakitea edo objektuaren izatea kontzientziarentzat beste une bat dela. Aurrean dugun bereizkuntza horretan datza proba. Alderaketa horretan biak elkarri ez badira egokitzen, orduan itxuraz kontzientziak bere jaki- tea aldatu behar du, hori objektuari egokitzeko, baina jakitearen alda- ketan egitatean objektua bera aldatzen zaio; izan ere, aurrean genuen jakitea funtsean objektuaren jakitea zen; jakitearekin hura ere beste bat bihurtzen da; izan ere, objektua zerizanez jakite hari zegokion. Eta,

horrenbestez, kontzientziarentzat lehen *berbaitana* zena berbaitan ez dela gertatzen da, edo *beretzat* baino ez zela berbaitan. Beraz, kontzientziak aurkitzen duenean bere objektuan horren jakitea hari ez dagokiola, objektuak berak ere ez du hori jasaten; edo probaren ereduak aldatzen da, ereduak neurtu behar zuenak proba gainditzen ez badu; eta proba ez da jakitearen proba bakarrik, baizik eta horren ereduaren proba ere bai.

Kontzientziak bere baitan, bere jakitean nahiz bere objektuan, eragiten duen higidura *dialektiko* hori, hortik harentzat *objektu egiaz -ko berria sortzen zaion heinean*, benetan *esperientzia* deitzen dena da. Horri lotuta, oraintxe aipatutako ibilbidean une bat zehazkiago azpimarratu behar da; horren bidez datorren aurkezpenearen alde zientifikoaren gainean argi berri bat zabalduko da. Kontzientziak *zerbait* daki, objektu hori zerizana da, edo *berbaitana*; baina hori kontzientziarentzat ere *berbaitana* da; horrela egia-den horren esanahi-bikoiztasuna agertzen da. Ikusten dugu kontzientziak orain bi objektu dituela, bata, lehen *berbaitana*, bestea, *berbaitan horren berbaitarako izate*a. Azken hori hasiera batean itxuraz kontzientziak bere baitara egiten duen islapena da, ez objektuaren errepresentatzea, baizik eta lehen hartaz duen jakitearena. Baina lehenago erakutsi denez, hori egitean lehen objektua aldatzen da; utzi egiten dio berbaitana izateari, eta hari *berbaitana harentzat* soilik dena bihurtzen zaio, eta horrenbestez hau da, hots, *berbaitan haren bertaitarako izatea*, egia-dena, eta horrek esan nahi du hori dela *zerizana*, edo bere *objektua*. Objektu berri horrek lehenengoaren baliogabetasuna jasotzen du, haren gainean egindako esperientzia da.

Esperientziaren ibilbide honen aurkezpenean badago une bat, non hark itxuraz esperientziaz ulertzen ohi denarekin bat egiten ez duen. Lehenengo objektutik eta beraren jakintzatik beste objektura doan igarobidea, *bigarrenean* esaten delarik esperientzia egin dela, honela aipatzen zen, alegia, lehenengo objektuaren jakintzak, edo lehenengo berbaitanaren kontzientziarako izateak, bigarren objektu bihurtu behar zuela. Aitzitik, bestela dirudi, gure lehen adigaiaren ezegiaren esperientzia *beste* objektu *batean* egiten dugula, guk ausaz eta kanpotik soilik aurkitzen duguna, horrela oro har bere baitan eta bere baitarako denaren *ulertze* hutsa izanik. Ikuspegi horretan, ordea, objektu berria bilakatu gisa agertzen da *kontzientziaren iraulketa*

baten bitartez. Gaiaren kontsiderazio hau gure gehigarria da, kontzientziaren esperientzien ilara bide zientifikora goratzen duena, eta ez dena guk kontsideratzen dugun kontzientziarentzat. Hau, ordea, egitatean lehen ere aurkezpen lanak eszeptizismoarekin duen hartue-manari begira esandakoaren egoera berbera dugu, alegia, jakintza ez-egiazko batean gertatzen den emaitza ezin dela ezerez kaskal batean geratu, baizik eta halabeharrez *emaitza den haren* ezerez gisa ulertu behar dela; aurretiko jakintzak bere baitan duen egia barnebiltzen duen emaitza. Hori hemen halako moldez agertzen da, non lehen itxuraz objektu zena kontzientzia horren jakite izatera beharitzen duen heinean eta *berbaitana berbaitanaren kontzientziarentzako izate* bihurtzen den heinean, hori objektu berria baita, eta horrela kontzientziaren tankera berria agertzen da, zeina aurrekoarekin alderatuz beste zerbaiten zerizana den. Egoera hori da kontzientziaren tankeren ilara osoa gidatzen duena halabeharrez. Baina beharrezkotasun hori edo objektu berriaren *sorkuntza* da, kontzientziari aurkezten zaiona jakin gabe nola aurkezten zaion, guretzat halaber haren bizkarrean gertatzen dena. Horren bidez haren higiduran *berbaitan* eta *guretzako iza-tearen* une bat dago, zeina ez den aurkezten esperientzian bere burua ulertzen duen kontzientziarentzat. Baina gugan sortzen denaren *edukia harentzat* da eta guk haren forma dena baino ez dugu ulertzen, edo sortze hutsa: *harentzat* sortu dena objektu gisa besterik ez da, *guretzat* aldi berean higidura eta bilakaera gisa.

Beharrezkotasun horren bitartez jakintzaranzko bide hau bera jadanik *jakintza* da eta bere edukiaren arabera *kontzientziaren esperientziaren* jakintza.

Kontzientziak bere buruaz egiten duen esperientziak ezin du bere adigaiaren arabera bere sistema osoa edo gogoaren egiairen erresuma osoa baino gutxiago jaso bere baitan, halako moldez non bere uneak determinatutasun berezi honetan aurkezten baitira, ez une abstraktu, huts gisa, baizik eta kontzientziarentzat diren gisara edo hori bera uneekin harremanean azaltzen den gisara, horrela osokiaren uneak *kontzientziaren tankerak* izaki. Bere benetako existentziarantz harrapaka aurrera egiten duen heinean, irudipen hau uzten duen puntu batera heltzen da: bere baitan soilik eta beste gisa den arrotzarekin lotua izateko irudipena, edo agerpenak zerizanarekin bat egiten duen puntua, bere aurkezpena beraz gogoaren benetako jakintzaren

puntu horrekin bateratzen dela; eta azkenik, berak bere zerizan bera ulertzen duen heinean, horrek jakintza absolutuaren izaera bera izendatzen du.

I.

SENTIPENEZKO ZIURTASUNA EDO HAUA ETA IRIZTEA

Lehenik edo bitartegabe gure objektua den jakitea jakite bitartegabekoa bera, *bitartegabe-denaren* edo *denaren jakitea* den hori besterik ezin da izan. Guk era berean *bitartegabe* edo *hartzaile gisa* jokatu behar dugu, hau da, objektuan, eskaintzen den moduan, ezer aldatu gabe eta atzematen dugunean aditzea alde batera utziz.

Sentipenezko ziurtasunaren eduki konkretuak bitartegabe azalarazten du ziurtasun hau ezagutza *aberatsena* bezala, gainera aberastasun amaigabeko ezagutza bat bezala ere bai, eta aberastasun horrek ez du mugarik aurkitzen, bai gu hori hedatzen den espazioan eta denboran barreiatzen bagara edo baita betetasun horretatik zati bat hartu eta hori zatituz bertan barneratzen bagara ere. Gainera, ezagutza *egiazkoena* bezala agertzen da; zeren oraindik ez baitu objektutik ezer kanpoan utzi, baizik eta bera bere osotasun guztian bere aurrean dauka. *Ziurtasun* horrek, haatik, benetan *egia* abstraktuen eta urrien gisa aurkezten du bere burua. Dakienari buruz hau besterik ez du adierazten: hori *da*; eta bere egiak gauzaren *izatea* besterik ez du barnebiltzen; kontzientzia bere aldetik ziurtasun horretan *Ni* huts gisa soilik da; edo *Ni* naiz bertan *Hau* hutsa bezala soilik eta objektua halaber *Hori* hutsa bezala soilik. Ni, *hau*, gauza honetaz ez nago horregatik *ziur*, *ni* kontzientzia bezala hemen garatu naizelako eta pentsamendua era batean edo bestean higiarazi dudalako. Ezta ziur nagoeneko *gauza* nolakotasun ezberdinen arabera bere baitan harreman aberatsa edo besteeikiko jokabide

anizkuna izango litzatekeelako ere. Ez bat ez bestea ez zaio ezer interesatzen sentipenezko ziurtasunaren egiari; ez Nik ezta gauzak ere ez dauka hemen bitartekotza anizkoitzaren esanahia; Nik ez daukat pentsatze edo errepresentatze anizkoitzaren esanahia, ezta gauzak nolakotasun anizkoitzaren esanahia ere, baizik eta gauza *da*; eta hori *da*, delako besterik ez; hori *da*, hau da sentipenezko jakitearentzat funtsezkoena, eta izate huts horrek edo bitartegabekotasun sinple horrek bere *egia* osatzen du. Era berean ziurtasuna *harreman* gisa harreman huts *bitartegabekoa* da; kontzientzia *Ni* besterik ez da, *Hau* huts bat; banakodena Hori hutsa edo *banako-den hori* daki.

Baina ziurtasun horren zerizana osatzen duen eta berak bere egiaztat adierazten duen *izate hutsean*, ondo begiratzen baldin badugu, askoz gehiago dago jokoan. Sentipenezko ziurtasun benetakoa ez da soilik bitartegabekotasun huts hori, baizik eta bere *adibide* bat. Hor azaltzen diren bereizkuntza askoren artean edonon ezberdintasun nagusi hau aurkitzen dugu, alegia, bertan berehala izate hutsetik kanpoan geratzen direla jadanik aipatutako bi hauek, *Haua* bat *Ni* bezala eta *Hori* bat *objektu* bezala. *Guk* bereizkuntza horri buruz hausnarketa egiten baldin badugu, emaitza litzateke ez bata ezta bestea ere ez dela *bitartegabe-dena* besterik sentipenezko ziurtasunean, baizik eta aldi berean *bitartekotu* gisa; nik beste baten *bitartez* daukat ziurtasuna, hau da, gauzaren bitartez; eta hori era berean ziurtasunean beste baten *bitartez* dago, hau da, Nire bitartez.

Zerizanaren eta adibidearen, bitartegabekotasunaren eta bitartekotzaren bereizkuntza hori ez dugu egiten *guk* soilik, baizik eta hori sentipenezko ziurtasunean bertan aurkitzen dugu, eta bertan dagoen moduan hartu behar da, ez *guk* oraintxe erabaki dugun moduan. Bertan bata baden bitartegabe sinple gisa edo zerizan gisa ezartzen da, *objektua*; bestea, berriz, zerizangabe-den eta bitartekotu-den gisa, zeina hemen ez den *berbaitan*, baizik eta beste baten bitartez, *Ni*, objektua dakien *jakintza bat*, objektua delako soilik, eta izan edo ez izan daitekeen jakintza. Baina objektua *bada*, egiazko-dena eta zerizana; bera *bada*, ez dio axola jakina den ala ez; hor dago, jakina ez bada ere; baina jakintza ez da, objektua ez baldin bada.

Orain aztertu behar da, beraz, ea objektua benetan sentipenezko ziurtasunean bertan horrek hura halako zerizantzat hartzen duen moduan den; ea hark zerizan gisa duen adiera bertan duen egoerari

dagokion. Horretarako ez dugu berari buruz hausnartu eta gogoetatu behar egiatan zer izan litekeen, baizik eta sentipenezko ziurtasunak objektua bere baitan jasotzen duen moduan soilik hartu behar dugu aintzakotzat.

Ziurtasun hari berari galdetu behar zaio orduan: Zer da Hori-a? Hartzen badugu bere izatearen tankera bikoiztuan, *Oraina* gisa eta *Hemena* gisa, orduan horrek bere baitan duen dialektikak Horia den heinean forma ulergarria hartuko du. *Zer da Orain-a?* galderari, beraz, honela erantzuten diogu adibidez: *Oraina-a gaua da*. Sentipenezko ziurtasun horren egia probatzeko, saio sinple bat besterik ez da egin behar. Egia hau idazten dugu; egia batek ez du ezer galtzen hori idazteagatik; ezta gordetzen badugu ere. Idatzitako egia *orain* berriz begiratzan badugu, *eguerdi honetan*, esan beharko dugu hutsal bihurtu dela.

Gaua den *Oraina gordetzen* da, hau da, ulertua den moduan jokatu da horrekin, *den* zera baten gisara; askoz gehiago agertzen da, ordea, ez-den zera bezala. *Oraina* bera mantentzen da, bai, baina gaua ez den zerbait bezala; era berean mantentzen da orain den egunaren aurka, eguna ere ez den zerbait bezala, edo *ezezko* bat bezala oro har. Mantentzen den *Orain* hori ez da horregatik bitartegabeko *Orain* bat, baizik eta bitarteko bat; izan ere, geratzen eta mantentzen den *Orain* gisa determinatua baita *honen bitartez*, beste bat ez delako, hau da, eguna eta gaua ez delako. Hura, haatik, lehen bezain sinplea da, *Orain*, eta sinpletasun horretan bere inguruan gertatzen denaz axolagabe; bera ez da eguna eta gaua, gaua eta eguna bere izatea ez den bezala; haren beste-izate horrek ez du eraginik beregan. Ezeztapenaren bidez den horrelako sinple-den bati deitzen diogu *Orokor-dena*, ez Hau ez Hura denari, *ez-Hau* bati, eta era berean bai Haua bai Hura izateaz axolagabe denari; *Orokor-dena* da egitatean sentipenezko ziurtasunaren egia-dena.

Orokor-dena bezala *adierazten* dugu sentipenezko-dena ere; esaten duguna da: *Hau*, hau da, *Hau orokorra*, edo: *bada*; hau da, *iza-tea* oro har. Ez dugu errepresentatzen, noski, *Hau orokorra* edo izatea oro har, baina *orokor-dena adierazten dugu*; edo ez dugu hitz egiten besterik gabe sentipenezko ziurtasun horretan *irizten* dugun bezala. Baina hizkuntza, ikusten dugun bezala, egiazkoen-dena da; bertan geuk geure *iritzia* bitartegabe errefusatzen dugu; eta *orokor-dena* sentipenezko ziurtasunaren egia-dena denez eta hizkuntzak egia-den hori bes-

terik ez duenez adierazten, horrexegatik ezin liteke inolaz ere *irizten* dugun sentipenezko izate bat inoiz esan ahal izan.

Berbera gertatuko da Hau-aren beste formarekin, *Hemen*-arekin. *Hemen*-a, adibidez, *zuhaitza* da. Bizkarra ematen baldin badiot, egia hori desagertu eta kontrako egia bihurtu da: *Hemen-a ez da zuhaitz bat*, baizik eta *etxe* bat da. *Hemen*-a bera ez da desagertzen; baizik eta mantendu egiten *da*, etxea, zuhaitza eta abar desagertu egiten diren bitartean, eta axolagabe zaio etxea, zuhaitza izatea. *Hau*-ak, orduan, bere burua erakusten du berriro *bitarteko sinpletasun* bezala edo *orokorta-sun* bezala.

Sentipenezko ziurtasun horrentzat, horrek bere baitan orokordena bere objektuaren egia bezala erakusten duen heinean, *izate hutsak* bere zerizan bezala darrai, baino ez bitartegabe-dena bezala, baizik eta ezeztapena eta bitartekotasuna zerizanezko duen halako bat bezala; beraz, ez *izateaz irizten* duguna bezala, baizik eta abstrakzioa edo orokor-den hutsa izateko *determinazioa* duen *izatea*; eta sentipenezko ziurtasunaren egia-dena orokor-dena ez dela dioen *gure iritzia* besterik ez da geratzen Orain eta Hemen kaskal edo axolagabe horren aurrean.

Jakiteak eta *objektuak* lehen zuten erlazioa emaitza horretan duten erlazioarekin parekatzen badugu, alderantzikatu egin da. Zerizanezko-dena izan beharko lukeen objektua orain sentipenezko ziurtasunaren zerizangabe-dena da; izan ere, orokor-dena, objektua hori izatera iritsi baita, ez da jadanik harentzat zerizanezko izan behar zuen moduan, baizik eta orain sentipenezko ziurtasuna aurkako-denean aurkitzen da, hau da, lehen zerizangabe-zen jakitean. Bere egia objektuan dago *nire* objektua den aldetik edo *iriztean*; *nik* hari buruz dakidalako da hura. Sentipenezko ziurtasuna, orduan, objektutik egotzia izan da, bai, baina horregatik oraindik ez da izan gainditua, baizik eta soilik niarengana itzuliarazia izan da; orain ikusi egin behar da esperientziak zer erakusten digun bere errealtate horri buruz.

Bere egiaaren indarra, beraz, orain *Nian*, *nire ikustearen*, *nire entzutearen* eta abarren bitartegabekotasunean datza; deritzogun Orain eta Hemen banakoen desagertzea eragotzi egiten da *nik* atxikitzen ditudalako. *Oraina eguna da*, *nik* ikusten dudalako; *Hemena* zuhaitz bat, arrazoi beragatik hain zuzen. Erlazio horretan, ordea, sentipenezko ziurtasunak aurrekoan experimentatzen zuen dialektika bera experi-

mentatzen du. *Nik, honek*, ikusten dut zuhaitza, eta *baieztatzen dut zuhaitza Hemena bezala; beste Ni* batek, ordea, etxea ikusten du eta baieztatzen du Hemena ez dela zuhaitz bat, etxea baizik. Bi egiek sinengarritasun bera daukate, hots, ikustearen bitartegabekotasuna eta bien segurtasuna eta segurtapena euren jakiteaz; baina bat bestean desagertzen da.

Hor desagertzen ez dena, *Ni* da, *orokor-dena* gisa, zeinaren ikus-tea ez zuhaitzaren ezta etxe horren ikuste bat ere ez den, baizik eta ikuste soil bat, zeina, etxe horren eta abarren ezeztapenaren bidez bitartekotua, horrela era berean simple den eta axolagabe den hor aurrean duenaz, etxeaz, zuhaitzaz. *Nia*, oro har *Orain, Hemen edo Hau* bezala, orokorra besterik ez da; *Ni bakar* bat deritzot, bai, baina *Nian* Orainean eta Hemenean bezain gutxi esan dezaket deritzodana. *Hemen, Orain hau edo Bakar* bat esaten dudana heinean, *Hauek denak, Hemen, Orain denak: Banakoak* esaten dut; era berean, *Ni, banako Ni hau* esaten dudana heinean, *Ni denak* esaten dut oro har; bakoitza da esaten dudana: *Ni, banako Ni hau*. Jakintzari eskakizun itzuriez in hau ezartzen bazaio bere froga-harri gisa, *gauza hau* edo *gizon hau* deitzen dena eratoritza, eraikitzea, a priori aurkitzea, edonola adierazten dela ere, orduan bidezkoa da, beraz, eskakizunak *esatea* jakintzak zein gauza *hau* edo zein *Ni hau* deritzan; baina hori esatea ezinezkoa da.

Orduan, sentipenezko ziurtasunak nabaritzen du bere zerizana ez dagoela ez objektuan ezta *Nian* ere, eta bitartegabekotasuna ez dela ez bataren ez bestearen bitartegabekotasun bat; izan ere, bietan *Nik* deritzodana askoz gehiago da zerizangabe-den bat, eta objektua eta *Ni* orokor-dena dira, non *nik* deritzedan *Orain* eta *Hemen* eta *Ni* hura ez den mantentzen edo ez *den*. Horren bidez sentipenezko ziurtasunaren *osokia* bera bere *zerizan* gisa ezartzen dugu, ez bere une bat, bi kasuetan gertatu den bezala, non lehen *Nia* aurrez aurre daukan objektuak izan behar duen haren errealitatea, eta gero *Niak*. Orduan sentipenezko ziurtasun *osoa* bera da hartan *bitartegabekotasun* gisa irmo geratzen dena, eta horrela horrek aurreko egoeran zeuden aurkakotasun denak bere baitatik baztertzen ditu.

Bitartekotasun huts horri ez zaio aurrerantzean interesatzen, beraz, Hemenaren beste-izatea zuhaitz gisa, zeina ez-zuhaitza den Hemen bat bihurtzen den, ezta Orainaren beste-izatea egun gisa ere, gaua den Orain bat bihurtzen dena, ezta beste *Ni* bat ere, zeinarentzat

beste zerbait objektua den. Bere egia berbera dirauen harreman gisa mantentzen da, zeinak Niaren eta objektuaren artean zerizantasun eta ez-zerizantasunari dagokion ezberdintasunik egiten ez duen eta zeinean inolaz ere ezberdintasunik ezin den barneratu. Nik, honek, beraz, baieztatzen dut Hemena zuhaitz gisa, eta ez naiz jiratzen, horrela Hemena ez-zuhaitz bihurtuko litzaidakeelako; ez dut kontuan hartzen era berean beste Ni batek Hemena ez-zuhaitz gisa ikusten duenik edo neuk beste batean Hemena ez-zuhaitz gisa eta Oraina ez-egun gisa hartzen dudarik, baizik eta begieste hutsa naiz; ni, niri dagokidanez, honi narraio: Oraina eguna da, edo honi, Hemena zuhaitza da, eta ez ditut parekatzen Hemena eta Oraina euren artean, baizik eta harreman bitartegabeko *bati* lotzen natzaio: Oraina eguna da.

Ziurtasun horrek guregana etorri nahi ez duenez, horri gaua den Orainari buruz edo Ni bati buruz (zeinarentzat gaua den) oharartazten diogunean, orduan harengana abiatzen gara eta baieztatzen den Oraina guri erakustaraztea dagigu. Guri *erakustaraztea* da egin behar duguna; izan ere, bitartegabeko harreman horren egia *Orain* batera eta *Hemen* batera mugatzen den Ni *honen* egia da. Egia hori *gero* nabarmenduko bagenu edo bertatik *urrun* geratuko bagina, orduan ez luke batere esanahirik izango; izan ere, horri zerizanezkoa zaion bitartekogabetasuna gaindituko genuke. Orduan denboraren edo espazioaren puntu berean ezarri behar gara, guri erakustaraztea egin behar dugu, hau da, gu ziur dakiena-den Ni hau bihurraztea egin behar dugu. Ikus dezagun, orduan, guri erakusten zaigun bitartegabe-dena nolakoa den.

Oraina erakusten da, *Orain* *hau*. *Orain*; erakusten den heinean, jada izateari utzi dio; den *Oraina* erakutsitakoaren bestelakoa da, eta guk ikusten dugu Oraina hain zuzen haxe dela, jadanik ez izatea den heinean. Oraina, erakusten zaigun gisa, *izan* den Orain bat da, eta hori da bere egia; ez dauka Izatearen egia. Hau da, orduan, egia, izan dela. Baina *izan* dena ez da egitatean *ezein zerizanik*; ez *da*, eta kontua izatea zen.

Erakuste-ekintza horretan, orduan, higidura bat eta bere hurrengo ibilbidea besterik ez dugu ikusten: 1. Erakusten dut Oraina, bera egia-dena gisa baieztatzen da; baina erakusten dut izan-den gisa edo gainditua-den baten gisara, lehenengo egia gainditzen dut, eta 2. Orain baieztatzen dut bigarren egia gisa *izan* dela, gainditua izan dela. 3. Baina izan-dena ez da; izan-den-izana edo gainditua-den-izana, biga-

rrren egia, gaintitzen dut, horren bitartez Orainaren negazioa ezeztatzen dut eta horrela itzultzen naiz lehen baieztapenera, *Oraina* dela. Oraina eta Orainaren erakuste-ekintza, orduan, horrela osatuta dago, ez Oraina ezta Orainaren erakuste-ekintza ere bitartegabeko sinple-den bat ez izateko moduan, baizik eta bere baitan une ezberdinak dauzkan higidura bat; *Hau* ezartzen da, baina are gehiago *Beste bat* ezartzen da, edo *Haua* gaintitzen da: eta *beste-izate* edo lehenengoaren gaintitze-ekintza hori bere aldetik *berriz gaintitzen da* eta, horrela, lehenengora itzultzen da. Baina bere baitara islatutako lehen hau ez da zehazki lehen zena, hau da, *bitartegabe-den* bat; baizik *bere baitara islatua-den bat* edo *sinple-den bat*, zeinak beste-izatean dirauen den bezala: Hemen bat, zeina absolutuki Orain asko den; eta hori da egiazko Oraina, Oraina egun sinple gisa, zeinak Orain asko dauzkan bere baitan, orduak; halako Hemen bat, ordu bat, era berean minutu asko da, eta Orain hori modu berean Orain asko, eta abar. - *Erakuste-ekintza* bera, beraz, higidura da, zeinak Oraina egiatan dena adierazten duen, hau da, emaitza bat, edo Orainen askotasun bat elkar bilduta; eta erakuste-ekintza zera esperientziatzeko-ekintza da: Oraina *orokor-dena* dela.

Eusten dudan *erakutsitako Hemena* era berean Hemen *hau* bat da, zeina izatez *ez* den Hemen *hau*, baizik Aurre eta Atze bat, Goi eta Behe bat, Eskuin eta Ezker bat da. Goia bera era berean goian, behean eta abarretan beste-izate askotariko hori da. Erakutsi beharko litzatekeen Hemena beste Hemenetan desagertzen da, baina horiek ere desagertzen dira; erakutsia-dena, eutsia-dena eta irauten-duena *Hau negatibo* bat dira, halakoa *den Hemenak* hartu behar diren moduan hartzen diren heinean soilik, baina horrela euren burua gaintitzen dute; Hemen askoren bilkura sinple bat da. Iritzitako Hemena puntua izango litzateke; baina bera ez *da*; baizik eta den moduan erakutsia den heinean azaltzen da erakuste-ekintza ez dela bitartegabeko jakintza, baizik eta iritzitako Hemenetik Hemen asko zeharkatuz Hemen orokorrera doan higidura bat, eta Hemen orokor hori Hemenen askotasun sinple bat da, eguna Orainen askotasun sinplea den bezala.

Argi geratzen da sentipenezko ziurtasunaren dialektika bere higiduraren edo bere esperientziaren historia sinplea besterik ez dela eta sentipenezko ziurtasun bera historia hori besterik ez dela. Berezko kontzientziak ere, beraz, beti emaitza hau lortzen du bere kabuz, bere baitan egia-dena dela, eta horren esperientzia egiten du, baina era bere-

an beti ahazten du eta higidura berriz hasten du. Harrigarria da, beraz, esperientzia horren aurka esperientzia orokor gisa eta gainera baieztapen filosofiko gisa eta baita eszeptizismoaren emaitza gisa ere zera aurkeztea, errealitateak edo kanpoko gauzen izateak, *hauek* edo sentipenezkoak direnez, kontzientziarentzat egia absolutua omen duela; horrelako baieztapen batek ez daki zer dioen, ez daki esan nahi duenaren aurkakoa esaten duela. Kontzientziak sentipenezko *Hauetaz* duen egiak esperientzia orokorra beharko luke; aurkakoa da, ordea, esperientzia orokorra; edozein kontzientziak horrelako egia gainditzen du, adibidez, *Hemena zuhaitz bat da*, edo *Oraina eguerdia da*, eta aurkakoa adierazten du: Hemena *ez* da zuhaitz bat, *baizik eta* etxe bat; eta lehena gainditzen duen baieztapen horretan berriro sentipenezko Hau baten era bereko baieztapen bat dena berehala era berean gainditzen du. Sentipenezko ziurtasun orotan egitan ikusi dugunaren esperientzia besterik ez da egiten, hots, Haua orokor-dena gisa, zeina hasierako baieztapen hark esperientzia orokorra dela ziurtatzen duenaren aurkakoa den. - Esperientzia orokorrera jotze horretan, zilegizkoa izan daiteke Praktika kontuan hartzea aitzinatzea. Praktika kontuan hartzean sentipenezko objektuen errealitatearen egia eta ziurtasun hura baieztatzen dutenei esan diezaieke jakituriaren eskolaren lehen mailara itzuli behar dutela, hots, Zeres eta Bacoren misterio eleusinar zaharretara, eta ogia jatearen eta ardoa edatearen sekretua ikasi behar dutela oraindik; izan ere, sekretu horietan sarbidea lortu duena sentipenezko gauzen izateaz zalantzan egitera ez ezik izate horren etsipenera ere ailegatzen da eta, aldez, hark haietan beren ezezkotasuna sortzen du, eta aldez, haiek sortzen dutela ikusten du. Animaliei ere ez zaie jakituria hori debekatzen, baizik eta haiek bertan era sakonenean sarbideratuak daudela erakusten da; izan ere, ez dira sentipenezko gauzen aurrean geldi geratzen, bere baitan diren aldetik, baizik eta, errealitate horretaz etsita eta bere ezezkotasunaren ziurtasun betearekin, haiek besterik gabe atzeman eta irensten dituzte; eta natura osoak ospatzen ditu, haiek bezalaxe, misterio ageri horiek, sentipenezko gauzen egia zer den irakasten dutenak.

Halako baieztapena egiten dutenek, ordea, aurreko oharren harian bitartegabe irizten dutenaren aurkakoa esaten dute gainera; eta agerpen hori da agian sentipenezko ziurtasunaren izaerari buruzko hausnarketa gehien bultza dezakeena. *Kanpoko* objektuen izateaz hitz egiten dute, zeinak oraindik zehazkiago determina daitezkeen guztiz

parekorik ez duten gauza *erreal*, absolutuki *banako*, *osoki pertsonal*, *indibidual* gisa; izate horrek ziurtasun eta egia absolutua omen ditu. Orri *hau* irizten dute, non nik *hau* idazten, edo hobeto esanda, idatzi dudana; baina irizten dutena ez dute esaten. Irizten duten orri *hau esate* - *ko* asmoa izango balute, eta *esateko asmoa zuten*, orduan ezinezkoa da, zeren irizten den sentipenezko *Haua eskuraezina* baita bere baitan orokorra denari, kontzientziari dagokion hizkuntzarentzat. Esateko saio errealetan desegingo litzateke, beraz; bere deskribapena hasten dutenek ezingo lukete osatu, baizik eta besteen esku utzi beharko lukete, zeinek azken batean ez *den* gauza batez hitz egiten dutela aitortuko luketen. Beraz, orri *hau* irizten dute, aurrekotik erabat ezberdintzen dena; baina *gauza* errealak, *kanpoko* edo *sentipenezko objektuak*, izaki *absolutuki banakoak*, eta abar esaten dituzte, *hau* da, horietaz *orokor-dena* besterik ez dute esaten; horregatik, adierazgaitz izendatzen dena egia-ez-dena, arrazoizko-ez-dena, soilik irizten-dena besterik ez da. - Zerbaitez *gauza erreal* bat, *kanpoko objektu* bat dela besterik ez bada esaten, orduan hori orotan-orokorra-dena gisa soilik adierazten da eta horrela gehiago adierazten da guztiarekin duen *berdintasuna* ezberdintasuna baino. Esaten badut: *gauza bakan* bat, orduan *osoki orokor-den* moduan esaten dut; izan ere, denak dira *gauza bakan* bat; eta era berean *gauza hau* nahi den guztia da. Zehazkiago izendatuz, *orri hau* gisa, orduan orri *oro* eta *bakoitza* orri *hau* bat da, eta nik beti ere orokor-dena besterik ez dut esan. Nik, ordea, iritzia bitartegabeki bihurritzeko, beste zerbaitean eraldatzeko eta horrela iritzia *hitzera etortzea* erabat eragozteko jainkotiar izaera duen hitz egiteari orri *hau erakutsiz* lagundu nahi badiot, orduan sentipenezko ziurtasunaren egia egitatean denaren esperientzia egiten dut: beste Hemenen Hemen bat edo bere baitan *Hemen* askoren *elkarketa sinple* bat den, *hau* da, orokor-den bat den *Hemen* bat gisa erakusten dut; egiatan den moduan hartzen dut eta bitartegabe-den bat jakin beharrean *hauteman* egiten dut.

II.

HAUTEMAPENA, EDO GAUZA ETA NAHASKETA

Bitartegabeko ziurtasunak ez du atzematen beretzat egia-dena, zeren bere egia orokor-dena baita; baina horrek *Haua* atzeman nahi du. Hautemapenak, aldiz, beretzat badena atzematen du, orokor-dena den aldetik. Orokortasuna haren printzipioa den bezala oro har, era berean orokorrak dira bere baitan bitartegabeki ezberdintzen diren bere uneak, Nia Ni orokor bat eta Objektua Objektu orokor bat. Printzipio hura *sortu* egin zaigu, eta guk hautemapena hartzeko-ekintza, beraz, ez da jadanik agertzen den hartzeko-ekintza bat, sentipenezko ziurtasunarena bezala, baizik eta beharrezko hartzeko-ekintza bat. Printzipioaren sor-kuntzan bi uneak aldi berean bilakatu dira, zeinak euren agerpenean *hor erorita* baino ez dauden; bata, alegia, erakuste-ekintzaren higidura, bestea higidura bera, baina simple-den heinean; hura *hautemate-ekintza*, hau *objektua*. Zerizanari dagokionez objektua higidura den zera bera da, higidura uneen destolesketa eta bereizketa da, objektua haien bilkura. Guretzat edo bere baitan, orokor-dena printzipio gisa hautemapenaren *zerizana* da, eta abstrakzio horren aurren bereizten diren bi hauek, hautematen-duena eta hautematen-dena, *zerizangabe-dena* dira. Baina, izatez, biak orokor-dena edo zerizana direnez, biak dira zerizanezkoak; baina aurkakotu gisa elkar harremantzen diren heinean, orduan harremanean bat bakarrik izan daiteke zerizanezko-dena, eta zerizanezko-denaren eta zerizangabe-denaren arteko desberdintasuna bien artean banatu egin behar da. Bata simple gisa determinatua, objektua, zerizana

da, berdin dio hautemana den ala ez; baina hautemate-ekintza, higidura den aldetik, izan edo izan ezin daitekeen aldabera-dena da, eta zerizangabe-dena.

Objektu hori orain zehazkiago determinatu behar da eta determinazio hori lortutako emaitzatik abiatuta laburki garatu behar da; hemen ez dagokigu garapen osoagoa egitea. Bere printzipioa, orokordena, bere sinpletasunean *bitartegabeko* printzipio bat denez, orduan horrek hori bere izaera gisa bere baitan adierazi behar du; horren bitartez bere burua *ezaugarri askoko gauza* gisa erakusten du. Sentipenezko jakintzaren aberastasuna hautemapenari dagokio, ez bitartegabeko ziurtasunari, non hori zerizanezkoa ez zen; izan ere, hark baino ez dauka *negazioa*, ezberdintasuna edo aniztasuna bere zerizanean.

Haua, beraz, *ez-hau* gisa edo *gainditu* gisa ezartzen da, eta horrenbestez ez ezerez gisa, baizik eta ezerez determinatu bat edo *eduki bateko*, hots, *Honetako*, *ezerez* gisa. Sentipenezko-dena, ondorioz, oraindik hor dago, baina ez bitartegabeko ziurtasunean izan beharko lukeen bezala, iritzitako bakan-dena gisa, baizik eta orokor-den gisa edo *ezaugarri* bezala determinatuko dena gisa. Gainditze-ekintzak bere egiazko esanahi bikoiztua aurkezten du, zeina negatibo-denean ikusi dugun; *negazio-ekintza* bat eta *kontserbazio-ekintza* bat da aldi berean; ezerezak, *Hauaren ezerez* gisa, bitartegabekotasuna kontserbatzen du eta bera sentipenezkoa da, baina bitartegabekotasun orokor bat. - Iza-tea, ordea, orokor-den zerbait da bitartekotza edo negatibo-dena bere baitan edukitzearen bidez; hori bere bitartegabekotasunean *adierazten* duen heinean, *ezaugarri ezberdin*, *determinatu* bat da. Horrenbestez, aldi berean halako *ezaugarri asko* ezartzen dira, bata bestearen negatiboa. Orokor-denaren *sinpletasunean* adierazten diren heinean, gainertzen zaien determinazio baten bidez soilik *ezaugarri* bihurtzen diren *determinatutasun* horiek *beraien buruekin* harremantzen dira; elkarri *axolagabe*, bakoitza bere aldetik, bestetik aske. Bere buruaren berdin den orokortasun simple bera, aitzitik, bere determinatutasun horien ezberdina eta horietatik askea da; bere-buruarekin-harremantzeko-ekintza hutsa da, edo *elkargunea*, zeinean determinatutasun horiek denak bertan batasun *simple* batean bezala dauden, elkar *zeharkatzen* direla baina elkar *ukitu* gabe; izan ere, orokortasun horretan parte-hartzearen bidez dira axolagabe bakoitza bere aldetik. - Elkargune abstraktu orokor hori, zeina *gauzatasuna* oro har edo *zerizan hutsa* dei dai-

tekeen, ez da *Hemena* eta *Oraina* baino, erakutsi den bezala, hau da, askoren *bilera sinple* bat bezala; eta asko diren horiek berak *euren determinatutasunean sinpleki orokorrak* dira. Gatz hau Hemen sinplea da, eta aldi berean askotarikoa; zuria da, eta *gainera* mina, *gainera* forma kubikoa du, *gainera* pisu jakin bat du, eta abar. Ezaugarri anitz horiek guztiak *Hemen* sinple batean daude, zeinean beraz elkar zeharkatzen diren; hauetako ezein ezaugarrik ez dauka besteak duen beste Hemen bat, baizik eta bakoitza edonon bestea ere dagoen Hemenean dago; eta aldi berean Hemen ezberdinen bidez bereiztua izan gabe, zeharkatze horretan ez dute elkar afektatzen; zuria-denak kubikoa-dena ez du afektatzen edo aldatzen, eta ezta bi horiek mina-dena ere, eta abar, baizik eta bakoitza *bereburuarekin harremantzekoekintza* sinplea denez, besteak bakean uzten ditu eta *Gainera* axolagabearen bidez soilik harremantzen da besteekin. *Gainera* hori, beraz, orokor-den hutsa bera da, edo elkargunea, haiek horrela biltzen dituen *gauzatasuna*.

Sortu den egoera honetan, lehenik orokortasun positiboaren izaera soilik behatu eta garatu da; baino kontuan hartu behar den beste alderdi bat ere badago. Alegia, ezaugarri determinatu asko axolagabeak baino ez balira eta euren buruekin baino harremanduko ez balira, orduan ez lirateke ezein ezaugarri *determinatu*; izan ere, determinatuak dira elkar *ezberdintzen* eta *besteekin* aurkakotu gisa *harremantzen* diren heinean soilik. Aurkakotuak diren aldetik, ordea, ezin dute euren elkargunearen batasun sinplean elkarrekin izan, zeina negazioa bezain funtsezkoa zaien; beraien bereizketa, beraz, ez axolagabea baizik baztertzailea, bestea negatzen duena, den heinean, elkargune sinple horretatik at kokatzen da; elkargunea, horrenbestez, *Gainera* bat, batasun axolagabea ez ezik, *Bat*, *batasun baztertzailea* ere bada. - Bata *negazioaren unea* da, modu sinple batean bere buruarekin harremantzen eta Bestea baztertzen duen gisara, eta horren bitartez *gauzatasuna gauza* gisa determinatzen da. Ezaugarrian negazioa izatearen bitartegabekotasunarekin bitartegabeki bat den *determinatutasuna* bezala da, eta bitartegabekotasun hori negazioarekin duen batasun horren bitartez orokortasuna da; *Bat* bezala, ordea, aurkakoarekiko batasunetik aske eta bere baitan eta bere baitarako den gisara da.

Une horietan bilduta, gauza hautemapenaren egia-dena gisa osatzen da, hori hemen garatzea beharrezkoa den neurrian. Zera da, a) orokortasun jasaile axolagabea, ezaugarri edo, hobeto, *materia* askoren

Gainera, b) negazioa sinple gisa era berean, edo *Bata*, ezaugarri aurkakotuen baztertze-ekintza, eta c) *ezaugarri* asko beraiek, bi lehen uneen harremana, negazioa osagai axolagabearekin harremantzen den eta bertan ezberdinketen multzo gisa hedatzen den moduan; batasunaren puntua iraupenaren elkargunean egonik askotasunerantz irradiatuz. Ezberdinketa horiek elkargune axolagabeari dagozkion aldetik, horiek berak orokorrak dira, euren buruarekin soilik harremantzen dira, eta ez dira afektatzen; batasun negatiboari dagozkion aldetik, ordea, aldi berean baztertzaileak dira, baina halabeharrez harreman aurkakotua dute *euren Gaineratik* urrun dauden ezaugarriekin. Sentipenezko orokortasuna, edo izatearen eta negatibo-denaren *bitartegabeko* batasuna ezaugarria da, baina Bata eta orokortasun hutsa bertatik garatu eta ezberdinak diren heinean eta hark bi horiek elkarlotzen dituen heinean soilik; une huts zerizanezkoekin duen harreman horrek *gauza* osatzen du lehen-lehenik.

Horrela dago eratuta, bada, hautemapenaren gauza; eta kontzientzia hautematen-duena gisa dago determinatuta, gauza hori bere objektua den heinean; *hartu* eta jasotzeko-ekintza hutsa gisa jokatu *baino* ez du egin behar; hortik etortzen zaiona egia-dena da. Hartze-ekintza horretan zerbait egingo balu, halako gaineratze- edo kentze-ekintzaren bitartez egia aldatuko litzateke. Objektua egia-dena eta orokor-dena, bere buruarekin berdindena, baina kontzientzia bere aldetik aldatzen-dena eta zerizangabe-dena den heinean, gerta dakioko objektua oker jasotzea eta nahastea. Hautematen-duenak nahasketaren aukeraren kontzientzia du; izan ere, orokortasunean, zeina printzipioa den, beste-izatea bera hor dago bitartegabeki beretzat, baina ezerezko-den, gainditu-denaren gisara. Egiaren irizpidea, beraz, *bereburuarekikoberdintasuna* da, eta bere jokaera bere buruaren berdindena balitz bezala atzeman behar da. Aldi berean, ezberdin-dena beretzat hor dagoen heinean, bere atzemate-ekintzaren une ezberdinen elkarrekin harremantzeko ekintza da; baina alderaketa horretan ezberdintasun bat sortzen bada, orduan hori ez da objektuaren egia-falta, hori bere buruaren berdindena baita, baizik eta hautemate-ekintzarena.

Ikus dezagun orain zein esperientzia egiten duen kontzientziak hautemate-ekintza errealean. Hori *guretzat* objektuaren eta kontzientziak horrekin duen jokaeraren oraintxe gertatutako garapenean dago jadanik barnebilduta, eta bertan dauden kontraesanen garapena besterik

ez da izango. - Hautematen dudan objektuak bere burua aurkezten du *Bat besterik ez balitz* bezala; eta bertan orokor den baina horren bitartez banakotasunetik haratago doan ezaugarria egiaztatzen dut. Halako Bat litzatekeen zerizan objektiboaren lehen izatea ez zen, beraz, bere egiazko izatea; *bera* egia-dena denez, egia-falta nire baitan dago, eta atzemate-ekintza ez zen zuzena. Ezaugarriaren *orokortasunak* behartzen nau zerizan objektiboa, aitzitik, oro harrezko *erkidego* gisa jasotzera. Orain areago ezaugarria hautematen dut ezaugarri *determinatua*, besteari *aurkakotua*, eta hori baztertzen duena den aldetik. Orduan zerizan objektiboa egitatean ez nuen zuzenki atzeman, besteekin *erkidego* - *an* balego bezala edo jarraitasuna balitz bezala determinatzen nuenean, eta aitzitik, ezaugarriaren determinatutasuna dela eta, jarraitasuna eten behar dut, eta baztertzen duen Bat bezala ezarri behar dut hura. Bat etenean elkar afektatzen ez diren, baizik eta elkar axolagabe diren halako ezaugarri asko aurkitzen ditut; beraz, objektua ez nuen zuzenki hauteman *baztertzen-duen* bat balitz bezala atzeman nuenean, baizik eta objektua lehen oro har jarraitasuna besterik ez bazen, orain *elkargune* orokor *erkidetua* da, non ezaugarri asko, sentipenezko *orokortasun* gisa, bakoitza bere baitarako den, eta orokortasun *determinatu* gisa, besteak baztertzen dituen. Hautematen dudan sinple-dena eta egia-dena, ordea, ez da horrela elkargune orokor bat, baizik eta bere baitarako *ezaugarri bakarra*, baina horrela izanik ez ezaugarria ezta izate determinatu bat ere ez dena; izan ere, horrenbestez ez da Bat batean ezta besteekin harremanean ere. Hala ere, Batean soilik da ezaugarri, eta besteekin harremanean soilik da determinatua. Bere-buruarekin harremantze-ekintza huts hori bezala, oro har *sentipenezko izate* baino ez da, zeren ez baitauka gehiago negatibotasunaren izaera beregan; eta hura orain sentipenezko izate baten modura hartzen duen kontzientzia *irizte-ekintza* bat besterik ez da, hau da, hautemate-ekintzatik erabat kanpora irten da eta bere baitara itzuli da. Sentipenezko izatea eta irizte-ekintza soilik bihurtzen da berez hautemate-ekintza; abiapuntura eramaten naute, eta une bakoitzean eta osoki gisa gaingiditzen den ziklo berberera naramate berriro herrestan.

Kontzientziak, beraz, zikloa halabeharrez berriro kurritzen du, baina aldi berean ez lehen aldiz egin zuen moduan. Hain zuzen, hautemate-ekintzari buruzko esperientzia hau egin du, hain zuzen, bere emaitza eta egia-dena kontzientziaren desagitea edo egia-denetik abia-

tzen den eta bere baitara doan islapena dela. Horrela determinatu da kontzientziarentzat nola dagoen eratua funtsean bere hautemate-ekintza, hain zuzen, atzemate-ekintza huts sinplea ez izatea, baizik eta *bere atzemate-ekintzan* aldi berean egia-denetik *irtenik bere baitara islatua* izatea. Kontzientziak bere baitara egiten duen itzulera horrek, bitartegabeki (izan ere, hautemate-ekintzarako funtsezko gisa azaldu da) atzemate-ekintza hutsaren *erdian sartzen* denez, egia-dena aldatzen du. Kontzientziak alderdi hori aldi berean berea gisa berrezagutzen du, eta bere ardura gisa hartzen du, eta horren bidez, beraz, egiazko objektua huts-hutsik mantentzen da. - Horrenbestez, orain, sentipenezko ziurtasunean gertatu zen bezala hautemate-ekintzan ere alderdi hau dago, alegia, kontzientzia bere baitara itzultzera behartua dela, baina hasiera batean ez orduan gertatzen zen zentzu berean, hautemate-ekintzaren *egia* berari balegokio bezala; baizik eta, aitzitik, berrezagutzen du hor sortzen den *egia-falta* berari dagokiola. Ezagutza horren bidez, ordea, aldi berean gai da hori gainditzeko; egia-denaren bere atzemate-ekintza bere hautemate-ekintzaren egia-faltatik ezberdintzen du, hori zuzentzen du, eta zuzenketa hori berak burutzen duen heinean, egia *hautemate-ekintzaren* egia gisa noski *berari* dago-kio. Orain kontuan hartu behar dugun kontzientziaren jokaera honela dago eratuta, hots, ez du gehiago hautematen besterik gabe, baizik eta bere-baitarako-islapenaren jabe ere bada, eta hori atzemapen sinpletik banatzen du.

Lehenik, beraz, gauzan erreparatzen dut *Bat* gisa, eta egiazko determinazio horretan mantendu behar dut; hautemate-ekintzaren higiduran hori kontraesaten duen zerbait azaltzen bada, orduan hori nire hausnarketa gisa berrezagutu behar da. Hautemapenean, beraz, ezaugarri ezberdinak ere azaltzen dira, zeinak gauzaren ezaugarriak diruditen; gauza, ordea, *Bat* da, eta honetaz jabetzen gara, alegia, *Bat* izateari uztarazten dion anizkotasun hori guri dagokigula. Gauza hori, beraz, egitatean zuria da *gure* begiarentzat soilik, mina *ere bai gure* mihiarentzat, eta kubikoa *ere bai gure* ukimenarentzat, eta abar. Alderdi horien anizkotasun erabatekoa ez dugu gauzatik hartzen, baizik eta guregandik; ezberdin bezala aurkezten zaizkigu alderdi horiek mihitik erabat ezberdin den *gure* begiarentzat, eta abar. Horrenbestez, gu gara *elkar - gune orokorra*, non halako uneak elkar banatzen diren eta bere baitarako diren. Elkargune orokorra izateko determinatutasuna *gure* hausnar-

keta gisa kontsideratzen dugunez, gauzaren bereburuarekikoberdintasuna eta gauza hori Bat izatearen egia lortzen dugu.

Alderdi ezberdin horiek, zeinen ardura kontzientziak hartzen duen, *determinatuak* daude, bakoitza bere baitarako, elkargune orokorrean daudela kontuan hartzen den heinean; zuria-dena beltza-denarekin aurkakotzan besterik ez da, eta abar, eta gauza Bat besteei aurkakotzen zaien heinean da hain zuzen. Baina ez ditu besteak bere baitatik baztertzen Bat izateagatik (izan ere, Bat izatea bere-buruarekin-harremantze-ekintza orokorra da, eta Bat den heinean are gehiago da denekin berdina), baizik eta *determinatutasunaren* bidez. Gauzak berak, beraz, *euren baitan eta euren baitarako determinatutakoak* dira; beste gauzetatik ezberdintzen dituzten ezaugarriak dauzkate. *Ezaugarria* gauzaren ezaugarri *propioa* edo bere baitango determinatutasun bat den heinean, gauzak ezaugarri *anitz* ditu. Izan ere, lehenik gauza egia-dena da, *bere baitan* da; eta gauzaren baitan dagoena, gauzaren baitan dago bere zerizan propio gisa, ez besteen indarrez; beraz, bigarrenik, ezaugarri determinatuak ez dira beste gauzen indarrez eta beste gauzentzat soilik, baizik eta gauzaren baitan daude; baina ezaugarri determinatuak *gauzaren baitan* soilik dira, elkar ezberdintzen diren ezaugarri anitz diren heinean; eta hirugarrenik, gauzatasunean horrela dauden heinean, berbaitan eta berbaitarako dira eta, gainera, axolagabe elkarren aurrean. Beraz, gauza bera da egiatan, zuria, eta *gainera* kubikoa, *gainera* mina, eta abar dena, edo gauza *Gainera* da, edo *elkargune orokorra*, non ezaugarri ugariak elkarrengandik at dirauten, elkar ukitu eta gainditu gabe; eta horrela ulertuta gauza egia-dena gisa ulertzen da.

Hautemate-ekintza horretan kontzientzia aldi berean honetaz jabetzen da ezen, hura *gainera* bere baitan islatzen dela eta hautemate-ekintzan *Gainerari* aurkakotzen zaion unea dagoela. Une hori, ordea, gauzaren *batasuna* da bere buruarekin, zeinak ezberdinketa bere baitatik baztertzen duen. Hura da, ondorioz, kontzientziak bere gain hartu behar duena; izan ere, gauza bera da *ezaugarri ezberdin eta beregain ugarien iraute-ekintza*. Gauzaz esaten da, beraz: zuria *da*, *gainera* kubikoa, eta *gainera* mina, eta abar. Hala ere, zuria den heinean, ez da kubikoa, eta kubikoa eta *gainera* zuria den heinean, ez da mina, eta abar. Ezaugarri horien *batean-ezartze-ekinza* kontzientziari soilik dagokio, zeinak, beraz, ezin dien utzi gauzan Bat izaten. Horretarako Heinean gaineratzen du, zeinaren bitartez ezaugarriak elkarrengandik at eta

gauza Gainera gisa mantentzen duen. Lehenik kontzientziak *Bat-izatea* honela hartzen du zuzenki bere gain, ezen ezaugarri izendatu zena *materia aske* gisa errepresentatzen baita. Gauza era horretara egiazko *Gaineraren* mailara igotzen da, hori materien bilduma eta Bat izatearen ordezt biltzailea baino ez den gainazal bihurtzen den heinean.

Kontzientziak lehenago bere gain hartu duenari eta orain hartzen duenari, lehenago gauzari egotzi dionari eta orain egozten dionari berriz begiratzen badiogu, orduan zera daukagu: kontzientziak elkarren txandan bai bere burua baita gauza ere aniztasungabeko *Bat* hutsa nahiz materia beregainetan banatzen den *Gainera* bihurtzen ditu. Kontzientziak, beraz, alderaketa horren bidez aurkitzen du egia-denaren *bere* hartze-ekintzak *atzemate-ekintzaren* eta *bere* baitara itzultze-ekintzaren *ezberdintasuna* barnebilduz gain egia-denak berak, gauzak, era bikoitz horretan erakusten duela bere burua. Horrenbestez honako esperientzia daukagu, gauzak bere burua *aurkezten duela kontzientzia* atzematzailarentzat era determinatu batean, baina *aldi berean* bere burua eskaintzeko modutik *at* eta *bere* baitara *islatzen dela* edo bere baitan egia aurkakotu bat daukala.

Kontzientzia, beraz, hautemate-ekintzan jokatzeko duen bigarren era horretatik *at* dago era berean, alegia, gauza bereburuarekiko berdin-den egia-dena gisa, bere burua, aldiz, ezberdin-dentzat, berdintasunetik *at* bere baitara itzultzen-dentzat hartzetik, eta objektua orain kontzientziarentzat higidura oso hori da, lehen objektua eta kontzientziaren artean banatua zegoena. Gauza *Bat*, bere baitara islatua da; *ber-baitarako* da; baina *beste baterako* ere bada; gainera, *beste bat* da ber-baitarako, besteentzako *denarekin alderatuz*. Gauza, horrenbestez, ber-baitarako da, *baita* beste baterako *ere*, izate *bikoitz* ezberdin bat, baina *Bat ere* bada; Bat-izateak, ordea, bere ezberdintasun hori kontraesaten du; kontzientziak horrenbestez bere gain hartu beharko luke berriro batean-ezartze-ekintza hori eta gauzatik urrun mantendu beharko luke. Esan beharko luke gauza, ber-baitarako den *heinean*, ez dela besteentzat. Hala ere, gauzari berari ere dagokio Bat-izatea, kontzientziak esperimentatu duen bezala; gauza zerizanez bere baitara islatua da. *Gainera*, edo diferentzia axolagabea, beraz, gauzari dagokio era berean, *bat-izate* den aldetik, baina biak ezberdinak direnez, ez dagokio gauzari berari, baizik eta gauza *ezberdinei*; oro harrezko zerizan objektiboan dagoen kontraesana bi objektuetan banatzen da. Gauza, beraz,

bada berbaitan eta berbaitarako, bere buruarekin berdin, baina bere buruarekin duen batasun horri beste gauzek enbarazu egiten diote; horrela, gauzaren batasuna mantentzen da, eta aldi berean beste-izatea, bai bertatik at, baita kontzientziatik at ere.

Nahiz eta orain egiatan zerizan objektiboaren kontraesana era horretan gauza ezberdinetan banatua dagoen, era berean horrexegatik iritsiko zaio ezberdintasuna banako gauza bakartuari berari. *Gauza ezberdinak*, beraz, *berbaitarako* ezarriak dira; eta gatazka gauzei dago-kie, denak denon aurka, halako moldez non bakoitza ez baita bere buruaren ezberdina, baizik eta bestearena soilik. Bakoitza, ordea, horrenbestez, *bera* determinatuta dago *ezberdin-den gisa*, eta besteetatik duen zerizanezko ezberdintasuna *berbaitan* dauka, baina aldi berean ez hori berbaitan legokeen aurkakotza balitz bezala, baizik eta berbaitarako *determinatutasun sinplea* da, zeinak bere *zerizanezko* izaera eratzen duen, besteetatik ezberdintzen duena, alegia. Egitatean, ezberdintasuna gauzan dagoenez, gauzan dago halabeharrez eraketa anitzaren *benetako* bereizkuntza gisa. Baina determinatutasunak gauzaren zerizana osatzen duenez, horren bidez beste gauzetatik bereizten dela eta bere baitarako dela, orduan bestelako eraketa anitz hori da *zerizan -gabe-dena*. Gauzak, horrela, bere batasunean *heinean bikoitzan* badauka bere baitan, baina *bestelako balioarekin*; eta horrenbestez aurkakoizate hori, beraz, ez da gauza beraren aurkako-izatea, baizik eta, gauza *bereizkuntza absolutuaren* bidez aurka ezartzen den heinean, bere baitatik kanpo dagoen beste gauza baten aurka ezartzen da. Bestelako aniztasuna, ordea, halabeharrez gauzan dago, halako moldez non ezin baita hartatik baztertu; baina gauzari *ez* zaio *zerizanezkoa*.

Determinatutasun hori, gauzaren zerizanezko izaera osatzen duena, eta beste gauza guztietatik ezberdintzen duena, honela dago determinatuta, alegia, gauza horren bitartez beste gauzen aurka ezartzen da, baina horrela bere baitarako mantendu behar du. Hala ere, gauza da edo bere baitarako den Bata, soilik besteekin harremanean ez dagoen heinean; izan ere, harreman horretan bestearekiko lotura ezartzen da; eta bestearekiko lotura berbaitarako izateari uztea da. Gauzak bere *izaera absolutuaren* bidez hain zuzen eta aurkakotzearen bidez *jokatzen* du *beste*en aurrean, eta funtsean jokatze hori baino ez da; erlazio hori, ordea, beregaintasunaren ukazioa da, eta gauza bere zerizanezko ezaugarriaren bitartez hondoratu egiten da.

Kontzientziarentzat beharrezko esperientzia da gauza hain zuzen bere zerizana eta berbaitarako izatea osatzen duen determinatutasunaren bitartez hondoratzen dela, eta beharrezkotasun hori honela uler daiteke laburrean adigai sinplearen arabera. Gauza *berbaitarako izate* gisa ezartzen da edo beste-izatearen ukazio absolutu gisa; eta beraz, ukazio absolutua da, soilik bere buruari lotzen zaion ukazioa; baina norberaren buruari soilik lotzen zaion ukazioa *norberaren burua -ren* gainditzea da, edo bere zerizana beste baten baitan izatea.

Egitatean objektuaren determinazioak, hura agertu den moduan, ez du besterik jasotzen; zerizanezko ezaugarria izan behar du, bere bertaitarako izate sinplea osatzen duena, baina sinpletasun horrekin batera ezberdintasuna jaso behar du bere baitan, zeina *halabeharrezkoa* izanik, ezin duen osatu haren determinatutasun zerizanezkoa. Baina bereizketa hori hitzetan baino ez dago; *zerizangabe-denak*, aldi berean ordean *beharrezkoa* denak, bere burua gainditzen du, edo oraintsu norberaren buruaren ukazio deitu duguna da.

Horrela azken *heinean* desagertzen da, berbaitarako izatea eta beste batentzako izatea bereizten zituena; objektua bere buruaren aurkakoa da *ikuspegi bat eta berberaren arabera, bere baitarako, beste batentzat den heinean, eta beste batentzat, bere baitarako den heinean*. Bere baitarako da, bere baitan islatzen da, Bata; baina bere baitarako, bere baitan islatua, Bat izate hori batuta dago bere aurkakoarekin, *beste batentzako izatearekin*, eta horren bidez gainditu gisa baino ez da ezartzen; edo *berbaitarako izate* hori zerizangabe-denak izan beharko lukeen bezain *zerizangabe* dela, alegia, bestearekiko erlazioa.

Objektua horren bidez bere determinatutasun hutsen edo bere zerizantasuna osatzen duten determinatutasunetan gaindituta dago, sentipenezko izatean gainditu-den bat bihurtu zen bezalaxe. Sentipenezko izatetik abiatuz orokor-dena bihurtzen da; baina orokor-den hori, *sentipenezko izatetik datorrenez*, horrek *baldintzatzen* du zerizanez, eta horregatik oro har ez da egiatan bere buruaren berdina, baizik eta *aurkakotze batek afektatzen dion* orokortasuna, zeina horregatik bi muturretan bereizten den, banakotasuna eta orokortasuna, ezaugarrien *Bata* eta materia askeen *Gainera*. Determinatutasun huts horiek itxuraz *zerizantasun* bera adierazten dute, baina *berbaitarako izatea* baino ez dira, zeinak *beste batentzako izatea* jasotzen duen; baina zerizanez biak *batasun batean* daudenez, orduan orain orokortasun absolutu baldin-

tzatugabea dugu, eta kontzientzia orain sartzen da lehenik egiatan adimenaren erresuman.

Sentipenezko banakotasuna, beraz, bitartegabeko ziurtasunaren higadura dialektikoan desagertzen da eta orokortasun bihurtzen da, baina *sentipenezko orokortasun* besterik ez. Iriztea desagertu da eta hautemate-ekintzak objektua *bere baitan* den gisara edo oro har orokor-den gisara jasotzen du; beraz, banakotasuna objektuan agertzen da egiazko banakotasun gisa, *Bataren berbaitan izate* gisa, edo *bere baita islatua izate* gisa. Baina oraindik berbaitarako *baldintzatua* da, eta *horren ondoan* beste berbaitarako izate bat agertzen da, banakotasunari aurkakotzen zaion eta horrek baldintzatzen duen orokortasuna; baina elkar kontraesaten diren bi mutur horiek *bata bestearen ondoan* ez ezik, batasun *batean* dira, edo, gauza berbera dena, komun dena, *berbaitara -ko izateak*, oro har aurkakotza jasotzen du, alegia, aldi berean ez da *berbaitarako izatea*. Une horiek salbatu nahi ditu hautematearen sofistike-riak euren kontraesanetatik, eta *ikuspegi*en bereizkuntzaren bidez, *Gai-nera* eta *Heinean* bidez mantendu nahi ditu, eta azkenik egia-dena lortu nahi du *zerizangabe-denaren* eta horri aurkakotzen zaion *zerizanaren* arteko bereizkuntzaren bidez. Baina bitarteko horiek atzematean gertatzen den nahasketa eragotzi beharrean, ezer ere ez direla gertatzen da, eta hautematearen logika horren bidez lortu behar zen egia-dena, ikuspegi bat eta berberaren arabera, aurkakoa dela gertatzen da, eta horrela bere zerizan bezala bereizkuntzarik eta determinaziorik ez duen orokortasuna da.

Banakotasunaren eta horri aurkakotzen zaion *orokortasunaren* eta, aldi berean, beharrezkoa den *zerizangabe-denarekin* lotzen den *zerizanaren* abstrakzio hutsal horiek dira sarri giza adimen hautemaile, giza adimen zentzudun deitzen den jokoa osatzen duten botereak; bere burua kontzientzia jori errealtzat duen hori hautematean *abstrakzio horien* jokoa baino ez da; aberatsena dela uste duenean beti da oro har txiroena. Zerizan hutsal horrek nahastuz, altzo batetik bestera bidaliz eta bere sofistikeria dela eta txandaka gauza bati eta ondoren aurkakoari helduz eta bata eta bestea baieztatzen ahaleginduz, egiari aurre eginenez filosofiari irizten dio *pentsagauze*kin soilik duela zer ikusia. Eta egitatean haiekin badu zer ikusia eta ezagutzen ditu zerizan huts eta osagai eta botere absolutu gisa; baina horrela aldi berean *euren deter-minatutasunean* ezagutzen ditu, eta horrenbestez haien maisu da, eta

bitartean adimen hautemaile hark egia-dentzat ditu eta horrela errakuntza batetik bestera dabil. Ez da jabetzen honetaz, alegia, zerizantasun sinple halakoek gobernatzen dutela, baizik eta uste du beti ekai eta eduki guztiz joriekin duela zer ikusia, sentipenezko ziurtasunak ez dakien bezala izate hutsaren abstrakzio hutsala dela bere zerizana; baina egitatean hura haietan dabil gora eta behera ekai eta eduki orotan zehar; haiek ematen diote lotura eta nagusitasuna, eta sentipenezko-dena kontzientziarako *zerizan* gisa duen bakarra, harekin duen jokaera determinatzen dutenak eta horietan bilakatzen da hautematearen eta horren egiaren higidura. Bide horrek, egia-denaren determinazio eta determinazio horren gainditze beti aldakorrak, osatzen du hautemailearen eta egiaren baitan higitzen dela uste duen kontzientziaren eguneroko bizitza eta ahalegin jarraikorra. Horrela, ezinbestean zerizantasun edo zerinanezko determinazio horien guztien gainditze berbera lortuko du emaitza gisa, baina une bakoitzean *determinatutasun bakar* bat du egia-den gisa, eta ondoren horren aurkakoa. Norberaren zerizangabekotasuna sumatu ei du; arrisku larri horretatik salbatzeko, sofistikeriara jotzen du, oraintsu ez-egia-dentzat jo duena orain egia-den gisa onartuz. Zerizan ez-egiazko horren izaerak benetan adimen hori bultzatu nahi du *orokortasun* eta *banakotasun* haien pentsamenduak, *Gainera-ren* eta *Bataren* pentsamenduak, zerizangabekotasun batekin halabeharrez lotuta dagoen zerizantasunaren eta *beharrezkoa* den zerizangabedenaren *pentsamenduak*, alegia, zerizan eza horien pentsamenduak *biltzera* eta horrela gainditzera; horren aurka defendatzen da *Heinean*-en eta *ikuspegi* ezberdinen laguntzaren bidez, edo pentsamendu bat onartuz bestea bananduta eta egiazko gisa mantentzeko. Baina abstrakzio horien izaerak berbaitan eta berbaitarako biltzen ditu, euren zirimolan higitzen duten adimen zentzuduna haien harrapakina da. Egia eman nahi die behin haien ez-egia onartuz, beste behin nahasketari gauza labainkorren itxura deituz, horrela zerizanezko-dena haiei beharrezkoa zaien baina zerizangabe izan beharko lukeenetik bereizten duela, eta hari eutsiz egia gisa horren aurka, eta orduan ez du haien egia mantentzen eta bere buruari ez-egia ematen dio.

III.

INDARRA ETA ADIMENA, AGERPENA ETA SENTIPENETIK HARATAGOKO MUNDUA

Kontzientziari sentipenezko ziurtasunaren dialektikan entzutea eta ikustea, eta abar desagertu egin zaio, eta hautemate-ekintza gisa pentsamendutara heldu da, zeinak hark lehenik hala ere baldintzarik gabe orokor-denean elkartzen dituen. Baldintzatugabe-den hori, zeriz an simple geldi gisa hartzen baldin bada, alde batean agertzen den *ber* - *baitarako izatearen muturra* besterik ez litzateke izango; izan ere, horrela zerizangabe-dena agertuko litzaioke aurrean; baina horrekin daukan harremanean zerizangabe izango litzateke, eta kontzientzia hautematearen nahasketatik ez litzateke askatuko; hala ere, halako ber-baitarako izate baldintzatu batetik bere baitara itzuli den zerbait dela gertatu da. - Kontzientziaren objektu egiazkoa den baldintzatugabeko orokor-den hori, haren *objektu* gisa da oraindik; ez du oraingoz bere *adigaia* eskuratu *adigai* gisa. Biak bereiztea funtsezkoa da; kontzientziari objektua beste batekin duen erlaziotik bere baitara itzuli zaio, eta horrela *bere baitan* adigai bihurtu da; baina kontzientzia ez da oraindik bere baitarako adigaia, eta horrexegatik hark ez du ezagutzen bere burua objektu islatu hartan. *Guretzat* objektu hori kontzientziaren higiduraren bitartez garatu egin da, halako moldez non kontzientzia bera-ren bilakabidearekin korapilatu egin baita eta isla bi aldetan berea edo *bakarra* baita. Baina kontzientziak higidura horretan eduki gisa zerizan objektiboa bakarrik zeukalako, eta ez kontzientzia bera, horregatik harentzat emaitza esanahi objektiboan ezarri behar da, eta kontzientzia

bilakabidearen emaitzatik atzera eginik, halako moldez non hori haren-tzat zerizana den objektibo-dena den aldetik.

Adimenak horrela bere egia-eza eta objektuaren egia-eza gain-ditu ditu; eta horren bidez egia-denaren adigai bihurtu da, *berbaitan* den egia-den gisa, zeina oraindik adigai ez den edo zeinak kontzien-tziaren *berbaitarako izateari* ihes egiten dion, eta zeinari adimenak jokatzten uzten dion, hor bere burua jakin gabe. Horrek bere zerizana berbaitarako bultzatzen du, halako moldez non kontzientziak bere zer-tze askean ez baitu parte hartzen, baizik eta horri so besterik ez dion egiten, eta atzeman besterik ez du egiten. *Guk*, horrenbestez, lehenik egin behar duguna da horren lekuan jartzea geure burua, eta emaitzan jasotzen dena eratzen duen adigaia izan; badena gisa kontzientziari eskaintzen zaion objektu eratu horretan bihurtzen da lehenik eta behin kontzientzia aditzaile.

Emitza baldintzatugabeko orokor-dena izan da; lehenik ezezko zentzuan eta zentzu abstraktuan, hots, kontzientziak bere adigai alde-bakarrak ukatu eta abstraitzen ditu, hau da, baztertu egiten ditu. Baina emaitzak bere baitan esanahi positibo bat dauka: *berbaitarako izatearen* eta *beste-batentzako-izatearen* batasuna edo aurkakotze absolutua bitartegabeki zerizan berbera gisa ezartzen dela. Hasieran itxuraz uneek elkarrentzat duten forma bakarrik ukitzen du horrek; baino, dena den, berbaitarako-izatea eta beste-batentzako-izatea *edukia* da, zeren aurka-kotzak bere egian emaitzan lortutako izaera baino ezin baitu izan, hau da, hautemapenean egiazkotzat hartutako edukia egitatean formari soi-lik dagokio eta bere batasunean desegiten da. Eduki hori aldi berean orokor-dena da; bere eraketa bereziaren arabera baldintzatugabeko oro-kortasun horretara itzultzeari ihes egin dion beste edukirik ezin daiteke egon. Horrelako eduki bat berbaitarako izateko eta beste-batentzat jokatzeko modu zehatz bat izango litzateke. Baina *berbaitarako izate-ak* eta *beste batentzako jokatzek* bere izaera eta zerizana osatzen du, zeinen egia baldintzatugabeko orokor-dena izatea den; eta emaitza ezin da orokorragoa izan.

Baino baldintzatugabeko orokor-den hori kontzientziarentzako objektua denez, formaren eta edukiaren desberdintasuna sortzen da bere baitan; eta edukiaren moduan uneek lehen eduki zuten itxura har-tzen dute, hots, alde batean materia beregain askoren elkargune oroko-rra, eta beste aldean bere baitara islatzen den Bata izatea, non bere bere-

gaintasuna deuseztatu egin den. Hura da gauzaren beregaintasunaren deuseztatzea, edo pasibotasuna, beste batentzako izatea dena; hori, aldiz, berbaitarako izatea. Ikusteke dago nola aurkezten diren une horiek euren zerizana den baldintzatugabeko orokor-denean. Argi dago, lehen, horretan soilik daudenez, ez daudela jadanik sakabanaturik, baizik eta funtsean eurengan gainditzen diren aldeak direla, eta batetik bestera igarotzea besterik ez da ezartzen.

Une bata, orduan, alde batera utzitako zerizan gisa agertzen da, elkargune orokor gisa edo materia beregainen iraupen gisa. Baina materia horien *beregaintasuna* elkargune hori baino ez da; edo *orokor-den* hori halako hainbat orokor-diren horien *aniztasuna* da. Baina orokor-dena bere baitan aniztasun horrekin batasun bereiztezinean da, eta honako hau esan nahi du: materia horietako bakoitza bestea dagoen lekuan dagoela; batak bestea zeharkatzen duela, baina batak bestea ukitu gabe, zeren alderantziz desberdin-den anitza era berean beregaina baita. Horrela ezarrita dago era berean haren porotsutasun hutsa edo haren gainditu-izatea. Gainditu-izate hori bere aldetik, edo aniztasun hori *berbaitarako izate hutsera* ekartzea, elkargune berbera besterik ez da, eta hori bereizkuntzen *beregaintasuna*. Edo beregain ezarritakoak bitartegabeki euren batasunera igarotzen dira eta euren batasuna bitartegabeki euren zabalpenera igarotzen da, eta hori bere aldetik batasunera itzultzen da. Baina higidura hori da *indar* deitzen dena: horren une bat, alegia, hori materia beregainen zabalpen gisa euren izatean, haren *adierazpena* da; hori bera, aldiz, materien desagertutako-izate gisa bere *adierazpenetik bere baitara etorritakoa da*, edo benetako *indarra*. Baina lehenik bere baitara itzuli den indarra adierazi egin *behar* da; eta, bigarren, adierazpen horretan *bere baitan* den indarra da ere berean, bere baitan izate horretan adierazten den modu berean. - Bi uneak bere batasun bitartegabea mantentzen ditugun heinean, indarraren adigaia dagokion adimena da benetan une desberdinei desberdin gisa eusten dien *adigaia*; zeren *indarrean* ez lukete desberdin izan behar; desberdintasuna, beraz, pentsamenduan baino ez datza. - Edo aurrekoan indarraren adigaia bakarrik ezarri dugu, eta ez bere errealitatea. Baina egitatean indarra baldintzatugabeko orokor-dena da, zeina *beste batentzat* dena bere baitan ere baden; edo zeinak desberdintasuna (*beste-baten-tzako-izatea* besterik ez dena) bere baitan daukan. Orduan, indarra bere egian izateko, pentsamendutik guztiz aske utzi eta desberdin horien

substantzia gisa ezarri behar da, hau da *lehenik, bera* indar hori guztia *berbaitan eta berbaitarako* gisa iraunez funtsean, eta *gero*, bere *desberdintasunak funtsezko* gisa edo berbaitarako irauten duten une gisa izanez. Horrela, indarra, den gisa edo bere baitara bidalitako gisa, *Bat baztertuaile* gisa da bere baitarako, zeinarentzat materien zabalpena *beste zerizan iraunkorra* den; eta horrela, bi alde beregain desberdin ezartzen dira. Baina indarra osokia ere bada, edo horrek bere adigaiaren arabera dena izaten jarraitzen du, alegia, *bereizkuntza* horiek forma hutsak, *desagertzen diren* gainazaleko *uneak* izaten diraute. Bere baitarra *bidalitako* indar benetakoaren eta materia beregainen *zabalpenaren* *bereizkuntzak* ezer ez lirateke izango, *iraupen* bat izango ez balute, edo indarra ez litzateke ezer izango, aurkakotutako modu horretan *existitu* - *ko ez balitz*, baina aurkakotutako modu horretan existitzeak honako hau besterik ez du esan nahi, alegia, bi uneak aldi berean *beregainak* direla. - Bi uneen beregaintze-ekintza etengabearen eta berriz bere burua gainditzearen higidura hori da aztertu behar dena. - Eskuarki argi dago higidura hori hautematearen higidura besterik ez dela, non bi aldeak aldi berean, hautematen-duena eta hautematen-dena, lehenik egia-denaren *atzemate-ekintza* gisa gauza bat eta bereiztezina diren, baina era berean alde bakoitza bere baitara islatuta dagoen edo bere baitarako den. Hemen bi alde horiek indarraren uneak dira; horiek halaber batasun batean dira, berbaitarako diren muturren aurrean erdigune gisa agertzen den batasun hori mutur horietan hain zuzen banatzen den heinean, zeinak horren bidez baino ez diren. - Lehenago adigai kontraesankorrek euren burua deuseztatzeko higidura gisa agertu zenak hemen forma *objektiboa* dauka, beraz, eta indarraren higidura da, zeinaren emaitza gisa zera dugun, hots, baldintzatugabeko orokor-dena *objektuez-dena* gisa edo gauzaren *barne* gisa.

Indarra, *den* bezala edo *bere baitan islatu* gisa aurkezterakoan definitu izan den moduan, bere adigaiaren alde bat da; baina substantziaren izaera duen mutur gisa, eta hain zuzen bataren determinatutasunaren azpian ezarrita. Horren bidez, zabaltzen diren materien *iraupena* indarretik kanpo geratzen da, eta horiek ez *beste bat* da. *Indarra bera* iraupen hori izatea edo *adierazpena* beharrezkoa izanez, orduan bere adierazpena horrela agertzen da: *Beste hura hurbiltzen zaio* eta bere bila dator. Baina egitatean adierazpena *beharrezkoa* izanez, beste zerizan bezala ezarrita zegoena bere baitan dauka. Baztertu egin behar da

indarra *bat* izatea eta bere zerizana den adierazteko joera kanpotik bera-ri gehitutako zerbait izatea; aitzitik, indarra bera elkargune orokor hori da, non uneek irauten duten materiak balira bezala; edo *adierazi egin da* eta bere bila zetorren bestea indarra bera da. Orduan indarra orain zabaltzen diren materien elkargune bezala existitzen da. Baina badauka bere zerizanean gainera irauten duten materien gainditu-izateko forma, edo *bat* da izatez; *bat izate* hori orain, *indarra* materien elkargune gisa ezarrita dagoenez, *materiok ez beste gauza bat* da, eta indarrak bere zerizan hori kanpoan dauka. Baina *oraindik* ezarrita *ez* dagoen moduan halabeharrez izan behar duen heinean, orduan *beste hori hurbiltzen zaio* eta eskatzen dio bere baitara islatzeko, edo haren adierazpena gainditzen du. Baina egitatean *indarra bera* bere baitara islatutako izate hori edo adierazpenaren gainditu-izate hori da; Bat izatea desagertzen da, agertu zen *moduan*, alegia, *beste bat* gisa; *indarra horixe da*, bere baitara itzultitako indarra.

Beste bat bezala agertzen dena, eta bai adierazteko baita bere baitara itzultzeko ere eskatzen duen horixe *ere bada indarra*, bitartegabe ondorioztatzen den bezala; izan ere, bestea bai elkargune orokor gisa bai bat gisa agertzen da, eta halako moldez non figura horietako bakoitza aldi berean desagertzen den une gisa agertzen baita. Horrela, indarra, beste bat berarentzat eta bera beste batentzat denez, ez da atera bere adigaitik. Baina bi indar daude aldi berean, bien adigaia berbera izaki, bai, baina bere batasunetik bikoiztasunera igaroz. Aurkakotza zerizanez une gisa geratu orde, itxuraz horrek batasunaren aginpidea baztertu du *indar guztiz beregainetan* bikoiztearen bitartez. Beregainetasun hori nolakoa den aztertu behar da orain zehatzago. Lehenik, bigarren indarra agertzen da eskatzen-duena bezala, eta hain zuzen elkargune orokor gisa bere edukiaren arabera, eskatzen-zaiona bezala definitu izan denaren aurrean; baina hura zerizanez bi une horien txandaketa eta hura bera indarra izanez, *hori eskatzen zaion heinean baino* ez da egiatan elkargune orokorra egitatean; eta, era berean, batasun ezezkoa, edo indarra itzultzea eskatzen duena hori *eskatzen zaion heinean*. Horrela, bien artean zegoen bereizketa hori, alegia, *batak eskatzen-duena* eta besteak *eskatzen-zaiona* izan behar zuela, determinatutasunen elkar truke bihurtzen da.

Horrela, bi indarren jokoa honetan datza: biak aurkakotuta determinatuak izatean, determinazio horretan bata bestearentzat izate-

an eta determinazioen elkar truke absolutu eta bitartegabe; igarobide batean, beraz, eta horren bidez dira determinazio horiek, non itxuraz indarrak *beregain* agertzen diren. Adibidez, eskatzen-duena elkargune orokor gisa ezartzen da eta, alderantziz, eskatzen-zaiona atzera bidalitako indar gisa ezarrita dago; baina hura elkargune orokorra da, baina bestea atzera bidalitako indarra delako soilik; edo hori da harentzat eskatzen-duena, eta horrela bakarrik bihurtzen du bestea elkargune. Hark bestearen bidez soilik dauka bere determinatutasuna; eta eskatzen-duena da bestea hori eskatzen diolako eskatzen-duena izatea; eta horrela galtzen du era berean bitartegabe eman zaion determinatutasun hori; izan ere, hori bestearengana igarotzen da edo, askoz hobeto, jadanik igaro da; indarra eskatzen duen eskatzaile arrotza agertzen da elkargune orokor gisa, baina indarrak hori eskatu diolako besterik ez; baina horrek esan nahi du ezen *indarrak ezartzen duela* arrotza horrela eta *indarra bera* dela *zerizanez* elkargune orokorra; eskatzen-duena horrela ezartzen du beste determinazio hori *berari* funtsezkoa zaiolako, hau da, *indarra bera determinazio hori delako*.

Higidura horren adigaia bere osotasunean ulertzeko ohartarazi dezakegu bereizketak berak bereizketa bikoitze batean agertzen direla: *alde batean, edukiaren* bereizketa gisa, mutur bat bere baitara islatutako indarra, bestea, aldiz, materien elkargune izanez; *beste alde batean*, formaren bereizketa gisa, bata eskatzen-duena izanez, bestea eskatzen-zaiona izanez, bata ekilea, bestea jasailea izanez. Edukiaren bereizketaren arabera, eskuarki edo guretzat desberdin *dira*; formaren bereizketaren arabera, aldiz, beregainak dira, euren arteko harremanean baztertzailleak eta aurkakotuak. Bi alde horien arabera muturrak *berbaitan* ez direla, baizik eta alde horiek, zeinetan bere zerizan desberdina omen datzan, desagertzen diren uneak besterik ez direla, bakoitza aurkakotuearengana igarotze-ekintza bitartegabe bat besterik ez dela, horretaz jabetzen da kontzientzia indarraren higidura hautematerakoan. Baino guretzat, goian esan dugun bezala, honako hau ere badago: bere baitan bereizketak, *edukiaren eta formaren bereizketa* gisa, desagertu egin zirela; eta edukiaren aldean zerizanaren arabera ekile-dena, eskatzen-duena edo berbaitarako-dena, edukiaren aldean bere baitara atzera bidalitako indarra da; formaren aldetik jasaile-dena, eskatzen-zaiona edo beste batentzat dena edukiaren aldetik materia anitzen elkargune orokor gisa aurkeztu zena da.

Hortik ondorioztatzen da indarraren adigaia bi indarretan banatzearen bitartez bihurtzen dela *erreal* eta nola gertatzen den hori. Bi indar horiek berbaitarako diren zerizan gisa existitzen dira; baina euren existentzia elkarrenganako higidura da, halako moldez non euren *izatea* askoz gehiago *beste baten bidez ezarria izate* hutsa baita, hau da, euren izateak askoz gehiago *desagertze-ekintzaren* esanahi hutsa baita. Ez dira mutur gisa, zerbait higiezin bezala eurentzat gordetzen duten eta kanpoko ezaugarri bat erdigunera eta ukitzera elkarri bidaltzen dioten mutur gisa; baizik eta diren hori, erdigune horretan eta ukitze horretan bakarrik dira. Horretan da bitartegabe bai indarraren atzera bidalitako- edo *berbaitarako-izatea* baita adierazpena ere; bai eskatzea baita eskatua izatea ere; horrela une horiek ez daude zatituta bi mutur beregainetan, zeinek aurkakotutako gailur bat soilik eskainiko lioketen elkarri, baizik eta horien zerizana honako hau da oro har: bakoitza bestearen bitartez soilik dela; eta bakoitza bestearen bitartez horrela dena, hori den heinean, ez dela jadanik bitartegabe. Egitatean, beraz, ez daukate substantzia propiorik, jaso eta mantenduko luketeena. Indarraren *adigaiak*, aitzitik, bere burua mantentzen du gehienbat *zerizan* bezala bere *errealitatean* bertan; indarra *erreal* gisa *adierazpenean* baino ez da, zeina aldi berean norberaren-burua-gainditze-ekintza besterik ez den. Bere adierazpenetik aske eta berbaitarako izanez aurkeztu den indar *erreal* hori atzera bidalitako indarra da; baina egitatean bere determinatutasuna bera, ondorioztatu den bezala, *adierazpenaren* une bat besterik ez da. Indarraren egiak, orduan, haren *pentsamendua* bakarrik izaten dirau; eta bere errealitatearen uneak, bere substantziak eta bere higidurak euskarririk gabe eraitsi egiten dira bereizketarik gabeko batasun batean, zeina bere baitara atzera bidalitako indarra ez den (zeren hori bera horrelako une bat besterik ez baita), baizik eta batasun hori *bere adigaia* da *adigai gisa*. Indarraren errealizazioa, orduan, errealitatearen galera da aldi berean; horrela indarra beste bat bihurtu da, alegia, adimenak bere zerizan bezala ezagutzen duen *oro-kortasun* hori, bere zerizan gisa ere agertzen dena izan behar duen errealitatean, substantzia errealean.

Lehenengo orokor-dena adimenaren *adigai* gisa behatzen dugun heinean, non indarra oraindik ez den bere baitarako, orduan bigarrena orain indarraren *zerizana* da, bere burua *berbaitan* eta *berbaitarako* aurkeztu duen gisara. Edo alderantziz, *lehenengo* orokor-dena *bitarte* -

gabe-den gisa behatzen baldin badugu, zeinak objektu *erreal* izan behar duen kontzientziarentzat, orduan bigarren hori sentipenezko indar objektiboaren *ezezko* bezala determinaturik dago; bigarren hori da indar hura, bere zerizan egiazkoan *adimenaren objektu* gisa soilik den moduan; lehenengo hura izango litzateke atzera bidalitako indarra, edo indarra substantzia gisa; bigarrena, aldiz, gauzen *barnekoa*, adigai gisa den adigaiaren berdin den *barneko* gisa.

Gauzen egiazko zerizan hori halako moduan determinatua izan da, non ez baita bitartegabe kontzientziarentzat, baizik eta horrek bitarteko erlazioa izanik barneko-denarekin, eta adimen gisa *indarren joko* - *aren erdigune horren bidez gauzek daukaten egiazko atzealdea begira* - *tzen du*. Bi muturrak, adimena eta barneko-dena, lotzen dituen erdigunea indarraren izate garatua da, zeina adimenarentzat *desagertze-ekin* - *tza* den. Horregatik deitzen da *agerpena*; izan ere, itxura deitzen diogu bere baitan bitartegabe izate-eza den *izateari*. Baina ez da bakarrik itxura, baizik agerpena, itxuraren *osoki* bat. *Osoki* horrek oso edo *orokor* gisa osatzen du barneko-dena, indarren jokoa haiek euren baitara egiten duten *islapen* gisa. Bertan hautemapenaren zerizanak kontzientziarentzat berbaitan diren moduan ezarrita daude era objektiboan, alegia, bitartegabe atsedetik eta izanik gabe aurkako bihurtzen diren une gisa: Bata bitartegabe bihurtzen da orokor-dena, zerizanezko-dena bitartegabe bihurtzen da zerizangabe-dena, eta alderantziz. Indarren joko hori, orduan, garatutako negatiboa da; baina bere egia positiboa da, alegia, *orokor-dena, bere baitan den objektua*. - Bere *izatea* kontzientziarentzat bitartekotuta dago *agerpenaren* higiduraren aldetik, non *hautemapenaren izateak* eta sentipenezko objektu izateak ezezko esanahia baino ez daukaten, eta kontzientzia orduan hortik abiatuta bere baitara islatzen da, egia-denera bezala; baina kontzientzia gisa berriro egia-den hori *barneko-den* objektiboa bihurtzen du, eta gauzen hausnarketa eta bere buruari buruz egiten duen hausnarketa bereizten ditu; harentzat higidura bitartekaria era berean higidura objektiboa den bezala. Barneko-dena, orduan, harentzat mutur bat da haren aurrean; baina horregatik harentzat egia-dena da, zeren horretan aldi berean *berbaitan* duen bezala bere buruaren ziurtasuna edo bere berbaitarako izatearen una daukalako; baina oraindik ez da jabetzen oinarri horretaz; izan ere, barneko-dena bere baitan eduki behar zuen *berbaitarako-iza* - *tea* higidura negatiboa besterik ez da; baina hori kontzientziarentzat

oraindik desagertzen den agerpen *objektiboa* da, ez baina bere berbai-tarako-izate *propioa*; barneko-dena, orduan, harentzat bada adigaia, baina hark oraindik ez du ezagutzen adigaiaren izaera.

Barneko egia-den horretan, *absolutuki orokor-denean*, orokor-eta banako-denaren aurkakotzetik arazturik eta *adimenarentzat* bihurturik, lehen aldiz, *sentipenezko mundutik gain, agertzen den mundu gisa*, erazagutzen da sentipenetik haratagoko mundu bat, *egiazko mundu gisa*; desagertzen den *mundu honetatik gain* irauten duen *hara-tago* mundua; arrazoimenaren lehen agerpena, eta horregatik osatuga-bea den berbaitan bat dena, edo osagai hutsa soilik, non egiak bere *zeri-zana* daukan.

Gure objektua, orduan, bere muturretan gauzen barnekoa eta adimena, eta bere erdigunean agerpena daukan silogismoa da; baina adimenak erdigunearen bitartez barneko-denean begiztatzen duen determinazio handiagoa eta elkarturik egoteko erlazio horren bitartez egiten duen esperientzia ematen ditu silogismo horren higidurak.

Barneko-dena oraindik *haratago hutsa* da kontzientziarentzat, hor kontzientziak ez baitu aurkitzen oraindik bere burua; hutsa da, zeren agerpenaren ezereza baita soilik, eta positiboki orokor-den sinplea. Barneko-denaren izateko modu hori bat dator bitartegabe gauzen barneko-dena ezagutu ezin dela esaten dutenekin; baina oinarria bestela ulertu beharko litzateke. Barneko-den horretaz, hemen bitartegabe dagoen moduan, ez dago ezagutzarik hala ere, baina ez arrazoimena ahula edo murriztua edo esan nahi den bezalakoa delako (horri buruz ez da ezagutzen hemen oraindik ezer, zeren ez baikara hain sakon sartu oraindik), baizik eta, gauzaren beraren izaera sinplearen ondorioz, *hutsean* ezer ez baita ezagutzen edo, beste ikuspegitik esanda, kontzientziaren *haratago*-dena bezala determinatuta baitago. - Emaizta, noski, berbera da itsu bat jartzen baldin badugu sentipenetik haratagoko munduaren aberastasunean (aberasasun bat edukitzekotan, dela beraren eduki propioa, dela kontzientzia bera eduki hori) eta ikusmena duen norbait iluntasun hutsean edo, nahi badugu, argi hutsean jartzean, sentipenetik haratagoko mundua hori soilik izanez gero; ikusmena duenak bere argi hutsean bere iluntasun hutsean bezain gutxi, eta itsuak aurrean izango lukeen aberastasun oparoan ikusteko gai izango litzateen bezainbat ikusten du. Barneko-denarekin edo agerpenaren bitartez barneko-denarekiko loturarekin horrela besterik izango ez balitz,

orduan agerpenari eustea besterik ezingo litzateke egin, hau da, zerbait egiestea, jakinaren gainean egiazkoa ez dela; edo hutsen-denean zerbait egoteko (lehendabizi gauza objektiboen hustasun bihurtu zen, baina, *berbaitango hustasun gisa* gogo-erlazio guztien hustasuntzat eta kontzientziak kontzientzia gisa dituen bereizketen hustasuntzat hartu egin behar denean), beraz, *santu* ere deitzen zaion *erabateko hutsune* horretan zerbait egoteko, kontzientziak berak sortzen dituen ameskeriez eta *agerpenez* betetzen dugu; hura hain gaizki tratatzea onartu beharko luke, bestelako traturik ez baitu merezi eta, ameskeriak ere hustasun hori baino hobekak baitira.

Baina barneko-dena edo sentipenetik haratago dena *sortu* da, agerpenetik *etorri* da, eta hori da haren bitartekotasuna; edo *agerpena da haren zerizana* eta egitatean haren betetasuna. Sentipenetik haratago dena sentipenezkoa eta hautemandakoa da, *egiatan* den bezala ezarrita; baina sentipenezkoaren eta hautemandakoaren egia da *agerpena* izatea. Sentipenetik haratago dena, orduan, *agerpena* da *agerpen* den aldetik. - Gaizki ulertzen da sentipenetik haratago dena, *ondorioz*, sentipenezko mundua dela edo *sentipenezko* ziurtasun eta *hautemapen bitartegabekoarentzat* den mundua dela ulertzen bada; izan ere, agerpena ez baita hain zuzen sentipenezko jakitearen eta hautematearen mundua, baden mundutzat hartuta, baizik eta *gainditua gisa* edo egiatan barneko mundu gisa ezarrita. Esan ohi da sentipenetik haratago dena *ez* dela agerpena, baina horrela agerpen esaten denean *ez* da agerpena ulertzen, baizik eta hain zuzen *sentipenezko* mundua, errealtate errealtzat hartuta.

Adimena, zeina gure objektua den, maila honetan dago, non hari barneko-dena berbaitan orokor oraindik osatugabe gisa soilik bihurtu zaion; indarren jokoak esanahi ezezko hau dauka: berbaitan ez izatea, eta baiezko hau soilik: *bitartekaria* izatea, baina bere baitatik at. Barneko-denarekin duen harremana bitartekotasunaren bitartez, ordea, bere higidura da, zeinaren bitartez adimenarentzat osatuko den. - *Bitartegabe* da harentzat indarren jokoak; *baina egia-dena* harentzat barneko-den sinplea da; indarraren higidura da, horregatik, egia-dena oro har *sinple-den* heinean. Baina ikusi dugu indarren jokoak eraketa hau daukala: beste indar baten eskaera jasotzen duen indarra era berean *eskatzen duena* da beste horrentzat, zeina horrela bihurtzen den lehenik eskatzen duen indar. Hemen, era berean, aldaketa bitartegabea

edo *determinatutasunaren* truke absolutua baino ez dugu aurrean, zeinak agertzen denaren *eduki* bakarra osatzen duen: edo elkargune orokorra da, edo batasun negatiboa. Bere aurkezpen zehatzean bitartegabe uzten dio aurkezten denean den hori izateari; bere aurkezpen zehatzaren bitartez beste aldeari eskatzen dio, horrela *adierazi* egiten den beste aldeari, hau da, hori lehenak izan behar zuen horixe da orain bitartegabe. Bi alde horiek, eskatzearen *jokabidea* eta aurkakotutako eduki zehatzaren *jokabidea*, *bakoitza bere baitarako* iraulketa eta nahasmen absolutua dira. Baina bi jokabide horiek azken finean berbera dira; eta gauza berbera da *formaren* bereizketa, eskaera jasotzen duena eta eskatzen duena izatea, eta *edukiaren* bereizketa, eskaera jasotzen duena halakoa den aldetik, hau da, elkargune jasailea, eta eskatzen duena, berriz, ekilea, batasun negatiboa, edo Bata. Horrela, higidura horretan agertu behar zuten *indar berezien* edozein elkar bereizketa desagertzen da oro har, zeren bereizketa haietan soilik hartzen baitzuten oin; eta indarren bereizketa bat dator bi haiekin. Hemen, orduan, ez dago jadanik ez indarra ezta eskatzeko ekintza eta eskaera jasotzekoa ere; ez elkargune iraunkorra eta bere baitara islatutako batasuna izateko determinatutasuna, ez bere baitarako banakoa, ez aurkakotze ezberdinak ere; baizik eta aldaketa absolutu horretan dagoena da bereizketa *orokor gisa* edo aurkakotze anitzak desegin dituen zera gisa. *Bereizketa* hori, *orokorra den aldetik*, orduan, *indarren beraren jokoan sinple-dena* da eta horren egia-dena; *indarren legea* da.

Agerpen absolutuki aldakorra *bereizketa sinple* bihurtzen da barneko-denaren edo adimenaren sinpletasunarekin duen harremanaren bitartez. Barneko-dena lehendabizi berbaitan orokor-dena soilik da; baina berbaitan *orokor-den* sinple hori funtsean era berean bereizketa orokorra da absolutuki; izan ere, aldaketaren beraren emaitza da, edo aldaketa da bere zerizana; baina aldaketa *barnean* ezarrita, egiatan den bezala, barneko-den horretan jasotzen da bereizketa era berean absolutuki orokor, geldi, bere buruarekin berdin bezala. Edo negazioa orokor-denaren zerizanezko unea da, eta hori bera edo bitartekotasuna orokorrean *bereizketa orokorra* da. Bereizketa hori *legean* adierazten da agerpen aldakorraren irudi *iraunkor* bezala. *Sentipenetik haratagoko* mundua, horrenbestez, *legeen erresuma lasaia* da, hautemandako mundutik haratago, bai, horrek legea aldaketa iraunkorraren bitartez era-

kusten baitu, baina legeak hor daude dena den eta euren irudi lasai bitartegabea ere bai.

Legeen erresuma hori adimenaren egia da, zeinak legean dagoen bereizketan *edukia* daukan; baina era berean hori bere *lehen egia* besterik ez da eta ez du agerpena osatzen. Legea horren baitan dago, baina ez da horren presentzia osoa; beti aldatzen diren inguruabarretan beti beste errealitate bat dauka. Horregatik, agerpenari *berbaitarako* geratzen zaio barnean ez dagoen alde bat; edo bera egiatan ez dago ezarrita oraindik *agerpen* gisa, *gainditutako* berbaitarako izate gisa. Legearen gabezia hori bere baitan nabaritu behar da era berean. Falta omen zaiona honako hau da, bereizketa badaukala bai bere baitan, baina bakarrik aldaketa orokor, determinatugabe gisa. Baina oro har legea ez den heinean, baizik eta lege *bat*, orduan bere baitan dauka determinatutasuna; eta horrela legeen kopuru zehaztugabea dago. Aniztasun hori, ordea, gabezia bat da; hain zuzen, adimenaren printzipioa kontraesaten du, zeinarentzat barneko-den sinplearen kontzientzia gisa berbaitan orokorra den *batasuna* egia-dena den. Horregatik, adimenak lege anitz horiek lege *batean* bildu behar ditu; adibidez, harriak erorarazten dituen legea eta zeruko esferak higiarazten dituen legea lege *bat* bezala ulertu den moduan. Baina bat-etortze horretan legeek euren determinatutasuna galtzen dute; legea gero eta azalekoago bihurtzen da, eta horrela ez da aurkitu egitatean lege *berezi horien* batasuna, baizik eta horien determinatutasuna baztertzen duen lege bat; lurrera erortzen diren gorputzen legea eta zeruko higiduren legea bere baitan batzen dituen lege bakarrak egitatean bi legeak adierazten ez dituen bezala. Lege guztiak *erakarpen orokorrean* bateratzeak ez du adierazten edukia *legearen beraren adigai soilak* baino areago, hor *den zerbait* gisa ezarrita izaki. Erakarpen orokorrak honako hau besterik ez du esaten: *denak dauka bereizketa etengabea bestearekin*. Adimenak uste du hor lege orokor bat aurkitu duela, zeinak errealitate orokorra, *den bezala*, adierazten duen; baina egitatean *legearen beraren adigaia* besterik ez du aurkitu; hala ere, honako hau adieraziz era berean: errealitate *oro* bere baitan legearen araberakoa da. *Erakarpen orokorraren* adierazpenak garrantzi handia dauka, pentsamendugabeko *errepresentatze-ekin* - *tzaren* aurka zuzenduta dagoen neurrian, zeinari dena ausazkotasunaren forman eskaintzen zaion eta zeinarentzat determinatutasunak sentipenezko beregaintasunaren forma daukan.

Lege berezien aurrean erakarpen orokorra daukagu, edo legearen adigai hutsa. Adigai huts hori zerizan bezala edo egiazko barneko-den bezala begiratzen den neurrian, lege zehatzaren beraren *determinatutasuna* oraindik agerpenari dagokio edo, are, sentipenezko izateari. Legearen *adigai* hutsa, zeina lege *berezi* izanik *beste* lege *berezien* aurka doan, ez doa legeaz haraindi soilik, baizik eta gainera *legeaz* haraindi doa lege den aldetik. Hizpide genuen determinatutasuna bera desagertzen den unea besterik ez da, zeina hemen zerizantasan bezala baino ez den agertzen, zeren legea egia-dena bezala bakarrik baitauek; baina legearen *adigaia* *legearen* beraren aurka bideratzen da. Legean hain zuzen bereizketa bera *bitartegabe* atzitua eta orokor-denean jasotzen da, baina horrela euren arteko harremana adierazten duen uneen *iraunpena* da, bere baitan diren zerizantasan axolagabeen gisara. Baina legean dagoen bereizketa horren alde horiek beraiek aldi berean alde determinatuak dira; legearen adigai hutsa, erakarpen orokor gisa, bere egiazko esanahian honela ulertu behar, hots, horren baitan absolutuki *sinple-dena* den aldetik *bereizketak*, legean lege den aldetik existitzen direnak, berriro *barnera* itzultzen direla *batasun sinple gisa*; hura legearen barne *beharrezkotasuna* da.

Horren bidez legea modu bikoitzean dugu: batetik, bereizketak une beregain gisa adierazten dituen lege gisa; bestetik, bere baitara itzuli izate *sinplearen* forman, zeinari bere aldetik *indar* dei dakioken, baina ez bere baitara atzera bidalitakoa, baizik indarra orokorrean edo indarraren adigaia, hots, erakartzen duena eta erakarri denaren arteko bereizketak euren baitara ekartzen dituen abstrakzio bat. Adibidez, elektrizitate *sinplea indarra* da; baina bereizketaren adierazpena *legea-ri* dagokio; bereizketa hori elektrizitate positiboa eta negatiboa da. Erorketaren higiduran *indarra* da sinplea, *grabitatea*, zeinak *lege* hau daukan: jariatako denboraren eta ibilitako espazioaren higiduraren une ezberdinekin dituzten neurriek elkar jotzen dutela erroak eta berredurak elkar jotzen duten bezala. Elektrizitatea bera ez da bereizketa ber-baitan, edo bere zerizanean zerizan bikoitza: elektrizitate positiboa eta negatiboa, eta horregatik esaten ohi da, berak *du* horrela izanarazten duen *legea* eta berak *du* horrela adieraztarazten duen *ezaugarria*. Ezau-garri hori da indar horren ezaugarri zerizanezkoa eta bakarra, edo *beharrezkoa* zaio. Baina beharrezkotasuna hemen hitz hutsal bat da; indarrak bikoiztu egin *behar* du, hain zuzen behar *duelako*. Elektrizitate

positiboa ezartzen baldin bada, *negatiboa* ere *berbaitan* beharrezkoa da; izan ere, *positiboa*-dena *negatibo*-denarekin duen harreman gisa baino ez da; edo *positiboa*-dena *bere baitan* bere buruarekiko bereizketa da, *negatibo*-dena den bezala. Baina elektrizitatea, halakoa den aldetik, horrela banatzea ez da berez *berbaitan* beharrezkoa-dena; *indar sinple* bezala axolagabe zaio positibo edo negatibo gisa *izateko* legea; eta guk hura bere adigai deitzen baldin badugu, hori, aldiz, bere izatea, orduan bere adigaia axolagabe da bere izatearen aurrean; berak ezau-garri hori bakarrik *dauka*; horrek esan nahi du, hain zuzen, ez zaiola *berbaitan* beharrezkoa. - Axolagabetasun horrek beste tankera bat hartzen du, esaten baldin bada elektrizitatearen *definizioari* dagokiola positibo eta negatibo gisa izatea, edo hori dela *bere adigaia eta zeriza* - *na*. Orduan bere izateak adieraziko luke *bere existentzia* oro har; baina definizio horretan ez da aurkitzen *bere existentziaren beharrezkotasu* - *na*; bera da, *aurkitzen* dugulako, hau da, ez da batez ere beharrezkoa; edo bere existentzia beste indarren menpe dagoelako, hau da, bere beharrezkotasuna kanpoko da. Baina beharrezkotasuna *izatearen* determinatutasunean *beste batek* ezartzen badu, berriro itzultzen gara lege berezien *aniztasunera*, zeina oraintsu alde batera utzi dugun, legea lege bezala begiratzeko; horrekin baino ez dugu alderatu behar bere *adigaia* adigai bezala edo bere beharrezkotasuna, zeinak forma horietan guztietan hitz hutsal bezala erakutsi duen bere burua.

Erakutsi dena ez den beste modu batean ere agertzen da legearen eta indarraren edo adigaiaren eta izatearen axolagabetasuna. Higiduraren legean adibidez beharrezkoa da higidurak bere burua denboran eta espazioan *banatzea*, edo gainera distantzian eta abiaduran. Higidura une horien arteko jokabidea baino ez den heinean, orokor-dena hemen banatuta dago *berbaitan*; baina zati horiek, denbora eta espazioak edo distantzia eta abiadurak, ez dute adierazten euren baitan *Bat batetiko* sorrera hori; elkarrekin axolagabe jokatzan dute, espazioa denborarik gabe izan baliteke bezala ulertzen da, denbora espaziorik gabe, eta distantzia gutxienez abiadurarik gabe, euren neurriak elkarrekin axolagabe diren bezala; *positiboa*-dena eta *negatiboa*-dena bezala jokatzan ez duten heinean, horrela ez dira elkar harremantzen *euren zerizanaren* bidez. *Zatiketaren* beharrezkotasuna hor dago, bai, baina ez *zatiak* zati gisa elkarrentzat izatearena. Baina horregatik lehenagoko beharrezkotasun hura ere beharrezkotasun antzestu faltsua baino ez

zen; higidura ez da aurkezten *sinple-den* gisa edo zerizan huts gisa, bai-
zik eta *jadanik* zatituta; denbora eta espazioa bere zati *beregainak* dira
edo *zerizanak euren baitan*, edo distantzia eta abiadura izatearen edo
errepresentatzearen moduak dira, bakoitza benetan bestea gabe izan
ahal dela; eta higidura horregatik horien arteko *azaleko* harremana bes-
terik ez da, ez horien zerizana. Zerizan sinple gisa edo indar gisa erre-
presentatuta, hura benetan *grabitate* da, zeinak ez dauzkan, bestalde,
bereizketa horiek bere baitan.

Bi kasuetan, bada, bereizketa ez da *berbaitan ezein bereizketa*;
edo orokor-dena, indarra, legean dagoen banaketaren aurrean axolaga-
be da; edo bereizketa da, legearen zatiak dira elkarri axolagabeak.
Baina adimenak *bere baitan* dauka *bereizketa horren* adigaia, hain
zuzen honako honetan, legea batetik barnekoa, *berbaitan-dena* dela,
baina *bere baitan* bestetik *desberdin* dela; bereizketa hori barneko
bereizketa dela honako honetan jasotzen da, legea indar *sinplea* edo
beraren *adigai* gisa dela, hau da, *adigaiaren bereizketa* bat. Baina bar-
neko bereizketa hori oraindik *adimenean* datza eta oraindik ez dago
gauzan bertan ezarrita. Adimenak adierazten duena bere beharrezko-
tasun *propioa* besterik ez da; adimenak bereizketa hori sortzen du aldi
berean adieraziz bereizketa *gauzaren beraren ezein bereizketarik* ez
dela. Hitzezkoa baino ez den beharrezkotasun hori euren zirkulua osa-
tzen duten uneen kontaketa da; desberdintzen dira, bai, baina aldi bere-
an adierariz euren desberdintasuna ez dela gauzaren beraren desberdin-
tasunik, eta horregatik era berean berriz gaintitzen da; higidura hori
argitze-ekintza deitzen da. *Lege* bat adierazten da, eta bere baitan oro-
kor-dena edo oinarria, *indar* gisa, horretatik desberdintzen da; baina
desberdintasun horri buruz esaten da ez dela existitzen, baizik eta oina-
rria legea bezala dagoela osatuta. Tximistaren gertaera bakana, adibi-
dez, orokor-den bezala ulertzen da, eta orokor-den hori adierazten da
elektrizitatearen *legea* bezala: argipenak, beraz, *legea indarrean* biltzen
du, legearen zerizan gisa. Indar hori honela eratuta dago, hots, adieraz-
ten denean aurkakotutako elektrizitateak sortzen dira eta aldi berean
bata bestean desagertzen da, *hau da, indarra legea bezala dago eratu-
ta*; esaten da biak ez direla inolaz ere desberdinak. Desberdintasunak
adierazpen orokor hutsa edo legea eta indar hutsa dira; baina biek dau-
kate eduki *berbera*, eraketa *berbera*; desberdintasuna berriz baliogabe-
tzen da edukiaren, hau da, *gauzaren* desberdintasun gisa.

Higidura tautologiko horretan, ondorioztatzen den bezala, adimena bere objektuaren batasun barean mantentzen da, eta higidura adimenean soilik gertatzen da, ez objektuan; higidura argitze-ekintza bat da, zeinak ez bakarrik ez duen ezer azaltzen, baizik eta hain argia den, ezen, jadanik esanda dagoenetik ezberdina den zerbait esateko ahaleginak egiten dituenean, ez baitu ezer esaten, soilik berdina errepikatzen du. Gauzan bertan ez da ezer berririk sortzen higidura horren bidez, baizik eta adimenaren higidura bezala baino ez da hartzen aintzakotzat. Baina legean aurkitu ez genuen horixe hain zuzen bertan ikusten dugu, hau da, aldaketa absolutua bera; izan ere, *higidura* hori, hurbilagotik begiratzen dugunean, bitartegabe bere buruaren aurkakoa baita. Berak *bereizketa bat* ezartzen du, baina ez bakarrik guretzat *bereizketarik* ez dena, baizik eta bere burua gainditzen duen bereizketa gisa. Indarren joko gisa aurkeztu zen aldaketa berbera da hori ere; hartan eskatzen duenaren eta eskaera jasotzen duenaren arteko, bere burua kanporatzen duen eta bere baitara atzera bidalia den indarraren arteko bereizketa zegoen; baina benetan ezein bereizketa ez diren bereizketak ziren eta, horregatik, berriz bitartegabe ere gainditzen zirenak. Ez daukagu batasun hutsa bakarrik, halako moldez non ez bailegoke *ezein bereizketa*, baizik eta *higidura* hau dugu, bereizketa sortzen duena, bai, baina, ezein bereizketa ez denez, *berriz gainditzen dena*. - Beraz, lehenago barneko-denean salbu kanpoan agerpenean soilik zeuden mudantza eta aldaketa argitze-ekintzaren bidez heldu dira sentipenetik haratago deneraino; baina gure kontzientzia igaro da barnetik, objektu bezala, beste aldean dagoen *adimenarena*, eta hark hor dauka aldaketa.

Aldaketa hori ez da oraindik gauzaren beraren aldaketa, baizik eta aldaketaren uneen *edukia* berbera utziz aurkezten du bere burua *aldaketa huts* bezala. Baina *adigaia* adimenaren adigai bezala gauzen *barneko* den gauza berbera den heinean, *aldaketa hori* adimenentzat *barneko-denaren legea* da. Adimenak *esperimentatzen* du, beraz, *agerpenaren beraren legea* dela bereizketak ez diren bereizketak sortzea, edo *izen berekoak* norbera bere baitatik *aldaratzea*; eta era berean esperimentatzen du bereizketak egiatan bereizketarik ez diren eta gainditzen diren bereizketak besterik ez direla; edo *izen ezberdinekoak* bere burua *erakartzen* duela. - Lehenago lege deitu dugun horri, hau da, bere buruarekin berdin irauten duen desberdintasunari aurkakotzen zaion

edukia duen *bigarren lege* bat daukagu; izan ere, lege berri horrek *berdina desberdin-bilakatzeko-ekintza* eta *desberdina berdin-bilakatzeko-ekintza* adierazten baitu. Adigaiak eskatzen dio pentsamendu-gabetasunari bi legeak batera ditzala eta euren arteko aurkakotasunaz jabetu dadila. - Bigarrena ere legea da dudarik gabe, edo bere buruarekin berdin izate barneko bat, baina desberdintasunaren bereburuarekikoberdintasun bat, iraunezintasunaren iraupen bat. - Indarren jokoan sortu zen lege hori, hain zuzen igarotze absolutu hori bezala eta aldaketa huts bezala; *izen berekoa*, indarra, *desegiten* da aurkakotze batean, zeina hasieran agertzen den bereizketa beregain bat bezala, baina egitatean ezein bereizketarik ez dena, frogatzen denez; izan ere, bere burua bere baitatik aldaratzen duen izen berekoa baita, eta aldaratuta izan den horrek erakartzen du bere burua funtsean, *berdina* baita; egin zen bereizketa, ezein bereizketa ez zenez, gainditu egiten da. Horrela, *gauzaren beraren* bereizketa bezala agertzen da edo bereizketa absolutu bezala, eta *gauzaren* bereizketa hori orduan izen berekoa besterik ez da, zeinak bere burua bere baitatik aldaratu egin duen eta zeinak, beraz, ezein aurkakotze ez den aurkakotze bat ezartzen duen.

Printzipio horren bidez sentipenetik haratago den lehenengoa, legeen erresuma lasaia, hautemandako munduaren bitartegabeko kopia horren aurkako bihurtzen da; legea bere buruarekin *berdin-geratzen dena* zen, bere bereizketak bezala; baina orain ezartzen da biak bere buruaren aurkakoa direla; bere buruaren *berdin* den horrek bere burua bere baitatik aldaratzen du, eta bere buruaren desberdin den horrek bere burua ezartzen du bere buruaren berdin den hori bezala. Egitatean, determinazio horren eskutik bakarrik lortzen dugu *barneko-denaren* bereizketa edo *bere baitan den* bereizketa, berdina bere buruaren desberdin, desberdina bere buruaren berdin den heinean. - *Sentipenetik haratagoko bigarren mundu hori*, horrenbestez, mundu iraulia da, eta hain zuzen, alde bat sentipenetik haratagoko lehen munduan zegoen heinean, *lehenengo* horren mundu iraulian. Horrela, barneko-dena osatuta dago agerpen bezala. Izan ere, hautemandako mundua osagai orokorrera *bitartegabe* goratzeko ekintza baitzen sentipenetik haratagoko lehen mundua; hark *berbaitarako mudantzaren eta aldaketaren printzipioa* mantendu zuen mundu horretan dauka bere beharrezko aurkako irudia; legeen lehenengo erresumari printzipio hori falta zaio, baina mundu irauli bezala mantentzen du.

Mundu irauli horren legearen arabera, lehenengo munduaren *izen berekoa* orduan bere buruaren *desberdina* da, eta lehenengo mundu horren desberdina era berean *bere buruaren desberdin* da, edo bere buruaren *berdin* bihurtuko da. Une berezietan hau ondorioztatuko da: lehenengo munduaren legean gozoa dena, iraulitako berbaitan horretan garratza dela; hartan beltza zena, horretan zuria dela. Lehenengo munduaren legean iparrorratzaren Ipar poloa dena, bere sentipenetik haratagoko beste berbaitan (Lurrean, jakina) Hego poloa da; hartan, berriz, Hego poloa dena, horretan Ipar poloa da. Era berean, elektrizitatearen lehenengo legean oxigeno-poloa dena, bere sentipenetik haratagoko beste zerizanean hidrogeno-poloa da. Beste maila batean, *bitartegabe -ko legearen* arabera, etsaiarekiko mendekua iraindutako banakotasunaren asebetetze handiena da. Baina *lege hori*, zeinaren arabera ni zerizan beregaintzat onartzen ez nauen horri nik haren aurrean nire burua zerizan bezala erakusten dudan eta horrela hura zerizan bezala ezabatzen dudana, beste munduaren printzipioaren bidez *aurkako lege bihurtzen* da: nire burua zerizan bezala berreskuratzea zerizan arrotza ezabatzearen bitartez norberaren buruaren suntsipen bihurtzen da. Krimenaren *zigorrear* agertzen den iraulketa hori *lege bihurtzen* baldin bada, orduan hori mundu baten legea baino ez da, zeinak sentipenetik haratagoko mundu irauli bat daukan *bere aurrean*; eta mundu horretan, hartan erdeinatzen dena ohoratzen da; eta hartan ohoratzen dena hemen erdeinatzen da. *Lehenengo munduaren legearen* arabera gizakia desohoratzen eta suntsitzen duen zigorra *mundu iraulian* bere zerizana mantentzen duen eta bera berriz ohoratzen duen grazia bihurtzen da.

Gaingiroki ikusita, mundu irauli hori lehenengoaren aurkakoa da, halako moldez non hark hori bere baitatik kanpoan baitauka, eta lehenengoa *errealitate irauli* bat bezala bere baitatik aldarazten baitu; *bata agerpena*, *bestea*, berriz, *berbaitana* baita; *bata beste batentzat* den moduan da, *bestea*, berriz, *bere buruarentzat* den bezala da; halako moduan non, lehenengo adibideak erabiliz, gozo den hori *propioki* edo bere *barnean* garratza baita; edo agerpenaren iparrorratz errealean Ipar poloa den hori *barneko edo zerizanezko izatean* Hego poloa baita; agertzen den elektrizitatean oxigeno-polo gisa azaltzen den hori agertzen ez denean hidrogeno-poloa izango bailitzateke. Edo *agerpenean* krimena den ekintza batek *barnean* egiatan ona (ekintza gaiztoak asmo ona) izan beharko luke; zigorra agerpenean baino ez litzateke zigorra; *ber -*

baitan edo beste mundu batean, berriz, ekintza ona litzateke gaizkilearentzat. Baina halako aurkakotzarik ez dago hemen jadanik, barnekoa eta kanpoko, agerpena eta sentipenetik haratago dena, bi motatako errealitateak izango bailira. Aldarazitako desberdintasunak ez dira banatzen berriro horrelako bi substantzian, haiek jasoko lituzketeneta eta haiei banatutako iraupena emango lieketeneta; eta horrela adimena barnetik berriz ere lehen zuen lekura eroriko litzateke. Alde bata edo substantzia izango litzateke berriz hautemapenaren mundua, non bi legeetako batek bere zerizana ezarriko lukeen; eta bere aurrean barneko mundu bat egongo litzateke, *hain zuzen, lehenengoa bezalako sentipenezko mundu bat*, baina *errepresentazioan*; ezingo litzateke erakutsi sentipenezko mundu bezala, ez ikusi, ez entzun, ezta dastatu ere, eta hala ere halako sentipenezko mundu bezala errepresentatuko litzateke. Baina egitatean, *ezarrita-den bata* hautematen-dena bada, bere *berbaitana* bere irauli-den gisa, era berean *sentipenak errepresentatzen duena* baldin bada, orduan garratza dena gauza gozoaren berbaitana izango litzateke, hura gauza garratza den bezain gauza erreal bat; zuriaren berbaitana izango litzatekeen beltza beltz errela da; Hego poloaren berbaitana den Ipar poloa *iparorratz berdinean dagoen* Ipar poloa da; hidrogeno-poloaren berbaitana den oxigeno-poloa da zutabe berdinean *dagoen* oxigeno-poloa. *Benetako* krimenak, ordea, badauka *bere iraulketa* eta *bere berbaitana aukera* bezala asmoan asmo den aldetik, baina ez asmo onean; izan ere, asmoaren egia ekintza bera besterik ez baita. Baina edukiaren arabera, krimenak badauka bere baitan isla edo bere iraulketa *benetako* zigorrean; zigorra legearen adiskidetzeta da krimenean aurkakotzen zaion errealitatearekin. *Benetako* zigorrak azkenean badauka bere errealitate iraulia bere baitan; hori, hain zuzen, legearen errealizazioa da, zeinaren bitartez zigor gisa daukan egiletasunak *bere burua ezabatzen duen*; ekilea zena, horrela, berriz indarrean dagoen lege *lasai* bihurtzen da, eta banakotasunaren higidura legearen aurka eta legearena banakotasunaren aurka agortzen dira.

Sentipenetik haratagoko munduaren alde baten zerizana osatzen duen iraulketaren errepresentaziotik urrundu egin behar dugu sentipenezko errepresentazio hau, hots, bereizketak iraupenaren osagai batean finkatzekoa; eta argi eta garbi aurkeztu eta ulertu egin behar da bereizketaren adigai absolutu hori barneko bereizketa gisa, izen berekoaren aldaratzeko ekintza bere baitatik izen bereko den aldetik eta desberdin

denaren berdin-izatea desberdin gisa. Aldaketa hutsa edo *berbaitan dagoen aurkakotzea*, *kontraesana pentsatu* behar da. Izan ere, barnekoa den bereizketan, aurkakotuta-dena ez da bakarrik *bien arteko bat* (bestela den zera litzateke eta ez aurkakotuta-den bat), baizik eta aurkakotuta-den baten aurkakotuta-dena da, edo bestea bere baitan dago bitartegabe. Nik jartzen dut *hemen* aurkakoa eta *hor* bestea, haren aurkakoa dena; jartzen dut, orduan, *aurkakoa* alde batean berbaitan eta berbaitarako besterik gabe. Baina hain zuzen horregatik, hemen *aurkakoa berbaitan eta berbaitarako* daukadan heinean, hori bere buruaren aurkakoa da, edo horrek egitatean bestea bere baitan dauka bitartegabe. - Horrela, sentipenetik haratagoko mundu iraulia besteari gailentzen zaio eta aldi berean hori bere baitara sartzen du; berbaitarako mundu iraulia da, hau da, bere burua iraultzen duena; bera eta aurkakotzen zaion mundua da batasun *batean*. Horrela baino ez da bereizketa *barneko* bereizketa bezala, edo bereizketa *berbaitan*, edo *amaigabetasun* gisa da.

Amaigabetasunaren bitartez ikusten dugu legeak beharrezkotakoa osatu duela bere baitan eta agerpenaren une guztiak barnean jaso dituela. Legean simple-dena amaigabetasuna izateak esan nahi du, ondorioztatu den bezala, a) *bere-buruarekin-berdin* dela, zeina berbaitan *bereizketa* den; edo izen bereko dela, zeinak bere burua bere baitatik aldaratzen duen edo bere burua bitan banatzen duen. Indar *simple* deitzen zenak bere burua *bikoizten* du eta legea da bere amaigabetasunaren bitartez. b) *Legean* agertzen diren zatiak osatzen dituen banatuta-den hori irauten-duena bezala aurkezten da; eta barneko bereizketaren adigairik gabe aintzat hartuz gero, espazioa eta denbora da, edo distantzia eta abiadura, zeinak grabitatearen une bezala agertzen diren, axolagabe eta beharrezkotasunik gabe elkarrekiko eta baita grabitatearekiko ere, grabitate simple hori haiekiko den modu berdinean, edo elektrizitate simplea positiboarekiko eta negatiboarekiko. g) Baina barneko bereizketaren adigaiaren bitartez desberdin-den eta axolagabe den hori, espazioa eta denbora eta abar, *bereizketa* bat da, zeina ez den ezein *bereizketarik*, edo izen *berekoaren* bereizketa soilik, eta bere zerizana batasuna da; horiek elkar bizitzen dute positiboa eta negatiboa bezala, eta euren izatea ez-izate gisa ezartzean eta batasunean gainditzean datza. Bi alde desberdinak mantentzen dira, *berbaitan* dira, *berbaitan* dira *aurkakotu gisa*, hau da, bere buruari aurkakotu gisa, euren bestea euren baitan dute eta batasun *bat* besterik ez dira.

Amaigabetasun sinple horri edo adigai absolutuari deitu behar zaio bizitzaren zerizan sinple, munduaren arima, odol orokorra, zeina, nonahi izanik, ezein bereizketak ez duen aztoratzen ezta geldiarazten ere; zeina, aitzitik, bereizketa guztiak eta horien gaintitzea ere baden; eta taupadaka ari da bere baitan higitu gabe, dardaraka ari da bere baitan kezkatu gabe. *Bere buruaren berdin* da, zeren bereizketak tautologikoak baitira; bereizketarik ez diren bereizketak dira. Bere buruaren berdin den zerizan horrek bere buruarekin bakarrik dauka harremana; *bere buruarekin* eta, beraz, harremana beste batekin du, eta *bere burua -rekin duen harremana* bitan *banatzeko-ekintza da*, edo hain zuzen bere buruaren berdintasun hura barneko bereizketa da. *Banatuta-diren* horietako bakoitza *berbaitan eta berbaitarako da*, bakoitza aurkako bat, *beste baten* aurkako bat; eta, horrela, adierazita dago berarekin batera aldi berean *beste*a. Edo ez da *beste* baten aurkakoa, baizik eta *aurkako hutsa* besterik ez; horrela, bere baitan bere buruaren aurkakoa da. Edo ez da inolaz ere aurkako bat, baizik eta hutsa bere baitarako, bere buruaren berdin den zerizan huts bat, zeinak bere baitan ez daukan bereizketarik; horrela ez zaigu beharrezkoa galdetzea, are gutxiago filosofiak horrelako galderekin nola pairatzen duen ikustea edo filosofiak horri ezin diola erantzun pentsatzea, hots, *nola* zerizan huts horretatik bereizketa edo beste-izatea sortzen den; izan ere, banaketa jadanik gertatu da, bereizketa bere buruaren berdin den horretatik kanporatzen da eta bazter batean uzten da; *bere buruaren berdin* izan behar zuena jadanik banatuta-dauden horietako bat da, zerizan absolutua izan beharrean. *Bere buruaren berdin dena banatzen* dela esateak esan nahi du bere burua gaintitzen duela jadanik banatutako bezala, bere burua gaintitzen duela beste-izate bezala. Ohiz esaten da *batasunetik* ezin dela bereizketarik sortu, baina egitatean banaketaren une bat besterik ez da; sinpletasunaren abstrakzioa da, zeina bereizketaren aurrean dagoen. Baina bera abstrakzioa, eta horrela aurkakotuetako bat besterik ez den heinean, orduan jadanik esana dago bera banatze-ekintza dela; izan ere, batasuna *negatibo-dena* baldin bada, *aurkakotuta-dena*, orduan aurkakotzeak bere baitan daukan zerbait bezala ezarrita dago hain zuzen. Horrenbestez, *banaketaren* eta *bere buruaren berdin izatera iristearen* bereizketak era berean *bere burua gaintitzeko-higidura hori* besterik ez dira; izan ere, bere buruaren berdin den hori, lehenik banatu eta bere aurkako bihurtu behar dena, abstrakzioa edo *jadanik* banatuta-den bat den heinean, orduan banatze-ekintza hori, den horren gaintitze-ekintza

bat da, eta beraz, banatutako-izatearen gainditzea. *Bere buruaren berdin izatera iristea* era berean banatze-ekintza da; bere buruaren berdin izatera iristen denak horren bidez banaketari aurre egiten dio; hau da, horrela bere burua *alde batean* ezartzen du, edo, hobe, *banatuta-den* zer bait bihurtzen da.

Amaigabetasuna edo norberaren buruaren gigitze hutsaren lasaitasun eza absolutu hori, hots, nolabait, adibidez, izate bezala determinatuta dagoena determinatutasun horren aurkakoa izatea, orain arteko guztiaren arima izan da benetan, baina bakarrik *barnean* soilik agertu da aske hori bera. Agerpenak edo indarren jokoak aurkezten dute jadanik arima, baina *argitze-ekintza* gisa baino ez da agertzen aske lehen aldiz; eta azkenik kontzientziaren objektu denez *bera den bezala*, orduan kontzientzia *autokontzientzia* da. Adimenaren *argitze-ekintzak* hasieran autokontzientzia zer den deskribatu baino ez du egiten. Adimenak legean dauden, jadanik huts bihurtu diren, baina oraindik axolagabe diren bereizketak gainditzen ditu eta ezartzen ditu batasun *batean*, indarrean. Baina berdin-bilakatze hori era berean bitartegabe bitan banatzea da, zeren bereizketak gainditzen baititu eta horrela indarraren bata ezartzen baitu, bereizketa berri bat egiten duen heinean soilik, alegia, legearen eta indarraren arteko bereizketa, zeina, aldi berean, ez den ezein bereizketarik; eta hain zuzen bereizketa hori ez delako inolaz ere bereizketarik, adimenak berak ekiten dio bereizketa hori berriz gainditzeari, indarrari legeak duen eraketa berbera edukitzen uzten dion heinean. - Baina higidura edo beharrezkotasun hori oraindik adimenaren beharrezkotasuna eta higidura da; edo, higidura hori *ez* da higidura gisa *haren objektua*, baizik eta adimenak higidura horretan dauzka objektutzat elektrizitate positiboa eta negatiboa, distantzia, abiadura, erakarpen-indarra eta beste mila gauza, zeinek higiduraren uneen edukia osatzen duten. Argitze-ekintzan norberaren hainbeste asebetetze dago, hor kontzientzia, nolabait esateko, bitartegabe solasean dagoelako bere buruarekin, bere buruaz atsegina besterik izan gabe; itxuraz beste zerbaitez arduratzen da, baina egitatean bere buruaz baino ez da arduratzen.

Aurkakotutako legean, lehen legearen iraulketa gisa, edo barneko bereizketan, amaigabetasuna bera adimenaren *objektu* bihurtzen da, baina adimenak galtzen du berriz amaigabetasun gisa, berbaitango bereizketa (izen berekoaren bere burua aldaratzea eta elkar erakartzen

duten desberdinak) berriz bi mundutan edo bi substantzia-osagaitan banatzen duen heinean; *higidura*, esperientzian den bezala, hemen gertaera bat da adimenarentzat, eta izen berekoa eta desberdina *predika-tuak* dira, zeinen zerizana baden eustazpia den. Adimenarentzat sentipenezko bildukian objektu den hori bera guretzat bere zerizanezko tankeran da, adigai huts gisa. *Eglatan* den moduan bereizketa ulertzeko ekintza hori, edo *amaigabetasuna* den bezala ulertzea *guretzat* edo *ber-baitan* da. Bere adigaia erakustea jakintzari dagokio; baina kontzientzia, hori *bitartegabe* daukanez, berriz agertzen da kontzientziaren forma berezi edo tankera berri bezala, zeinak aurretikoan ez duen berrezagutzen bere zerizana, baizik eta erabat bestelako gauzatat jotzen duen. - Amaigabetasunaren adigai hori harentzat objektu den heinean, bereizketaren kontzientzia ere bada, *bitartegabe* gainditua izan den bereizketa bezala; *bere buruarentzat* da, *desberdin ez den horren desberdintze-ekintza* da, edo *autokontzientzia*. *Ni neure burutik desberdintzen naiz*; eta horrela *bitartegabe gertatzen zait desberdin-den hori ez dela desberdin*. Nik, izen berekoak, nire burua nire baitatik aldartzten dut; baina desberdin-den hori, desberdin bezala ezarritako zerbait, bitartegabe desberdin den heinean, ez da ezein bereizketarik niretzat. Beste baten, oro har objektu baten kontzientzia halabeharrez da *auto-kontzientzia*, bere baitara islatua izatea, norberaren kontzientzia beste izatean. Kontzientziaren aurreko tankeretatik abiatuta egiten den *beharrezko aurrerapausuak*, harentzat egia-dena gauza bat, bera ez den beste bat izaki, adierazten du, hain zuzen, gauzen kontzientzia ez dela autokontzientzia batentzat soilik posible, baizik eta hori soilik dela tankera haien egia. Baina guretzat egia hori baino ez dago, kontzientziarentzat oraindik ez. Autokontzientzia *berbaitarako* soilik bilakatu da lehenik, baina oraindik ez du lortu kontzientziarekin *batasuna* oro har.

Ikusten dugu agerpenaren barnean adimena egiatan agerpena besterik ez dela, baina ez indarren jokoa bezala, baizik eta hori bere une absolutuki orokorretan eta horien *higidura*; eta egitatean adimenak *bere burua* besterik ez du esperimentatzen. Hautemapenaren gainera igota, kontzientziak bere burua sentipenetik haratago denarekin elkarturik aurkezten du agerpenaren erdigunearen bitartez, zeinaren bidez atzealde horretara begiratzen duen. Bi mutur horiek, barneko-den hutsa eta barneko-den huts horretara begira ari den barneko-dena, bat datoz orain; eta muturrak desagertu diren bezala desagertzen da erdigunea,

haiek ez den beste zerbaiz gisa. Beraz, errezel hori altxatzen da barneko-denaren aurretik eta orduan barneko-denak barneko-denean begiratzeko ekintza agertzen da; bere burua bere baitatik aldaratzen duen izen bereko *ez-desberdinaren* begiratze-ekintzak bere burua ezartzen du barneko *desberdin* bezala, baina *zeinentzat* era berean bitartegabe den bien *ez-desberdintasuna*, *autokontzientzia*. Erakusten da barneko-dena estali beharko lukeen errezel halakoaren atzean ezin dela ezer ikusi, *geu* han atzera joaten ez baldin bagara, bai norbaitek ikus dezan, bai ikusi ahal izango den zerbaiz izan dadin atzean. Baina berehala ondorioztatzen da ezin dela han atzera joan zuzen-zuzenean besterik gabe; izan ere, jakite hori bera, agerpenaren eta bere barnekoaren *errepresentazioaren* egia dena, higidura berezi baten emaitza da, zeinaren bitartez kontzientziaren moduak, iritzia, hautematea eta adimena desagertzen diren; eta, gainera, ondorioztatuko da *kontzientziak bere burua dakienan dakien* horren ezagutzak are egoera bereziagoa behar duela, eta ondoren dator horren azalpena.

IV.

NORBERAREN BURUAREN ZIURTASUNAREN EGIA

Ziurtasunaren orain arteko moduetan, egia-dena kontzientzia-
rentzat hori ez beste gauza bat izan da. Baina egia-den horren adigaia
desagertzen da haren esperientzian; objektua bitartegabeki *bere baitan*
zen moduan, hots, sentipenezko ziurtasunaren badena, hautemapenaren
gauza konkretua, adimenaren indarra, egiatan ez den bezala agertzen
da, baizik eta gertatzen da *berbaitan hori*, aitzitik, beste batentzat den
modu bat dela; haren adigaia objektu errealean gainditzen da edo lehen
bitartegabeko errepresentazioa esperientzian, eta ziurtasuna egian desa-
gertu egin da. Baina lehenengo erlazio horietan lortu ezin zena, orain
bai sortu dela, hau da, bere egiaren berdin den ziurtasun bat; izan ere,
ziurtasuna da bere buruarentzat bere objektua eta kontzientzia da bere
buruarentzat egia-dena. Horretan beste-izate bat ere bada; kontzien-
tziak bereizten baitu, baina aldi berean berarentzat era berean desberdin
ez den zerbait da. *Adigai* deitzen badiogu jakintzaren higidurari, *objek-
tu* bere aldetik jakintzari batasun lasai edo Ni gisa, orduan ikusten dugu
objektua adigaiari dagokiola, guretzat ez ezik baita jakintzarentzat
berarentzat ere. - Edo bestela, *adigai* deitzen badiogu objektua *berbai-
tan* denari, eta objektu, aldiz, *objektu* gisa edo beste *batentzat* denari,
orduan argi ikusten da berbaitan-izatea eta beste-batentzat-izatea gauza
berbera dela; izan ere, *berbaitan* dena kontzientzia da; baina kontzien-
tziarentzat era berean beste bat (*berbaitan* dena) da; eta horrentzat ger-
tatzen da objektuaren berbaitana eta horren beste batentzat izatea gauza

berbera izatea; Ni harremanaren edukia eta harreman-ekintza bera da; hori bera da beste baten aurka, eta aldi berean bere gain hartzen du era berean berarentzat norbera besterik ez den beste hori.

Autokontzientziarekin batera, beraz, egiaren sorterrian sartu gara. Ikusi behar da zein tankera erakusten duen lehen-lehenik autokontzientziak. Jakintzaren tankera berri hori, hau da, bere buruaren jakintza, aurrekoarekin alderatzen badugu, hau da, beste baten jakintzarekin, azken jakintza hori desagertu egin da; baina era berean horren uneak mantendu egin dira; eta galera da hor jarraitzen dutela *berbaitan* diren moduan. Iritziaren *izatea*, hautemapenaren *banakotasuna* eta horri aurkakotzen zaion *orokortasuna*, baita adimenaren *barne hutsa* ere, ez dira jadanik zerizanak, baizik eta autokontzientziaren uneak, hau da, abstrakzioak edo bereizkuntzak, kontzientziarentzat berarentzat era berean baliogabeak edo ezein bereizkuntzarik ez eta desagertzen diren zerizanak besterik ez diren. Orduan une nagusia soilik galdu da itxuraz, hau da, *beregain iraute sinplea* kontzientziarentzat. Baina egitatean autokontzientzia sentipenezko eta hautemandako munduaren izatetik datorren hausnarketa da eta, funtsean, *beste-izatetik* itzulera da. Autokontzientzia, autokontzientzia den aldetik, higidura da; baina *norbera bakarrik*, norbera den aldetik, bere baitatik bereizten den heinean, bereizketa *bitartegabe* beste-izate gisa *gainditu* da harentzat; bereizketa ez da; eta *autokontzientzia* higidurarik gabeko tautologia hau: Ni naiz Ni, besterik ez; harentzat bereizketak *izatearen* tankera ez daukan heinean, ez da autokontzientzia. Horrela, harentzat beste-izatea da *izate bat* edo *une desberdin* gisa; baina harentzat era berean bere buruaren batasuna da bereizketa horrekin, *bigarren* une *desberdin* gisa. Lehen une haren eskutik autokontzientzia *kontzientzia* gisa da, eta harentzat sentipenezko munduaren hedapen osoa mantendu egiten da, baina aldi berean soilik bigarren uneari, autokontzientziak bere buruarekin duen batasunari, lotzen zaion bezala; eta horrela hedapen hura autokontzientziarentzat iraute bat da, baina *agerpen* edo bereizketa besterik ez dena, *berbaitan* inongo izaterik ez daukan bereizketa. Baina haren agerpenaren eta haren egiaren aurkakotze horrek egia besterik ez du bere zerizan gisa, hau da, autokontzientziaren batasuna bere buruarekin; hari batasun hori zerizan bihurtu behar zaio, hau da, hura *irrika* da oro har. Orain kontzientziak, autokontzientzia den aldetik, objektu bikoitza dauka: bata, bitartegabekoa, sentipenezko ziurtasunaren eta hautemate-

aren objektua, *harentzat ezezkoaren izaerak* ezaugarritzen duena; eta bigarrena, *autokontzientzia bera*, zeina egiazko *zerizana* den eta hasiera batean lehenengoari aurkakotuz dagoen hor. Autokontzientzia, horrela, higidura gisa agertzen da, non aurkakotza hori gainditzen den eta autokontzientziari norberarekin duen berdintasun bihurtzen zaion.

Baina autokontzientziarentzat ezezkoa den objektua bere aldetik *guretzat* edo *berbaitan* era berean bere baitara itzuli da, kontzientziak egin duen bezala bestalde. Bere baitara egiten duen islapen horren bitartez objektua *bizitza* bihurtu da. Autokontzientzia, den aldetik, bere baitatik bereizten duenak badauka gainera, den bezala ezarrita dagoen neurrian, sentipenezko ziurtasunaren eta hautemapenaren modua ez ezik baita hori bere baitara islatua den izate bat ere; eta irrika bitartegabeakoaren objektua zera *biziduna* bat da. Izan ere, *berbaitana* edo adimenak gauzen barnealdearekin daukan erlazioaren emaitza *orokorra* hau da: bereiztezin-denaren bereizkuntza edo bereiztu-denaren batasuna. Baina batasun hori era berean, ikusi dugun bezala, bere baitatik alderatzeko ekintza da; eta adigai hori *bikoizten* da autokontzientziaren eta bizitzaren aurkakotasunean: *harentzat* batasuna desberdintasunen batasun amaigabea da; hori, aldiz, batasun hori besterik ez da, halako moldez non ez baita aldi berean *bere buruarentzat*. Beraz, kontzientzia adina beregaina da bere objektua *berbaitan*. Eskuarki *bere buruaren -tzat* soilik den eta bitartegabe bere objektua ezezkoaren izaeraz ezaugarritzen duen edo hasiera batean *irrika* den autokontzientziak, horregatik, objektuaren beregaintasunaren esperientzia egingo du.

Bizitzaren determinazioa, adigaitik edo sail horretan sarrera eskaintzen digun emaitza orokorretik ondorioztatu den bezala, nahikoa da bizitza ezaugarritzeko bere izaera gehiago garatzeko premiarik gabe; horren ibilbideak une hauek biltzen ditu: *zerizana* amaigabetasuna da bereizketa guztien *gainditu-izate* gisa, ardatzaren errota-zio-higidura hutsa; bere buruaren lasaitasuna amaigabetasun erabat ez-lasai gisa; *beregaintasuna* bera, non higiduraren bereizketak desegiten diren; denboraren zerizan sinplea, zeinak bere buruarekin duen berdintasun horretan espazioaren tankera irmoa daukan. Baina bereizketak elkargune *orokor sinple* horretan era berean *bereizketa* gisa dira; izan ere, jaria-kortasun orokor horrek bere izaera ezezkoa dauka, baina *haren gaindi -tzea* den heinean soilik; baina iraupenik eduki ezean, jaria-kortasunak ezin ditu gainditu bereiztuta direnak. Jaria-kortasun hori, hain zuzen ere,

bere buruarekin berdin den beregaintasun bera den heinean, bereiztu direnen *irautea* edo *substantzia* da, non bereiztu horiek atal ezberdinak edo *berbaitarako* zatiak diren. *Izateak* ez du esan nahi jadanik *izatea* -ren *abstrakzioa*, ezta bere zerizantasun hutsak *orokortasunaren abstrakzioa* ere; baizik eta haren *izatea* da, hain zuzen ere, higidura hutsaren substantzia jariakor hura da bere baitan. Baina atal horien *elkarren-ganako ezberdintasuna*, ezberdintasun gisa, ez datza amaigabetasunaren edo higidura hutsaren uneen *determinatutasuna* ez den beste ezein determinatutasunean.

Atal beregainak *berbaitarakoak* dira; baina *berbaitarako izate* hori askoz gehiago da, hain zuzen, *bitartegabe* euren hausnarketa batasunean, batasun hori tankera beregainetan egiten den bikoizketa den heinean. Batasuna bikoiztuta dago, batasuna batasun erabat ezezko edo amaigabea delako; eta batasuna *irautea* denez, bereizketak ere horren baitan soilik dauka beregaintasuna. Tankeraren beregaintasun hori *determinatuta-dena* gisa agertzen da, *beste batentzat*, zeren beregaintasun hori bikoiztuta-dena baita; eta horrenbestez, bikoiztasunaren *gain-ditzea* beste baten bitartez gertatzen da. Baina era berean bere baitan da; izan ere, hain zuzen jariakortasun hori da tankera beregainen substantzia; baina substantzia hori amaigabea da; horrexegatik tankera, bere irautean bertan, bikoizketa da edo haren berbaitarako-izatearen gainditzea.

Hemen dauden uneak gehiago bereizten baditugu, orduan hau ikusten dugu: *lehen* une gisa tankera *beregainen irautea* dugu, edo bere baitan bereizte-ekintzaren azpiratzea, hau da, bere baitan ez izatea eta ezein irauterik ez edukitzea. Baina *bigarren* una iraute hura bereizketaren amaigabetasunaren azpian *makurtzea* da. Lehen unean irauten duen tankera da; *berbaitarako* substantzia edo bere determinatutasunari dagokionez substantzia amaigabe bezala, substantzia *orokorraren* aurka agertzen da, jariakortasun hori eta harekin duen jarraipena ukatzen ditu eta bere burua baieztatzen du orokor-den horretan deuseztatu ez den aldetik, baizik eta askoz gehiago bere izaera ez-organiko horretatik banandu eta hori irensteko ekintzaren bitartez mantentzen den aldetik. Elkargune jariakor orokorrean bizitzea, tankeren banatuta egote *lasaia*, horren bitartez haren higidura edo bizitza bihurtzen da *prosesu* gisa. Jariakortasun orokor sinplea *berbaitana* da eta tankeren bereizketa *bestea* da. Baina jariakortasun hori bera bereizketa horren bitartez

beste bihurtzen da; izan ere, orain *bereizketarentzat da*, zeina berbaitan eta berbaitarako den eta horregatik elkargune lasai hura irensten duen higidura amaigabea den, bizitza *bizidun-den* gisa. - *Iraulket*a hori, beraz, horregatik berriro *berbaitango iraulket*a da; irensten dena zerizana da; orokor-denaren kontura mantentzen den eta bere buruarekin duen batasunaren sentimendua bere buruari ematen dion banakotasunak horrela *bestearenganako aurkakotasuna* gainditzen du, *zeinaren bitartez berbaitarako den*; banakotasunak bere buruari ematen dion bere buruarekiko batasuna da hain zuzen bereizketen *jariakortasuna* edo *desegite orokorra*. Baina, alderantziz, iraupen banakoaren gainditzea era berean haren sorkuntza da. Izan ere, tankera banakoaren *zerizana* bizitza orokorra delako, eta berbaitarako dena berbaitan substantzia sinplea delako, hark bere *sinpletasuna* edo bere zerizana gainditzen du, *bestea* bere baitan ezartzen duen heinean, hau da, hura bikoiztu egiten da, eta jariakortasuna bereizketarik gabeko bikoizte hori da, hain zuzen, banakotasuna ezartzea. Bizitzaren substantzia sinplea, orduan, bere burua tankeretan bikoiztea da eta aldi berean bereizket

iraunkor horien desegitea; eta bikoiztasuna desegitea era berean da bikoizte edo atalkatze bat. Horrela, bereizten ziren higidura osoaren bi aldeak bateratzen dira, hau da, beregaintasunaren elkargune orokorrean lasai sakanatutako tankeratzea eta bizitzaren prozesua; azkena tankera gainditzea denez, tankeratzea da era berean; lehena, tankeratzea, era berean gainditze-ekintza ere bada, atalkatze-ekintza denez. Osagai jariakorra zerizanaren *abstrakzioa* besterik ez da, edo tankera gisa soilik da *erreala*; eta hark bere burua atalkatzea berriz atalkatu-denaren bikoizte bat da edo horren desegitea. Ziklo oso horrek osatzen du bizitza, eta ez lehenago aipatu denak, haren zerizanaren bitartegabeko jarraitasunak eta irmotasunak, ezta tankera iraunkorrak eta berbaitarako den diskretuak ere, ezta haren prozesu hutsak ere, ezta une horien elkarketa sinpleak ere, baizik eta garatzen den eta bere garapena desegiten duen eta higidura horretan sinple mantentzen den osokiak.

Bitartegabeko batasun lehenengotik abiatuturik eta tankeratzearen eta prozesuaren uneen bitartez bi une horien batasunera eta, horrela, berriz substantzia sinple lehenengora itzulirik, *hausnartzen den batasun* hori lehena ez beste bat da. *Bitartegabe* lehenengo batasunaren aldean, edo *izate* batentzat hartzen zen haren aldean, bigarrena batasun *orokorra* da, zeinak une horiek guztiak bere baitan dauzkan gaindituta

bezala. *Genero sinplea* da, bizitzaren higiduran existitzen ez dena *ber-baitarako sinple-den hori bezala*; baizik eta *emaitza* horretan bizitzak bera ez den *beste batera* bidaltzen du, hain zuzen, kontzientziara, zeinarentzat bizitza batasun hori gisa edo genero gisa den.

Baina beste bizitza hori, zeinarentzat *generoa* bere horretan den eta zeina bere buruarentzat *generoa* den, hau da, *autokontzientzia*, hasieran bere buruarentzat zerizan sinple hori besterik ez da eta objektutzat bere burua dauka *Ni hutsa* bezala; orain aztertu beharko den esperientzia horretan, hari objektu abstraktu hori aberastuko zaio eta bizitzan ikusi dugun hedapena lortuko du.

Ni sinplea genero hori da, edo orokor-dena sinplea, zeinarentzat bereizketarik ez dagoen; baina tankeratutako une beregainen *zerizan ezezkoa* den heinean soilik; eta, beraz, autokontzientzia bere buruaz ziur da, baina bizitza beregain bezala aurkezten zaion beste horren gainditzearen bitartez soilik; *irrika* da. Beste horren ezerezekotasunaz ziur, autokontzientziak *berbaitarako* ezerezekotasuna bere egia bezala ezartzen du, objektu beregaina deuseztatzen du eta, horrela, bere buruari bere buruaz duen ziurtasuna ematen dio ziurtasun *egiazkoa* bezala, autokontzientziari berari *modu objektibo batean* sortu zaion ziurtasun halako bezala.

Baino asebetetze horretan Ni sinpleak bere objektuaren beregaintasunaren esperientzia egiten du. Irrika eta horren asebetetzean lortutako bere buruaren ziurtasuna objektuak baldintzatzen ditu; izan ere, asebetetzea beste horren gainditzearen bitartez da; ezabatzea gertatzeko, besteak hor izan behar du. Autokontzientziak harekin duen harreman ezezkoaren bitartez ezin baitu objektua gainditu; horrela autokontzientziak sortu egiten du objektua, irrika sortzen duen bezala. Egitatean irrikaren zerizana autokontzientzia ez den beste bat da; eta esperientzia horren bitartez autokontzientziak egia hori lortzen du. Baina aldi berean erabat berbaitarako da autokontzientzia, eta hori objektua gainditzearen bitartez baino ez da; hortik etorri behar zaio bere asebetetzea, zeren hori egia baita. Objektuaren beregaintasuna dela eta, objektuak berak ezeztapena bere baitan osatzen duen heinean soilik lor dezake asebetetzea; eta bere baitan osatu behar du bere buruaren ezeztapena, *berbaitan* ezezko-dena delako, eta bera den hori bestearentzat izan behar da. Objektua berbaitango ezeztapena den eta aldi berean beregain den heinean, kontzientzia da. Irrikaren objektua den bizitzan

ezeztapena beste batean da, hau da, irrikan, edo beste tankera axolagabe baten aurkako determinatutasun bezala edo bere izaera ez-organiko orokorra bezala. Baina izaera beregain orokor hori, non ezezko-dena ezezko absolutu gisa den, generoa da halako bezala, edo autokontzien -tzia bezala. Autokontzientziak bere asebetetzea beste autokontzientzia batean baino ez du lortzen.

Hiru une hauek osatzen dute autokontzientziaren adigaia: a) bere lehen bitartegabeko objektua *Nia* bereizigabe hutsa da. b) Baina bitartegabekotasun hori bitartekotasun absolutua da; hori objektu beregainaren gainditze bezala soilik da, hau da, irrika da. Irrikaren asebetetzea bada autokontzientziaren islapena bere baitara, edo egia bihurtu den ziurtasuna. c) Baina haren egia askoz gehiago da islapen bikoiztua, autokontzientziaren bikoiztasuna. Autokontzientzia objektua da kontzientziarentzat; eta objektu horrek berbaitan bere beste izatea edo bereizketa ezdeus gisa ezartzen du, eta horrela beregaina da. Bereizturik, soilik *bizia den* tankerak gainditzen du, bai, bere beregaintasuna bizitzaren prozesuan, baino bere bereizketarekin batera uzten dio bera dena izateari; baina autokontzientziaren objektua era berean bere buruaren ezezkotasun horretan da beregaina; eta horrela berbaitarako generoa da, jariakortasun orokorra da bere bereizkuntzaren bereizgarritasunean; autokontzientzia *bizia* da.

Hori *autokontzientzia bat da autokontzientzia batentzat*. Horren bidez bakarrik da egitatean; izan ere, orain baino ez du lortzen bere buruaren batasuna bere beste-izatean; bere adigaiaren objektua den *Nia* ez da egitatean *objektua*; baina irrikaren objektua baino ez da *beregaina*, zeren hori substantzia orokor suntsiezia baita, bere buruarekin berdintzen den zerizan jariakorra. Aukontzientzia bat objektua den heinean, era berean bai *Nia* bai objektua da. - Horrela, aurrean dugu *gogoaren* adigaia jadanik. Kontzientziarentzat hemendik aurrera datorrena, gogo den horren esperientzia da, substantzia absolutu horrena, zeina bere aurkakotasunaren askatasun eta beregaintasun betean, hau da, berbaitarako diren autokontzientzia ezberdinetan horien batasuna den; *Gu* den *Ni*, eta *Ni* den *Gu*. Kontzientziak autokontzientzian dauka bere biratokia, hori gogoaren adigaia den heinean; eta hor alde egiten du sentipenezko Alde Honen itxura koloretsutik eta sentipenetik haratagoko Alde Haren gau hutsaletik gaurko gogozko egunean sartzeko.

A.

Autokontzientziaren beregaintasuna eta beregaintasun eza; nagusitasuna eta morrontza

Autokontzientzia *berbaitan* eta *berbaitarako* da beste baten-tzat berbaitan eta berbaitarako den heinean eta horren bitartez; hau da, berrezagutu-den gisa besterik ez da. Bere bikoiztasunean duen batasun horren adigaia, autokontzientzian zertzen den amaigabetasunaren adigaia alderdi anitzeko eta esanahi anitzeko uztardura da, non uztarduraren uneak alde batetik zorrozki banatuta mantendu behar diren; bestetik, aldi berean, bereizkuntza horretan ere bereizigabe gisa edo beti euren esanahia aurkakoa hartu eta berrezagutu behar diren. Bereizi-denaren esanahi-bikoiztasuna autokontzientziaren zerizanean datza, zeina ezarrita dagoen determinatutasunaren aurka-ko izatea den amaigabeki edo bitartegabeki. Bere bikoiztasunean duen gogo-batasunaren adigaiaren analisiak *berrezagupenaren* higidura aurkezten digu.

Aukontzientziarentzat beste autokontzientzia bat da; *bere buru-tik at* irten da. Horrek esanahi bikoitza dauka: *lehen*, galdu egin du bere burua, zeren *beste* zerizan bezala aurkitzen baitu; *bigarren*, horrela gainditu egin du bestea, zeren ez baitu ikusten bestea zerizan bezala, baizik eta *bere burua bestean*.

Autokontzientziak *bere beste izate* hori gainditu behar du; hori da lehen esanahi bikoiztua gainditzea eta horregatik hori bera bigarren esanahi bikoiztu bat da; *lehen*, beste zerizan beregaina gainditzeko asmoa izan behar du, horrela bere buruaz zerizanaz bezala ziur izateko; *bigarren*, horrela *bere burua* gainditzeko asmoa izan behar du, zeren hori bera baita beste hori.

Bere beste izate esanahi-bikoizdunaren gainditze esanahi-bikoizdun hori era berean *bere baitara* itzulera esanahi-bikoizduna da; izan ere, autokontzientziak *lehen* gainditzearen bidez bere burua berreskuratzen du, zeren berriz bere buruarekin berdintzera heltzen baita *bere* beste izatea gainditzearen bidez; baina *bigarren* berririo ematen dio beste autokontzientzia bere buruari era berean, zeren bera bestean baitzegoen, *bere* bestean izate hori gainditzen baitu, bestea orduan berriz aske uzten baitu.

Baina autokontzientziak beste autokontzientziarekin duen harremanean duen higidura hori *bataren egite* gisa aurkeztu da; baina bataren egite horrek berak esanahi bikoitz hau dauka: *bere egite* bai *bestearen* egite izatea; izan ere, bestea era berean beregaina da, bere baitan itxia, eta bere buruaren bidez ez den ezer ez dago bere baitan. Lehenengoak ez dauka objektua beren aurrean, hura irrikarentzat bakarrik den moduan hasieran, baizik eta bere baitarako den objektu beregain bat, zeinaren aurrean hori horregatik ezgai den berarentzat, objektuak berak bere baitan egiten ez badu autokontzientziak horren baitan egiten duen hori bera. Higidura, orduan, bi autokontzientzien higidura bikoiztua besterik ez da. Bakoitzak ikusten du besteak egiten duela norberak egiten duen hori bera; besteari eskatzen dion hori bera egiten du bakoitzak, eta egiten duena egiten du *soilik* besteak hori bera egiten duen heinean; egite aldebakarra alferrikoa izango litzateke, gertatu beharko lukeena bien artean baino ezin delako sorrarazi.

Egitea, orduan, bikoiztua da, ez bakarrik *bere buruaren aurka* bezala *bestearen aurkakoa* ere badelako, baizik eta modu zatiezinean bai *bataren bai bestearen egite* delako.

Higidura horretan ikusten dugu nola indarren jokoa bezala aurkeztu zen prozesua berriz errepikatzen den, baina kontzientzian. Han guretzat zen hori hemen muturrentzat eurentzat da. Muturren artean banatzen den autokontzientzia da erdigunea; eta mutur bakoitzak bere determinatutasunaren elkartruke hori da eta aurkakoturanzko igarobide absolutua. Baina kontzientzia gisa *bere burutik at* irten da; hala eta guztiz ere, bere-burutik-at-izate horretan era berean bere baitan mantentzen da, *berarentzat*, eta bere-burutik-at hori *harentzat* da. Harentzat gertatzen da bitartegabeki beste kontzientzia *dela* eta *ez dela*; eta halaber, harentzat gertatzen da beste hori bere baitarako baino ez dela, bere-burua bere baitarako den hori gisa gainditzen duen heinean eta soilik bestearen berbaitarako izatean den heinean bere baitarako. Bakoitza bestearentzat erdigunea da, zeinaren bidez bakoitza bere buruarekin bitartekotzen den eta elkarlotzen den; eta bakoitza berarentzat eta bestearentzat bere baitarako den zerizan bitartegabea da, zeina aldi berean bitartekotza horren bidez baino ez den horrela bere baitarako. *Elkar berrezagutzen* dira bata bestea berrezagutzen duen moduan.

Berrezagutzearen, autokontzientziak bere batasunean duen bikoizketaren adigai huts hori da orain aztertu behar dena, prozesu hori nola agertzen den autokontzientziarentzat. Lehen, bi autokontzientzien *desberdintasunaren* aldea aurkeztu da, edo nola erdigunea muturretan barreiatzen den; zeinak mutur gisa aurkakotuta dauden, bata berrezagutu-dena baino ez izanik eta bestea berrezagutzen-duena baino ez izanik.

Autokontzientzia hasiera batean berbaitarako izate sinplea da, bere-buruarekin berdin *beste* oro *bere baitatik* at utziz; haren zerizana eta haren objektu absolutua harentzat *Ni* da; eta *bitartegabetasun* horretan edo bere berbaitarako izatearen *izate* horretan *banako-dena* da. Harentzat bestea den hori zerizangabe gisa da, ezezkoaren izaerarekin ezaugarritzen den objektua da. Baina bestea autokontzientzia bat ere bada; indibiduo bat azaltzen da beste indibiduo baten aurrean. Horrela *bitartegabeki* azalduz, bakoitza bestearentzat objektu arrunt bat da; tan-kera *beregainak* dira; *bizitzaren* (izan ere, hemen, den objektua bizitza bezala determinatu baita) *izatean* hondoratutako kontzientziak, zeintzuek ez duten osatu *bata bestearentzat* abstrakzio absolutuaren higidura, edozein izate bitartegabe suntsitzen duena eta bereburuarekikoberdin baino ez den kontzientziaren izate erabat ezezkoa dena; edo kontzientzia horiek oraindik ez dira elkar aurkeztu berbaitarako izate huts bezala, hau da, *autokontzientzia* bezala. Bakoitza bada, bai, bere buruaz ziur, baina ez besteaz, eta horrexegatik bere buruaz duen ziurtasunak ez dauka oraindik ezein egirik; izan ere, duen egia hori bere berbairatako izatea objektu beregain gisa ager lekioketela baino ez litzateke izango edo, berdina den hau, objektua bere buruaren ziurtasun huts hori gisa ager lekioketela. Baina berrezagutzearen adigaiaren arabera hori ezinezkoa da, besteak harentzat egiten duen moduan hark bestearentzat, eta bakoitzak bere baitan bere egite propioaren bidez eta berriz bestearen egitearen bidez berbaitarako izatearen abstrakzio huts horiosatzen ez badu behintzat

Baina norberaren buruaren aurkezpena autokontzientziaren abstrakzio huts gisa honexetan datza, norberaren burua norberaren modu objektiboaren ezezko huts gisa erakustean, edo ezein *hor-izate* konkreturi lotu gabe erakustean, ez izatearen banakotasun orokorrari oro har ezta bizitzari ere. Aurkezpen hori egite *bikoitza* da: Bestearen egitea, eta norberaren buruaren bidezko egitea. *Bestearen* egite den heinean,

bakoitzak bestea hil nahi du. Baina hor bigarrena ere agertzen da, *bere buruaren bidezko egitea*; izan ere, lehenengoak norberaren bizitza arriskuan jartzea dakar berekin. Bi autokontzientzien arteko harremana orduan halako moldez dago determinatuta, non biek euren burua eta bakoitzak bestea hil ala biziko borrokaren bidez *bermatzen* baitu. - Borrokan egin behar dute, zeren bere *baitarako izateaz duten* ziurtasuna egia bihurtu behar baitute bestean eta euren baitan. Eta bizitza arriskatuz baino ez da bermatzen askatasuna, horren bidez bermatzen da autokontzientziaren zerizana ez dela izatea, ezta hura agertzen den modu *bitartegabe*an ere, ezta bizitzaren hedapenean hondoraturik den moduan ere; baizik eta hartan harentzat desagertzen den unea ez den besterik ez dago, hura *berebaitarako izate* hutsa besterik ez da. Bizitza arriskuan jarri ez duen indibiduo personatzat berrezagut daiteke, bai; baina autokontzientzia beregain gisa berrezagutua izatearen egia ez du lortu. Era berean, bakoitzak bestea hiltzeko asmoa izan behar du, norberaren bizitza arriskuan jartzen duenean; izan ere, besteak, harentzat, ez du berak baino gehiago balio; bere zerizana beste bat bezala aurkeztzen zaio, bere baitatik at dago, bere baitatik-at-izatea gaingitu egin behar du; bestea era askotan nahasia dagoen eta baden kontzientzia da; bere beste-izatea berbaitarako izate huts gisa edo negazio absolutu gisa begietsi behar du.

Baina heriotzaren bidezko berme horrek biak gaingitzen ditu, hortik sortu behar zuen egia, eta horrekin batera bere buruaren ziurtasuna oro har; izan ere, nola bizitza kontzientziaren *berezko* jarrera, ezezkotasun absoluturik gabeko beregaintasuna den, horrela heriotza kontzientziaren *berezko* ezeztapena, beregaintasunik gabeko ezeztapena; beraz, berrezagutzearen esanahi eskatu hori gabe geratzen dena. Heriotzaren bidez ziurtasuna sortzen da, bai, biek euren bizitza arriskuan jarri zutela eta euren buruan eta bestean erdeinatu zutela; baina ez da sortzen borroka hori gaingitu zutenentzat. Berezko hor-izatea den zerizantasan arrotz horretan ezarrita dagoen haien kontzientzia gaingitzen dute edo euren burua gaingitzen dute, eta euren baitarako izan nahi duten *mutur* gisa gaingitzen dira. Baina horrela trukearen jokotik zerezanezko unea desagertzen da, hots, determinatutasun aurkakotuen muturretan txiki-txiki egitea; eta erdigunea hildako batasun batean biltzen da, zeina izan besterik egiten ez duten hildako mutur ez-aurkakotuetan txiki-txiki egiten diren; eta biek ez diote elkarri ezer ematen eta

ez dute ezer hartzen elkarrengandik kontzientziaren bitartez, baizik eta elkar aske geratzen dira axolagabeki, gauzak bezala. Euren ekintza negazio abstraktua da, ez kontzientziaren ukapena, zeinak gainditu-dena *gordez* eta *mantenduz* gainditzten duen eta, horrela, gainditu-izan ondoren bizirik irauten duen.

Esperientzia horretan, autokontzientziari gertatzen zaio bizitza autokontzientzia hutsa bezain zerizanezkoa zaiola. Autokontzientzia bitartegabekoan Ni sinplea da objektu absolutua, zeina guretzat edo berbaitan, ordea, bitartekotza absolutua den eta zeinarentzat beregain-tasun iraunkorra zerizanezko unea den. Batasun sinple haren desagitea da lehen esperientziaren emaitza; esperientzia horren bidez, alde bate-tik, autokontzientzia huts bat ezartzen da, bestetik, berbaitarako ez ezik, beste batentzat, hau da, *den* kontzientzia edo *gauzatasunaren* tankera duen kontzientzia bat. Biak dira zerizanezko uneak; lehen, ezberdinak eta aurkakotuak direnez eta batasuneranzko islapena oraindik zertu ez dutenez, kontzientziaren bi tankera aurkakotu gisa dira; bata, kontzien-tzia beregaina, zerizan gisa berbaitarako izatea duena; bestea, beregai-na ez dena, zerizan gisa bizitza edo beste batentzako izatea duena. Hura *nagusia* da, hori *morroia*.

Nagusia *berbaitarako* den kontzientzia da, eta ez kontzientzia horren adigaia bakarrik; baizik eta berbaitarako kontzientzia bat da, zeina *beste* kontzientzia baten bidez bere buruarekin bitartekoturik den, hau da, kontzientzia baten bidez, zeinaren zerizanari dagokion *izate* beregainarekin edo gauzatasunarekin eskuarki sintetizatua izate-a. Nagusiak bi une hauekin harremanak dauzka: *gauza* batekin, bere horretan, desioaren objektuarekin, eta kontzientziarekin, zeinarentzat gauzatasuna zerizanezkoa den. Nagusia 1) autokontzientziaren adigai bezala, *berbaitarako izatearen* harreman bitartegabea da; baina era berean 2) bitartekotza bezala edo beste Baten bitartez bakarrik berbaitarako den berbaitarako izate bezala, nagusiak harremanak dauzka a) bitartegabeki biekin eta b) zeharka bakoitzarekin bestearen bitartez. *Nagusiak harremanak dauzka zeharka morroiarekin gauza beregaina -ren bitartez*; zeren morroiak horri eutsi dio; hori bere katea da, zeina-rengandik askatu ezin zuen borrokan; eta horregatik morroi da, bere askatasuna gauzatasunean izanez. Nagusiak, berriz, izate horren gai-nean boterea dauka, zeren borrokan erakutsi baitzuen hori berarentzat ezezkoa besterik ez zela; horren gainean boterea edukiz, izate horrek,

bere aldetik, bestearen gainean boterea edukiz, orduan silogismo horretan nagusiak dauka boterea beste horren gainean. Era berean, *zeharka* dauzka harremanak *gauzarekin morroiaren bitartez*; morroiak, autokontzientzia bezala eskuarki, harreman ezezekoak dauzka gauzarekin, eta hori ezabatzen du; baina era berean gauza beregaina da harentzat (morroiarentzat), eta horregatik bere ezezkotasunarekin ezin zu ezerezturaino igo; hau da, *landu* besterik ez du egiten gauza. Nagusiari, berriz, bitartekotza horren bitartez, harreman *bitartegabea zaio* beraren negazio huts bezala, edo *gozamen*; gurak lortzen ez duena nagusiaren gozamenak lortzen du, hau da, gauzarekin bukatzeraino igotzea, gozamenean bere burua asetzea. Gurak ezin du hori lortu gauzaren nagusitasunarengatik; nagusiak, berriz, gauzaren eta bere buruaren artean morroia jarri duenak, horrela lotzen du bere burua gauzaren menpekotasunari esker bakarrik eta hori huts-hutsean gozatzen du; beregaintasunaren aldea morroiari uzten dio, hori lantzen duen morroiari.

Bi une horietan, beste kontzientzia batek nagusia berrezagutzen du; izan ere, beste kontzientzia horrek bere burua ezartzen du une horietan zerizangabe bezala, lehenik gauza lantzean, eta gero hor-izate zehatz baten menpekotasunean; bi uneetan inolaz ere ezin du izatearen maisu bihurtu eta negazio absolutua lortu. Horregatik, hor berrezagutzearen une hori daukagu, non beste kontzientziak berbaitarako izate bezala gaingitzen duen bere burua eta, horrela, lehenengo kontzientziak horren aurka egiten duena berak egiten duen. Era berean beste unean, non bigarrenaren egite hori lehengoaren egite propioa den; izan ere, morroiak egiten duena nagusiaren egitea da egiatan; nagusiarentzat berbaitarako izatea besterik ez da, zerizana; hori botere negatibo hutsa da, zeinarentzat gauza ezer ez den, eta horrela zerizanezko egite hutsa da erlazio horretan; morroia, aldiz, ez da egite hutsa, baizik zerizangabea. Baina benetako berrezagutzea izateko honako une hau falta da: nagusiak bestearen aurka egiten duena norberaren aurka ere egitea, eta morroiak norberaren aurka egiten duena bestearen aurka ere egitea. Horrela berrezagutze aldebakar eta ezberdina sortu da.

Kontzientzia zerizangabea da hemen objektua nagusiarentzat, eta objektu horrek norberaren buruaren ziurtasunaren *egia* osatzen du. Baina argi dago objektu hori bere adigaiari ez zaiola egokitzen, baizik

eta nagusiak bere burua zertu duen lekuan kontzientzia beregain bat ez beste oso gauza desberdin bat sortzen da. Harentzat ez da kontzientzia beregain bat, beregaina ez den bat baizik; ez da, orduan, *berbaitarako izataez* ziur, egiaz den gisara, baizik eta haren egia askoz gehiago da kontzientzia zerizangabea eta horren egite zerizangabea.

Kontzientzia beregainaren *egia*, beraz, *kontzientzia morroia* da. Hori, egiatan hasieran bere baitatik *at* agertzen da eta ez autokontzientziaren egia gisa. Baina nagusitasunak erakutsi zuen moduan, alegia, horren zerizana izan nahi duen horren iraulitakoa dela, orduan morrontza ere bere zertzean bitartegabeki den horren aurkako bihurtuko da; *bere baitara atzera* bultzatutako kontzientzia den aldetik bere baitara doa eta egiazko beregaintasun bihurtuko da.

Morrontza nagusitasunarekin erlazioan zer den besterik ez dugu ikusi. Baina hura autokontzientzia da, eta orain azertu behar da zer den berbaitan eta berbaitarako. Lehenik, nagusia da zerizana morrontzarentzat; hau da, *berbaitarako den kontzientzia beregaina* da harentzat *egia*, zeina, hala ere, *hark* oraindik ez duen *bere baitan*. Baina *hark egitatean* ezezkotasun hutsaren eta *berbaitarako izatearen* egia hori dauka *bere baitan*; izan ere, *hark* zerizan hori bere baitan *esperimentatu* du. Kontzientzia hori ez da beldur horregatik edo hargatik, ez une horretan edo hartan, baizik eta bere zerizan osoagatik da beldur; izan ere, heriotzaren, beregaintasun absolutuaren, ikara sentitu du. Horrek baretik desegin du, hotz-ikarak izan ditu bere baitan, eta bere baitan finko zegoen denak dardarak jasan ditu. Baina higidura orokor huts hori, iraute ororen jariakor bihurtze absolutua autokontzientziaren zerizan sinplea da, ezezkotasun absolutua, *berbaitarako izate hutsa*, zeina horrela kontzientzia *horretan* dagoen. Berbaitarako izate hutsaren une hori *harentzat* ere bada, zeren nagusian une hura bere *objektu* bihurtzen zaio. Gainera, kontzientzia hori ez da bakarrik desegite orokor hori oro har, baizik eta zerbitzuan osatzen du hura *benetan*; zerbitzuan gainditzen du berezko hor-izateari jarraitu beharra une *bakan* guztietan eta hori kanporatzea lortzen du lanaren bitartez.

Baina botere absolutuaren sentimendua desegitea da, oro har, eta zerbitzuaren kasu berezian, baina *berbaitan* bakarrik; eta nagusiari beldur izatea jakituriaren hasiera izan arren, hor kontzientzia *berarentzat* da, ez *berbaitarako izatea*. Baina lanaren bitartez itzultzen da bere baitara. Nagusiaren kontzientzian irrikari dagokion unean, zerbitzatzen

duen kontzientziari itxuraz gauzarekin harreman zerizangabearen aldea zegokion, gauzak hor bere beregaintasuna mantentzen duenez. Irrikak beretzat gordetzen du objektuaren ezeztatze hutsa eta horrela norberaren nahasigabeko sentimendua. Baina horrexegatik asebetetze hori desagertze-ekintza besterik ez da, zeren alde *objektiboa* edo *irautea* falta baitzaio. Lana, berriz, irrika *eragotzia* da, desagertze-ekintza *atxi-kia*, edo lanak *garatzen* du. Objektuarekiko harreman ezezkoa haren *forma* eta *geratzen den zera* bihurtzen da, hain zuzen lan egiten duenarentzat objektuak beregaintasuna dauka. *Ezezko* erdigune hori edo *garatzen* duen *egitea*, aldi berean, *banakotasuna* edo kontzientziaren berbaitarako izate hutsa da, zeina lanean bere baitatik at irteten den eta geratzearen osagaian sartzen den; lan egiten duen kontzientziak, orduan, horrela izate beregainaren begiespena lortzen du, *bere burua* izango balitz bezala.

Garatze-ekintzak ez dauka esanahi positibo hau bakarrik, alegia, zerbitzatzen duen kontzientzia hor *berbaitarako izate huts* bezala *badena* bihurtzen dela, baizik eta ezezkoa ere bai, lehen unearen, hau da, ikararen aurka. Izan ere, gauzaren garatze-ekintzan, ezezkotasun propioa, bere berbaitarako izatea, objektu bihurtzen zaio baina hark den *forma* aurkakotua gainditzen duen heinean soilik. Baina ezezko-den objektibo hori da hain zuzen zerizan arrotza, zeinaren aurrean dardarak izan zituen. Baina orain ezezko arrotz hori deuseztatzen du, *bere burua* geratzearen osagaian ezartzen du halakotzat eta horren bitartez *bere buruarentzat berbaitarako den bat* bihurtzen da. Nagusian, berbaitarako izatea *beste bat* edo *harentzat* bakarrik da; ikaran, berbaitarako izatea *bere baitan* da; garatze-ekintzan berbaitarako izatea bihurtzen da *norberaren* buruarentzat; eta berbaitan eta berbaitarako izateaz jabetzen da. Forma ez zaio beste bat bihurtzen, *kanporatzen* den heinean; izan ere, bera da bere berbaitarako izate hutsa, zeina hor egia bihurtzen zaion. Norberaren bidez bere burua berriz aurkitzen duenez, zentzu *propio* bihurtzen da hain zuzen lanean, non *zentzu arrotza* zela zirudien. - Hausnarketa hori egiteko beharrezkoak dira ikararen eta zerbitzuaren une biak oro har eta baita garatze-ekintzarena ere; eta gainera, biak modu orokor batean. Zerbitzuaren eta esanekotasunaren diziplinarik gabe ikara maila formalean geratzen da eta ez da zabaltzen hor-izatearen errealitate kontzientetik haratago. Garatze-ekintzarik gabe ikara barruan eta mutu geratzen da, eta kontzientzia ez da bihur-

tzen bere baitarako kontzientzia. Kontzientzia lehengo ikara absolutu-rik gabe garatzen baldin bada, orduan zentzu propio alferra besterik ez da; izan ere, bere forma edo ezezkotasuna ez da ezezkotasuna *berbaitan*; eta bere garatze-ekintzak ezin dio eman bere buruaren kontzientzia zerizanarena izango balitz bezala. Ikara absolutua ez baldin badu jasan, baizik eta beldur berezi batzuk bakarrik, orduan zerizan ezezkoak bere baitatik at segitzen du, zerizan ezezkoa kanpoan geratzen zaio, bere substantzia ez du zeharo kutsatu. Bere berezko kontzientziaren betegarri guztiak astindu ez diren heinean, kontzientzia hori oraindik *bere baitan* izate determinatuari dagokio; zentzu propioa *burugogorke-ria* da, oraindik morrontzaren barruan jarraitzen duen askatasuna. Zenbat eta gutxiago forma hutsa zerizan bihur dakioken, hainbat eta gutxiago da forma hori, banakoaz haraindi doan hedapentzat hartuta, garatze-ekintza orokorra, adigai absolutua; baizik eta trebezia bat, gauza konkretu batzuei gailentzen zaiena, baina ez botere orokorrari eta zerizan objektibo osoari.

B.

Autokontzientziaren askatasuna; estoizismoa, eszeptizismoa eta zoritxarreko kontzientzia

Autokontzientzia beregainarentzat, alde batetik, bere zerizana *Niaren* abstrakzio hutsa da; eta, bestetik, bere burua garatzean eta bere buruari bereizketak ematen dizkion heinean, bereizte-ekintza hori ez zaio bihurtzen *berbaitan* den zerizan objektiboa; autokontzientzia hori ez da bihurtzen, beraz, bere sinpletasunean egiaz ezberdintzen den *nia* edo bereizkuntza absolutu horretan bere buruarekin berdin geratzen den *Nia*. Bere baitara atzera bultzatua den kontzientzia, aldiz, garatze-ekintzan gauza garatuen forma bezala bihurtzen zaio bere buruari objektu, eta nagusian berbaitarako izatea aldi berean kontzientzia bezala begiesten du. Baina zerbitzatzen duen kontzientziari, halakoa den aldetik, bi une horiek banatuta dagozkio (norberaren unea objektu beregain bezala, eta objektu horren unea kontzientzia bat bezala eta horrenbestez bere zerizanarena). Baina *guretzat* edo *berbaitan forma* eta *berbaitarako izatea* berbera diren heinean eta kontzientzia bere-

gainaren adigaian *berbaitan*-izatea kontzientzia den heinean, *berbai - tan*-izatearen edo lanean forma lortu zuen *gauzatasunaren* alderdia ez da beste substantziarik, kontzientzia baino; eta horrela, autokontzientziaren tankera berri bat sortu zaigu; amaigabetasun edo kontzientziaren higidura hutsa bezala norberarentzat zerizana den kontzientzia bat; *pentsatzen* duena edo autokontzientzia askea dena. Izan ere, *pen - tsatzeak* honako hau esan nahi du: ez *Ni abstraktu* bat, baizik eta aldi berean *berbaitan izatearen* esanahia daukan *Nia* bezala izatea objektu, edo zerizan objektiboarekin halako moldez jokatzeara, non hark kontzientziaren *berbaitarako izatearen* esanahi baitauka. - *Pentsatzeari* objektua ez zaio higitzen errepresentazioetan edo tankeretan, *adigaie - tan* baizik, hau da, *berbaitan* izate bereizi batean, zeina kontzientziarentzat bitartegabe bereizia ez den. *Errepresentatua* den horrek, *tan - kera hartzen duen* horrek, *den* horrek, halakotzat hartuta, kontzientzia ez beste zerbait izateko forma dauka; adigai bat, ordea, aldi berean *baden* zera da (eta bereizketa hori, bere baitan den heinean, bere eduki determinatua da), baina eduki hori aldi berean eduki aditu bat dela eta, kontzientzia *bitartegabe* mantentzen da norberaren eta *baden* determinatu eta bereizi horren arteko batasunaz jabe. Ez da horrela gertatzen errepresentazioetan, non kontzientziak modu berezi batean gogoratu behar duen hori *bere* errepresentazioa dela; baizik eta adigaia bitartegabe da niretzat *nire* adigaia. Pentsamenduan *Ni askea naiz*, beste batean ez naizelako, baizik eta oro har nigan geratzen naizelako; eta niretzat zerizana den objektua nire niretzako izatea da batasun zatiezinean; eta adigaietan dudana higidura nire baitan dudana higidura da. - Autokontzientziaren tankera horren determinazio horretan honako hau egiaztatu behar da funtsezko moduan: hura kontzientzia pentsatzaile dela *oro har*, edo bere objektua *berbaitan izatearen* eta *berbai - tarako izatearen* batasun bitartegabekoa dela. Norberaren izen-bereko den kontzientzia, bere burua bere baitatik aldaratzen duena, *berbaitan den* osagai bihurtzen da; baina osagai hori hasieran bakarrik da zerizana orokorra bezala oro har, ez zerizan objektibo hori bezala bere izate askotarikoaren garapenean eta higiduran.

Ezaguna denez autokontzientziaren askatasun horrek *estoizis - moaren* izena izan du, gogoaren historian norberaren agerpen kontziente gisa azaldu den heinean. Horren oinarria da kontzientzia zerizan *pentsatzailea* dela, eta zerbaitek horrentzat zerizantasuna duela edo

horrentzat egiazkoa eta ona dela, baina kontzientziak hor zerizan pentsatzaile bezala jokutzen duen heinean soilik.

Bizitzaren bere baitan desberdintzen den hedapen, banakotze eta konplexutasun anitza, objektu horri egiten diote aurre irrikak eta lanak. Egite anitz hori trinkotu egin da orain pentsamenduaren higidura hutsean dagoen bereizkuntza sinplean. Ez dauka zerizantasun gehiago *gauza determinatu* gisa edo berezko *hor-izate determinatu baten kontzientzia* gisa, sentimendu baten gisara edo irrika eta horrentzat helburu gisa agertzen den bereizketak (berdin zaigu, hori norberaren *kontzientziak* edo *kontzientzia arrotz* batek ezartzen duen), baizik eta *pentsatua* edo bitartegabe nigandik ezberdintzen ez den bereizketak. Kontzientzia hori, beraz, negatiboa da nagusitasun eta morrontzaren arteko erlazioaren aurrean; bere egitea da nagusitasunean bere egia morroian ez izatea; ezta morroi gisa bere egia nagusiaren nahimenean hari zerbitzatzean izatea ere; baizik eta tronuan nahiz kateatuta bere hor-izate bereziaren menpekotasun orotan aske izatea; eta bere bizitzaren gabezia mantentzea, zeina hor-izatearen higiduratik, ekitetik nahiz jasatetik, etengabe *pentsamenduaren zerizantasun sinplerantz* itzultzen den. Burugogorkeria banakotasunari gogor heltzen dion eta morrontzaren *barruan* dagoen askatasuna da; estoizismoa, berriz, beti bere baitatik irtenez pentsamenduaren *orokortasun hutserantz* itzultzen den askatasuna da. Munduaren gogoaren forma orokorra bezala ikara eta morrontza orokorraren baina aldi berean garapen orokorraren garai batean baino ezin zitekeen sortu, zeinean garatze-ekintza pentsatzeraino heldu zen.

Egiatan autokontzientzia horren zerizana ez bada ere bera ez beste bat, ezta Niaren abstrakzio hutsa ere, baizik eta beste-izatea bere baitan pentsatutako bereizketa gisa duen Nia, halako molde non horren beste-izate horretan bitartegabe bere baitara itzulita dagoen; orduan, bere zerizan hori aldi berean zerizan *abstraktua* besterik ez da. Autokontzientziaren askatasuna *axolagabe* da berezko hor-izatearen aurrean eta horregatik era berean *askatu* egin *du hori*, eta hausnarketa *bikoiztua da*. Pentsamendu-askatasunak bizitzak betetzen ez duen egiaztat *pentsamendu hutsa* besterik ez du; eta, beraz, hori ere askatasunaren adigaia besterik ez da, ez askatasun bizia bera; izan ere, harentzat oro har *pentsatzea* bakarrik da zerizana, hau da, gauzen beregaintasunetik at bere baitara itzuli den forma, horrelakotzat hartuta. Baina banakotasunak ekile gisa bere burua bizi aurkeztu behar

duen eta pentsatzaile gisa mundu bizia pentsamenduaren sistema bat bezala ulertu behar duen heinean, orduan *pentsamenduan bertan* hedapen hartarako ona den horren eduki bat aurki beharko litzateke, eta horretarako egiazkoa den horren eduki bat aurkitu beharko litzateke, eta horrela *kontzientziarentzat* den horretan ez da sartuko zerizana den adigaia *ez den beste* osagairik. Baina adigaia *abstrakzio* bezala gauzen aniztasunetik banantzen denez, horrek ez dauka *bere baitan ezein edukirik, eman zaiona izan ezik*. Kontzientziak, eduki bat pentsatzerakoan, ezabatu egiten du *izate* arrotz baten gisara; baina adigaia adigai *determinatua* da, eta horren *determinatutasun hori* da adigaia hor duen zera arrotza. Estoizismoa, beraz, larritu egiten zen galdetzen baldin bazitzaion, orduko adierazpenari jarraiki, ea zein ote den egia-*ren irizpidea* oro har, hau da, ea zein den benetan *pentsamenduaren beraren edukia*. Galdetzen zitzaionean *zer* den ona eta egiazkoa, estoizismoak erantzun gisa *edukigabeko* pentsamendua bera ematen zuen berriro; arrazoizkotasunean datzala egia-dena eta ona-dena. Baina pentsamenduak bere buruarekin duen berdintasun hori berriz forma hutsa besterik ez da, non ezer ez den determinatzen; egia-denaren eta ona-denaren, jakituriaren eta bertutearen hitz orokorrak, zeinetan estoizismoa gelditu egin behar den, dudarik gabe onbiderakoak dira eskuarki, baina egitatean edukia gutxienean ere hedatu ezin dutenez, berehala hasten dira aspergarri izaten.

Pentsatzen duen kontzientzia hori, bere burua determinatu duen moduan askatasun abstraktua bezala, beste-izatearen osatugabeko negazioa besterik ez da; hor-izateetik abiatuz bere baitara *itzulirik* ez du lortu haren negazio absolutua bezala bere burua osatzea hor-izatean. Edukia pentsamendua besterik ez da harentzat, baina *determinatua*, eta determinatutasuna aldi berean halakoa den aldetik.

Estoizismoak adigai moduan baino jasotzen ez duen horren errerealizazioa da *eszeptizismoa*, eta pentsamenduaren askatasuna den horren esperientzia erreala; hura *berbaitan* da ezezko-dena eta horrela aurkeztu behar du bere burua. Autokontzientziak bere buruaren pentsamendu sinplean hausnartuz, egitatean hor-izate beregaina edo determinatutasun gerakorra hari dagokionez amaigabetasunetik at erortzen da; eszeptizismoan beste horren zerizangabetasun eta beregaintasun eza osoa sortzen dira *kontzientziarentzat*; pentsamendua *era askotara determinatutako* munduaren izatea ezabatzen duen pentsatze bete, eta

autokontzientzia askearen ezezkotasuna bizitzaren tankeratze anitz horretan ezezkotasun erreal bihurtzen da. - Argi dago, eszeptizismoa kontzientzia *beregainaren adigaiari* dagokion bezala, nagusitasunaren eta morrontzaren arteko erlazio bezala agertu zen horri, beraz, orduan eszeptizismoa adigai horren *errealizazioari* dagokio, bestearenganako norabide ezezkoari bezala, irrikari eta lanari. Baina irrikak eta lanak negazioa burutu ezin bazuten ere autokontzientziarentzat, gauzen beregaintasun anitzaren aurreko jarrera eztabaidagarri horrek, berriz, arrakasta edukiko du, zeren hark gauzen aurka jotzen baitu aurretik bere baitan osatu den autokontzientzia aske bezala; zehatzago, hark *pentsa-tzea* edo amaigabetasuna bere baitan baitauka eta, horrela, beregaintasunak euren bereizketen arabera harentzat desagertzen diren kopuruak besterik ez baitira. Euren buruaren pentsatze hutsean bereizketen abstrakzioa besterik ez diren bereizketak hemen bereizketa *denak* bihurtzen dira, eta izate bereizi dena autokontzientziaren bereizketa bihurtzen da.

Horren bitartez determinatu dugu *eszeptizismoaren egitea* eta horren *modua*. Eszeptizismoak erakusten du sentipenezko ziurtasunak, hautemapenak eta adimenak osatzen duten *higidura dialektikoa*; eta erakusten du gainera nagusitzearen eta zerbitzatzearen arteko erlazioan eta pentsamendu abstraktuarentzat ere *determinatutzat* balio duen horren zerizangabetasuna. Erlazio hark aldi berean bere baitan lege etikoak nagusitasunaren agindu bezala agertzeko modu zehatz bat jasotzen du; pentsamendu abstraktuan, berriz, determinazioak jakintzaren adigaiak dira, zeinetan eduki gabeko pentsatzea hedatzen den; eta bere edukia osatzen duen bere baitatik beregaina den izateari egitatean kanpotik soilik egozten dio adigaia; eta horrentzat adigai *determinatuek* bakarrik balio dute, horiek ere abstrakzio hutsak izan arren.

Dialektiko-dena, higidura negatibo bezala, bitartegabe *den* moduan, kontzientziari hasieran agertzen zaio men egin behar dion zerbait bezala eta norberaren bidez ez den zerbait bezala. Eszeptizismo bezala, berriz, autokontzientziaren unea da; zeinari ez zaion *ger-tatzen*, egia-dena eta erreal-dena desagertzen zaizkiola, hori nola gertatu den jakin gabe; baizik eta autokontzientziak, bere askatasunaren ziurtasunean, bere burua errealtzat jotzen duen beste hori desagertarazten du; ez bakarrik objektuaren izaera duen hori, halakotzat hartu-

ta, baizik eta horrekiko duen jokaera, non horrek objektibo gisa balio duen eta balio hori ematen zaion; hau da, bere *hautematea* ere bai eta gainera galtzeko arriskuan dagoen hori *finkatzea*, *sofistikeria*, eta berak *determinatu* eta *finkatu* egin duen bere egia-dena; bere buruaz jabetzen den negazio horren bitartez, autokontzientziak *bere baitara* - *ko bere askatasunaren ziurtasuna* lortzen du, horren esperientzia sortzen du eta horrela ziurtasuna *egiaraino* goratzen du. Desagertzen dena da determinatua den hori edo bereizketa, zeinak, edonola eta edonondik datorrela ere, bere burua bereizketa finkatu eta aldaezin bezala azaltzen duen. Ez dauka bere baitan geratzen den ezer eta desagertu egin *behar* du pentsamenduaren aurrean, bereizia den hori hauxe baita, hots, *bere baitan* ez izatea, baizik bere zerizantasuna beste batean edukitzea; pentsatzea, aldiz, bereizia denaren izaeraren ikuskapena da; zerizan negatiboa da sinplea den aldetik.

Harentzat finkatu nahi duen horren guztiaren aldaketan, beraz, autokontzientzia eszeptikoak bere askatasuna esperimentatzen du, norberaren bitartez bere buruari ematen dion hori eta mantentzen duen hori bezala; norberaren burua pentsatzearen ataraxia da, *bere buruaz duen ziurtasun* aldaezina eta *egiazkoa*. Ez da sortzen bere garapen anitza bere bilakaera egina lukeen emaitza gisa bere baitan hondoratzen duen arrotz batetik; baizik eta kontzientzia bera *urduri* - *tasun dialektiko absolutua* da, sentipenezko eta pentsatutako errepresentazioen nahasketa hori; zeinen bereizketak bat etortzen diren eta zeinen *berdintasuna* era berean desagiten den (berdintasuna *ezberdin* den horren aurkako *determinatutasuna* baita). Baina, egitatean, kontzientzia hori ez da bere buruaren berdin den kontzientzia, baizik eta ausazko nahasmendu bat, bere burua amaigabe sortzen duen desordenaren bertigoa besterik ez. *Hori da bere baitarako*; izan ere, hura da bere burua higitzen duen nahasmendu hura mantentzen duena eta sortzen duena. Onartu ere egiten du; onartzen du kontzientzia guztiz *ausazkoa* eta *banakoa* dela, enpirikoa den kontzientzia; bere baitarako errealiterik ez duenaren arabera orientatzen den kontzientzia; harentzat zerizanak ez daukanari men egiten dion kontzientzia; harentzat inolako egirik ez daukan hori egiten duen eta zertzen duen kontzientzia. Baina kontzientziak bizitza *banakotzat*, *ausazkotzat* eta egitatean aberetartzat eta *galdutako* autokontzientziatzat balio duen era berean, hura, aitzitik, *bere buruaren berdin den* kontzientzia *orokor*

ere bihurtzen da; izan ere, hura banakotasun eta bereizketa ororen ezezkotasuna da. Bere buruaren berdin izatetik, edo hobeto, berdintasun horretan erortzen da berriz ausazkotasun eta nahasmendu hartara; izan ere, bere burua higitzen duen ezezkotasun horrek banako-dena-ekin soilik du zer ikusia eta ausazko den horren ardura baino ez du hartzen. Kontzientzia hori, orduan, kontzientziarik gabeko erokeria hau da: bere buruaren berdin den autokontzientziaren mutur batetik kontzientzia ausazko, nahastua eta nahasgarriaren beste muturrera joan-etorri ibiltzea. Hark ez ditu bere buruaren bi pentsamendu horiek batzen; *behin batean* ezagutzen du bere askatasuna hor-izatearen nahasmendu eta ausazkotasun oroz haraindi goratzean datzala; eta *beste behin* aitortzen du *zerizangabetasunean* erori dela berriro eta hor dabilela noraezean. Eduki zerizangabea desagertarazten du bere pentsamenduan, baina hor ere zerizangabe-den baten kontzientzia da; *desagertze* absolutua adierazten du, baina adierazte hori *da*, eta kontzientzia hori da adierazitako desagertzea; ikustearen, entzutearen eta abarren baliogabetasuna adierazten du, eta *horrek berak ikusten* du, *entzuten* du eta abar egiten du; zerizantasun etikoan baliogabetasuna adierazten du, eta horiek bere jardunaren botere bihurtzen ditu. Bere egiteak eta bere hitzek elkar kontraesaten dute beti; eta era berean hark dauka aldaezintasunaren eta berdintasunaren eta ausazkotasun osoaren eta bere buruarekiko ezberdintasunaren kontzientzia kontraesan hori, eta horri dagokionez haren higidura negatibo hutsean bezala jokatzeko du oro har. *Berdintasuna* erakusten baldin bazaio, orduan hark *ezberdintasuna* erakusten du; eta oraintxe adierazi duen ezberdintasuna aipatzen bazaio, orduan hark *berdintasuna* erakusten du. Haren berriketa egitatean gazte burugogorren arteko tirabira da, non batek A esaten duen besteak B esaten duenean; eta berriz B besteak A esaten duenean; eta euren *buruarekin* kontraesanean izatearen bitartez uste duten *elkarrekin* kontraesanean dirautela.

Eszeptizismoan kontzientziak egiatan bere buruarekin kontraesanean dagoen kontzientzia bezala esperimendatu du bere burua; esperientzia horretatik *tankera berri* bat sortzen da, zeinak eszeptizismoak banatuta mantentzen dituen bi pentsamenduak lotzen dituen. Eszeptizismoak bere buruari buruz zuen pentsamendu gabeziak desagertu egin behar du, hura egitatean kontzientzia bat baita, bere baitan

bi modu horiek dauzkan kontzientzia. Tankera berri hori horrenbestez *bere baitarako* bere buruaren kontzientzia bikoitza da: bere buruarena, bere burua askatzen duena, aldaezina eta bere buruarekin berdin dena bezala; eta bere buruarena, bere burua absolutuki nahasten eta iraultzen duena bezala; eta tankera hori bere kontraesan horren kontzientzia da. - Estoizismoan autokontzientzia bere buruaren askatasun sinplea da; eszeptizismoan, bere burua gauzatzen du, hor-izate determinatuaren beste alde deuseztatzen du, baina *bere burua* bikoizten du eta, beraz, bere buruarentzat bikoiztuta da. Horren bidez, lehenago bi banakoetan, nagusian eta morroian, banatuta zegoen bikoizketa Batera itzuli da; autokontzientziaren bikoizketa bere baitara, gogoaren adigaiari zerizanezkoa dena, hemen eskura dugu, beraz, baina oraindik ez dugu haren batasuna, eta *zoritxarreko kontzientzia* norberaren kontzientzia da kontraesaten den zerizan bikoiztuarena bezala.

Bere baitan bikoiztutako, zoritxarreko kontzientzia horrek, bere zerizanaren kontraesana harentzat kontzientzia *bat* dela eta, kontzientzia batean beti bestea ere eduki behar du; eta horrela garaipena eta batasunaren bakea lortu duela usten duenean, kontzientzia bakoiztetik bitartegabe berriz bidali behar da. Baina bere baitara egiazko itzulerak edo bere buruarekin berriro adiskidetzak aurkeztuko du bizitu den eta existentzian sartu den gogoaren adigaiari; hura horren baitan banatu gabeko kontzientzia *batean* bezala delako, bikoiztutako kontzientzia delako; hori bera autokontzientzia baten begiratzea *da* beste batean, eta bera biak *da*, eta bien batasuna da harentzat zerizana; baina oraindik ez da harentzat zerizan hori bera *bere baitarako*, oraindik ez da bien batasuna.

Hasieran bien bitartegabeko batasuna den heinean, baina harentzat biak berbera izan gabe, baizik aurkakotuak izanik, orduan harentzat bata, hots, aldaezin sinplea, *zerizana* da; bestea, berriz, hots, aldakor anitza, *zerizangabea* da. *Harentzat* biak elkarrekiko arrotzak diren zerizanak dira; hark, kontraesan horren kontzientzia izanik, kontzientzia aldakorren alde egiten du eta berarentzat zerizangabe-dena da; baina aldaezintasunaren edo zerizan sinplearen kontzientzia bezala, zerizangabe-den horretatik, hau da, bere baitatik askatu egin behar da. Izan ere, *harentzat* bera kontzientzia aldakorra soilik izan arren, eta aldaezina, aldiz, arrotza izan arren, hori *bera* sinplea da eta horregatik kontzientzia aldaezina; eta hori bere zerizana izateaz jabetzen

da, baina halako moldez, non hori *bera* bere buruarentzat berriz zerizan hori ez baita. Bioi ematen dien kokalekua ezin da izan elkarrenganako axolagabetasun bat, hau da, ezin da izan bere buruaren axolagabetasuna aldaezin-denaren aurrean; baizik eta hura biak da bitartegabe; eta hura berarentzat *bien arteko harremana da*, zerizanaren eta zerizangabe-denaren arteko harreman bezala, halako moldez non azken hori gaintitu behar baita; baina biak harentzat era berean zerizanezkoak eta kontraesankorrak diren heinean, hura higidura kontraesankorra da, non aurkakoak ez duen bere aurkakoan aurkitzen bakea, baizik eta bere baitan aurkako bezala soilik bere burua berriz sortzen duen.

Hemen, beraz, etsai baten aurkako borroka bat dugu, eta horren aurka irabaztea galtzea da, bata lortzeak hori aurkakoan galtzea esan nahi du. Bizitzaren kontzientzia, bere hor-izatearen eta bere egitearen kontzientzia, hor-izate eta egite horren mina besterik ez da; izan ere, hor bere aurkakoaren kontzientzia baino ez dauka, zerizanaren kontzientzia bezala, eta norberaren baliogabetasunaren kontzientzia. Hortik igoera hasten da aldaezin-denerantz. Baina igoera hori bera da kontzientzia hori; hura, orduan, bitartegabe aurkakoaren, hots, bere buruaren kontzientzia da banakotasunarena bezala. Kontzientzian sartzen den aldaezin-denak aldi berean banakotasunaren ukitua du, eta horrela baino ez zaigu agertzen; aldaezin-denaren kontzientzian banakotasuna ezabatu ordez, hor etengabe sortu baino ez du egiten.

Higidura horretan, ordea, kontzientziak esperimentatzen du, hain zuzen, nola *banakotasuna sortzen den aldaezin-denean* eta *aldaezin-dena banakotasunean*. *Harentzat* banakotasuna *oro har* zerizan aldaezinean sortzen da eta aldi berean *norberarena* hartan. Izan ere, higidura horren egia, hain zuzen, kontzientzia bikoitz horren *bat* izatea da. Baina *batasun hori lehen eta behin* harentzat *bien ezberdintasuna oraindik* nagusi duen batasuna izango da. Horrela, hemen harentzat hiru modu ditugu banakotasuna aldaezin-denarekin elkarlotzeko. *Lehenik*, bere burua sortzen du banakotasunak berriro zerizan aldaezinari aurkakotu gisa, eta borrokaren hasierara atzera bidaltzen da, zeinak erlazio guztiaren oinarritzko egoera izaten irauten duen. *Bigarren aldiz*, berriz, *aldaezin-denak* berak dauka *bere baitan banakotasuna* berarentzat, halako moldez non banakotasuna aldaezin-denaren tankera baita, eta horrela, horri existentziaren modu osoa ematen baitzaio. *Hiruga* -

rrren aldiz, hark *bere burua* aurkitzen du banako-den hori bezala aldaezin-denean. *Lehenengo* aldaezin-dena harentzat banakotasuna gaitzes-ten duen zerizan *arrotza* da; bestea banakotasunaren *figura* bat denez, bera bezala, orduan, *hirugarren* unean gogo bihurtzen da; poztan da bere burua hor aurkitzeaz; eta jabetzen da bere banakotasuna orokor-denarekin berriro adiskidetu izateaz.

Hemen aldaezin-denaren modu eta erlazio bezala aurkezten dena autokontzientzia bikoitzak bere zoritxarrean egiten duen *espe-rientzia gisa* sortu zen. Esperientzia hori orain ez da noski *kontzientzia horren* higidura *aldebakarra*, zeren hura kontzientzia aldaezina baita, eta hori, beraz, aldi berean kontzientzia banakoa, eta higidura era berean kontzientzia aldaezinaren higidura da, zeina hartan agertzen den horretan adina; izan ere, higidura horrek ondorengo uneak zeharkatzen ditu: lehenengo unean aldaezin izatea banakotasunari aurkakotuta oro har; hurrengoan, banako bihurtuz beste banakoari aurkakotuta; eta, azkenean, beste banakoarekin bat eginda. Baina ikuspuntu hori, gurea den heinean, ezordukoa da hemen, zeren orain arte aldaezintasuna kontzientziaren aldaezintasuna bezala zaigu (zeina, beraz, egiazkoa ez den, baizik eta oraindik kontraesan bat biltzen duen aldaezintasuna), eta ez *bere baitan* eta *bere baitarako* aldaezin-dena; horregatik, ez dakigu horrek nola jokatu duen. Hemen ondorioztatu dena haxe besterik ez da, alegia, gure objektua den kontzientziari aldaezin-denean agertzen zaizkiola iragarritako determinazio horiek.

Arrazoi horregatik *kontzientzia* aldaezinak ere mantentzen du bere tankeratzean bertan bikoiztuta izatearen eta berbaitarako izatearen izaera eta oinarria kontzientzia banakoaren aurrean. Horrela, aldaezin-denak banakotasunaren tankera hartzea *geraera* bat da oro har kontzientzia banakoarentzat; era berean, horri aurkakotuta baino ez du *aurkitzen* bere burua eta horregatik *naturaren bitartez* dauka harreman hori; hark, azkenean, bere burua hartan aurkitzen duela, hein batean, bere burutik sortu duela iruditzen zaio edo bera banakoa delako gertatu dela; baina batasun horren zati bat aldaezin-denari dagokiola iruditzen zaio, bere sorkuntzari dagokionez eta den heinean ere bai; eta aurkakotzea mantendu egiten da batasun horretan bertan. Egitatean, aldaezin-denaren *tankeratzea* dela eta, haratagoko-denaren unea gertatu ez ezik indartu ere egin da; izan ere, errealitate banakoaren tanke-raren bidez, aldaezin-dena alde batetik kontzientziari itxuraz hurbil-

tzen bazaio ere; beste aldetik, oster, bere aurrean agertzen da sentipenezko *Bat* opaku bezala, *erreal*-den horren guztiaren zurruntasuna izaki; harekin bat izateko itxaropena mantendu behar da itxaropen gisa, hau da, bete gabe eta gaurkotu gabe; izan ere, itxaropena eta hori betetzearen artean, hain zuzen, ausazkotasun absolutua edo axolagabetasun higiezina dago, zeina tankeratzean bertan datzan, itxaropena oinarritzen duenean. *Baden Baten* izaeraren bitartez, jantzi duen errealitatearen bitartez, gertatzen da halabeharrez ezen hura denboran desagertzen dela eta espazioan urrun dagoela eta urrun mantentzen dela oro har.

Hasieran, kontzientzia bikoitzaren adigai hutsak bere burua horrela determinatu bazuen, alegia, banako bezala bere burua gainditzea eta kontzientzia aldaezin bilakatzea nahi duela, hemendik aurrera bere ahaleginak honako determinazio hau dauka: *tankerarik gabeko* aldaezin-denarekin duen erlazioa gainditzeko eta orain *tankera duen aldaezin-denarekin duen* harremana eskuratzen duela. Izan ere, harenztat hemendik aurrera banako-denaren eta aldaezin-denaren *Bat-izatea*, *zerizana* eta *objektua* da, adigaiaren tankerarik gabeko aldaezin-den abstraktua zerizanezko objektu zen bezala; eta orain ihes egin behar dio adigaiaren absolutuki bikoizturik izatearen erlazioari. Baina aldaezin-den tankeradunarekin duen harremana, hasiera batean kanpokoa dena, hori erreal-den arrotza balitz bezala, Bat-bihurtze absolutura goratu behar du.

Higidura, non zerizangabeko kontzientzia Bat-izaten saiatzen den, *hirukoitza* da, hark haren haratago tankeradunarekin izango duen erlazio hirukoitzaren arabera: lehenik, *kontzientzia hutsa* bezala; bigarrenik, *zerizan banako* bezala, errealitatearen aurrean irrika eta lan gisa jotzen duena; eta hirugarrenik, bere *berbaitarako izatearen kontzientzia* bezala. - Orain ikusi behar da nola dauden determinatuta bere izatearen hiru modu horiek erlazio orokor hartan.

Lehenik, beraz, *kontzientzia hutsa* bezala ikusita, aldaezin-den tankeradun hori badirudi bere baitan eta bere baitarako den bezala ezarritako dagoela, kontzientzia hutsarentzat den heinean. Baina hori bere baitan eta bere baitarako izateko era oraindik ez da sortu, esan dugun bezala. Kontzientzian izateko bere baitan eta bere baitarako den bezala, horretarako beharrezko izango litzateke bere baitatik abiatzea, kontzientziatik abiatu beharrean; baina hemen kontzientziaren bitartez

duen presentzia aldebakarra da, eta horregatik ez da osatua eta egiazkoa, baizik eta osatugabetasuna edo aurkakotza bat dauka oraindik.

Baina zoritzarreko kontzientziak presentzia hori ez badauka ere, pentsatze hutsetik haratago dago, hori *banakotasuna ikusten* ez duen estoizismoaren pentsatze abstraktua eta eszeptizismoaren pentsatze urduria den heinean (egitatean banakotasuna kontzientziarik gabeko kontraesan bezala eta horren higidura etengabea); zoritzarreko kontzientzia bi horietatik haratago doa, pentsatze hutsa eta banakotasuna elkarrekin lotzen ditu eta lotuta mantentzen ditu, nahiz eta oraindik ez duen lortu pentsatzearen maila hartara igotzea, *non* kontzientziaren banakotasuna eta pentsatze hutsa adiskidetuak dauden. Askoz gehiago, erdigune hartan dago, non pentsatze abstraktuak kontzientziaren banakotasuna, banakotasun bezala, ukitzen duen; hura bera *da* ukitze hori; pentsatze hutsaren eta banakotasunaren batasuna da; gainera, *berbaita - rako* pentsatzen duen banakotasun hori edo pentsatze hutsa; eta aldaezin-dena bera funtsean banakotasun gisa. Baina ez da gertatzen *berbai - tarako* bere objektu hori, aldaezin-dena, harentzat zerizanez banakotasunaren tankera daukana, hura *bera* izatea, hura bera, kontzientziaren banakotasuna dena.

Lehen modu honetan, non *kontzientzia huts bezala* hartzen dugun, kontzientziak *bere objektuari dagokionez* ez du pentsatuz jokatzeko; baizik eta pentsatzerantz bidean dago soilik, eta *jaiera* da, hura *bere baitan* banakotasun pentsatzaile hutsa eta bere objektua hain zuzen hori bera den, baina *elkarrenganako harreman bera pentsatze hutsa* ez den heinean. Bere pentsatzea, halakotzat hartuta, kanpai-hotsaren tankerarik gabeko xuxurla edo goranzko laino beroa da, adigairaino (modu objektibo immanente bakarreraino) goratzen ez den musikazko pentsatzea. Amaigabeko barneko sentitze huts horrek bere objektua izango du, baina ez zaio agertuko aditutako objektu gisa, eta horregatik arrotz-dena bezala azalduko da. Horrenbestez, hemen gogamen *hutsaren* barneko higidura dugu; horrek bere burua *sentitzen* du, hain zuzen, era mingarrian, bikoizketa bezala; amaigabeko *mira* baten higidura, zeinak honako ziurtasuna daukan, hots, bere zerizana horrelako gogamen hutsa dela, *pentsamendu* hutsa dela, bere burua *banakotasun* bezala *pentsatzen* duen pentsatze hutsa; gainera objektu horrek hori, berak bere burua banakotasun bezala eza-

gutzen duelako, banakotasun bezala ezagutzen eta berrezagutzen duela. Hala ere, aldi berean, zerizan hori heldu nahi zaionean ihes egin duen edo, hobeto, jadanik ihes egin duen *haratagoi* helezina da. Jadanik ihes egin du; izan ere, alde batetik, bere burua banakotasun bezala pentsatzen duen aldaezina da; eta, beraz, kontzientziak bere burua lortzen du bitartegabe haren baitan, baina *aldaezin-denari aurkakotuta* bezala; zerizana aditu beharrean, *sentitu* besterik ez du egin, eta bere baitara erortzen da; lortzeko unean bere burua aurkako hori bezala baztertu ezin duela eta, zerizana aditu beharrean, zeri-zangabetasuna besterik ez du aditzen. Alde batean, *bere burua zeri-zanean* lortzen saiatzen denean, banatutako errealitate propioa besterik lortzen ez duen modu berean, horrela, beste alde batean, ezin du aditu bestea *banako* bezala edo *erreal* bezala. Bilatzen ari den lekuan ezin da aurkitu; izan ere, *haratago bat* izan behar du, hau da, aurkitu ezin den zera. Hura, banako bezala bilatutakoa, ez da pentsatutako *banakotasun orokorra*, ez da *adigaia*, baizik eta *banako-dena* objektu bezala, edo *erreal-dena*, sentipenezko bitartegabeko ziurtasunaren objektua eta, beraz, desagertu egin den zera. Kontzientziak bere bizitzaren *hilobia* besterik ezin du izan aurrean. Baina hilobia bera *errealitate* bat delako eta bere izaeraren aurka dagoenez jabego iraunkorra izatea, horregatik hilobia hor aurrean izatea ahalegin baten borroka da, galdu egin behar den borrokarena. Baina zeraren esperientzia egin duen heinean, alegia, bere zerizan *erreal* aldaezinaren *hilobiak inolako errealitate*rik ez daukala, desagertutako banakotasuna, desagertutako bezala, egiazko banakotasuna ez dela, bada, uko egingo dio banakotasun aldaezina *erreal* bezala bilatzeari edo desagertutako bezala mantentzeari; eta horren bidez baino ez da gai izango banakotasuna egiazko edo orokor bezala aurkitzeko.

Baina, lehenago, *gogamena bere baitara itzultzea* honela ulertu behar da, hark *banako* gisa *errealitatea* daukala berarentzat. *Gogamen hutsa* da, *guretzat* edo *berbaitan* bere burua aurkitu duena eta bere baitan asetzen dena, zeren, nahiz eta horrentzat bere sentimenduan zerizana bere baitatik banatzen den, hala ere bere baitan sentimendu hori *bere buruaren sentimendua* da, bere sentitze hutsaren objektua sentitu du, eta objektu hori hura bera da; beraz, hemen agertzen da bere buruaren sentimendu bezala edo berbaitarako den *erreal* gisa. Bere baitara itzultze horretan, bere *bigarren erlazioa* sortzen zaigu, irrikarena eta lana-

rena, zeinak kontzientziari bere buruaren barneko ziurtasuna bermatzen dion, guretzat lortu egin duen ziurtasuna, zerizan arrotzaren, hots, gauza beregainen forman agertzen den zerizanaren gainditzearen eta gozatzearen bitartez. Baina zoritzarreko kontzientziak bere burua *desiratz*en eta *lan egiten* duen zerbait bezala *aurkitzen* du; hark ez du eskura bere burua horrela aurkitzea, hots, bere buruaren barneko ziurtasuna oinarria izanik eta zerizanaren sentimendua bere buruaren sentimendua izanik. Hark ziurtasun hori *bere buruarentzat* ez daukan heinean, bere barnekoak oraindik bere buruaren urratutako ziurtasuna izaten irauten du; lanaren eta gozamenaren bidez lortuko lukeen bermea, horregatik, *urratutako* bermea da era berean; edo hark ezabatu beharko luke berme hori, halako moldez non bere baitan bere bermea aurkitzen baitu, bai, baina bere baitarako den horren, hau da, bere bikoiztasunaren bermea baino ez dena.

Irrikak eta lanak aurka egiten dioten errealitatea ez zaio kontzientzia horri jadanik *bere baitan baliogabe-dena*, hark gainditu eta xahutu behar duen zerbait, baizik eta hura bera dena, *bitan hautsitako errealitatea* da, zeina, alde batetik, bere baitan baliogabe den, beste aldetik, aldiz, *mundu* sakratu bat ere baden; aldaezin-denaren tankera da; izan ere, horrek bere baitan mantendu du banakotasuna; eta, aldaezina den heinean orokor delako, haren banakotasunak errealitate osoaren esanahia dauka.

Kontzientzia bere baitarako beregaina izango balitz eta berarentzat errealitatea bere baitan eta bere baitarako baliogabea balitz, lanean eta gozamenean bere beregaintasunaren sentimendua lortuko luke, errealitatea gainditzin duena hura bera den heinean. Baina errealitatea harentzat aldaezin-denaren tankera den heinean, ezinezkoa zaio errealitatea bere kabuz gainditzea; kontzientziak errealitatearen ezabaketa eta gozamina lortzen baldin badu, hori funtsean harentzat gertatzen da aldaezin-denak bere tankera *uzten* duelako eta gozatzeko *ematen* dielako. - Kontzientzia hemen, bere aldetik, *era berean* erreal dena bezala agertzen da, baina barnean ere urratutakoa bezala; eta bikoiztasun hori bere lanean eta gozamenean agertzen da; *errealitatearekin erlazioan* edo bere *baitarako izatean* eta *bere baitan izatean* haustean. Errealitatearekiko erlazioa *aldatze-ekintza* edo *egitea da*, *banako* kontzientziari halakoa den aldetik dagokion berbaitarako izatea. Baina hor *bere baitan* ere bada; alde hori haratagoko aldaezinari dagokio; horiek ahalme-

nak eta indarrak dira, dohain arrotza, aldaezin-denak kontzientziari uzten diona hori erabiltzearren.

Bere egitean, hortaz, kontzientzia hasieran bi muturren arteko erlazioan da; alde batean, Honaindi ekile gisa dago, eta bere aurrean errealitate jasailea; biak elkarrekiko harremanean, baina biak era berean aldaezin-denera itzulita, eta euren buruei eutsiz. Bi aldetatik gainazal bat baino ez da askatzen, higiduraren jokoan bestearen aurka agertzen dena. - Errealitatearen muturra ekiten duen muturrak gainditzen du; errealitatea, aldiz, gaindi daiteke, bere zerizan aldaezinak bere burua gainditzen duelako, zerizan horrek bere burua bere baitatik aldarazten duelako eta aldaratutakoa egiletasunaren esku uzten duelako. Ekiten duen indarra *botere* bezala agertzen da, non errealitatea desegiten den; baina, horregatik, *berbaitana* edo zerizana bera ez beste bat den kontzientzia horrentzat, daukan botere hori egiletasunean agertzen den bezala bere buruaren Haratago-dena da. Bere egitetik bere baitara itzuli eta bere burua bere kabuz bermatu beharrean, egitearen higidura hori beste muturrera islatzen du, zeina horren bidez huts-hutsik, orokor-dena bezala, botere absolutu bezala aurkezten den, norabide guztiak dituen higiduraren abiapuntua dena eta bai deuseztatzen diren muturren, lehenik agertu ziren moduan, baita aldaketa beraren zerizana ere baden.

Kontzientzia aldaezinak bere tankerari *uko* egiten dio eta tanke-ra hori *uzten du*; banako kontzientziak, aldiz, hori *eskertzen du*, hau da, kontzientziak bere *beregaintasuna* asetzea eragozten du eta egitearen zerizana bere baitatik egotzi eta haratago-denari bidaltzen dio: bi alde-ek *euren buruak elkarri uzten dizkiote* bi une horietan eta horren bidez kontzientziak aldaezin-denarekin duen batasuna sortzen da. Baina aldi berean batasun horrek banaketa jasan du, urratuta dago berriro bere baitan, eta hartatik berriro sortzen da orokor-denaren eta banako-denaren arteko aurkakotza. Izan ere, kontzientziak bere buruaren sentimendua asetzeko *itxurari* uko egiten dio, baina bere *egiazko* asebetea lortzen du; izan ere, irrika, lana eta gozamena izan da; kontzientzia gisa, *nahi izan, egin eta gozatu egin* du. Bere *eskerrak ematea*, era berean, non hark beste muturra zerizan gisa berrezagutzen duen eta bere burua gainditzen duen, bere egite propioa da, beste muturraren egitea orekatzten duena eta bere burua uko egiten duen onegintzari egite *berdina* aurkakotzen diona; hark bere *gainazala* uzten baldin badio, kontzien-

tziak, *hala ere*, eskertzen dio, eta horrela, bere egite propioari, hau da, bere *zerizanari* uko egiten dion heinean, bere baitatik gainazala aldara-zi baino egiten ez duen besteak baino gehiago egiten du. Higidura osoa, orduan, egiazko irrikatzean, lan egitean eta gozatzean ez ezik eskerrak ematean ere (non itxuraz aurkakoa gertatzen den) islatzen da *banako -tasunaren muturrean*. Kontzientzia hor banako hori bezala sentitzen da eta bere uko egitearen itxurak ez du liluratzen; izan ere, haren egia bere burua utzi ez izanean datza; sortu dena bikoiztutako islapena da bi muturretan, eta emaitza errepikatutako banaketa da *aldaezin-denaren* aurkakotutako kontzientzian eta horren aurrean dagoen nahi izatearen, gauzatzearen, gozatzearen kontzientzian eta bere buruari uko egitean, edo *berbaitarako den banakotasunean* oro har.

Horrela sortzen da kontzientzia horren higiduraren *hirugarren erlazioa*, bigarrenetik honelako bat bezala irteten dena, egiatan bere nahi izatearen eta gauzatzearen bitartez kontzientzia beregain bat dela frogatu duena. Lehenengo erlazioan egiazko kontzientziaren *adigaia* edo *barneko gogamena* besterik ez da izan, zeina egitean eta gozame-nean oraindik ez den erreala; *bigarrena* errealizazio hori da kanpoko egite eta gozamen bezala; hemendik, aldiz, itzultzen da honelako bat bezala, bere burua kontzientzia erreal eta eraginkor bezala *esperimen -tatu* duena, zeinarentzat *bere baitan eta bere baitarako* izatea egiazkoa den. Baina horrela etsaia antzematen da horren tankera berezienean. Gogamenaren borrokan banako kontzientzia musikazko une abstraktua baino ez da; lanean eta gozamenean, zerizanik gabeko izate horren gau-zatze gisa *bere burua* bitartegabe ahaz dezake, eta bere buruaz jabetzen den *berezitasuna* errealitate horretan erortzen da esker oneko berreza-gupenaren bitartez. Baina erortze hori egiatan kontzientziak bere baita-ra egiten duen itzulera da, eta bere baitara egiten duena, hain zuzen, harentzat egiazkoa den errealitate bezala.

Hirugarren erlazio hori, non egiazko errealitate hori mutur bat den, errealitate horrek zerizan orokorrarekin duen *harremana* da, balio-gabetasunarena bezala; eta orain aztertu behar dugu harreman horren higidura.

Lehenik kontzientziaren harreman aurkakotuari dagokionez, non harentzat bere *errealitatea bitartegabe baliogabea* den hori den, bere egite erreala ezerezaren egite bat bihurtzen da; bere gozamena bere zoritxarraren sentimendu. Horrela, egiteak eta gozamenak *eduki*

eta esanahi orokor oro galtzen dute, bestela bere berbaitan- eta berbaitarako-izatea edukiko lukete; eta biak banakotasunera itzultzen dira, eta horretarantz abiatzen da kontzientzia hura gainditzera. Bere abere-funtzioetan, kontzientzia bere buruaz jabetzen da, *banako erre - al horretaz* bezala. Funtzio horiek ez dira zertzen askeki, berbaitan eta berbaitarako baliogabe den eta inolako garrantzirik eta gogoarentzat zerizantasunik lortu ezin dezakeen zerbait bezala; etsaia horietan agertzen da bere tankera ezaugarrituenean, eta horregatik ganorazko ahaleginaren objektu dira eta garrantzitsuen den hori bihurtzen dira. Baina etsai horrek bere porrotean bere burua sortzen duelako, kontzientzia, horri itsasten zaionez, hortik askatu beharrean, beti berari lotuta mantentzen da eta beti bere burua zikintzat dauka; eta bere ahaleginaren eduki hori, aldi berean, zerizanezko den zerbait izan beharrean, zitalena denez, orokor-dena izan beharrean, banakoena denez, bada, bere baitara eta bere egite txikiraino mugatu den eta horretan tematzen den nortasuna besterik ez dugu ikusten, zoritzarrekoa nahiz txiroa den nortasuna.

Baina bietan, bere zoritxarraren sentimenduan eta bere egitearen txirotasunean, bere batasunaren kontzientzia lotzen du era berean aldaezin-denarekin. Izan ere, bere izate errearen saiaturako deuseztatze bitartegabekoa aldaezin-denaren pentsamenduak bitartekotzen du eta *harreman* horretan gertatzen da. Harreman *bitartekotuak* osatzen du higidura negatiboaren zerizana, non kontzientziak bere burua bere banakotasunaren aurka zuzentzen duen; banakotasuna, aldiz, *harreman* bezala, *bere baitan* positiboa da eta bere *batasun* hori sortuko du kontzientziarentzat.

Harreman bitartekotu hori, horrenbestez, silogismo bat da, non hasieran *berbaitanari* aurkakotuta dagoen finkatutako banakotasuna beste mutur horrekin lotzen den hirugarren baten bitartez. Erdigune horren bidez, kontzientzia aldaezinaren muturra kontzientzia zerizangabearentzat da, eta kontzientzia zerizangabe hori, aldi berean, kontzientzia aldaezinarentzat erdigune horren bidez bakarrik izan daiteke; erdigune horrek, beraz, mutur biak elkar aurkezten ditu eta bakoitzaren zerbitzaria da bestearengan. Erdigune hori bera da bere buruaz jabetzen den zerizana, zeren hori baita kontzientzia, halakotzat hartuta, bitartekotzen duen egitea; egite horren edukia kontzientziak bere banakotasuna baliogabetzea da.

Hor, beraz, kontzientzia egitetik eta gozamenetik askatzen da, *bereak* diren aldetik; hark bere *nahimenaren* zerizana bere baitatik aldarazten du *berbaitarako* den mutur bezala, eta erdiguneari edo zerbitzariari egozten dio bere erabakiaren berezitasuna eta askatasuna eta, horrela, bere adimenaren *errua*. Bitartekari horrek, zerizan aldazina-rekin harreman bitartegabekoa izanik, zerbitzari lana egiten du *zuzena* denari buruz *aholkatuz*. Ekintzak, erabaki arrotz bati jarraitzen dion heinean, utzi egiten dio norberarena izateari, egitearen eta nahimenaren aldetik. Baina oraindik bere alde *objektiboa* geratzen zaio kontzientzia zerizangabeari, hots, bere lanaren *fruitua* eta *gozamena*. Hori ere bere baitatik aldaratzen du eta, bere nahimenari uko egiten dion bezala, horrela uko egiten dio lanean eta gozamenean lortutako *errealitateari*. Errealitateari uko egiten dio, *hein batean* bere *beregaintasun* autokontzienteak lortutako egiari bezala, hura arrotza dena bezala higitzen den heinean, harentzat zentzurik ez daukana errepresentatuz eta esanez higitzen den heinean; eta beste hein batean uko egiten dio errealitatea-ri *kanpoko jabego* bezala, hark lanaren bidez lortutako zerbait uzten duen heinean; eta beste hein batean, izan duen gozamenari uko egiten dio, baraualdian eta nekaldian berriz bere buruari gozamena baztertzen dion heinean.

Norberaren erabakiaren, gero jabegoaren eta gozamenaren gainditzearen une horien bitartez, eta azkenean berak ulertzen ez duen zeregin bati ekiten dion une positiboaren bitartez lortzen du egiatan eta osoki barneko eta kanpoko askatasunaren kontzientzia, errealitatearena bere *berbaitarako izatearena* bezala; bere *Nia* egiatan kanporatu izateko ziurtasuna eta bere bitartegabeko autokontzientzia *gauza* bat, izate objektibo bat bihurtu izateko ziurtasuna du. - Sakrifizio *erreal horren bidez baino ezin du bermatu* bere buruari uko egitea; zeren hor desgertzen baita *iruzurra*, zeina bihotzez, asmoz eta ahoz eskerrak ematearen *barneko* berrezegupenean datzan, berrezagutzean, beraz, zeinak, berbaitarako izatearen botere oro bere baitatik baztertzen duen eta goiko dohain bati egozten dion arren, hala ere baztertze horretan bertan *kanpoko* berezitasuna mantentzen duen berak uko egin ez dion ondasunean, *barnekoa*, aldiz, hark berak hartu duen erabakiaren kontzientzian eta hark determinatzen duen erabaki horren edukiaren kontzientzian, hots, harentzat esanahirik gabekoa den beste eduki arrotzarekin trukatu ez duen edukiaren kontzientzian.

Baina benetan osatu den sakrifizioan, kontzientziak bere baitan, berea izango balitz bezala, egitea gainditu duen modu berean aldendu egin du bere burutik bere zoritxarra. Askatze hori bere baitan gertatu dela, hori, silogismoaren beste muturraren egitea da, hala ere, zeina ber-baitan den zerizana den. Baina zerizangabeko muturraren sakrifizio hori ez da izan, aldi berean, egite aldebakarra, baizik eta horrek bere baitan jasotzen du bestearen egitea. Izan ere, norberaren nahimena gain-ditzea alde batetik bakarrik da negatiboa, bere adigaiaren arabera edo bere-baitan; baina, aldi berean, positiboa da, hots, nahimena beste gauza bat izango balitz bezala ezartzea, eta bereziki banako ez baizik eta oro-kor den nahimen gisa ezartzea. Kontzientzia horrentzat negatiboki eza-rritako banako nahimenaren esanahi positibo hori beste muturraren nahimena da, zeina, hain zuzen, harentzat beste bat delako sortzen zaion, ez bere buruaren bitartez, baizik eta hirugarren baten bitartez, bitartekariaren bitartez aholku gisa. Hari bere nahimena nahimen oro-kor eta bere baitan den nahimen bihurtzen zaio, baina bera ez da bere buruarentzat berbaitan hori; norberaren nahimenari uko egitea, banako nahimen bezala, ez da harentzat, adigaiaren arabera, nahimen orokorra-ren positibo-dena. Era berean, jabegoari eta gozamenari uko egiteak esanahi negatibo berbera bakarrik dauka, eta horren bidez hari sortzen zaion orokor-dena ez da, harentzat norberaren egitea. Objektiboa den horren eta berbaitarako den horren batasuna, zeina egitearen adigaian den eta zeina kontzientzia horri zerizan eta objektu bihurtzen zaion, batasun hori ez zaio kontzientzia horri norberaren egitearen adigaia eta era berean ez da bihurtzen kontzientzia horrentzat objektu, bitartegabe eta bere buruaren bitartez; baizik eta hark zerbitzari bitartekariari uzten dio oraindik urratuta dagoen ziurtasun hau adieraztea, hots, bere zori-txarra bere baitan bakarrik dela irauli-dena, hau da, bere egitean bere burua asebetetzen duen egitea edo gozamen zorientzua; bere egite ziz-trina era berean bere baitan dela irauli-dena, hots, egite absolutua, eta, adigaiaren arabera, egitea banakoaren egite bezala dela oro har egitea. Baina harentzat egitea eta bere benetako egiteak egite ziztrin izaten irau-ten dute; eta bere gozamenak mina; eta horien gaintitzeak, bere esanahi positiboan, haratago bat izaten irauten du. Baina objektu horretan, non bere egitea eta izatea, banako kontzientzia hori bezala, berbaitango iza-tea eta egitea zaion, objektu horri arrazoimenaren errepresentazio hau sortu zaio: kontzientziaren ziurtasunarena, bere banakotasunean abso-lutuki bere baitan dela, edo errealtate osoa dela.

V. ARRAZOIMENAREN ZIURTASUNA ETA EGIA

Kontzientzia bere baitara itzultzen da horrek lortu duen pentsamendu honetan, alegia, *banako* kontzientzia *bere baitan* zerizan absolutua dela. Zoritzarreko kontzientziarentzat *berbaitan izatea* bere baitatik *haratago izatea* da. Baina bere higidurak hau lortu du horren baitan, banakakotasuna bere garapen osoan edo *benetako kontzientzia* den banakotasuna norberaren *negatibo-dena*, alegia, mutur *objektibo* gisa ezartzea, edo bere baitarako izatea bere baitatik atera eta izate bihurtzea; hor harentzat ere orokor-den horrekin duen *batasuna* sortu da, zeina guretzat ez den egokitzen hartatik at, banako-den gainditua orokor-dena denez; eta kontzientziak bere negatibotasun horretan bere burua mantentzen duen heinean, hartan den horretan du bere zerizana. Muturrak erabat banantzen dituen arrazoiketan erdigune gisa agertzen dena da haren egia, eta erdigune horrek kontzientzia aldaezinari adierazten dio banako-denak bere buruari uko egin diola, eta banako-denari adierazten dio aldaezin-dena ez dela muturra, baizik harekin senidetu dela. Erdigune hori biak bitartegabe dakizkien eta elkartzen dituen batasuna eta haien batasunaren kontzientzia da, erdigune hark kontzientziari eta, beraz, *bere buruari* adierazten dion batasunarena, egia guztia izateko ziurtasuna da.

Autokontzientzia arrazoimena denez, orain arte beste-izatearekin duen harreman negatiboa positibo bihurtu da. Orain arte bere ardurak bakarra bere beregaintasuna eta askatasuna izan dira, bere burua

beretzat salbatzeko eta mantentzeko *munduaren* edo bere errealitate propioaren truke, horri bi horiek bere zerizanaren negatibo-dena gisa agertzen zitzaizkionez. Baina arrazoimen gisa, bere buruaz ziur, haien aurrean lasaitasuna jaso du eta haiek jasan ditzake; izan ere, ziur dago bere buruaz errealitatea den aldetik; edo errealitate oro hori bera besterik ez dela; bere pentsatzea bera bitartegabe da errealitatea; beraz, idealismoaren gisara jokatzeko du harekin. Bere burua horrela ulertzen duen heinean, mundua orain lehenengoz topatu izan balu bezala ikusten du; lehenago ez zuen ulertzen; haren irrikan dago eta hura lantzen du; hartatik apartatzen da bere baitara eta ukatu egiten du beretzat eta bere burua ere bai kontzientzia gisa, hartaz zerizan den aldetik duen kontzientzia gisa, baita haren ezereztasunaren kontzientzia gisa ere. Orain, lehenengoz, bere egiaren hilobia galdu, bere errealitatearen balio gabetzea bera balio gabetu eta kontzientziaren banakotasuna horrentzat bere baitan zerizan absolutua denean, hura aurkitzen du *bere* mundu erreal berri gisa, zeina orain bere irautean interesatzen zaion, lehenago haren desagertzean interesatzen zitzaion bezala; izan ere, haren *irautea* bere *egia* eta *oraina* bihurtzen zaio; ziur dago hor baino ezingo duela izan bere buruaren *esperientzia*.

Arrazoimena kontzientziak errealitate osoa izateko duen ziurtasuna da; horrela ahoskatzen du idealismoak horren adigai. Arrazoimen gisa *azaltzen* den kontzientziak bere baitan ziurtasun hura *bitartegabe* duen modu berean ahoskatzen du *idealismoak* hori *bitartegabe*: ni neu naiz, eta gainera zentzu honetan: ni ni naiz, neuretzat objektu den hori, ez oro har autokontzientzian bezala, ezta autokontzientzia askean ere, han oro har objektu *hutsa* soilik, hemen horrekin *batera* oraindik dirauten besteetatik ihes doan objektua soilik, baizik eta beste edozeinen *ez izatearen* kontzientzia duen objektu bezala, objektu bakarra, errealitate eta orainaldi oro naiz. Autokontzientzia, ordea, *bere baita* - *rako* ez ezik *bere baitan* ere bada errealitate osoa bera errealitate hori *bihurtuz* edo, hobe, halako errealitatea dela *erakusten* badu. Horrela erakusten du *bide hau* eginez, lehenik iriztearen, hautematearen eta adimenaren higidura dialektikoan beste-izatea *bere baitan* den aldetik desagertzen dela, eta ondoren higiduran kontzientziaren beregaintasuna zeharkatuz nagusigoan eta morrontzan, gainera askatasunaren pentsamendua, askapen eszeptikoa bere barnean zatituta dagoen kontzientziaren askapen absolutuaren borroka zeharkatuz, beste-izatea *bere bai* -

tarako desagertzen dela, kontzientzia bere baitarako besterik ez den heinean. Bi aldeak agertu ziren bata bestearen atzetik, bata, non zerizanak edo egia-denak *izatearen* determinatutasuna duen kontzientziarentzat; besteak kontzientziarentzat baino ez izateko determinatutasuna zuen. Baina biak egia *batean* biltzen ziren: *dena*, edo *berbaitan* soilik *dena*, kontzientziarentzat den heinean baino ez dela, eta bere baitarako *dena*, gainera *bere baitan* ere badela. Kontzientziak, egia hori denak, bide hori atzean utzi du eta ahaztu du, *bitartegabe* arrazoimen gisa agertzen den heinean, edo bitartegabe agertzen den arrazoimen hori egia haren *ziurtasun* gisa soilik agertzen da. *Ziurtatu* baino ez du egiten errealitate osoa dela, baina berorrek ez du aditzen hura; izan ere, ahaztutako bide hura bitartegabe adierazten den baieztapen horren aditzea da. Eta baieztapen hori bidea egin ez duenari, forma huts horretan entzuten badu (izan ere, eite konkretu batean norberak egiten du baieztapena), adigaitza gertatzen zaio.

Idealismoa, beraz, bide hura aurkeztu beharrean baieztapen horretatik abiatzen *dena*, *ziurtapen* hutsa da, bere burua aditzen ez duena, eta besteek aditzea ere lortzen ez duena. *Bitartegabeko ziurta* - *suna* adierazten du, zeinari beste bitartegabeko ziurtasunek egiten dioten aurre; baina horiek bide hartatik galdu dira. Eskubide berberaz kokatzen dira, beraz, beste ziurtasun horien *ziurtapenak* ziurtasun haren *ziurtapenaren ondoan*. Arrazoimena kontzientzia bakoitzaren *autokontzientzia*n oinarritzen da: *ni ni naiz*; nire objektua eta zerizana *ni* da; eta inork ez dio ukatu egia hori. Baina lotura horretan oinarritzen den heinean, beste ziurtasunaren egia berresten du, alegia, *Bestea da niretzat*; *Ni* ez naizen Bestea objektu eta zerizain zait, edo *nire* objektu eta zerizan naizen heinean, horixe naiz bestetik ihes egiten dudana heinean, eta haren *ondoan* dagoen errealitate bat bezala agertzen naizen heinean. - Arrazoimena ziurtasun aurkakotu horretatik *islapen* gisa agertzen denean soilik agertzen da berak bere buruaz egiten duen baieztapena ziurtasun eta ziurtapen gisa ez ezik *egia* gisa ere; eta ez besteen *ondoan*, baizik eta *bakarra* bezala. *Bitartegabeko agertzea* haren *eskura-izatearen* abstrakzioa da, eta horren *zerizana* eta *berbaitan izatea* adigai absolutua, hau da, horren *bilakatu izatearen* higidura da. - Kontzientziak beste-izatearekin edo bere objektuarekin duen harremana era ezberdinetan determinatuko du, bere buruaz jabetzen ari den mundu-gogoaren zein mailatan dagoen arabera. Une bakoitzean

bere burua eta bere objektua nola aurkitzen eta determinatzen duen *bitartegabe*, edo *bere baitarako* nola den, honen menpe dago, hots, zer *bilakatu* den edo jadanik *bere baitan* zer den.

Arrazoimena *errealitate* oro izateko ziurtasuna da. Baina *ber-baitan* hori edo *errealitate* hori oraindik erabat orokor-dena da, errealtatearen *abstrakzio* hutsa. Autokontzientzia *bere baitan bere baitarako* den lehen *baiezkoatasuna* da, eta ni, beraz, badenaren *zerizantasun huts* soila, edo *kategoria* sinplea. Bestela badenaren *zerizantasun* izateko, badenarena oro har *determinatugabe* edo badenarena kontzientziaren aurrean izateko esanahia zuen *kategoria* orain errealitate pentsatzaile gisa baino ez da *zerizantasuna* edo badenaren *batasun* sinplea; edo haxe da: autokontzientzia eta izatea zerizan *berbera* direla; zerizan *berbera* ez alderaketan, baizik eta berbaitan eta berbaitarako. Idealismo aldeak txarrak soilik uzten dio batasun horri bazter batean kontzientzia gisa agertzen, eta horren aurrean *berbaitan* bat. - Baina kategoria horrek edo autokontzientziaren eta izatearen batasun *sinpleak* bere baitan dauka *bereizketa*; izan ere, bere zerizana haxe da, *beste-izatean* edo *bereizketa* absolutuan bitartegabe bere buruaren berdin izatea. Beraz, *bereizketa* bada; baina erabat nabarmena da, eta aldi berean *bereizketa*-rik ez den *bereizketa* gisa da. Kategorien *askotasun* gisa agertzen da. Idealismoak autokontzientziaren *batasun sinplea* errealitate oro gisa adierazten duen heinean eta hori *bitartegabe* absolutuki negatiboa den zerizan gisa aditu gabe (honek baino ez du negazioa, determinatutasunak edo *bereizketak* bere baitan) zerizan bihurtzen duen heinean, orduan adigaitzagoa da lehenengoa baino bigarren hori, kategorian *bereizketak* edo *espezieak* daudela. Ziurtapen hori oro har eta espezie horien *kopuru jakin* baten ziurtapena ziurtapen berri bat da, baina bere baitan barnebiltzen duena ez dela hartu behar gehiago ziurtapen gisa. Izan ere, nia hutsean, adimen hutsean *bereizketa* hasten den heinean, honela ezartzen da hor *bitartegabekotasuna*, *ziurtatzea* eta *aurkitzea* baztertzen direla, eta *aditzea* hasten dela. Baina kategorien askotasuna eraren batean aurkikuntza gisa onartzea, adibidez, judizioetatik jasotzen dena, eta haiek horrela hartu beharra, egitatean jakintzaren laido gisa ikusi behar da; non erakutsi ahal izango luke adimenak beharrezkoatasun bat, hark hori bere baitan, beharrezkoatasun hutsean, ezin badu egin.

Gauzen *zerizantasun* hutsa arrazoimenari dagokionez, horien *bereizketa* bezala, orduan benetan ezingo litzateke gehiago *gauzez* hitz

egin oro har, hau da, kontzientziarentzat norberaren negatiboa baino ez litzatekeen halako zerbaitez. Izan ere, kategoria ugariak kategoria hutsaren *espezieak* izateak esan nahi du hura hauen *generoari* edo *zeri-zanari* aurkakotzen zaiola, ez haiei zuzenean. Baina haiek adiera bi dituzte, euren *askotasunaren* baitan aldi berean beste-izatea dute kategoria hutsaren *aurrean*. Kategoria haiek hura kontraesaten dute egitatean askotasun horren bidez, eta horrek batasun hutsa bere baitan gainditu behar du, eta horren bidez bereizketen *batasun negatibo* gisa eratzten da. Baina batasun *negatibo* bezala, hark *bereizketak* euren horretan eta *bitartegabeko* batasun huts hori bere horretan baztertzen ditu bere baitatik, eta *banakotasun* da, kategoria berri bat, kontzientzia baztertzaila dena, hau da, bere baitarako *beste bat* dena. Banakotasuna bere adigaitik *kanpoko* errealitatera doan igarobidea da; *eskema* hutsa da, kontzientzia eta, aldi berean, banakotasun eta Bata baztertzaila denez, beste bat adieraztea dena. Baina kategoria horren *Beste* hori *beste lehen kategoriak* baino ez dira, hots, *zerizantasun hutsa* eta *bereizketa hutsa*; eta hartan, hau da, bestearen ezarria-izatean edo beste horretan bertan kontzientzia era berean hori bera da. Une ezberdin horietako bakoitza beste bati lotzen zaio; baina aldi berean haietan ez da sortzen beste-izaterik. Kategoria hutsak *espezieei* egiten die erreferentzia, zeinak kategoria negatibo edo banakotasun izatera igarotzen diren; azken horrek, ordea, lehen haiei egiten die erreferentzia; hori bera kontzientzia hutsa da, zeinak bakoitzean bere buruaren berdin den batasun argi hori izaten dirauen; batasun hori, ordea, beste baten menpe dago, zeina, den heinean, desagertzen den, eta desagertzen den heinean, berriro ere sortzen den.

Hemen kontzientzia hutsa era bikoitz batean ezarria ikusten dugu, behin *joan-etorri* bihurri gisa, bere une guztiak zeharkatzen dituen, eta horietan beste-izatea irudikatzen da, gero ulertzean gainditzten dena; beste behin, aldiz, bere *egiaren* jakitun den batasun *lasai* gisa. Batasun horrentzat higidura hura *bestea* da; higidura horrentzat, baina, batasun lasai hura da beste-izatea; eta kontzientzia eta objektua aldatzen doaz elkarren arteko determinazio horietan. Kontzientzia, beraz, behin joan-etorri dabilen bilatzea da, eta bere objektua *berbaitan* eta zerizan *hutsa*; beste behin hura kategoria sinplea da, eta objektua bereizketen higidura. Kontzientzia, ordea, zerizan gisa ibilera hori osoa da, kategoria sinple gisa bere baitatik abiatu eta banakotasunera eta

objektura doana, eta horren baitan ibilera hori begiesten duena, hori ezberdin gisa gainditzen duena eta *bereganatzen* duena, eta bere burua errealtate oro, norbera nahiz bere objektua, izateko ziurtasun hori gisa adierazten duena.

Bere lehen adierazte-ekintza hitz hutsal abstraktu hori baino ez da, dena *izatea* dela. Izan ere, errealtate oro izateko ziurtasuna lehenik kategorioa hutsa da. Bere burua objektuan berrezagutzen duen lehen arrazoimen horrek idealismo hutsala adierazten du, zeinak arrazoimena hasiera batean berez den bezala soilik ulertzen duen, eta izate orotan kontzientziaren *Nire* huts hori erakusten duelako eta gauzak sentsazio edo errepresentazio gisa adierazten dituelako, hura errealtate osatu gisa erakutsi izana iruditzen zaio. Horregatik, aldi berean enpirismo absolutua izan behar du; izan ere, *Nire* hutsalaren *beteketarako*, hau da, bereizketarako eta bere garapen eta tankeratze orotarako bere arrazoimenak kanpoko bultzada behar du, eta horretan soilik datza sentitzearen eta errepresentatzearen *aniztasuna*. Idealismo horrek, beraz, eszeptizismoak duen zentzu-bikoiztasun bera du, bere burua kontraesaten duena; baina hau negatiboki adierazten bada, hura positiboki adierazten da, baina hala ere ez ditu elkartzen era berean kontzientzia hutsaren pentsamendu kontraesankorrak errealtate oro gisa edo kanpoko bultzadarena edo sentipenezko sentitzea eta errepresentatzearena errealtate berdin gisa, baizik eta batetik bestera joan eta etorri dabil, eta muga-gabetasun txarrean, hots, sentipenezkoan erori da. Arrazoimena *Nire* abstraktuaren esanahian den heinean horri errealtate oro eta *bestea axolagabe* zaion *arrotza* bazaio, orduan hor arrazoimenak besteaz duen jakitea ezartzen da, zeina *irizte*, *hautemate* eta irizten dena eta hautematen dena jasotzen duen *adimen* gisa azaldu zen. Halako jakitea, hots, egiazko jakitea ez izatea, aldi berean idealismo horren adigaiaren bidez baieztatzen da; izan ere, apertzepzioaren batasuna soilik da jakitearen egia. Idealismo horren arrazoimen hutsa, horrentzat *zerizanezkoa* den, hau da, *berbaitan* den baina bere barnean ez duen *beste* hartara iristeko, bere buruak bultzatzen du egia-denaren jakitea ez den jakite hartaraino; horrela, bere burua kondentatzen du jakinaren gainean eta nahita egiazkoa ez den jakitera, eta ezin du horrentzat egiarik ez duten iriztetik eta hautematetik aldendu. Bitartegabeko kontraesanean aurkitzen da, hots, zerizan gisa orobat aurkakotu-den bikoitz bat baieztatzen du, *apertzepzioaren batasuna* eta gainera gauza, bere adigaiaren batasun

harentzat arrotz dirauena, *kanpoko bultzada* edo zerizan *enpiriko* edo *sentipen* edo *berbaitango gauza* deitu diogun arren.

Idealismoa kontraesan horretan dago, arrazoimenaren *adigai abstraktua* egia-dena gisa baieztatzen duelako; horregatik, bitartegabe era berean errealitatea sortzen zaio arrazoimenaren errealitatea ez den aldetik, arrazoimenak aldi berean errealitate oro izan behar duenean; hark bilatze arduratsua izaten jarraitzen du, zeinak bilatzean aurkitzearen asebetetzea guztiz ezinezkotzat jotzen duen. - Baina benetako arrazoimena ez da hain inkontsekuentea; baizik eta errealitate oro izateko *ziurtasuna* izanik hasieran, *adigai* horretan jabetzen da honetaz, hots, *ziurtasun* gisa, *ni* gisa ez dela oraindik egiatan errealitatea, eta bultzatzen zaio bere ziurtasuna egia bihurtzera eta Nire *hutsa* betetzera.

A. Arrazoimen behatzailea

Kontzientzia hori, zeinarentzat *izateak berea-denaren* esanahia duen³, berriz topatzen dugu iriztean eta hautematean, baina ez *bestea* baino ez denaren ziurtasunean, baizik eta beste hori izateko ziurtasunarekin batera. Lehenago *gertatu* egin zaio besterik gabe gauzan zenbait alderdi hautematea eta *esperientziatzea*; hemen bera da behaketak eta esperientzia egiten dituen. Iriztea eta hautematea, guretzat lehenago berez gainditu zena, orain kontzientziak beretzat gainditzen du; arrazoimena egia *jakiten* saiatzen da; iriztearentzat eta hautematearentzat gauza dena *adigai* gisa aurkitzea, hau da, gauzatasunean haien beraien kontzientzia baino ez izatea. Arrazoimenak, beraz, *interes* orokorra du orain munduan, hura hartan hor izateko edo hor izatearen arrazoizkotasunaren ziurtasuna delako. Bere Bestea bilatzen du, jakinaren gainean horrela bere burua baino ez duela eskuratuko; bere mugagabetasun propioa baino ez du bilatzen.

Hasiera batean errealitatea soilik nabarituz, edo errealitatea oro har *berea* dena bezala jakinez, zentzu horretan aurrera egiten du ziurtatu zaion jabego orokorra hartu arte, eta edonon, goian eta hondoan, bere subiranotasunaren zeinua ezartzen du. Baina azaleko Nire hori ez da bere azken interesa; jabego orokorraren hartze horren pozak bere jabe-

goan oraindik beste arrotza aurkitzen du, arrazoimen abstraktuak bere baitan ez duena. Arrazoimenak bere burua sumatzen du zerizan sako-nago gisa, Ni hutsa *badelako* eta sustatu egin behar duelako bereizketa, *izate anitza*, berarentzat bere-berea bihurtzea, hark bere burua *erreali-tate* gisa begiestea eta bere burua tankera eta gauza gisa hor aurrean aurkitzea. Baina arrazoimenak gauzen barren guztiak nahasten baditu eta haien zain guztiak irekitzen baditu, horietatik jauzi egiten duela, orduan ez du lortuko zorion hori, baizik eta aurretik bere baitan osatu behar da, ondoren bere osaketaren esperientzia egin ahal izateko.

Kontzientziak *behatu* egiten du, hau da, arrazoimenak bere burua baden objektu gisa, modu *errealean*, *sentsuek hor aurren* duten moduan aurkitu nahi du, eta eduki ere bai. Behatze horren kontzien-tziak irizten du eta esaten du, bai, berak ez zuela bere buruaren espe-rientzia egin nahi, baizik eta alderantziz *gauzaren zerizanaarena gauza -rena den aldetik*. Kontzientzia horrek hori iriztea eta esatea hemendik dator: arrazoimena dela, baina arrazoimena ez zaiola oraindik objektu arrazoimen gisa. *Arrazoimena* gauzen eta bere buruaren zerizan berbe-ra gisa jakingo balu, eta hura kontzientzian soilik izan daitekeela hor bere tankera propioan, orduan bere sakontasunean murgilduko litzate-ke eta bertan bilatuko luke, eta ez gauzetan. Hark hura horretan aurki-tu balu, handik kanpora erreallitatera bidalia izango litzateke, horretan haren sentipenezko adierazpena begiesteko, baina hura aldi berean fun-tsean *adigai* gisa hartzeko. Arrazoimenak, *bitartegabe* erreallitate oro izateko kontzientziaren ziurtasun gisa agertzen denean, bere erreallita-tea *izatearen bitartegabekotasunaren* zentzuan hartzen du, eta era bere-an niak zerizan objektibo horrekin duen batasuna *batasun bitartegabe-ko* baten zentzuan, non hark izatearen eta niaren uneak ez dituen eza-gutzen oraindik bananduta eta berriro bateratuta, edo ez dituen oraindik ezagutu. Beraz, kontzientzia behatzaile gisa doa gauzen bila, eta bere iritziz gauzak niari aurkakotzen zaizkion sentipenezko gauza gisa har-tzen ditu egiatan; hala ere, haren egite errealak iritzi hori kontraesaten du; izan ere, gauzak *ezagutzen* ditu, haien sentipena *adigaietan* eralda-tzen du, hau da, aldi berean ni den izate batean, eta horrenbestez, pen-tsatzea baden pentsatzean, edo izatea pentsatutako izatean eraldatzen du, eta egitatean baieztatzen du *gauzak* adigai gisa soilik dutela egia. Horrela, kontzientzia behatzaile horrentzat hor gauzak direna baino ez du izango; guretzat, ordea, *hori bera* dena; bere higiduraren emaitza,

ordea, hauxe izango da, alegia, bere baitan dena bihurtzea bere baitarako.

Arrazoimen behatzailearen *egitea* bere higiduraren uneetan aztertu behar da, nola jasotzen dituen natura, gogoia eta, azkenik, bien harremana sentipenezko izate gisa, eta nola bilatzen duen bere burua baden errealitate gisa.

a. NATURAREN BEHAKETA

Pentsamendurik gabeko kontzientziak behatzea eta esperientziak egitea egiaren iturri gisa adierazten baditu, haren hitzen itxura izan zitekeen gustatzeaz, usaitzeaz, sentitzeaz, entzuteaz eta ikusteaz baino ez dela arduratzen; gustatzea, usaitzea, eta abar aholkatzean duen kemenean ahaztu egiten du esatea ezen, egitatean sentitze horren objektua era berean dagoeneko funtsean determinatua izan dela eta determinazio horrek beretzat sentitze hark bezainbat balio duela gutxienez. Gainera, berehala aitortuko du bere kasuan oro har kontua ez dela hautematea soilik, eta adibidez aiztoa tabako-kutxaren ondoan egotearen hautemapena ezin dela behaketa gisa onartu. Hautemana-denak gutxienez *orokor-denaren* esanahia izan beharko luke, ez *sentipenezko* *Hau* baten esanahia.

Orokor-den hori lehen une batean bere buruarekiko *berdin irau - ten duena* da; bere higidura egitearen beraren era bereko itzultzea baino ez. Kontzientziak, objektuan *orokortasuna* soilik edo *Nire abstraktua* aurkitzen duen heinean, haren benetako higidura bere gain hartu behar du; oraindik haren adimena ez den heinean, gutxienez haren oroimena izan behar du, zeinak errealitatean banako eran dagoena era orokorrean adierazten duen. Banakotasunetik azalezko irtetze hori, eta era berean azalezkoa den orokortasunaren forma, sentipenezko-dena jaso besterik egiten ez duena, bere baitan orokor-dena bihurtu gabe, gauzen *deskribatzeak* ez du higidurarik oraindik objektuan bertan; deskribatze ekintzan soilik da. Objektuak, deskribatua izan den eran, interesa galdu du; bata deskribatu bada, beste batek egin behar du hori, eta hori beti bilatu behar da deskribatzea bertan behera ez geratzeko. Ez bada hain erraza aurrerantzean *benetako* gauza berriak aurkitzea, orduan dagoeneko aurkitu direnetara itzuli behar da, haiek gehiago zatitu, banatu eta gauzatasunaren alderdi berriak arakatu haietan oraindik ere. Sen bihu-

rri, nekaezin horri ezin zaio inoiz ekaia falta; genero bikain berri bat aurkitzea, edo planeta berri bat aurkitzea, indibidua izan arren orokor-denaren izaera duena, zorionezkoei soilik egokituko zaie. Baina elefantea, haritza, urrea *bereizten* dituen muga, *generoaren* eta *espeziearen* arteko muga, maila askotatik igarotzen da abere eta landare kaotikoen, mendikate moten edo bortxa eta teknikaren bidez soilik agerrarazi daitezkeen metal, lur eta abarren *banaketa* amaigabea. Orokor-denaren determinatutasun-ezaren erresuma horretan, non banaketa berriro *banakotzeari* hurbiltzen zaion, eta bertan hondoratzen den hemen eta han berriro, behatzeko eta deskribatzeko hornidura agortezina sortzen da. Hemen, ordea, eremu izugarri bat irekitzen zaion honetan, orokor-denaren muga, aberastasun neurtezin baten ordeztaturaren eta bere egite propioaren mugapena soilik aurkitu ahal izan du; ezin du jakin aurrerantzean ea itxuraz bere baitan izatea dena ez ote den ausazkotatutasun bat; itxura nahastu edo heldugabearen, itxura ahul eta oinarritzko determinatutasun-eza apenas garatzen duenaren aztarna duenak ezin du deskribatua baino ez izateko uzia izan.

Bilatze eta deskribatze horrek gauzekin baino ez duela zer ikusia dirudien arren, egitatean ikusten dugu *sentipenezko hautematean* ez duela jarraitzen, baizik eta gauzak *ezagutaraztea* ahalbidetzen duena garrantzitsuagoa zaiola sentipenezko ezaugarrien gainerako zabalera baino, eta gauzak berak horiek alde batera utzi ezin baditu ere, kontzientziak bai baztertzen dituela. *Zerizanezko-dena* eta *ez denaren* arteko bereizkuntza horren bidez adigaia sentipenezko sakabanatzetik irte-ten da, eta ezagutzeak adierazten du hor *bere burua* gutxienez gauzak berak bezain garrantzitsua zaiola. Zerizanezkotasun bikoitz horretan kulunkan garatzen da ea *ezagutzarentzat* zerizanezkoa eta beharrezkoa dena gainera gauzetan ere horrela den. Alde batetik, *ezaugarriek* eza-*gutzarentzat* soilik balio behar dute eta horren bidez hark gauzak elkar-*rengandik* bereizten ditu; baina, bestalde, gauzen zerizan eza ez da ezagutu behar dena, baizik eta haiek izatearen jarraitasun orokorretik *ateratzen* dituen, bestetik *aldentzen* dituen eta *euren baitarako* bihurtzen dituen. Ezaugarriek ezagutzarekin zerizanezko harremana izate-az gain, gauzen determinatutasun zerizanezkoek eta sistema artifizialak naturaren sistemaren arabera izan behar dute, eta hori soilik adierazi behar dute. Hori beharrezkoa gertatzen da arrazoimenaren adigaitik abiatuta, eta horren senak (izan ere, halakotzat jotzen du behatze

horretan) bere sistemetan ere batasun hori lortu du, non bere objektuak halako moldez eratuak dauden, non horiek zerizanezkotasun bat edo *berbaitarako izate* bat baitute euren baitan, eta ez baitira *une* horren edo *Hemen* horren ausazkotasuna soilik. Abereen bereizgarritasun-ezaugarriak, adibidez, atzaparretatik eta hortzetatik hartzen dira; izan ere, egitatean ezagutzeak horien bidez abere bat bestetik *ezberdindu* ez ezik, gainera, aberea bera *aldentzen* da hartatik; arma horien bidez *bere bai-tarako* mantentzen da eta orokor-denetik banantzen da. Landarea, aitzitik, ez da iristen *berbaitarako izatera*, baizik eta indibidualtasunaren muga ukitu besterik ez du egiten; muga horretan, non generoen *bikoiz-tasunaren* itxura agertzen den, landareak jaso eta bereizten dira. Baina beheko mailan dagoenak ezin du bere burua bestetatik bereiztu, baizik eta galdu egiten da, aurkakotzan erortzen den heinean. *Izate lasaia* eta *harremanak dituen izatea* gatazkan daude, gauza azken horretan ez da guztiz haren arabera dena, eta, aitzitik, indibiduoa hau da, besteekin harremanean mantentzen dena. Baina hori egiteko gai ez denak, eta *kimikaren bidez enpirikoki* dena ez beste gauza bihurtzen bada, ezagutzea nahasten du eta gatazka berean sartzen du, ea alderdi bata edo bestearen alde egin behar duen, gauza bera berdin geratzen den zerbait ez denez eta bi alderdiak gauzan aldentzen direnez.

Norbere buruarekiko berdin iraute orokorraren sistema halakoe-tan, beraz, horrek esanahi hau du: ezagutzaren eta gauzen euren burua-rekiko berdin irautea izatea. Baina *berdin izaten dirauten determinatu-tasunen* zabalpen hori, horietako bakoitzak lasai bere aurrerapenaren ilara deskribatzen duela eta espazioa jasotzen duela bere kabuz jokatze-ko, era berean bere aurkako izatera aldatzen da zerizanez, determinatutasun horien nahasketara; izan ere, ezaugarria, determinatutasun orokorra, aurkakotu-denaren, determinatu-denaren eta bere baitan orokor-denaren arteko batasuna da; aurkakotza horretan, beraz, alden- du behar du. Determinatutasuna, beraz, bere zerizanaren egoitza den orokor-denari alde batetik gailentzen bazaio, bestalde horrek era berean haren gaineko nagusigoa jasotzen du, determinatutatasuna bere mugaraino bultzatzen du, eta han haren bereizketak eta zerizanezkotasunak nahasten ditu. Behatzeko ekintzak, haiek egokiro aldentzen zituenak eta haietan zerbait egonkorra izatea uste zuenak, ikusten du printzipio bati besteak gainera datozkiola, igarobideak eta nahasketak eratzen direla, eta bertan lotuta ikusten du hasiera batean erabat banandutzat

jotzen zuena, eta bananduta lotuta zegoela uste zuena; eta ondorioz, izate lasai beti berbera dirauenari irmo euste hori bere determinazioa orokorrenetan, hau da, abereak, landareak dituzten zerizanezko ezaugarrietan, oinazeak jasaten ikusi behar du, hari edozein determinazio lapurtzen dioten, lortu zuen orokortasuna isilarazten duten eta pentsamendu gabeko behatze eta deskribatzera murrizten duten oinazeak.

Simple-denera murrizten den edo sentipenezko sakabanatzea orokor-denaren bitartez murrizten duen behatze horrek, beraz, bere objektuan bere *printzipioaren nahasketa* bilatzen du, zeren determinatu-dena bere izaeraren bitartez bere aurkakoa galtzen baita; arrazoimenak, horregatik, determinatutasun *inertetik*, berdin irautearen itxura zuenetik, bere burua egiatan den bezala behatzerantz aurrera egin behar du, hots, bere *aurkakoarekiko harremanerantz*. Zerizanezko ezaugarriak deitzen direnak *lasai* dauden determinatutasunak dira, horrela *sinple* gisa adierazten eta ulertzen diren heinean, euren izaera osatzen duena aurkezten ez dutenak, hots, bere baitara itzultzen den higiduraren *une* desagerkorrek izatea. Orain arrazoimenaren sena hasten den heinean bilatzen bere izaeraren determinatutasunaren arabera, hau da, zerizanez bere baitarako ez izatea, baizik eta aurkakotu denera igarotzea, orduan hark bere *legea* eta *adigaia* bilatzen ditu; horiek *baden* errealitate gisa bilatzen ditu, bai, baina hori egitatean desagertu egingo zaio eta legearen aldeak *une* huts edo abstrakzio bihurtuko zaizkio, horrela legea adigaiaren izaeran agertuz, zeinak sentipenezko errealitatearen iraute axolagabea bere baitan indargabetu duen.

Kontzientzia behatzaileari *legearen egia esperientzian sentipenezko izatea* bere baitarako den bezala zaio; ez bere baitan eta bere baitarako. Baina legeak bere egia adigaian ez duenean, orduan ausazko zerbait da, ez beharrezkotasun bat, edo egitatean ez da lege bat. Baina zerizanez adigai gisa izateak behatze-ekintzarentzat hor aurrean dagoela ez kontraesateaz gain, horrexegatik izate beharrezkoa du eta behatze-ekintzarentzat da. Orokor-dena, *arrazoimen-orokortasunaren zentzuan*, gainera orokorra da zentzu honetan: hark bere baitan duela bera kontzientziarentzat hor aurrean dagoena eta erreala dena gisa aurkezten dela edo adigaia gauzatasunaren moduan eta sentipenezko izatearen moduan aurkezten dela; baina horregatik euren izaera galdu gabe eta iraute inertean edo hurrenkera axolagabean erori gabe. Orokorki baliagarri denak orokorki balio du gainera; izan *behar dena* egitatean *bada*,

eta izan *beharko lukeenak*, izan gabe, ez du egiairik. Hor arrazoimenaren senak bere aldetik irmo dirau arrazoi osoz, eta ez da uzten besterik gabe izan *beharko luketen* pentsamenduko gauzen aldetik eta *behar* gisa egia izan behar luketenen aldetik nahasten, nahiz eta ezein esperientziatan agertzen ez diren; eta beti irauten duen behar baten hipotesien aldetik beste ikusezinezkotasunen aldetik bezain gutxi; izan ere, arrazoimena errealtatea izateko ziurtasun horixe baita, eta kontzientziarentzat norbere-zerizan ez dena, hau da, agertzen ez dena, ez da ezer harentzat.

Behatzean geratzen den kontzientziarentzat legearen egia zerizanez *errealtatea* izatea berriro ere adigaiaren *aurkako* bihurtzen da eta bere baitan orokor-denaren *aurkako*, edo bere legea den halakoa ez da harentzat arrazoimenaren zerizan bat; hor *arrotza* den zerbait jasotzen dela deritzo. Baina bere iritzi hori errefusatzen da ekintza batean, hots, hark bere orokortasuna ez duela hartzen sentipenezko gauza *bakan* denak berari legearen agerpena azaldu behar ziotelako, haren egia baieztatu ahal izateko. Harriak lurretik altxatzean eta aske uztean erortzen direla, horretarako ez da beharrezkoa harri guztiekin saio hori egitea; esaten da, bai, agian hori gutxienez askorekin saiatu behar dela, hortik gero geratzen direnen kasuan inferitzeko egiantzekotasun handinez edo eskubide osoz *analogiaren arabera*. Baina analogiak ez du ematen eskubide osorik eta, gainera, bere burua errefusatzen du bere izaeraren arabera hain sarri, non analogiaren arabera inferitzea analogiak baimentzen ez duen ondorioa baita. Horren emaitza *egiantzekotasuna* baino ez litzateke izango, eta horrek *egiaren* aurrean egiantzekotasun txikiago edo handiagoaren arteko bereizketa galtzen du; nahi duen bezain handia izan daiteke, baina ez da ezer egiaren ondoan. Arrazoimenaren senak, ordea, egitatean halako legeak *egiatzat* hartzen ditu, eta haren beharrezkotasunari lotuta soilik, hark ezagutzen ez duenari, topo egiten du bereizketa horrekin, eta gauzaren egia bera egiantzekotasunera beheititzen du, egia adigai hutsaren ulermena oraindik lortu ez duen kontzientziarentzat hor aurrean dagoen modu ez-osatua izendatzeko; izan ere, orokortasuna *bitartegabeko* orokortasun *sinple* gisa soilik dago hor aurrean. Baina aldi berean harengatik du legeak egia kontzientziarentzat; harria erortzen dela egia da horrentzat harria *pisua* delako horrentzat, hau da, pisan *bere baitan eta bere baitarako lurra- rekin* zerizanezko harremana duelako, erorketa gisa adierazten dena.

Esperientzian, gainera, legearen izatea dauka, baina era berean hura adigai gisa dauka eta *bi egoera horiek* aldi berean dituelako da egia beretzat; horregatik, lege gisa balio du, agerpenean aurkezten delako eta aldi berean bere baitan adigai delako.

Kontzientzia horren arrazoimen-senak, legea aldi berean *bere baitan adigai* delako, halabeharrez baina hori nahi duela oharkabe, legea eta bere uneak *arazten* ditu *adigai bihurtuz*. Legeari buruzko saiakerak egiten ditu. Legea, lehen unean agertzen den eran, nahastuta aurkezten da, sentipenezko izate banakoez inguratuta, adigaia, bere izaera osatzen duena, ekai enpirikoan hondatuta. Bere saiakeretan arrazoimen-sena egoera hauetan eta haietan gertatzen dena bilatzen ahalegintzen da. Badirudi legea horren bidez are gehiago hondoratzen dela sentipenezko izatean; baina hori horrela galdu egiten da. Ikerketa horrek barne esanahia dauka: legearen *baldintza hutsak* aurkitzea; eta horrek ez du hau besterik esan nahi, horrela adierazten den kontzientziak iritziko balu ere besterik dioela, alegia, legea osorik adigaiaren tankerara igotzea eta *bere unek izate determinatuarekin* duten lotura oro *deuseztatzea*. Elektrizitate negatiboak, adibidez, hasiera batean *ileen* elektrizitate gisa iragartzen denak positiboa *beiraren* elektrizitate gisa iragartzen den modu berean, saiakeren bitartez esanahi hori galtzen du osorik eta huts-hutsean elektrizitate *positibo* eta *negatibo* bihurtzen da, eta horietako bakoitza ez dagokio gehiago gauza mota berezi bati; eta ezin da gehiago esan gorputz batzuk badaudela positiboki elektrikoak direnak eta besteak negatiboki elektrikoak direnak. Horrela, azidoaren eta basearen arteko erlazioak eta euren arteko higidurarenak lege bat osatzen du, non aurkakotza horiek gorputz gisa agertzen diren. Baina gauza bakartu horiek ez dute errealitaterik; haiek banantzen dituen botereak ezin du eragotzi haiek berehala berriro prozesu batean sartzea; izan ere, harreman hori baino ez dira. Ezin dute euren baitarako iraun hortz bat edo atzamar bat bezala, eta horrela erakutsi. Horien zerizana bitartegabe produktu neutral batera igarotzea *izateak* bere baitan gainditua dagoen izate edo orokorra den izatea bihurtzen du horien izatea, eta azidoak eta baseak *orokor-diren* gisa baino ez daukate egia. Beira nahiz erretxina positiboki nahiz negatiboki elektrikoak izan daitezkeenez, azidoa eta basea ez zaizkio lotzen *errealitate* hari edo besteari ezaugarri gisa, baizik eta gauza bakoitza *erlatiboki* baino ez da azidoa edo basea; erabat base

edo azido izateko itxurak dituenak sinsomatiak deitzen zaienetan aurkako esanahia jasotzen dute beste batentzat. - Saiakeren emaitzak era horretara uneak edo bizitze-ekintzak gainditzen ditu gauza determinatuen ezaugarri gisa, eta predikatuak askatzen ditu subjektuetatik. Predikatu horiek, egiatan diren moduan, orokor gisa baino ez dira aurkitzen; eta beregaintasun horregatik, beraz, *materia* izena jasotzen dute, ez gorputzak ez ezaugarriak direnak, eta ezin zaie inolaz ere oxigenoari eta abarri, elektrizitate positiboari eta negatiboari, beroari eta abarri gorputz deitu.

Materia, aitzitik, ez da *baden gauza* bat, baizik eta izatea *orokor* gisa edo adigaiaren moduan. Oraindik sena den arrazoimenak bereizketa zuzen hori egiten du honetaz jabetu gabe, hots, legea saiatzan badu sentipenezko izate orotan, horrela hain zuzen sentipenezkoa baino ez den izatea gainditzen duela, eta bere uneak *materia* gisa atzematen dituela, bere zerizantasuna orokor-dena bihurtu zaiola eta adierazpen horretan sentipenezko-den sentipengabe gisa edo izate soingabe eta hala ere objektibo gisa adierazten dela.

Orain ikusi behar da zein norantza hartzen duen harentzat bere emaitzak eta bere behatze-ekintzaren zein tankera berri agertzen den. Kontzientzia saiakor horren egia gisa lege hutsa hartzen dugu, sentipenezko izatetik askatzen dena; *adigai* gisa ikusten dugu, sentipenezko izatean dagoena baina horretan beregain eta loturarik gabe higitzen dena, hartan hondoratuta hartatik aske eta adigai *sinple* dena. Egiatan *emaitza* eta *zerizan* den horretan kontzientzia horri norbera agertzen zaio, baina *objektu* gisa, eta gainera harentzat hain zuzen *emaitza* ez den heinean eta aurreko higidurarekin harremanik izan gabe den heinean, objektu *mota berezi* gisa agertzen da, eta horrekin duen erlazioa beste behatze-ekintza bat bezala.

Adigaiaren *sinpletasunean* prozesua bere baitan daukan objektua *organiko-dena* da. Jariakortasun absolutu hori da, non *beste baten -tzat* soilik izatea eragingo lukeen determinatutasuna desagitzen den. Gauza ez-organikoak zerizan gisa determinatutasuna du, eta, horregatik, adigaiaren uneen betetasuna beste gauza batekin batera osatzen du, eta beraz, higitzen hastean galtzen da; zerizan organikoan, aitzitik, besteentzat irekia izatea eragiten duten determinatutasun guztiak lotuta daude batasun organiko sinplearen menpe; beste bati askeki lotuko

litzaiokeenik ez da agertzen zerizanezko gisa; eta organiko-dena, beraz, bere harremanean mantentzen da.

Hemen arrazoimenaren senak behatu nahi dituen *legearen alde - ak*, determinazio horretatik ondorioztatzen denez, hasiera batean natura *organikoa* eta *ez-organikoa* dira euren arteko harremanean. Azken hori natura organikoarentzat bere determinatutasun *askatu*en askatasuna da, horren *adigai sinpleari* aurkakotzen zaiona, eta horietan *batetik* banako natura *desagertzen* da eta *bestetik* haren jarraitasunetik bakar-tzen da ete *bere baitarako* da. Airea, ura, lurra, eskualdeak eta klima dira halako osagai orokorrak, indibidualtasunaren zerizan sinple deter-minatugabea osatzen dutenak, eta hor horiek euren baitara islatuta dira. Indibidualtasuna ez da berbaitan eta berbaitarako, ezta osagai-dena ere, baizik eta askatasun beregainean, non horiek behaketarentzat elkarren aurrean agertzen diren, eta aldi berean *zerizanezko harreman* gisa joka-tzen dute, baina halako moldez non beregaintasuna eta euren arteko axolagabetasuna nagusitzen baitira, eta hori aldez baino ez da igarotzen abstrakziora. Hor, beraz, legea aurrean dago osagai batek organiko-denaren eraketarekin duen harreman gisa, zeinak osagai izaera gainean bere aurka duen batetik eta bestetik bere hausnarketa organikoan aur-kezten duen. Baina halako *legeek*, hots, aireari egokitzen zaizkion ani-maliak txorien eraketa dutela, urari egokitzen zaizkionak arrainen era-keta dutela, eta abar, berehala txirotasuna erakusten dute, askotarikota-sun organikoari egokitzen ez zaiona. Askatasun organikoak determina-zio horiei euren forma nola kendu jakitea, eta halabeharrez lege edo erregela halakoen, nahi duzuen bezala deitu, salbuespenak eskaintzea alde batera utziz, hori lege horien menpe daudenen hain azaleko deter-minazioa da, non horren beharrezkotasunaren adierazpenak ere ezin baitu besterik izan, eta ez baitu *eragin handiaz* gain beste ezer sortzen; eta hor ez dakigu zer dagokion eragin horri eta zer ez. Organiko-denak osagai-denarekin dituen harreman horiei, beraz, ez zaie *lege* deitu behar egitatean, alde batetik gogora ekarri dugun moduan halako harremanak bere edukiaren arabera ez dutelako agortzen inolaz ere organiko-dena-ren hedadura, eta bestalde harremanaren uneak elkarri axolagabe izaten dirautelako, eta ez dutelako ezein beharrezkotasunik adierazten. Azi-doaren *adigaian* basearena datza, elektrizitate positiboarenean negati-boa datzan bezala; baina nahiz eta azal iletsua iparraldeari *lotu*, edo arrainen egitura urari, txorien egitura aireari, iparraldearen adigaian ez

datza iletsu izatearen adigaia, itsasoren adigaian ez dago arrainen egiturarena, airearen adigaian ez dago txorien egiturarena. Bi alderdiek elkarrekiko duten askatasun horregatik lurreko animaliak ere *badaude*, txori baten, arrainen eta abarren zerizanezko ezaugarriak dituztenak. Beharrezkotasunak, zerizanaren barne beharrezkotasun gisa pentsatu ezin denez, utzi egiten dio sentipenezko hor-izate izateari, eta ezin da gehiago errealtatean behatu, baizik eta horretatik *irten* da. Horrela, zerizan errealean ez dagoenez, harreman teleologikoa deitzen dena da, harremanean lotzen denari *kanpoko*a zaion harremana, eta beraz, lege baten aurkakoa dena. Beharrezko naturatik guztiz askatu den pentsamendua da, hura uzten duena, eta haren gainean bere kabuz higitzen dena.

Organiko-denaren eta osagaiaren izaera duenaren arteko lehenago aipatu dugun harremanak horren zerizana adierazten ez badu ere, bestalde *xedearen adigaian* jasotzen da. Kontzientzia behatzaile horrentzat, noski, ez da organiko-denaren *zerizan* propioa, baizik eta hartatik at kokatzen da, eta orduan kanpoko harreman *teleologiko* hura da. Baina lehenago organiko-dena determinatu zen moduan, egitatean, xede erreala da; izan ere, beste batekin harremanean *bere burua mantentzen duen* heinean berezko zerizan hura da, non natura adigaian islatzen den eta kausa baten eta ondorio baten, ekile baten eta jasaile baten beharrezkotasunean sakabanatutako uneak batean elkar hartzen dituen; halako moldez non hemen zerbait ez baita agertzen beharrezkotasunaren *emaitza* gisa; baizik eta, bere baitara itzuli denez, azkena dena edo emaitza era berean *lehena* da, higidura abiarazten duena, eta hori hark egikaritzen duen *xedea*. Organiko-denak ez du zerbait sortzen, baizik eta *bere burua mantentzen du*, edo sortzen den hori dagoeneko hor dago sortua denean.

Determinazio hori, bere baitan den moduan eta arrazoimenaren senarentzat den moduan, zehazkiago arakatu behar da, ikusteko azken hori nola aurkitzen den hor, bere aurkikuntzan bere burua ezagutu gabe. Xedearen adigaia, beraz, arrazoimen behatzailea maila horretara iristen denez *adigai horretaz jabetuz*, era berean *erreal-dena* bezala dago hor aurrean; eta ez da haren *kanpoko harremana*, baizik eta haren *zerizana*. Erreal-den hori, hori bera xede izaki, beste batekin harremanean dago xedearen arabera, eta horrek esan nahi du haren harremana ausazkoa dela, *biak bitartegabe direnaren arabera*; bitartegabe biak beregain

dira, eta elkarri axolagabe. Euren harremanaren zerizana, ordea, izateko itxuraz den hori ez beste zerbait da, eta haren egiteak beste zentzu bat dauka, ez *bitartegabe* hautemate sentipenezkoarentzat daukana; beharrezkotasuna gertatzen den horretan dago ezkutatuta, eta *amaieran* baino ez da azaltzen, baina halako moldez egiten du non amaiera horrek azaltzen baitu lehena ere izan zela. Baina amaierak bere buruaren lehentasun hori honen bidez azaltzen du, hots, egiteak ezarri duen aldaketaren bidez dagoeneko han zegoena besterik ez dela sortu. Edo lehenengotik abiatzen bagara, hori bere amaieran edo bere egitearen emaitzan bere baitara itzultzen da; eta horren bidez erakusten du, hain zuzen, *bere burua* duela bere amaieratzat, eta beraz, lehen bezala dagoeneko itzuli dela, edo *berbaitan eta berbaitarako* dela. Beraz, bere egitearen higiduraren bidez lortzen duena, *norbera* da; eta bere burua besterik ez lortze hori *norberaren sentimendua* da. Horrela, *denaren* eta *bilatzen denaren* arteko bereizketa daukagu, baina hori *bereizketa baten itxura* baino ez da, eta horren bidez hori adigaia da bere baitan.

Era berean eratua dago, ordea, *norberaren kontzientzia*, hots, norberarengatik halako eran bereiztea non hor ez baita bereizketarik sortzen. Horregatik, natura organikoaren behaketan ez du zerizan hori baino aurkitzen, bere burua aurkitzen du gauza gisa, *bizitza baten gisara*, baina bereizketa bat egiten du, benetan bereizketarik ez dena, denaren eta aurkitzen duenaren artean. Animaliaaren senak elikadura bilatu eta jaten duen baina horrela bere burua baino sortzen ez duen bezala, arrazoimenaren senak bere bilaketan bere burua baino ez du aurkitzen. Animaliak amaieran norberaren sentimendua du. Arrazoimenaren sena, aitzitik, aldi berean norberaren kontzientzia da; baina sena baino ez denez, bazter batean kokatzen da kontzientziaren aurrean, eta horretan aurkitzen du bere aurkakoa. Bere asebatea, beraz, horren bidez banatzen da bitan, eta bere burua aurkitzen du, hots, *xedea*, eta era berean xede hori *gauza* gisa. Baina hasiera batean xede gisa aurkeztzen den *gauzaren kanpoan* kokatzen zaio xedea. Xede hori xede den aldetik, bigarrenik, aldi berean *objektiboa* da, eta horregatik ez da kokatzen horren baitan kontzientzia gisa, baizik eta beste adimen batean.

Zehazkiago aztertuz gero, determinazio hori era berean gauzaren adigaian datza, zeinaren arabera hori *bere baitan xede* den. Hain zuzen, *bere burua* mantentzen du; hau da, aldi berean bere izaera beharrezkotasuna ezkutatzea eta *ausazko* harremanaren forman aurkeztea

da; izan ere, haren askatasuna edo *berbaitarako izatea* hauxe baino ez da, hots, bere beharrezko-denaren aurrean axolagabe-dena bezala jokatzeara; horrela adigaia izatetik at kokatzen zaion zerbait bezala aurkezten da. Era berean, arrazoimenak bere adigai propioa bere baitatik at kokatuz eta, beraz, *gauza* gisa begiesteko beharrezkotasuna du, gauza horren aurrean *axolagabe* izanik eta, beraz, gauza arrazoimenaren eta horren adigaiaren aurrean ere axolagabe izanik. Sena den aldetik arrazoimena *izate* horren edo *axolagabetasun* horren barne geratzen da, eta adigaia adierazten duen gauzak adigai hori ez den beste bat izaten dirau harentzat, gauza ez den beste baten adigaia. Horrela, arrazoimenarentzat gauza organikoa honela baino ez da *xedea* bere baitan, hots, bere egitean ezkutatu gisa aurkezten den beharrezkotasuna, egileak hor berbaitarako den axolagabe gisa jokatzeko duen heinean, organiko-denetik at kokatzen baita. - Baina organiko-denak xede gisa bere baitan bestela jokatu ezin duenez, orduan agertzen da eta sentipenaren aurrean dago xede izanik bere baitan, eta horrela behatzen da. Organiko-dena bere burua *mantentzen duen* eta bere baitara *itzultzen den* eta *itzuli denaren* gisara azaltzen da. Baina izate horretan kontzientzia behatzaile horrek ez du xedearen adigaia berrezagutzen, edo xedea hemen existitzen dela eta gauza gisa dela, eta ez nonbait beste adimen batean dagoela. Xedearen adigaiaren eta berbaitarako izate eta bere burua mantentzearen artean bereizketa egiten du, ezein bereizketa ez dena. Baina bereizketarik ez izatea ez da harentzat, baizik eta itxuraz ausazkoa den egitea, horrek sortzen duenaren aurrean axolagabe dirudiena, eta bi hauek elkarlotzen dituen batasuna, egite hura eta xede hori, kontzientzia horretatik at kokatzen da.

Ikuspegi horren arabera organiko-denari dagokiona bere lehena-ren eta azkenaren artean barnean datzan egitea da, bere baitan banakotasunaren izaera duen heinean. Baina egiteak orokortasunaren izaera duen heinean eta egilea horrek sortzen duenarekin berdintzen den heinean, xedearen arabera egitea ez legokio bere horretan organiko-denari. Egite banako hura, bitarteko baino ez dena, bere banakotasunaren bidez beharrezkotasun erabat banako edo ausazkoaren determinaziopean kokatzen da. Organiko-denak bere burua indibiduo gisa mantentzeko egiten duena, edo genero gisa mantentzeko egiten duena, horregatik, bitartegabeko eduki horren arabera guztiz legegabea da, orokor-denetik eta adigaia horretatik at kokatzen baitira. Horren arabera

haren egitea bere baitan edukirik gabeko den eraginkortasun hutsala litzateke; ez litzateke makina baten eraginkortasuna ere, horrek xede bat baitu, eta horren eraginkortasunak horren bidez eduki determinatu bat baitu. Orokor-denak baztertuta, baden baten egiletasuna baino ez litzateke *badena* den aldetik, hau da, aldi berean bere baitara islatu ez den izatea, azido batena edo base batena den bezala; bere hor-izate bitartegabekotik banatu ezin zen eraginkortasuna, aurkakotu-denarekin duen harremanean galtzen den hor-izate hori utzi ere ezin duena, baizik eta bere burua manten dezakeena. Hemen eraginkortasuna aztertzen diogun izatea, ordea, bere aurkakotu-denarekin duen harremanean *bere burua mantentzen duen* gauza gisa ezartzen da, *egiletasuna* bere horretan ez da bere berbaitarako izatearen forma zerizangabe hutsa, eta horren substantzia, izate determinatu soila ez ezik, orokor-dena dena, bere *xedea*, beraz, ez da horretatik at kokatzen; bere baitan bere baitara itzultzen den egiletasuna da, ez arrotz batek bere baitara gidatzen duena.

Orokortasunaren eta egiletasunaren batasun hori ez da kontzientzia *behatzailearentzat*, batasun hori zerizanez organiko-denaren barne higadura delako eta adigai gisa baino ezin daitekeelako atzeman; behatze-ekintzak, ordea, uneak *izatearen* eta *geratzearen* forman bilatzen ditu; eta osoki organikoa zerizanez bere baitan uneak ez izatean eta bere baitan aurkitzen ez uztean datzanez, kontzientziak bere ikuspegiaren arabera aurkakotza hari egokitzen zaion aurkakotza bihurtzen du.

Horrela, zerizan organikoa sortzen zaio kontzientziari *badiren* bi une *finkoen* harreman gisa; aurkakotza horren bi aldeak itxuraz alde batetik behaketan eman zaizkio, eta bestalde euren edukiaren arabera *xedearen adigai* organikoaren eta *errealitatearen* arteko aurkakotza adierazten dute; baina adigaia bere horretan hor baliogabetzen denez, hori era ilun eta azalekoan gertatzen da, non pentsamendua errepresentatze-ekintzan hondoratzen den. Horrela ikusten dugu lehena gutxi gorabehera *barneko-dena* esan nahi denean aipatzen dela eta bestea *kanpoko-dena* esaten denean, eta euren arteko harremanak *kanpoko-dena barneko-denaren adierazpen* dela dioen legea sortzen du.

Barneko-den hori bere aurkakotu-denarekin batera eta euren arteko harremana aztertzen baditugu, ondorioztatzen da ezen, hasteko legearen bi aldeek ez dutela aurreko legeek zuten doinu berbera, non bakoitza *gauza* beregain gisa gorputz berezia izanik agertzen zen, ezta bigarrenik orokor-denak *badenetik at* nonbait bere existentzia izan

behar duela ere. Baizik eta zerizan organikoa era bereiztezinean ezartzen da oinarrian, barneko-denaren eta kanpoko-denaren eduki gisa, eta bientzat berbera izanik; aurkakotza horrenbestez formala baino ez da, eta horren alderdi errealek zerizan gisa *berbaitan* berbera dute, baina aldi berean, barneko-denak eta kanpoko-denak errealitate aurkakotua dutenez eta behatze-ekintzarentzat *izate* ezberdinak direnez, iruditzen zaio bakoitzak bere eduki propioa duela. Eduki propio horrek, hura substantzia edo batasun organiko berbera denez, egitatean, ordea, ezin du haren forma ezberdina baino izan; eta hori kontzientzia behatzaileak iradokitzen du, kanpoko-dena barneko-denaren *adierazpena* baino ez den heinean. - Erlazioaren determinazio berberak ikusi ditugu xedearen adigaiari, hots, ezberdinak direnen beregaintasun axolagabea eta horretan duten batasuna, alderdiak desagertarazten dituen.

Orain ikusi behar da zein *tankera* duten barneko-denak eta kanpoko-denak euren izatean. Barneko-denak halako gisa kanpoko izate eta tankera bat izan behar du, kanpoko-denak halako gisa duen moduan; izan ere, objektua da, edo bere burua ezartzen du badena bezala eta behaketarako prest.

Substantzia organikoa *barnekoa* den aldetik arima *sinplea* da, *xedearen adigai* hutsa edo bere banaketan era berean jariatortasun orokor izaten irauten duen *orokor-dena*, eta horregatik bere *izatean egite* gisa edo *desagertzen ari den* errealitatearen *higidura* gisa agertzen da; aitzitik, *kanpoko-dena* baden barneko-den hari aurkakotuta organiko-denaren *izate lasaian* datza. Legeak barneko-den hura eta kanpoko-den honen arteko harreman gisa, horrenbestez, bere edukia adierazten du, behin *une* orokorren edo *zerizantasun sinplearen* aurkezpenean, eta beste behin zerizantasun egikarituaren edo *tankeraren* aurkezpenean. Lehen *ezaugarri* organiko sinple haiek *sentimena*, *narritadura* eta *bir-sorketa* dira. Ezaugarri horiek, gutxienez bi lehenak, itxuraz ez daude oro har organismoarekin harremanean, baizik eta soilik animalien organismoarekin. Landare organismoak egitatean bere uneak *garatzen ez* dituen organismoaren adigai sinplea besterik ez du adierazten; horregatik, haiei dagokienez, haiek behaketarako izan beharko luketen heinean, haren hor-izate garatua aurkezten duen organismoari lotu behar gatzaito.

Une horiei dagokienez, norberaren xedearen adigaitik ondorioztatzen dira bitartegabe. Izan ere, *sentimenak* bere baitarako islapen

organikoaren adigai sinplea adierazten du oro har, edo horren jariakor-tasun sinplea; *narritadurak*, ordea, islapenean aldi berean *erreakzio-na-tuz* jokatzeko malgutasun organikoa adierazten du, eta lehen *bere bar-nean izate* lasaiari aurkakotzen zaion egikaritzapena, non berbaitarako izate abstraktu hura *beste batentzako* izate den. *Birsorketa* bere baitara islatutako organismo *oso* horren akzioa da, horren egiletasuna berbaitango xede gisa edo *genero* gisa, non indibiduo bere baitatik aldentzen den, eta bere zati organikoak edo indibiduo osoa sortuz errepikatzen den. *Norberaren mantenuaren* esanahian hartuta oro har, *birsorketak* organiko-denaren adigai formala edo sentimena adierazten du; baina benetan adigai organiko erreala da, edo indibiduo gisa zati banakoen sorkuntzaren bidez edo genero gisa indibiduen sorkuntzaren bidez bere baitara itzultzen den *osokia*.

Osagai organiko horien *beste esanahia*, hots, *kanpoko-denak* duena bezala, horien modu *tankeraduna* da, zeinaren arabera haiek zati erreal baina aldi berean *orokor* gisa edo *sistema* organiko gisa dauden hor; sentimena adibidez zain-sistema gisa, *narritadura* giharre-sistema gisa, *birsorketa* indibiduoaren eta generoaren mantenuaren errai gisa.

Organiko-denaren lege bereziek une organikoen erlazioarekin dute zer ikusia euren esanahi bikoitzean, behin *tankeratze* organikoaren *zati* izatea, beste behin sistema horiek guztiak zeharkatzen dituen determinatutasun *jariakor orokor* izatea. Halako lege baten adierazpenean adibidez *sentimen* determinatu batek organismo *osoaren* une gisa zain-sistema determinatuki eratutakoan izango luke adierazpena, edo hori indibiduoaren zati organikoen *birsorketa* determinatu batekin edo indibiduo osoaren ugalketarekin elkarlotuko litzateke, eta abar. - Halako lege baten bi aldeak *beha* daitezke. *Kanpoko-dena* bere adigaiaren arabera *beste batentzako izatea* da; sentimenak, adibidez, sentsuen *siste-man* du bitartegabe egikaritutako modua; eta *ezaugarri orokor* gisa bere *adierazpenetan* era berean izate objektiboa da. *Barneko-dena* deitzen den aldeak bere *kanpoko* alde *propioa* dauka, osotara *kanpoko-den* deitzen denetik ezberdintzen dena.

Lege organiko baten bi aldeak behatu beharko lirateke, baina ez lirateke euren harremanaren lege; eta behaketa ez da nahikoa, *ez beha-keta* gisa bista txarrekoa delako, eta enpirikoki jokatu beharrean ideiatik abiatu beharko litzatekeelako; izan ere, halako legeak, zerbait erre-ala balira, egitatean benetan hor leudeke eta, beraz, behatu beharko lira-

teke; baizik eta mota horretako legeen pentsamenduak erakusten due-lako egiarik ez duela biltzen.

Horrela, lege batentzat honako erlazioa ondorioztatu zen, hots, *ezaugarri* organiko orokorra *sistema* organiko batean gauza bihurtuko litzatekeela eta horretan bere kopia tankeraduna izango lukeena, hala-ko moldez non biak zerizan berbera izango bailirateke, behin une oro-ko gisa, beste behin gauza gisa. Baina, gainera, barneko-denaren aldea ere berez hainbat alderen erlazio bat da, eta beraz, lehenik lege baten pentsamendua eskaintzen zaigu egiletasun edo ezaugarri orga-niko orokorren elkarrekiko harreman gisa. Halakoa ahalgarri ote den, halako ezaugarriaren izaerak erabakiko du. Baina ezaugarri hori jaria-kortasun orokor gisa aldeaz ez da gauza baten motaren arabera murriz-ten den eta bere tankera osatu beharko lukeen hor-izatearen bereizke-tan bere buruari eusten diona, baizik eta sentimena zain-sistemaz haraindi doa eta horrela organismoaren beste sistema guztiak zehar-katzen ditu; aldeaz, *une* orokorra da, zerizanez erreakziotik edo narri-taduratik eta birsorketatik aldentzen edo banatzen ez dena. Izan ere, bere baitarako islapen gisa oro har erreakzioa dauka bere baitan. Ber-baitara islatua besterik ez izatea pasibotasuna da, edo izate hila, ez sentimena; era berean, erreakzioa den gauza bera den akzioa berbait-ara islatua izan gabe ez da narritadura. Akzioan edo erreakzioan ger-tatzen den islapenaren, eta islapenean gertatzen den akzio edo erreak-zioaren batasunak osatzen dute, hain zuzen, organiko-dena, eta bata-sun horrek birsorketa organikoak duen esanahi berbera du. Hortik ondorioztatzen da errealitatearen modu bakoitzean sentimenaren eta narritaduraren *handiera* berberak izan behar ditugula, lehenik senti-menaren eta narritaduraren arteko erlazioa aztertzen dugun heinean, eta agerpen organikoa era berean uler eta determina edo, nahi bada, argi daitekeela bataren edo bestearen arabera. Batek goi sentimentzat hartzen duen gauza berbera beste batek era berean goi narritaduratzat har dezake, *maila berberako* narritaduratzat. *Faktore* deitzen bazaie, eta horrek esanahi gabeko hitza izan behar ez badu, orduan horrek adierazten du adigaiaren *uneak* direla, eta, beraz, objektu errealak, horren zerizanak adigai hori osatzen duenez, biak era berean izanik bere baitan, eta une baten arabera objektua oso sentikor gisa determi-natzen bada, era berean beste unearen arabera baieztatu behar da maila berean narritakorra dela.

Uneok bereizten badira, ezinbestekoa denez, orduan adigaiaren arabera bereiztuko dira, eta euren aurkakotza *nolakotasunezkoa* izango da. Baina egiazko bereizketa horrez gain badiren gisa eta errepresentazioarentzat legearen aldeak izan daitezkeen moduan ezartzen badira, orduan *neurri*-ezberdintasunaren arabera agertuko dira. Euren nolakotasunezko aurkakotza propioa horrela *handierara* igarotzen da, eta honelako legeak sortzen dira, adibidez, sentimena eta narritadura euren handieraren aurkako erlazioan daude, halako moldez non bata hazten bada bestea gutxitzen baita; edo hobeto, handiera zuzenean eduki gisa hartuta, zerbaiten handiera hazten dela bere txikitasuna gutxitzen den neurrian. - Lege horri, ordean, eduki determinatu bat ematen bazaio, esaterako, zulo baten handiera *hazten* dela, hori betetzen duena *gutxitzen* den heinean, orduan aurkako erlazio hori erlazio zuzen bihur daiteke eta honela adierazi, hots, zuloaren handiera kentzen denaren handierarekiko erlazio zuzenean *hazten* dela; eta hori esakune *tautologikoa* da, berdin erlazio zuzen edo aurkako gisa adierazten bada, eta bere adierazpen propioan hau esan nahi du, hots, handiera bat hazten dela handiera hori hazten den neurrian. Zuloa eta hori betetzen duena eta kentzen dena nolakotasunaren arabera aurkakotuta baina horietan erreala denaren eta horren handiera determinatuaren arabera bietan gauza bat eta berbera denez, eta handieraren haztea eta txikitasunaren gutxitzea gauza berbera direnez, eta euren esanahigabeko aurkakotasuna tautologia bat bihurtzen denez, orduan une organikoak era berean dira bereiztezinak euren erreal-denean eta euren handieran, horien handiera dena; bata bestearekin batera gutxitzen da eta horrekin batera handitzen da, bata oro har esanahia baitu bestea hor aurrean dagoenean; edo bestela, axolagabe da agerpen organikoa narritadura gisa edo sentimen gisa hartzea oro har, eta era berean kontua euren handiera denean. Eta, era berean, axolagabe da zulo baten handitzea haren hustasunaren areagotze gisa adieraztea edo kanporatutako betetzearen areagotze bezala. Edo zenbakiak, demagun, *hiruak*, handiera berbera du, positiboki edo negatiboki hartzen badut; eta hirua laura handitzen badut, orduan bai positibo dena baita negatibo dena ere lau bihurtu da; era berean, iman baten hego muturra ipar muturra bezain indartsua da, edo elektrizitate positiboa negatiboa bezain indartsua edo azidoa eragiten dion basea bezain indartsua. - Hiru hura bezalako handiera, edo imana, eta abar, *hor-izate* organikoak dira, handitu eta gutxitzen den hura dira, eta handitzen denean, haren *bi* faktoreak handitzen dira, imanaren *bi* poloak edo bi elektrizi-

tateak handitzen diren modu berean, iman bat eta abar indartzen direnean. - Aurkakotasun hutsalaren adigai berberaren menpe dago biak ez *edukiera* ezta *hedaduraren* arabera ere ez ezberdintzea, batak ezin izatea hedaduraren arabera gutxitu eta edukieraren arabera handitu, bestea alderantziz edukieran gutxitu eta hedadura handitzen den bitartean; edukiera erreala oro har hedadura bezain handia da, eta alderantziz.

Lege-emate horretan, argi denez, gertatzen da ezen, hasiera batean narritadurak eta sentimenak aurkakotza organiko determinatua osatzen dutela; baina eduki hori galdu egiten da, eta aurkakotza desbideratu egiten da handieraren handitze eta gutxitzearen alde formalean, edo edukiera eta hedadura ezberdinetan, eta aurkakotza horrek ez du zer ikusi gehiagorik sentimenaren eta narritaduraren izaerekin, eta horiek ez ditu adierazten. Horregatik, lege-ematearen joko hutsal halakoa ez zaie une organikoei lotzen, baizik eta edonon edozeri aplikakioke, eta aurkakotza horien izaera logikoaren ezagupen ezan oinarritzen da oro har.

Sentimena eta narritaduraren ordeztasuna birsorketa batarekin edo bestearekin lotzen bada azkenean, lege-emate horretarako abagunea ere galtzen da; izan ere, birsorketa une haiei ez zaie aurkakotzen, horiek elkar aurkakotzen diren moduan; eta lege-emate horrek hartan hartzen duenez oin, orduan hemen haren itxura ere desagertzen da.

Oraintxe aztertu den lege-emateak organismoaren bereizketak barnebiltzen ditu horren *adigaiaren* une gisa duten esanahian, eta benetan apriorizko lege-ematea izan beharko luke hark. Baina zerizanez pentsamendu hau datza hartan, hots, haiek *eskura dagoenaren* esanahia dutela, eta behatu baino egiten ez duen kontzientziak haren hor-izateari eutsi besterik ez duela egin behar. Errealitate organikoak ezinbestean bere baitan halako aurkakotza biltzen du, horren adigaiak adierazten duena, eta narritadura eta sentimen gisa determina daitekeena, biak birsorketatik ezberdintzen diren heinean. - Adigai organikoaren uneak hemen kanpotik aztertzen dira, eta hori barneko-denaren *bitartegabeko kanpokotasuna* da, eta ez *kanpoko-dena*, hori kanpoko osorik eta *tan-keran* den heinean eta barneko-dena ondoren horrekin harremanean aztertu behar den heinean.

Baina uneen aurkakotza horrela ulertzen bada, hor-izatean den moduan, orduan sentimena, narritadura eta birsorketa *ezaugarri* arrunt

izateraino hondoratzen dira, zeinak pisu espezifikoa, kolorea, gogortasuna, eta abar bezala elkarri axolagabeak diren orokortasunak diren. Zentzu horretan aipatu behar da organismo bat beste bat baino sentikorragoa edo narritakorragoa edo birsorketa indar handiagokoa dela, bataren sentimena eta abar *motaren* arabera beste batek duenetik ezberdintzen den moduan, bata kinada jakin baten aurrean beste batek egiten duen modu ezberdinean jokatzeko duen bezala, zaldiak oloaren eta lastoaren aurrean adibidez, eta zakurrak beste era batean bi horien aurrean, eta abar, eta hori gorputz bat beste bat baino gogorragoa dela eta abar behatu daitekeen bezainbat. - Baina sentipenezko ezaugarri horiek, gogortasuna, kolorea, eta abar, eta gainera oloaren aurrean dugun sentikortasuna, zamaren aurrean dugun narritadura, eta haurrak erditzeko aldien kopurua eta mota, euren artean harremanean ezartzen eta alderatzen badira, horiek zerizanez kontraesaten dute legezkotasun bat. Izan ere, horien *sentipenezko izatearen* determinatutasuna honetan datza, elkarrekiko erabat axolagabe existitzean, eta harreman baten batasuna baino adigaiari ihes egin dion naturaren askatasuna aurkeztean, adigaiaren uneen artean gora eta behera doan joko burugabea aurkeztean ausazko handieraren eskaileran une horiek berak aurkeztu beharrean.

Adigai organikoaren une sinpleak *tankeratzearen* uneekin alderatzen dituen *beste* aldeak emango luke lehen-lehenik egiazko kanpoko-dena adieraziko lukeen legea *barneko-denaren* kopia gisa. - Une sinple haiek ezaugarri jariakor eta sarkorrak direnez, orduan ez dute gauza organikoetan halako adierazpen bereizi erreala, tankeraren sistema bakarra deitzen denarena bezalakoa. Edo organismoaren ideia abstraktua hiru une haietan egiazko eran adierazten denean, horiek egonkorrak ez direlako baizik eta adigaiaren eta higiduraren uneak besterik ez, orduan hori, aitzitik, tankeratze gisa ez da jasotzen anatomiak sailkatzen dituen halako hiru sistema determinatuetan. Halako sistemak euren errealitatean aurkitzen diren heinean, eta aurkitze horren bidez bermea lortu beharko luketen heinean, gogora ekarri behar da anatomiak halako hiru sistema ez ezik beste hainbat erakusten dituela. - Beraz, hori alde batera utziz *sistema* sentikorrak *zain-sistema* deitzen denak duen esanahiaren guztiz bestelakoa izan behar du, *sistema* narritakorrak *giharre-sistemaren* esanahiaren guztiz bestelakoa izan behar duen bezala, eta birsorketa-sistemak birsorketaren *organuen* esanahia-

ren guztiz bestelakoa izan behar duen bezala. *Tankeraren* sisteman hori halakoa den aldetik organismoa existentzia osoaren alderdi abstraktua-
ren arabera ulertzen da; haren uneak horrela ulertuz gero, anatomia eta
gorpuari dagozkien, ez ezagutza eta organismo biziari. Halako zati gisa
utzi egin diote izateari, *utzi* egiten baitiote prozesu *izateari*. Organis-
moaren *izatea* zerizanez orokortasuna edo bere baitarako islapena
denez, orduan horren osokiaren edo horren uneen *izatea* ezin da izan
sistema anatomikoa, baizik eta adierazpen erreala eta horren kanpoko-
tasuna tankeratzearen hainbat zati zeharkatzen dituen higidura gisa
dugu eskura, eta hor sistema bakan gisa baztertu eta finkatu dena une
jariakor gisa aurkezten da, halako moldez non haren errealtateak ez
baitu balio hori anatomiak aurkitzen duen moduan, baizik eta prozesu
gisa soilik, zati anatomikoez ere hor baino ez baitute lortzen zentzua.

Beraz, ondorioztatzen da ezen, alde batetik, *barneko-den* orga-
nikoaren uneak euren kabuz hartuta ez direla gai izatearen lege baten
aldeak emateko; horiek halako lege batean hor-izate batek adieraziko
lituzkeen, elkarrengandik ezberdinduko liratekeen eta bakoitza bestea-
ren ordeztatu berean deituko ez litzatekeen heinean; bestalde, alde bate-
an ezartzen badira, ez dutela bestean euren egikaritzapena izango siste-
ma finko batean; izan ere, azken hori barneko-denaren une haien adie-
razpena den bezain gutxi da oro har egia organikoa. Organiko-denaren
zerizanezko aldea, aitzitik, bere baitan orokor-dena izatea denez, hone-
tan datza oro har, hots, horren uneak errealtatean era berean orokor
izatean, hots, garatzen den prozesu gisa izatean, gauza bakartu batean
orokor-denaren irudi bat eman beharrean.

Era horretara galdu egiten da oro har *lege* baten *errepresenta-
zioa* organiko-denean. Legeak aurkakotza alderdi lasai gisa ulertu eta
adierazi nahi du, eta alderdi horietan determinatutasuna, horien elka-
rrekiko harremana dena. Agertzen den orokortasuna egokitzen zaion
barneko-denak eta tankera lasaiaren zatiak egokitzen zaizkion *kanpo-
ko-denak* osatu beharko lituzkete horiei dagozkien legearen alderdiak,
baina aldentuta izatean euren esanahi organikoa galtzen dute; eta lege-
aren errepresentazioaren oinarria da horren bi alderdiek bere baitarako
den iraupen axolagabea luketela, eta horietan harremana determinatu-
tasun bikoitz egokitu gisa banatuko litzatekeela. Baina organiko-dena-
ren alderdi bakoitza bere baitan hauxe da, alegia, orokortasun sinplea,
non determinazio oro desagertzen den, eta desagertze horren higidura.

Lege-emate horren eta aurreko formen arteko bereizketa sakonki ulertzeak guztiz argituko du horren izaera. - Hain zuzen, atzera begiratzen badiogu hautematearen higidurari eta hor bere baitara islatzen den eta horren bidez bere objektua determinatzen duen adimenari, orduan horrek hor ez du bere aurrean bere objektuan determinazio abstraktu horien *harremana*, orokor-denaren eta banako-denaren artekoa, zerizanezko-denaren eta kanpoko-denaren artekoa, baizik eta hura igarotze-ekintza hori objektibo bihurtzen ez zaion igarotze ekintza da. Hemen, aitzitik, batasun organikoa, hots, aurkakotza haien harremana (eta harreman hori igarotze-ekintza hutsa da) da *objektua*. Igarotze-ekintza hori bere sinpletasunean *orokortasuna* da bitartegabe, eta hori legeak adierazi beharko lukeen harremanaren bereizketan sartzen bada, orduan horren uneak kontzientzia horren objektu *orokorrak bezala* dira, eta legeak dio *kanpoko-dena barneko-denaren* adierazpena dela. Hemen adimenak legearen beraren *pentsamendua* jaso du, aurretik oro har legeak bilatu baino egin ez zuenez, eta horien uneak bere aurrean kulunkatzen ziren eduki determinatu gisa, ez haren *pentsamendu gisa*. - Edukiari dagokionez, beraz, hemen ez dira jaso behar orokortasunaren forman baino ez *diren* bereizketen jasotze lasaia baino ez diren legeak, baizik bitartegabe bereizketa horietan adigaiaren ezin negona eta, horrenbestez, aldi berean alderdien arteko harremanaren beharrezkotasuna duten legeak. Baina, hain zuzen, objektuak, batasun organikoak, gainditze-ekintza amaigabea edo izatearen negazio absolutua izate lasaiarekin bitartegabe bateratzen duenez, eta uneak funtsean *igarotze hutsa* direnez, orduan ez dugu legeak behar dituen baden alderdi halakorik.

Halakoak lortzeko adimenak erlazio organikoaren beste uneari begiratu behar dio, hots, hor-izate organikoaren bere baitara *islatua izateari*. Baina izate hori hain osoki dago bere baitara islatua, non beste ezeren determinatutasunik ez baitzaio geratzen. Sentipenezko izate bitartegabekoa bat da *bitartegabe* determinatutasunarekin bere horretan, eta beraz, nolakotasunezko bereizketa adierazten du bere baitan; adibidez, urdina dena gorria denaren aurrean, azidoa alkaliaren aurrean, eta abar. Baina bere baitara itzuli den izate organikoa erabat axolagabea da beste guztiaren aurrean, bere hor-izatea orokortasun sinplea da, eta behatzeari uko egiten dio sentipenezko bereizketa iraunkorrak, edo gauza berbera dena, bere determinatutasun zerizanezkoa *badiren*

determinatutasunen *aldaketa* gisa baino ez du erakusten. Beraz, bereizketa honela adierazten da baden gisa, hots, *axolagabe* izanik, hau da, *handiera* gisa. Horrela, ordea, adigaia baliogabetu egiten da, eta beharrezkotasuna desagertzen da. - Baina izate axolagabe horren edukiak eta betetzeak, sentipenezko determinazioen aldaketak, determinazio organiko baten sinpletasunean elkar hartuta, aldi berean hau adierazten du, hark hain zuzen ez duela (ezaugarri bitartegabekoaren) determinatutasun hura, eta nolakotasunezko-dena handierari dagokio, lehen ikusi dugun moduan.

Nahiz eta determinatutasun organiko gisa ulertzen den objektibo-denak adigaia bere baitan izan, eta horren bidez bere legeen edukia-
ren ulertze-ekintzan hautemaile gisa baino jokatzeko ez duen adimenaren-
rentzat den horretatik ezberdintzen den, orduan ulertze-ekintza hura, hala ere, osorik hautemaile baino ez den adimenaren printzipioan eta jokaeran erortzen da, ulertutakoa lege baten *une* gisa erabiltzen delako; izan ere, horren bidez determinatutasun finko baten modua jasotzen du, bitartegabeko ezaugarri baten forma edo agerpen lasai baten forma, eta, gainera, handieraren determinazioan jasotzen da, eta adigaiaren izaera zapaltzen da. - Hautemana baino ez dena bere baitara islatua denagatik ordezkatzeko, sentipenezkoa baino ez den determinatutasuna organikoa denagatik ordezkatzeko, bere balioa galtzen du, hain zuzen honegatik, hots, adimenak oraindik lege-ematea gaingitu ez duelako.

Ordezkatze hori dela eta, adibide batzuetan alderaketa erakustearren, hautemapenarentzat giharre indartsuak dituen animalia narritadura handiko animali organismo gisa definitzen da, edo hautemapenarentzat ahuldura handiko egoera dena sentimen handiko egoera gisa definitzen da, edo nahiago bada, afekzio ez-normal gisa, eta gainera, horren areagotze gisa (adierazpen horiek sentipenezko-dena adigaira itzuli beharrean latineraino itzultzen dute, eta gainera latin txarrerara). Animaliak giharre indartsuak dituela adimenak honela ere adieraz dezake, hots, animaliak *giharre-indar* handia du, ahuldura handia *indar* txikia den bezala. Narritaduraren bidezko determinazioak abantaila hau du indarraren bidezko determinazioaren aurrean, ezen azken horrek bere baitarako islapen indeterminatua eta hark determinatua adierazten dutela, hain zuzen giharrearen indar *propioa* narritadura baita; eta *giharre indartsuen* determinazioaren aurrean ere bai, indarrean bezala bere baitarako islapena aldi berean hartan jasota dagoelako. Era berean, ahul-

dura edo indar txikia, *pasibotasun organikoa*, noski, *sentimenaren* bidez adierazten da. Baina sentimen hori bere horretan hartuta eta finkatuta, eta are *handieraren* determinazioarekin lotuta, eta sentimen handiago edo txikiago gisa narritadura handiago edo txikiagoari aurkakotuta, bakoitza sentipenezko osagaian dago eta ezaugarri baten forma arruntera behehitzen da, eta horien harremana ez da adigaia, baizik eta handiera, zeinari aurkakotza baino ez zaion egokitzen, eta pentsamendurik gabeko bereizketa bihurtzen den. Hor *indarra* eta *indartsu* eta *ahul* adierazpenen indeterminazioa baztertu bazen, orain goi eta behe sentimen eta narritaduraren aurkakotza berdinki hutsal eta indeterminatua sortzen da horiek elkarren arteko loturan igotzen eta jaisten diren heinean. Indartsu eta ahul sentipenezko determinazio pentsamenduga-beak dira eta ez dira gutxiago sentimen eta narritadura handiago edo txikiagoa pentsamendugabe ulertutako eta, gainera, adierazitako agerpen sentipenezkoak. Adierazpen adigaigabeko haien tokian ez da adigaia sortu, baizik eta indarra eta ahuldura determinazio baten bidez bete dira, zeina bere horretan hartuta adigaian oinarritzen den eta hura duen eduki gisa, baina jatorri eta izaera horiek guztiz galtzen dituen. - Sinpletasunaren eta bitartegabekotasunaren formaren bidez, beraz, non eduki hori lege baten alderdi bihurtzen den, eta halako determinazioen bereizketaren osagaia osatzen duen handieraren bidez jatorriz adigai gisa den, eta ezarri den zerizanak hautemate sentipenezkoaren modua mantentzen du, eta indarraren mailaren bidezko edo sentipenezko ezaugarri bitartegabekoen bidezko determinazioan bezain urrun geratzen da ezagutzetik.

Orain organiko-denaren *kanpoko-dena* bere horretan aztertzea baino ez da geratzen eta nola horren baitan *haren* barneko-denaren eta kanpoko-denaren aurkakotzak bere burua determinatzen duen: lehenik osokiaren *barneko-denak* horren kanpoko-den propioarekin duen harremanean aztertu zen bezalaxe.

Kanpoko-dena bere horretan aztertua *tankeratzea* da oro har, bere burua izatearen *osogaian* atalkatzen duen bizitzaren sistema, eta zerizanez aldi berean zerizan organikoaren izatea da *beste batentzat*, zerizan objektiboa bere baitarako izatean. - *Beste* hori hasieran haren kanpoko natura organiko gisa agertzen da. Bi horiek lege batekin loturan aztertzen badira, lehenago ikusi dugunez, natura ez-organikoak ezin du lege baten alde bat osatu zerizan organikoaren aurka, zeren hori aldi

berean bere baitarako baita osorik, eta harekin harreman orokor eta askea baitauka.

Baina bi alderdi horien erlazioa zehazkiago determinatzen bada tankera organikoan, orduan tankera hori alderdi baten arabera natura ez-organikoaren aurka bihurtzen da, beste alderditik, ordea, *bere bai - tara* eta bere barnera islatzen da. Zerizan organiko *erreal*a erdigunea da, zeinak bizitzaren *berbaitarako izatea* oro har *kanpoko-denarekin* edo *berbaitan izatearekin* lotzen dituen. - Berbaitarako izatearen muturra, ordea, barneko-dena da Bata amaigabe gisa, zeinak tankeraren uneak bere iraupenetik eta kanpoko-denarekin duen loturatik hartuta bere baitara itzultzen dituen; hori da edukirik gabe tankeran bere buruari edukia ematen dion eta horretan bere prozesu gisa agertzen dena. Mutur horretan negatibotasun simple gisa edo *banakotasun huts* gisa organiko-denak bere askatasun absolutua du, eta horren bidez beste batentzako izatearen aurrean eta tankeraren uneen determinatutasunaren aurrean axolagabe eta seguru dago. Askatasun hori aldi berean uneen euren askatasuna da, horien ahalgarritasuna da *badiren* gisa agertzeko eta ulertuak izateko, eta kanpoko-denaren aurrean bezala hor elkarrekiko aske eta axolagabe dira, askatasun horren *sinpletasuna izate*a edo haren substantzia sinplea baita. Adigai hori edo askatasun hutsa bizitza bat eta berbera da, tankera edo beste batentzako izatea hainbat jokotan zabaltzen bada ere; bizitzaren ur bizi horri axolagabe zaio zein motatakoak diren higiarazten dituen errotak. - Orain lehenik ohartarazi behar da adigai hori hemen ezin dela lehen bezala benetako barneko-denaren azterketan bezala *prozesuaren* forman edo bere uneen garapenaren forman ulertu, baizik eta *barneko-den simple* gisa duen forman ulertu behar da, zeinak alderdi orokor hutsa osatzen duen zerizan bizi *errealaren* aurrean, edo tankeraren badiren atalen *irautearen osagai* gisa; izan ere, hori aztertzen dugu hemen, eta horretan bizitzaren zerizana irautearen sinpletasuna bezala da. Gainera, *beste baten - tzako izatea* edo tankeratze errearen determinatutasuna orokortasun simple horretan jasotzen da, haren zerizan den horretan, era berean ez-sentipenezko determinatutasun orokor sinplea denean, eta hori *zenbaki* gisa adieraz daitekeena baina ezin da izan. - Tankeraren erdigunea da, zeinak bizitza indeterminatua errearekin elkarlotzen duen, hura bezain sinplea denarekin, eta hori bezala determinatua denarekin. Hartan, *barneko-denean*, zenbaki gisa litzatekeena kanpoko-denak adiera-

zi beharko luke errealitate, bizimodu, kolore eta abar gisa dituen forma aniztunen arabera, oro har agerpenean garatzen diren bereizketen multzo oso gisa.

Osoki organikoaren bi alderdiak (bata barneko-dena, bestea *kanpoko-dena*, halako moldez non hark berriro bere baitan barneko-den bat eta kanpoko-den bat baitu) bere barneko-denaren bi alderdien arabera alderatzen badira, orduan lehenaren barneko-dena adigai zen *abstrakzioaren* ezinegon gisa da; besteak, ordea, berea bezala orokortasun lasaia dauka, eta hor gainera determinatutasun lasaia, zenbakia. Horregatik, lehen hark, horren baitan adigaiak bere uneak garatzen dituelako, beharrezkotasunaren itxuraren bidez harremanari legeak agindu bazizkion iruzurti, orduan horrek berehala uko egiten dio hari, zenbakiak bere burua bere legeen alderdi baten determinazio gisa erakusten duen heinean. Izan ere, zenbakia hain zuzen determinatutasun guztiz lasaia, hila eta axolagabea da, non higidura eta harreman oro xahutzen den, eta horrela bultzadaren, bizimoduaren eta bestelako sentipenezko hor-izatearen alde bizira daramaten zubiak hautsi ditu.

Organiko-denaren *tankeraren* azterketa hori organiko den aldetik eta barneko-denaren azterketa tankerarena baino ez den barneko-dena den aldetik egitatean ez da organiko-denaren azterketa. Izan ere, bi alderdiak, lotu beharko liratekeenak, elkarri axolagabe baino ez dira ezartzen, eta horren bidez euren baitarako islapena, organiko-denaren zerizana osatzen duena, gainditu egiten da. Hemen, aitzitik, natura ez-organikoari egozten zaio barneko-denaren eta kanpoko-denaren artean egiten saiatu den alderaketa; hemen adigai amaigabea barnean ezkutatuta edo kanpoan norberaren kontzientzian egokitzen den *zerizana* baino ez da, eta ez dago organiko-denaren kasuan bezala hor aurrean objektiboki. Barneko-denaren eta kanpoko-denaren arteko harreman hori, beraz, oraindik ere bere eremu propioan aztertu behar da.

Hasiera batean tankeraren barneko-den hura gauza ez-organiko baten banakotasun simple bezala da, *pisu espezifikoa*. Izate simple gisa hark baino lortu ezin duen zenbakiaren determinatutasunaren modu berean beha daiteke, edo benetan behaketen alderaketen bidez aurki daiteke, eta badirudi era horretan legearen alderdi bat ematen duela. Tankera, kolorea, gogortasuna, jasankortasuna eta beste ezauzarrien kopuru mugagabeek elkarrekin *kanpoko* alderdia osatzen dute, eta barneko-denaren determinatutasuna, zenbakia, adierazi

beharko lukete, halako moldez non batak bere bestean izango bailuke aurkako irudia.

Hemen negatibotasuna ez denez ulertzen prozesuaren higidura gisa, baizik eta batasun *lasaitu* gisa edo *berbaitarako izate simple* gisa, orduan hura gauzak prozesuari aurre eginarazten duen hori bezala agertzen da, eta bere barnean axolagabe mantentzen da horren aurrean. Baina berbaitarako izate simple hori bestearen aurreko axolagabetasun lasaia denez, pisu espezifikoa beste *ezaugarrien ondoan* agertzen da; eta, horrela, horrek askotarikotasun harekin duen harreman beharrezko oro edo legezkotasun oro amaitzen da. - Pisu espezifikoak barneko-den simple hori gisa ez du bereizketarik *bere baitan*, edo bereizketa zerizangabekoa du; izan ere, horren *sinpletasun hutsak* zerizanezko bereizkuntza oro gainditzen du. Bereizketa zerizangabeko horrek, *handierak*, beste aldean, ezaugarrien askotarikotasuna denean, bere aurkako irudia edo *bestea* izan beharko luke, horren bidez oro har lehenik bereizketa bihurtzen den heinean. Askotarikotasun hori aurkakotzaren sinpletasunean jasotzen denean eta, esaterako, *kohesio* gisa determinatzen bada, halako moldez non hori *berbaitarako beste batean izatea* baita, pisu espezifikoa *berbaitarako izate hutsa* den bezala, orduan adigaian ezarrita dagoen kohesio hori determinatutasun hutsa da determinatutasun haren aurrean, eta lege-ematearen modua lehenago sentimenaren eta narritaduraren arteko harremanean aztertu duguna litzateke. - Gainera, hori beste izatean berbaitarako izatearen *adigai* gisa pisu espezifikoari aurkakotzen zaion aldearen *abstrakzioa* baino ez da, eta halakoa den aldetik ez du existentziarik. Izan ere, beste izatean berbaitarako izatea prozesu bat da, non organiko-denak bere berbaitarako izatea *bere burua mantentze* gisa adierazi beharko lukeen, eta horrek mantentze hori prozesutik produktu baten une gisa ateratzea saihestuko luke. Baina hori, hain zuzen, bere izaeraren aurka dago, zeinak xedea edo orokortasuna ez duen bere baitan. Bere prozesua, aitzitik, jokaera determinatua baino ez da, non bere berbaitarako izateak, bere pisu espezifikoak bere burua *gainditzen* duen. Jokaera determinatu hori, non bere kohesioak bere egiazko adigaian iraungo lukeen, eta bere pisu espezifikoaren handiera determinatua elkarrekiko erabat axolagabeak diren adigaiak dira. Jokaeraren modua kontuan hartu gabe eta handieraren errepresentaziora murriztuz, determinazio hori agian honela pentsa liteke, alegia, pisu espezifikoko handienak, bere barnean izate garaigo gisa, prozesuan sar-

tzeari erresistentzia handiagoa egingo lioke pisu espezifiko txikiagoak baino. Baina, alderantziz, berbaitarako izatearen askatasuna soilik indartzen da beste guztiarekin lotzeko eta aniztasun horretan bere burua mantentzeko erraztasunean. Harremanen hedadura ez duen edukiera hura edukirik gabeko abstrakzioa da, hedaturak osatzen baitu edukieraren *hor-izatea*. Baina ez-organiko-denaren bere buruaren mantentzea bere harremanean haren izaeratik at kokatzen da, aipatu dugunez, horrek higiduraren printzipioa ez duelako bere baitan, edo bere izatea ez delako negatibotasun eta adigai absolutua.

Ez-organiko-denaren beste alderdi hori, aitzitik, ez prozesu gisa, baizik eta izate lasai gisa hartzen bada, orduan kohesio arrunta da, sentipenezko ezaugarri *simplea* alde batera jarri duena *beste izatearen* une askatuaren aurrean, ezaugarri axolagabe askotan sakabanatu den unearen aurrean, eta horien artean dagoena, pisu espezifikoa bezala; ezaugarrien multzoak osatzen du kohesioaren beste alderdia. Ezaugarri horretan, ordea, bestetan bezala, *zenbakia* da ezaugarri horien arteko harremana eta igarobidea ez adierazteaz gain, hauxe bera den bakarra zerizanez, hots, ezein harreman beharrezkorik ez dena, baizik eta legezkotasun ororen baliogabetzea aurkezten duen determinatutasuna, determinatutasun *zerizangabekoa* adierazten baitu. Ondorioz, gorputzen ilara bat, bereizketa euren pisu espezifikoaren zenbaki-bereizketa gisa adierazten duena, ez doa inolaz ere beste ezaugarrien bereizketen ilararen paralelo, nahiz eta, kontua arintzeko, horietako bakana edo hainbat hartu. Izan ere, egitatean ezaugarrien biribildu osoa litzateke paralelotasun horretan beste alderdia osatu ahal izango lukeena. Hori bere barnean ordenatzeko eta osotasun batean lotzeko, ezaugarri anitz horien handiera-determinatutasunak alde batetik behaketaren eskura daude, eta bestetik euren bereizketak nolakotasunezko gisa agertzen dira. Baina samalda horretan positibo edo negatibo izendatu beharko litzatekeena eta elkar gaindituko lukeena (oro har formularen barne figurazioa eta azalpena, oso nahasia izango litzatekeena), adigaiari dagokio zehaztea, baina hori baztertzen da, ezaugarriek *badiren* bezala hor egoiteko eta jasoak izateko duten modua dela eta; izate horretan ezein ezaugarrik ez du erakusten negatibo-denaren izaera besteen aurrean, baizik eta bata bestea bezain ona *da*, eta ezein ezaugarrik ez du adierazten bere kokapena osokiaren ordenamenduan. - Bereizketa paralelotan aurrera egiten duen ilara batean (erlazioa bi alderdietan aldi berean gorakor

gisa pentsa daiteke, edo batean gorakor eta besteen beherakor gisa) kontua osoki bateratu horren *azken* adierazpen sinplea baino ez da, zeinak legearen alderdi bat osatu beharko lukeen pisu espezifikoaen aurka; baina alderdi hori, *baden emaitza* gisa ez da aipatu den hori baino, hau da, ezaugarri banakoa, kohesio arrunta bezala, esaterako, eta horren ondoan besteak, eta horien artean pisu espezifikoa ere bai, axo-lagabe daude hor eskura, eta horietako bakoitza eskubide berberaz hauta daiteke, hau da, eskubide eza berberaz beste alderdi osoaren ordezkari gisa; batak zein besteak zerizana errepresentatu baino ez luke egingo, *ordezkatu*, euskaraz esanda⁴, baina ez litzateke gauza berbera izango. Ondorioz, bi alderdietan paralelo joango liratekeen eta gorputzen zerizanezko izaera alderdi horien legearen arabera adieraziko luke ten gorputz-ilarak aurkitzeko saioa bere betekizuna eta hori betetzeko bitartekoak ezagutzen ez dituen pentsamendutzat hartu behar da.

Lehenago kanpoko-denak eta barneko-denak tankerari dagokionez duten harremana, behaketari aurkeztu beharko litzaiokeena, berehala ez-organiko-denaren eremura igorri zen; horrek hor sortzen duen determinazioa orain zehazkiago adieraz daiteke, eta horretatik erlazio horren beste forma eta harremana ondorioztatzen da. Organiko-denean oro har desagertzen da ez-organiko-denean itxuraz barneko-denaren eta kanpoko-denaren halako alderaketaren ahalgarritasuna eskaintzen duena. Barneko-den ez-organikoa barneko-den sinplea da, hautemapenari *baden* ezaugarri gisa eskaintzen zaiona; horren determinatutasuna, beraz, handiera da zerizanez, eta *baden* ezaugarri gisa kanpoko-denaren aurrean edo beste sentipenezko hainbat ezaugarriren aurrean axolagabe agertzen da. Organikoki bizi-denaren berbaitarako izatea, ordea, ez da azaltzen alderdi batean bere kanpoko-denaren aurka, baizik eta *beste izatearen* printzipioa bere baitan dauka. Berbaitarako izatea *norberaren buruarekin dugun harreman sinple* eta bere burua mantentzen duena bezala determinatzen badugu, orduan bere beste izatea *negatibotasun* sinplea da, eta batasun organikoa norberaren buruarekin dugun harremanaren bere buruaren berdinean izatearen eta negatibotasun hutsaren batasuna da. Batasun hori, batasun den aldetik, organiko-denaren barneko-dena da; hori horren bidez bere baitan orokorra da, edo *generoa* da. Generoak bere errealitatearen aurrean duen askatasuna, ordea, ez da *pisu* espezifikoa tankeraren aurrean duen askatasuna. Azken horrena *baden* askatasuna da, edo hori ezaugarri berezi gisa dago alder-

di batean. Baina *baden* askatasuna denez, hori *determinatutasun bat* baino ez da, tankera horri *zerizanez* dagokiona, edo horren bidez tankera hori *zerizan* gisa determinatua da. Baina generoaren askatasuna askatasun orokorra da, eta axolagabe da tankera horren aurrean edo haren errealitatearen aurrean. Ez-organiko-denaren *berbaitarako izate-ari* itsasten zaion *determinatutasuna*, ez-organikoa *den aldetik*, beraz, organiko-denean berbertairako izatearen *menpe* agertzen da; ez-organiko-denean horren izatearen menpe baino agertzen ez den bezala; nahiz eta determinatutasun hori ez-organiko-denean *ezaugarri* gisa baino ez agertu, hala ere horri zerizanaren duintasuna dagokio, zeren negatiboden sinple gisa hor-izateari aurre egiten baitio beste batentzako izate gisa; eta negatibo-den sinple hori bere azken determinatutasun banakotatik zenbakia da. Organiko-dena, ordea, negatibotasun hutsa bera eta, horregatik, *izate axolagabeari* dagokion zenbakiaren determinatutasun finkoa baliogabetzen dituen banakotasuna da. Izate axolagabearen uea eta hor zenbakiarena bere baitan dituen heinean, azken hori horren joko gisa har daiteke, baina ez bere bizitasunaren zerizan gisa.

Baina orain negatibotasun hutsa, prozesuaren printzipioa, organiko-denetik at kokatzen ez bada, eta horrek beraz ez baudaka bere *zerizanean* determinatutasun bat bezala, baizik eta banakotasuna bere baitan orokorra bada, orduan banakotasun huts hori ez da, dena den, bere baitan garatua eta erreala *abstraktuak* edo *orokorrak* diren bere uneetan. Baizik eta adierazpen hori *barnekotasunera* itzultzen den orokortasun hartatik at agertzen da, eta errealitatea edo tankeraren, hau da, bere burua garatzen duen banakotasunaren eta orokor-den organikoaren edo generoaren artean orokor-den *determinatua* agertzen da, *espezia*. Orokor-denaren edo generoaren negatibotasunak lortzen duen existentzia prozesu baten higidura garatua baino ez da, *baden tankeraren zatietan* bidea egiten duen prozesua. Generoak bere baitan sinpletasun lasai gisa zati ezberdinak izango balitu, eta horren bidez haren *negatibotasun sinplea* halakoa den aldetik aldi berean higidura izango balitz, era berean sinpleak eta euren baitan bitartegabe orokorrak diren zatietan zehar, hots, halako une gisa hemen errealak lirakeen zatietan zehar doan higidura, orduan genero organikoa kontzientzia litzateke. Baina horrela *determinatutasun sinplea*, espeziearen determinatutasun gisa, generoan gogorik gabeko eran dago eskura; errealitatea generotik abiatzen da, edo errealitatean sartzen

dena ez da generoa bere horretan, hau da, ez da inolaz ere pentsamendua. Generoa organiko-den erreal gisa ordezkari batek ordezkatzten du. Baina ordezkari horrek, zenbakiak, itxuraz generotik tanke-ratze banakora doan igarobidea izendatu behar duenak eta behaketari beharrezkotasunaren bi alderdiak eman behar dizkionak, behin determinatutasun sinple gisa, beste behin aniztasuna biltzen duen tankera garatu gisa, orokor-denaren eta banako-denaren elkarrekiko axolagabetasuna eta askatasuna izendatzen ditu, eta generoak banako-dena handieraren zerizangabeko bereizketaren menpe uzten du, baina bizidun den aldetik bereizketa horretatik aske gisa azaltzen da. Egiazko orokortasuna, determinatu den moduan, hemen *barne zerizana* baino ez da; *espeziearen determinatutasun* gisa orokortasun formala da, eta horren aurrean egiazko orokortasun hura banakotasunaren aldean agertzen da, horren bidez biziduna dena, eta bere *barneko-denaren bidez espezie gisa duen determinatutasunaz* haratago joaten dena. Baina banakotasun hori ez da aldi berean indibiduo orokorra, hau da, hor orokortasunak ez luke era berean kanpoko errealitatea, baizik eta hori organikoki biziduna denetik at kokatzen da. Indibiduo *orokor* hori, ordea, *bitartegabe* berezko tankeratzeen indibiduo bezala, ez da kontzientzia bera; bere hor-izatea *banako indibiduo organiko bizi* gisa ezingo litzateke kokatu horretatik at, baldin eta kontzientzia izan behar badu.

Beraz, silogismo bat ikusten dugu, non mutur bat *bizitza orokorra den orokor gisa* edo genero gisa, eta beste muturra hori *berbera* baino *banako-den gisa* edo banako orokor gisa; erdigunea biek elkar hartuta osatzen dute, bata itxuraz hor sartzen da orokortasun *determinatu* edo mota gisa, eta bestea *benetako banakotasun* edo banako gisa. - Eta silogismo hori oro har *tankeratzearen* aldeari dagokionez, horrek natura ez-organiko gisa ezberdina dena ere jasotzen du.

Bizitza orokorrak, *generoaren zerizan sinple* gisa, bere aldetik adigaiaren bereizketak garatzen dituen eta horiek determinatutasun sinpleen ilara baten gisara aurkeztu behar dituen heinean, ilara hori axolagabeki ezarritako bereizketen sistema da, edo *zenbakien ilara*. Lehena-go organiko-dena banakotasunaren forman bereizketa zerizangabe horri aurkakotu bazitzaion, haren izaera bizia adierazten eta barnebiltzen ez duen horri, eta ez-organiko-denari dagokionez bere ezaugarrien samaldan garatzen den hor-izate osoaren arabera gauza berbera esan

behar bazen, orain indibiduo orokorra aztertu behar da, generoaren sailkapen orotatik aske gisa ez ezik, gainera, generoaren botere gisa ere bai. Zenbakiaren *determinatutasun orokorraren* arabera espezetan zatitzen den generoak, edo bere hor-izatearen banako determinatutasunak, adibidez, figura, kolorea, eta abar, bere zatiketaren oinarri gisa har ditzakeen generoak, zeregin lasai horretan bortxa jasaten du indibiduo orokorraren aldetik, *Lurraren* aldetik, zeinak negatibotasun orokor den aldetik bereizketak bere baitan dituen (horien izaera euren substantziari dagokionez ez da generoaren izaera) eta generoaren sistematizazioaren aurka baliodun bihurtzen dituen. Generoaren egite hori zeregin oso mugatu bihurtzen da, horrek osagai boteretsu horien eremuan baino garatu ezin duena eta horien bortxa kontrolatugabea dela eta beti ere etena, osagabea eta motza dena.

Hortik ondorioztatzen da hor-izate tankeradunean arrazoimena *oro har bizitza gisa* agertzen zaiola behaketari, baina horrek bere bereizketetan bere baitan arrazoizko ilara eta sailkapenik izan gabe benetan eta bere barnean oinarritzen den tankeren sistema izan gabe. - Tankeratze organikoaren silogismoan erdiko premisak (hor kokatzen dira espeziea eta horren errealtatea banako indibidualtasun gisa) bere baitan barneko orokortasunaren eta indibidualtasun orokorraren muturrak balitu, orduan erdiko premisa horrek bere errealtatearen *higiduran* orokortasunaren adierazpena eta izaera izango luke, eta bere burua sistematizatzen duen garapena litzateke. Horrela, *kontzientziak* erdiko premisa gisa kontzientziaren tankeratzeen sistema dauka, gogo orokorraren eta bere banakotasunaren edo sentipenezko kontzientziaren artean, osokian ordenatzen den gogoaren bizitza gisa; hori da hemen aztertzen ari garen sistema eta bere hor-izate objektiboa munduaren historia gisa duena. Baina natura organikoak ez du historiarik; bere orokordenetik, bizitzatik, bitartegabe erortzen da hor-izatearen banakotasunera, eta errealtate horretan bateratzen diren uneak, determinatutasun sinplearen eta bizitasun banakoaren uneak, ausazko higidura gisa baino ez dute sortzen bilakaera, non bakoitza ekile den bere zatian eta osokia mantentzen den, baina bizitasun hori *berez* murrizten da dagokion puntura, osokia hor ez dagoelako eskura, eta ez dago horretan eskura osoki gisa hemen *bere baitarako* ez delako.

Beraz, arrazoimen behatzailea natura organikoan bere burua oro har bizitza orokor gisa begiestera baino ez iristeaz gain, hari bere gara-

penaren eta errealizazioaren begiespena sistema erabat orokorki ezberdinen arabera iristen zaio, zeinen determinazioak zerizana ez duen organiko-denean bere horretan, baizik eta indibiduo orokorrean; eta ilarren arabera lurraren bereizketa horien *menpe*, generoa egiten saiatzen denaren menpe.

Beraz, *bizitza organikoaren orokortasuna* bere errealitatean, egiazko berbaitarako den bitartekotzarik gabe, bitartegabe *banakota-sunaren* muturrera erortzen den heinean, kontzientzia behatzaileak aurrean *iriztea* baino ez du gauza gisa; eta arrazoimenak irizte hori behatzeko interes alferra izan badezake, orduan naturaren iritzien eta burutazioen deskribapena eta kontaketa egitera murrizten da. Iriztearen askatasun gogo gabeko horrek edonon eskaintzen ditu legeen hastapenak, beharrezkotasunaren zantzuak, ordenaren eta sailkapenaren iradokizunak, harreman interesgarri eta egiantzekoak. Baina behaketa ez da *eragin handia* baino *haratago* iristen legeari eta beharrezkotasunari dagokienez organiko-denak ez-organiko-denaren badiren bereizketekin duen harremanean, hots, osagaiekin, eskualde eta klimekin. Horrela, beste alderdian, non indibidualtasunak ez duen lurraren esanahia baizik eta bizitza organikoari *immanente* zaion *batarena*, eta horrek orokor-denarekin bitartegabeko batasuna osatuz generoa osatzen duenez, baina horien batasun sinplea horregatik zenbaki gisa baino determinatzen ez denez, eta horregatik nolakotasunezko agerpena askatzen duenez, bada, behaketak *ohar zorrotzak*, *harreman interesgarriak* eta *adigaiari harrera abegikorra* besterik ezin du egin. Baina *ohar zorrotzak* ez dira *beharrezkotasunaren jakiterik*, harreman *interesgarriak* *interesean* geratzen dira, eta hori arrazoimenari buruzko iritzia baino ez da; eta indibiduoak adigaia hartzerakoan duen *abegikortasuna* haurren abegikortasuna da, eta hori heldugabea da balioren bat izan nahiko edo beharko balu bere baitan eta bere baitarako.

*b. AUTOKONTZIENZIAREN BEHAKETA BERE HUSTASUNEAN
ETA KANPOKO ERREALITATEAREKIN DUEN HARREMANEAN;
LEGE LOGIKOAK ETA PSIKOLOGIKOAK*

Naturaren behaketak adigaia natura ez-organikoan zertua aurkitzen du. Une gisa gauzak dituzten legeak eta gauzok, aldi berean, abstrakzio gisa jotaketen dute; baina adigai hori ez da bere baitara islatuta-

ko sinpletasuna. Natura organikoaren bizitza, aitzitik, bere baitara islatu den sinpletasun hori baino ez da; bere buruaren aurkakoa, orokor-denaren eta banako-denaren aurkakotza gisa, ez da banantzen bizitza horren zerizanean; zerizana ez da bere osagai bereizigabeen bere burua banatzen zuen eta higitzen zen generoa, bere aurkakotzan bere baitarako aldi berean bereizigabea litzatekeena. Behaketak adigai aske hori aurkitzen du, zeinaren orokortasunak maila absolutu berberean bere baitan banakotasun garatua daukan, baina adigai gisa existitzen den adigaian, edo norberaren kontzientzian.

Baina behaketa bere baitara itzultzen den heinean eta adigai errealarari zuzentzen zaion heinean adigai aske den aldetik, orduan aurkitzen ditu hark lehenengoz *pentsatzearen legeak*. Banakotasun hori, pentsatzea bere baitan dena, negatibo-denaren higidura abstraktua da, sinpletasunera erabat itzuli dena, eta legeak errealitaterik at kokatzen dira. - Ez dute ezein *errealitaterik*, eta horrek esan nahi du egiarik gabe direla. Egia *osoa* ez badira ere, gutxienez egia *formala* izan behar dute. Baina errealitaterik gabe formala besterik ez dena pentsamenduzko gauza da, edo abstrakzio kaskala, bere baitan edukia besterik izango ez litzatekeen zatiketarik gabekoa. - Bestalde, ordea, pentsatze hutsaren legeak diren heinean, baina hori bere baitan orokor-dena eta, beraz, jakite bat denez, zeinak bitartegabe izatea eta horretan errealitate oro bere baitan duen, bada, orduan lege horiek adigai absolutuak dira eta biak dira era bereiztezinean formaren eta gauzen zerizantasanak. Bere barnean higitzen den orokortasuna adigai *bikoiztu* sinplea denez, horrek era horretan *edukia* du bere baitan, eta gainera eduki oro eta ez-sentipenezko izate soila den edukia. Eduki hori ez dago kontraesanean formarekin, eta oro har ez da horretatik bereizten, baizik eta zerizanez hori bera da; izan ere, hori ez da bere une hutsetan banatzen den orokor-dena baino.

Baina forma edo eduki hori *behaketarentzat* behaketa den aldetik izateko moduak ematen dio *aurkitutako*, emandako, hau da, *izan baino ez den* edukiaren determinazioa. Harremanen *izate lasai* bihurtzen da, beharrezkotasun bakartuen multzoa, zeintzuek eduki *irmo* gisa euren baitan eta euren baitarako euren *determinatutasunean* egia izan beharko luketen, eta horrela egitatean forma kentzen zaien. - Determinatutasun irmoen edo hainbat lege ezberdinen egia absolutu horrek, ordea, autokontzientziaren edo pentsatzearen eta oro har for-

maren batasuna kontraesaten du. Lege irmo eta bere baitan irauten duentzat jotzen dena bere baitara islatzen den batasunaren une bat baino ezin da izan, ezin du desagertzen ari den handiera bezala baino agertu. Azterketak, ordea, higiduraren testuinguru horretatik erauzten baditu eta bakartuta kokatzen baditu, ez zaie edukia falta, badutelako eduki determinatu bat, baizik eta forma falta zaie, euren zerizana dena. Lege horiek ez dira pentsatzearen egia, baina ez formalak baino izan ezin dutelako izan eta edukirik izan behar ez dutelako, baizik eta aurkako arrazoiengatik, euren determinatutasunean, edo hain zuzen forma kendu zaion *eduki gisa*, absolutu den zerbait bezala balio beharko luketelako. Euren egian, pentsatzearen batasunean desagertzen diren une gisa, jakitetzat hartu beharko lirатеke, edo higidura pentsatzailetzat, ez ordea jakitearen *legetzat*. Behatze-ekintza ez da jakitea bera, eta ez du hori ezagutzen, baizik eta bere izaera *izatearen* tanke-ra bihurtzen du, hau da, bere negatibotasuna horren *lege* gisa baino ez du jasotzen. - Hemen nahikoa da pentsamenduaren lege deitzen diren horien baliogabetasuna erakustearekin gauzaren izaera orokorretaitik abiatuta. Garapen zehatzagoa filosofia espekulatiboari dagokio, non haiek egiatan diren moduan azaltzen diren, hots, desagertzen ari diren une banako gisa, zeinen egia higidura pentsatzailearen osokia baino ez den, jakitea bera den.

Pentsatzearen batasun negatibo hori berbaitarako da, edo *berbaitarako izatea* da, indibidualtasunaren printzipioa, eta bere errealitatean *ekiten duen kontzientzia*. Haren aurrera eramaten da lege haien errealitate gisa kontzientzia behatzailea gauzaren izaeraren bidez. Lotura hori harentzat ez den heinean, horrela deritzo, bere legeetan pentsatzea batetik geldituz geratzen zaio, eta bestetik beste izate bat lortzen du orain harentzat objektu zen horretan, hots, kontzientzia ekilean, zeina hain den bere baitarako, non beste izatea gaitzen baitu, eta bere burua negatibo-den gisa begiестean lortzen baitu bere errealitatea.

Behaketarentzat eremu berri bat irekitzen da, beraz, kontzientziaren errealitate ekilean. Psikologiak lege multzo handia jasotzen du, zeinen arabera gogoia bere errealitatearen hainbat moduren aurrean era ezberdinetan jokatzen duen, *topatzen duen beste izate* baten gisara; aldez, horiek bere baitan jasotzeko eta topatzen dituen aztura, ohitura eta pentsaeren *araberako bihurtzeko*, horietan hori objektu baita errealitate gisa; aldez, horien aurrean bere burua berez ekile gisa ezagutze-

ko, horrela joera eta desira izanik horietatik beretzat zerbait berezia ateratzeko eta objektibo-dena beraren arabera bihurtzeko; han bere aldean negatiboki jokatzu banakotasun gisa, hemen bere aldean izate orokor gisa. - Beregaintasunak topatzen denari lehen alderdiaren arabera bere buruaz jabetzen den indibidualtasunaren *forma* baino ez dio ematen, eta edukiari dagokionez topatzen den errealitate orokorraren barne geratzen da; beste alderdiaren arabera, ordea, hari gutxienez eraldaketa bereizgarria ematen dio, haren zerizanezko edukia kontraesaten ez duena, edo ematen dio indibiduoaren errealitate berezi eta eduki bereizgarri gisa hari aurkakotzera behartzen duen eraldaketa, eta hori krimena bihurtzen da, hori banako era batean soilik gainditzeko den heinean, edo hori era orokor batean egiten duen heinean eta horrela guztientzat egiten duen heinean, beste mundu bat, beste zuzenbide, lege eta ohitura bat ezarri orain ditugun ordez.

Psikologia behatzaileak, lehenik hari kontzientzia ekilean agertzen zaizkion *modu orokorren* hautemapenak adierazten dituenan, hainbat ahalmen, joera eta grina aurkitzen ditu, eta bilduma horren kontaketa autokontzientziaren batasunaren gogoramenaren baxtertu ezin daitekeen heinean, hark aurrera egin behar du gutxienez harik eta harritu arte ikustean gogoan, zorro batean bezala, hainbat gauza ezberdin izan daitezkeela batera, bereziki gainera hor ez daudelako hildako gauza lasai gisa, baizik eta higidura arduratsu gisa.

Ahalmen horien kontaketa behaketa alderdi orokorrean dago; gaitasun anitz horien batasuna orokortasun horri aurkakotzen zaion alderdia da, indibidualtasun erreala. - Indibidualtasun *erreal* ezberdinak berriro honela ulertzea eta kontatzea, alegia, gizaki baten aldeko joera handiago duela, eta besteak beste baten aldekoa, batak adimen gehiago besteak baino, bada, askoz ere interes gutxiagokoa da intsektuen, goroldioen eta abarren espezieak kontatzea baino; izan ere, horiek behaketari eskubidea ematen diote horiek horrela banaka eta adigaigabe hartzeko, horiek zerizanez ausazko banakotzearen osagaiari dagozkiolako. Norberaren buruaren jabe den indibidualtasuna, aitzitik, gogorik gabe den agerpen *banako* gisa hartzeak kontraesan hau du, hots, horren zerizana gogoaren orokor-dena dela. Baina ulertzeak behaketa aldi berean orokortasunaren formara ekartzen duen heinean, horrek *haren legea* aurkitzen du, eta itxuraz orain arrazoizko xedea du eta beharrezko zeregina betetzen du.

Legearen edukia osatzen duten uneak alde batetik banakotasuna bera, bestetik haren izaera ez-organiko orokorra dira, hots, hor aurkitzen ditugun inguruabarrak, egoerak, ohiturak, azturak, erlijioa eta abar; horietatik abiatuz aditu behar dugu banakotasun determinatua. Horiek determinatu-dena nahiz orokor-dena biltzen dute, eta aldi berean *eskura-dagoena* dira, behaketari eskaintzen zaiena eta, bestalde, banakotasunaren forman adierazten direna.

Bi alderdien erlazio horren legeak inguruabar determinatu horiek indibidualtasunaren gainean duten eragin mota barnebildu beharko luke. Baina indibidualtasun hori hain zuzen hau da, *era bere - an orokor-dena* izatea, eta horregatik era bitartegabeko lasai batean *eskura* dugun orokor-denarekin, ohiturekin, azturekin, eta abarrekin bat egitea eta horien araberakoa bihurtzea, eta, gainera, haiei aurkakotuz jokatzeta, eta haiek iraultzea, eta, gainera, haien aurrean euren banakotasunean osorik axolagabe jokatzeta, haiei ez uztea bere baitan eragiten, eta haien aurrean ekile ez izatea. Indibidualtasunaren beraren menpe dago horren gain *zerk* duen eragina eta *zein* eragin izan behar duen, esanahi berbera duten bi gauza; *horren bidez* indibidualtasun hori indibidualtasun *determinatu bihurtu* dela esateak ez du hau baino esan nahi, hots, hori dagoeneko izan dela. Inguruabarrak, egoerak, ohiturak eta abar, alde batetik eskura izanik erakusten direnak, eta bestalde indibidualtasun determinatu horretan daudenak, horren zeriz an indeterminatua baino ez dute adierazten, hemen aztergai ez duguna. Inguruabar horiek, pentsaera hori, ohitura horiek, munduaren egoera hori oro har izango ez balira, orduan noski indibiduo ez litzateke bihurtuko den hori; izan ere, substantzia orokor hori munduaren egoera horretan dauden guztiak baitira. - Baina munduaren egoera indibiduo *horretan* partikularitzeko (eta horrelakoa aditu behar da) bere baitan eta bere baitarako bere burua partikularizatu behar du eta bere buruari eman dion determinatutasun horretan indibiduo baten gain eragin behar du; horrela baino ezingo litzateke bihurtu den indibiduo determinatu hori. Kanpoko-denak bere burua bere baitan eta bere baitarako horrela eratu badu, indibidualtasunean agertzen den moduan, azken hori beste hartatik abiatuta adituko litzateke. Irudien galeria bikoitza izango genuke, bata bestearen isla izaki; bata determinatutasun betearen eta kanpoko inguruabarren mugaketaren galeria, eta bestea hori bera baina bere buruaren jabe den zerizanean duten izateko

modura itzulita; hura azalera biribila, hori hura bere barnean erreprezentatzen duen erdiko puntua.

Baina azalera biribilak, indibiduoaren munduak, bitartegabe esanahi bikoitza du: *bere baitan eta bere baitarako den mundu* eta *ego-era* eta *indibiduoaren mundua* izatea horrek berekin bat egingo balu bezala, hori den bezala bere barnean izaten utziz eta horren aurrean soilik kontzientzia formal gisa jokatzuz; *edo* indibiduoaren mundua izatea, eskura duguna horrek *irauli* duen moduan. - Askatasun hori dela eta errealtateak esanahi bikoitz hori izan dezakeenez, orduan indibiduoaren mundua horretatik abiatuta baino ez da aditu behar, eta bere baitan eta bere baitarako *baden* gisa errepresentatu behar den errealtateak indibiduoaren gainean duen *eraginak* horren bidez absolutuki aurkako zentzua jasotzen du, hots, errealtate jariakorraren korrontea bere gain *onartzea* edo hori haustea eta iraultzea. Horren bidez, ordea, *beharrez-kotasun psikologikoa* hain hitz hutsala bihurtzen da ezen, eragin hori izan behar zuenak era berean eragin hori ezin izateko ahalgarritasun absolutua baitu.

Horrenbestez, *berbaitan eta bertairako* litzatekeen *izatea* desagertzen da, eta legearen alde bat eta, gainera, alde orokorra osatu behar zuena. Banakotasuna *bere* mundua den hori da *bere* mundu gisa; hori bera bere egitearen zirkulua da, non bere burua errealtate gisa aurkeztu duen, eta erabat *eskura dagoen* eta *egina den izatearen* batasuna baino ez den; batasun horretan aldeak ez dira *bere baitan* dagoen mundua eta *bere baitarako* den banakotasun gisa banantzen, lege psikologikoaren errepresentazioan gertatzen denez; edo alde bakoitza bere baitarako aztertzen bada, orduan ez dugu izango euren arteko harremanaren ezein lege eta beharrezkotasunik.

*c. AUTOKONTZIENTZIAK BERE BITARTEGABEKO
ERREALITATEAREKIN DUEN HARREMANAREN BEHAKETA;
FISIONOMIA ETA GAREZURRAREN IRAKASPENA*

Behaketa psikologikoak ez du autokontzientziak errealtatearekin edo hari aurkakotzen zaion munduarekin duen erlazioaren ezein legerik, eta biek elkarrekiko duten axolagabetasunak banakotasun erre-alaren *determinatutasun berezira* itzularazten du, zeina *berbaitan eta berbaitarako* den, edo *berbaitarako izatearen* eta *berbaitan izatearen* arteko aurkakotza euren bitartekotze absolutuan baliogabetuta jasotzen

duen. Banakotasun hori orain behaketaren objektu bihurtu da, edo behaketa objektu horretara igarotzen da.

Indibiduoak bere baitan eta bere baitarako da; *bere baitarako* da edo egite askea da; baina, gainera, *bere baitan* da; edo horrek berak *jatorrizko izate* determinatua du, adigaiaren arabera psikologiak hartatik at aurkitu nahi zuen determinatutasuna dena. *Horren baitan*, beraz, aurkakotza agertzen da, hain zuzen bikoiztu den hori izatea, kontzientziaren higidura eta agertzen den errealitatearen (bere baitan bitartegabe *berea* den errealitatearen) izate finkoa. *Izate* hori, indibidualtasun determinatuaren *soina*, horren *jatorrizkotasuna* da, horren ez-ekin-izatea. Baina indibiduoak, aldi berean, horrek egin duena baino ez den heinean, orduan bere *soina* ere horrek *sortu* duen norberaren adierazpena da; aldi berean *zeinu* bat da, bitartegabeko gauzan geratu ez dena, baikizik eta horretan ezagutarazten duena zer den bere jatorrizko izaera lanean jartzen denean.

Hemen aurrean ditugun uneak aurreko ikuspegiarekin harremanean aztertzen baditugu, orduan hemen giza tankera orokorra dugu, edo gutxienez klima baten, munduko zati baten, herri baten tankera orokorra, lehenago ohitura eta prestakuntza orokorra genituen bezala. Gainera, errealitate orokorraren barneko inguruabar eta egoera bereziak ditugu; hemen errealitate berezia indibiduoaren tankeraren formazio berezi gisa da. - Bestalde, lehenago indibiduoaren egite askea eta errealitatea *berea* bezala ezarrita zegoen hor eskura zegoenaren aurrean, eta hemen tankera dugu *bere* buruak ezarritako egizarizapenaren adierazpen gisa, bere zerizan beregainaren ezaugarri eta formak. Baina orokorra nahiz berezia den errealitatea, behaketak lehenago indibiduotik at aurkitu zuena, hemen horren *beraren* errealitatea da, bere jatorrizko *soina*, eta hain zuzen horretan kokatzen da bere egiteari dagokion adierazpena. Azterketa psikologikoan bere baitan eta bere baitarako den errealitatea eta indibidualtasun determinatua elkarrekin harremanean jarri beharko lirateke; hemen, ordea, *indibidualtasun* determinatu *osoa* da behaketaren objektu; eta bere aurkakotzaren alderdi bakoitza osoki hori da. Kanpoko osotasunari *jatorrizko izatea*, jatorrizko *soina* ez ezik, gainera, barneko-denaren egiletasunaren parte den horren formazioa dagokio; izate ez-eratu eta eratuaren batasuna da, eta indibiduoaren berbaitarako izateak betetzen duen errealitatea. Osoki hori, jatorrizko zati finko determinatuak eta

egitearen bidez baino sortzen ez diren ezaugarriak jasotzen dituen bere baitan, *bada* eta *izate* hori barneko-denaren *adierazpena* da, kontzientzia eta higidura gisa ezarrita dagoen indibiduoarena. - *Barneko-den* hori era berean ez da beregaintasun formala, edukigabea edo indeterminatua, zeinaren edukia eta determinatutasuna lehen bezala kanpoko inguruabarretan egongo litzatekeen, baizik eta bere baitan determinatua dagoen izaera jatorrizkoa da, zeinaren forma egiletasuna baino ez den. Hemen aztertu behar dugu bi alderdi horien arteko erlazioa nola determinatu behar den eta barneko-denak kanpoko-denean duen *adierazpena* nola ulertu behar den.

Kanpoko-den horrek lehenik *organo* gisa baino ez du bihurtzen ikusgarri barneko-dena, edo oro har beste batentzako izate bihurtzen du; izan ere, barneko-dena, organoan den heinean, *egiletasuna* bera da. Hitz egiten duen ahoa, lan egiten duen eskua, eta hankak, gaineratu nahi badituzu, organo egikaritzailak eta osatzaileak dira, zeinak egitea *egite* gisa duten, edo barneko-dena bere horretan duten euren baitan; kanpokotasuna, ordea, haien bidez lortzen duena, egintza da, indibiduotik bereizten den errealitate gisa. Hizkuntza eta lana adierazpenak dira, non indibiduo bere baitan ez den mantentzen eta ez den bere buruaren jabe, baizik eta barneko-denari guztiz adierazten uzten dion, eta besteen esku uzten duen. Horregatik, era berean esan daiteke adierazpen horiek barneko-dena gehiegi eta gutxiegi adierazten dutela; *gehiegi*, barneko-dena haietan hausten delako, eta aurkakotzarik ez delako geratzen haiek eta horren artean; ez dute barneko-denaren *adierazpena* soilik ematen, baizik eta gainera bitartegabe euren buruarena; *gutxiegi*, zeren barneko-dena hizkuntzan eta ekintzan beste bat bihurtzen baita eta, horrela, eraldaketaren osagaiaren esku geratzen da, zeinak ahoskatutako hitza eta betetako ekintza iraultzen dituen eta indibiduo determinatu horren ekintza gisa bere baitan eta bere baitarako direna ez beste zerbait bihurtzen dituen. Ekintzen emaitzek beste indibidualtasunen aurrean geratzen den zerbaitek duen izaera galdu soilik ez dute egiten besteen eraginaren kanpokotasun horren bidez; baizik eta haiek barnebiltzen dituen barneko-denarekin kanpoko-den bakartu gisa, axolagabe gisa, jokatzeko duen heinean, barneko-diren aldetik *indibiduoaren* bidez beste zerbait izan daitezke: edo indibiduoak nahita agerpenean egiatan direna ez den beste zerbait bihurtzen ditu, edo baldarregia da berak nahi zuen kanpoko alderdia

eskaintzeko eta hori hainbeste finkatzeko non bere emaitza besteek ezin baitute irauli. Egiteak, beraz, emaitza osatu gisa, esanahi aurkakotu bikoitza du, hots, *barneko* indibidualtasuna eta horren *adierazpena ez* izatea, edo kanpoko-den aldetik barneko-denetik aske dagoen errealitatea izatea, zeina beste hartatik guztiz ezberdintzen den. - Bi esanahi horiek direla eta, barneko-dena bilatu behar dugu *indibiduo-an bertan* den moduan era ikusgarrian edo kanpokoan. Organoan, ordea, *egite* bitartegabekoa baino ez da, bere kanpokotasuna egintzan lortzen duena, zeinak barneko-dena errepresentatzen duen edo agian ez. Organoak aurkakotza horren arabera ikusita ez du bilatzen den adierazpenaren bermerik ematen.

Orain, bada, kanpoko tankerak, organo ez denez eta *egite* ez denez, eta beraz, osoki lasaia denez, barne banakotasuna adierazi ahal izango balu besterik gabe, orduan beraz irauten duen gauza gisa jokatuko luke, zeinak barneko-dena arrotz-den bat balitz bezala bere horizate jasailean jasoko lukeen eta horren bidez haren zeinua izango litzatekeen; kanpoko, ausazko adierazpena litzateke, horren alde *erreal*a bere baitarako esanahigabea; bere tonuak eta tonuen arteko loturak hizkuntza bat dira, ez gauza bera baizik eta horri edozein modutan lotutakoa eta harentzat ausazkoa den hizkuntza.

Elkarrekiko kanpoko-diren halakoen lotura nahierazko halakoak ez du legerik sortzen. Fisionomia, ordea, beste antze txar eta ikasketa gaiztoetatik honetan bereizten da antza, alegia, horrek indibidualtasun determinatua barneko-denaren eta kanpoko-denaren aurkakotza *beharrezkoan* aztertzen duela, bere buruaz jabetzen den zerizana den izaeraren eta baden tankera den izaera horren beraren artekoa, eta une horiek elkarrekin honako moldez lotzen dituela, haren adigaiaren bidez elkar lotuta dauden bezala, eta horregatik lege baten edukia osatu behar dutela. Astrologian, kiromantzian eta horrelako jakintzetan, aldiz, itxuraz kanpoko-dena kanpoko-denari soilik lotzen zaio, zerbait horri arrotza zaionari lotzen zaio. Jaiotzan dugun izarren egokiera *hori*, eta kanpoko-den hori zehazkiago soinean adierazten bada, eskuaren ezaugarri *horiek* bizitzaren luzea edo laburraren *kanpoko* uneak dira eta oro har gizakiaren patuarenak. Kanpokotasunak diren aldetik elkarrekin axolagabe jokatzen dute eta *kanpoko-denaren* eta *barneko-denaren* arteko harremanean izan beharko genukeen elkarrekiko beharrezkotasunik ez dugu.

Eskuak, noski, ez dirudi patuarentzat kanpoko zerbait denik, baizik eta horren barneko-dena bezala jokatzeko duela dirudi. Izan ere, patua bere aldetik indibidualtasun determinatua *bere baitan* jatorrizko determinatutasun barneko gisa denaren agerpena baino ez da. - Hori bere baitan zer den jakitera kiromantea eta fisionomista bide laburragotik iristen dira Solon baino, horrek bizitza osoaren bidea eginez eta hori zeharkatu ondoren jakin ahal izango zuela uste baitzuen; horrek agerpena aztertzen zuen, haiek, ordea, *berbaitana*. Eskuak indibidualtasunaren *berbaitana* aurkeztu behar duela patuari dagokionez erraz ulertzen da honetatik abiatuz, hots, hizkuntzaren organoaren ondoren horren bidez iristen delako gizakia gehien agerpenera eta egikaritzape-nera. Bere zorionaren artisauek biziak da; eskuaz esan daiteke gizakiak *egiten* duena *dela*; izan ere, horretan bere buruaren osatzearen organo ekileak den aldetik gizakia bizidun gisa dago hor, eta hori jatorriz bere patu propioa den heinean, bada, eskuak berbaitan hori adieraziko du.

Egiletasunaren *organoa era berean izatea* nahiz bere barnean *egitea* izateko determinazio horretatik, edo *berbaitan izate* barneko horren baitan *hor aurrean* izateetik eta beste *batentzako izatea* edukitzetik, horren beste ikuspegia ondorioztatzen da, aurrekoaren ezberdina. Hain zuzen, organoek oro har erakusten badute ezin direla hartu barneko-denaren *adierazpen* gisa horietan egitea *egite* gisa hor aurrean dagoelako, baina egitea *egintza* gisa kanpoko-dena besterik ez delako, eta barneko-dena eta kanpoko-dena era horretara banantzen direlako eta aurrez aurre arrotzak direlako edo izan daitezkeelako, bada, orduan aztertu den determinazioaren arabera organoa berriro bien *erdigune* gisa hartu behar da, horrek ere, hots, egitea *hartan aurrean* izateak, aldi berean haren *kanpokotasun* bat osatzen duen heinean, eta gainera egintza ez dena, eta hori hain zuzen indibiduoan eta bere baitan geratzen da. - Barneko-denaren eta kanpoko-denaren arteko erdigunea eta batasuna orain hasiera batean kanpoko da; baina, gainera, kanpokotasun hori aldi berean barneko-denean jasotzen da; kanpokotasun *simple* gisa sakabanatuaren aurrean dago, zeina indibidualtasun osoarentzat *banako* emaitza edo egoera banakoa den edo kanpokotasun *oso* gisa hainbat emaitza eta egoeratan zatikatutako patua den. *Eskuaren ezaugarri simpleak*, beraz, era berean *ahotsaren tinbreak eta konpasak*, hizkuntzaren determinatutasun indibidual gisa, eta hori bera berriro eskuaren bidez ahotsak ematen ez dion existentzia finkoago lortzen duela, *idazkia*, eta

gainera bere berezitasunean *eskuz idatzi* gisa, hori guztia barneko-denaren adierazpena da, halako moldez non *kanpokotasun sinple* gisa berriro ekitearen eta patuaren *kanpokotasun askotarikoaren* aurka jokatzeko baitu, horien aurka *barneko* gisa jokatzeko duelako. - Beraz, hasiera batean indibiduoaren izaera determinatua eta jatorrizko bereizgarritasuna, prestakuntzaren bidez lortu duenarekin batera, *barneko-denaren* gisara, ekitearen eta patuaren zerizan gisa hartzen bada, orduan horrek bere *agerpena* eta kanpokotasuna *lehenik* bere ahoan, eskuan, ahotsean, eskuz idatzian, nahiz gainerako organoetan eta gainerako determinatutasunetan du, eta *orduan* soilik adierazten da *gehiago* kanporantz munduan duen errealitatean.

Erdigune horrek bere burua adierazpen gisa determinatzen duenez, aldi berean barneko-denean atzera jasotzen dena, horren hor-izatea ez da murrizten egitearen bitartegabeko organora, baizik eta hori aurpegiaren eta tankeratzearen ezer osatzen ez duen higidura eta forma da oro har. Ezaugarri horiek eta horien higidura adigai horren arabera indibiduoan geratzen den egite oztopatuak dira, eta egite errealararekin duten harremanaren arabera horren ikuskatze eta behatze propioa, *adie - razpena* adierazpen errealarari *buruzko hausnarketa* gisa. - Indibiduo ez da mutua bere kanpoko egiterako eta egite horretan hor aldi berean bere baitara islatua dagoelako, eta bere baitara islatua izatea adierazten duelako; egite teoretiko hori edo horri buruz indibiduoak bere buruarekin duen jarduna ohargarria da besteentzat ere, jardun hori bera adierazpen bat baita.

Barneko-den horretan, bere adierazpenean barneko izaten dirauenean, indibiduoaren islatua *izatea* behatzen da bere errealtatetik abiatuz, eta ikusi behar da zer gertatzen den batasun horretan ezarritako beharrezkotasun horrekin. - Islatua izate hori lehenik egintzatik ezberdintzen da, eta, beraz, egintza ez den *beste zerbait* izan daiteke eta beste zerbait gisa har daiteke; aurpegian ikusten zaio pertsona bati esaten duena edo egiten duena *serio* hartzen duen ala ez. - Baina, alderantziz, barneko-denaren adierazpena izan beharko lukeen hori aldi berean *baden* adierazpena da, eta horrela *izatearen* determinazioan hondoratzen da, zeina norberaren buruaren jabe den zerizanarentzat absolutuki ausazkoa den. Horregatik, bada adierazpena, baina aldi berean *zeinu* gisa besterik ez, halako moldez non adierazitako edukiari adierazten duenaren eraketa erabat axolagabea baitzaio. Agerpen horretan

barneko-dena ikusezina den *ikusgarria* da, baina hari elkarlotu gabe; hura beste agerpen batean izan daiteke, beste barneko-dena agerpen berberan izan daitekeen bezala. - *Lichtenberg*-ek, horregatik, arrazoi guztiz esaten du: «demagun fisionomistak gizakia behin atzematen duela, orduan erabaki ausarta baino ez luke behar berriro milaka urte-tarako ulergaitz bihurtzeko»⁵. - Aurreko erlazioan bezala, dugun inguruabarra baden bat da, horretatik indibidualtasunak ahal zuena eta nahi zuena hartzen duela, horren menpe jarritz edo hori irauliz, eta horregatik horrek ez du indibidualtasunaren beharrezkotasuna eta zerizana barnebiltzen; era berean, hemen indibidualtasunaren ageriko izate bitartegabekoa honakoa da, edo bere islatua izatea errealitatetik abiatuz eta bere barnean izatea adierazten duena, edo horretzat izendatutakoaren aurrean axolagabe den zeinu baino ez dena, eta horregatik benetan ezer izendatzen ez duena; harentzat era berean da bere aurpegia eta erants dezakeen moztorra. - Indibidualtasunaren tankeran zehar sartzen da, higitzen da, hartan hitz egiten du; baina hor-izate oso hori era berean nahimenaren eta ekintzaren aurrean axolagabe den izate gisa aurkezten da; horretan lehen zuen esanahia baliogabetzen du, hots, bere islatua izatea bere barnean edo bere egiazko zerizana hartan izatea, eta hori nahimenean eta ekintzan ezartzen du.

Indibidualtasunak *ezaugarrietan* adierazten den *bere baitara islatua izate hori alde batera uzten* du, eta *bere zerizana emaitzan ezartzen* du. Horrela, norberaren buruaren jabe den indibidualtasuna behatzen dagoen arrazoimenaren senak ezarritako erlazioa kontraesaten du, haren *barneko-dena* eta *kanpoko-dena* zer izan behar duenari buruzko erlazioa. Ikuspegi horrek *jakintza*, horrela nahi bada, fisionomikoaren oinarrian dagoen benetako pentsamendura eramaten gaitu. Azterketa horrek aurkakotza bat topatzen du, formaren arabera praktiko-denaren eta teoretiko-denaren arteko aurkakotza, biak hain zuzen praktiko-denaren barnean ezarrita; ekitean, zentzu orokorrean hartuta, egikaritzen den indibidualtasunaren eta hori bera ekite horretatik abiatuta bere baitara islatzen den eta hori bere objektu bihurtzen duen indibidualtasunaren arteko aurkakotza. Behatzeak aurkakotza hori agerpenean determinatzen den erlazio irauli haren arabera jasotzen du. *Zerizana gabeko kanpoko-dentzat* hartzen ditu egintza bera eta emaitza, dela hizkuntzarena edo errealitate finko batena, baina *zerizanezko barneko-dentzat* hartzen du indibidualtasunaren *bere barnean izatea*. Kontzien-

tzia praktikoak hartan dituen bi alderdien artean, iriztea eta ekintza, ekintzaren gaineko *iritzia* eta *ekintza* bera, behaketak alderdi hura hautatzen du egiazko barneko-den gisa; horrek egintzan du bere adierazpen gutxi-asko *zerizangabekoa*, baina egiazkoa tankeran du. Azken adierazpen hori gogo indibidualaren sentipenezko aurrean-izate bitartegabea da; egiazkoa izan beharko lukeen barnekotasuna asmoaren bereizitasuna eta bere baitarako izatearen banakotasuna da; biak *ustezko* gogo osatzen dute. Behatzeak objektutzat duena, beraz, hor-izate *ustezkoa* da, eta horrelakoen artean bilatzen ditu legeak.

Gogoaren *ustezko* aurrean-izateari buruzko bitartegabeko iriztea berezko fisionomia da, lehen begiratuan egiten den judizio azkarregia barneko izaerari buruz eta horren tankeraren izaerari buruz. Iritzi horren objektua halakoa da, non horren zerizana baita egiatan sentipenezko izate bitartegabekoa ez beste zerbait izatea. Gainera, hain zuzen sentipenezko-denean horretatik at bere baitara islatua dena, hor aurrean dagoen ikusgarritasuna da ikusezin-denaren ikusgarritasun gisa, behatze-ekintzaren objektu dena. Baina sentipenezko aurrean-izate bitartegabeko hori ere gogoaren *errealitatea* da, iritziarentzat besterik ez den moduan; eta behatzea alderdi horren arabera hor-izate *ustezkoaren* inguruan dabil, fisionomiaren, eskuz idatziaren, ahotsaren tonuaren, eta abarren inguruan. - Halako hor-izatea *ustezko barneko-denari* lotzen dio, hain zuzen. Ez da ezagutu behar den hiltzailea, lapurra, baizik eta horiek *izateko gaitasuna*; horren bidez determinatutasun finko abstraktuak bere burua galtzen du *banako* indibiduoaren determinatutasun konkretu amaigabea, zeinak orain ezaugarripen haiek baino saiatsuagoak diren marrazkiak eskatzen dituen. Halako marrazki saiatuak gehiago esaten dute hiltzaile, lapur edo bihotz oneko, garbi, eta abarren moduko ezaugarripenek baino, baina ez dira aski *ustezko* izatea edo indibidualtasun banakoa adierazteko xedea betetzeko; tankeraren marrazkiak bezain gutxi, zeinak kopeta laua, sudur luzea, eta abarrez haraindi dihoazten. Izan ere, tankera banakoa, autokontzientzia banakoa bezala, adierazezinak dira *ustezko* izate gisa. Gizakiaren ezagutzaren jakintza, *ustezko* gizakiaz arduratzen dena, fisionomia *ustezko* errealitateaz arduratzen den moduan, eta berezko fisionomiaren kontzientziagabeko judizioa jakite bihurtu nahi duena, horregatik, amaierarik gabekoa eta oinarriarik gabekoa da, inoiz esan ezin duena zer deritzon, iritzia baino ez duelako, eta bere edukia irizten dena baino ez delako.

Jakintza hori aurkitzeko bidean dagoen *legeak* bi ustezko alderdi horien arteko harremanak dira, eta horregatik irizte hutsal bat baino ezin dute izan. Gogoaren errealtateaz arduratzen den ustezko jakiteak, hain zuzen, hau duenez bere objektu gisa, hots, bere sentipenezko horizatetik irten eta bere baitara islatzea, eta hor-izate determinatua horrentzat kasualitate axolagabea denez, orduan aurkitu dituen lege horietan bitartegabe jakin behar du horrekin ez dela ezer esaten, baizik eta benetan hitzontzikeria eta *norberaren iritzia*ren adierazpena baino ez dela; adierazpen horren egia hau izaki, bere *iritzia* esaten duela eta ez gauza bera, baizik eta *norberaren* iritzia sortu besterik ez duela egiten. *Edukiaren* arabera, ordea, behaketa horiek ezin dira besteetatik bereizi: «Beti euria egiten du urteko azoka nagusia dugunean, dio saltzaileak, eta nik jantziak lehortzera jartzen ditudanean ere beti egiten du euria, dio etxekoandreak».

Behatze fisionomikoa horrela⁶ ezaugarritzen zuen Lichtenbergek hau era badio: «Norbaitek esango balu, zuk gizon zintzo baten moduan jokatzeko duzu, baina zure itxuran ikusten dut horretara behartzen zarela eta bihotzean iruzurtia zarela, orduan edozein morroi jatorrek masailako batekin erantzungo lieke munduaren amaieraraino halako hitzei»⁷. - Erantzun hori *egokia* da iriztearen jakintza halakoaren lehen baldintzaren errefusapena delako, hain zuzen, gizakiaren *errealitate* bere aurpegia eta abar dela. - Gizakiaren *egiazko izatea* bere *egin-tza* da; hor indibidualtasuna *erreal* da, eta horrek gainditzen du *irizten dena* bi alderdietan. Behin irizten dena izate lasai soindun gisa, eta hor indibidualtasuna ekintzan aurkezten da zerizan *negatibo* gisa, izatea gainditzen duen heinean baino ez *dena*. Gainera, egintzak iritzia adierazezintasuna gainditzen du era berean *norberaren* buruaren jabe den indibidualtasunari dagokionez, zeina iritzian amaigabe determinatua eta determinagarria den. Egintza betean amaigabetasun txar hori suntsitzen da. Egintza determinatu-dena, orokor-dena, abstrakzio batean jaso behar dena besterik ez da; hilketa, lapurreta, edo onegintza, ekintza ausarta eta abar da, eta horri buruz *esan* daiteke zer *den*. Hori *da*, eta horren izatea ez da zeinua besterik gabe, baizik eta gauza bera. Hori *da*, eta gizaki indibiduala hori *dena da*; *izate horren* sinpletasunean besteentzat baden zerizan orokorra da, eta utzi egiten dio irizten dena soilik izateari. Hori, noski, ez dago gogo gisa ezarria; baina kon-tua horren *izatea* den heinean izate den aldetik, eta *alde batetik* izate

bikoiztua, *tankera* eta *egintza*, elkarren aurrean dauden heinean eta biak haren errealtatea izan behar dutenez, orduan egintza baino ezin da baieztatu haren *egiazko izate* gisa, ez haren figura, indibiduoak bere egintzei buruz irizten duena adierazi beharko lukeena, edo hark egin dezakeena irizten duena. *Bestalde*, era berean bere emaitza eta barneko *ahalgarritasuna*, gaitasuna edo asmoa elkarren aurka dauden heinean, hura baino ezin da hartu haren egiazko errealtate gisa, nahiz eta hura bera horretan iruzurtzen den eta bere ekintzatik bere baitara itzulita barneko-den horretan *egintzan* ez den beste zerbait dela uste duen. Osagai objektiboan konfiantza duen indibidualtasunak, emaitza bihurtzen den heinean, aldatua eta iraulia izateko aukera ematen du. Baina honek osatzen du egintzaren izaera, ea irauten duen izate erreala den, edo ustezko emaitza den, bere baitan ezer izan gabe iraungitzen dena. Objektibotasunak ez du aldatzen egintza bera, baizik eta erakutsi egiten du besterik gabe hori *dena*, hau da, ea *baden* edo ezer *ez den*. - Izate horren zatiketa asmoetan eta halako sotiltasunetan, zeinaren arabera gizaki *erreala*, hau da, bere egintza berriro ustezko izate gisa argitu beharko litzatekeen, horrek berak bere buruari buruz dituen asmo bereziak edozein direla ere, bada, hori guztia iritziaren alferkeriaren esku utzi behar da; eta horrek jakituria egintzarik gabekoa lanean jarri nahi badu, ekileari arrazoimenaren izaera ukatu nahi badio eta hori era horretara gaizki hartu nahi badu, hots, ekintzaren ordeztu gisa eta ezau-garriak nahi baditu adierazi izatetzat, orduan lehen aipatutako erantzuna espero dezake, zeinak erakusten dion ezen, figura ez dela *berbaita* - *na*, baizik eta landu beharreko objektua izan daitekeela.

Orain erlazioen hedapenari begiratzen badiogu oro har, non norberaren buruaren jabe den indibidualtasuna bere kanpoko-denari zuzenduz behatzen den, orduan bat atzean geratuko da, behaketak oraindik bere objektu bihurtu behar duena. Psikologian *gauzen kanpo* - *ko errealtatea* da gogoan bere buruaren jabe den *isla* izan behar duena eta hori ulergarri bihurtu behar duena. Fisionomian, ordea, *bere* kanpoko-denean *hizkuntza* den izate batean bezala ezagutua izan behar da, bere zerizaren ikusezintasun ikusgarria. Oraindik errealtatearen alderdiaren determinazioa geratzen zaigu, hots, indibidualtasunak bere errealtate bitartegabekoa, finkoa, hor besterik ez denean bere zerizana adierazten duela. - Azken harreman hori fisionomikotik bereizten da hori indibiduoaren hor aurrean izate *hizlaria* delako, zeinak bere

adierazpen *ekilean* aldi berean bere baitara *islatzen* eta *aztertzen* den adierazpena aurkezten duen, higidura den eta ezaugarri lasaiak, hots, zerizanez izate bitartekotu diren adierazpena. Oraindik aztertu behar den determinazioan, azkenean, kanpoko-dena erabat errealitate *lasaia* da, bere baitan zeinu hizlaria ez dena, baizik eta norberaren buruaren jabe den higiduratik bereizita bere burua bere baitarako aurkezten duen eta gauza soil a gisa dena.

Lehenik argi dago barneko-denak bere kanpoko-den horrekin duen harremanari dagokionez, hori itxuraz *kausa-loturaren* erlazio gisa aditu behar dela, erlazio hori berbaitan den batek beste berbaitan den batekin duen harremana den heinean, *beharrezkoa* den aldetik.

Baina gogo-indibidualtasunak soinean eragina duenez, orduan kausa gisa soinduna izan behar du. Soina-duena, ordea, non indibidualtasuna kausa den, organoa da, baina ez egitearena kanpoko errealitatearen aurka, baizik eta norberaren buruaren jabe den zerizanaren egitearena bere barnean, baina kanpoan bere gorputzaren aurka soilik; ez da berehala argitzen zein izan daitekeen organo hori. Organoetan oro har pentsatzen bada, orduan lanaren organoa erraz izango genuke eskura, era berean sexuaren organoa, eta abar. Baina organo horiek tresna edo zati gisa aztertu behar dira, zeinak gogoak erdigune den aldetik mutur gisa dituen beste muturraren aurka, hots, kanpoko *objektua*. Hemen organo bat ulertzen da non norberaren buruaren jabe den indibiduo a mutur gisa *bere kabuz* mantentzen den berari aurkakotzen zaion errealitate propioaren aurka, aldi berean kanpora bihurtzen ez dena, baizik eta bere ekintzan islatua dena, eta non *izatearen* alderdia ez den *beste batentzako izatea*. Harreman fisionomikoan organoa, noski, bere baitara islatu eta egitea agintzen duen hor-izate gisa aztertzen da; baina izate hori objektiboa da, eta behaketa fisionomikoaren emaitza hau da, ezen autokontzientzia hain zuzen bere errealitate horren aurka agertzen dela axolagabe den zerbaiten aurka bezala. Axolagabetasun hori desagertzen da bere baitara islatua izate hori *ekilea* delako; horren bidez hor-izate horrek harreman beharrezkoa lortzen du harekin; baina hor-izatean eragiten duenez, horrek benetan objektiboa ez zen izatea izan behar du, eta organo hori gisa erakutsi behar da.

Bizitza arruntean, bada, haserrea adibidez, halako barne egite gisa, gibelean ezartzen da; Platonek zerbait garaiagoa egozten dio, batzuen arabera gainera gorena dena, hots, profezia edo santu-dena eta

betiko-dena irrazionalki adierazteko dohaina⁸. Baina indibiduoak gibelean, bihotzean eta abarretan duen higidura ezin da ikusi hark bere baitara erabat islatuta duen higidura gisa, baizik eta higidura horretan hori soinean ezarriz da eta hor-izate aberezkoa du, kanpokotasunerantz irte den den hor-izatea.

Zain-sistema, ordea, organiko-denaren lasaitasun bitartegabekoa da bere higiduran. *Zainak* egiatan berriro bere norantzan kanporantz hondoratutako kontzientziaren organoak dira; baina garuna eta bizkarrezurraren muina har daitezke bere barnean geratzen den (objektiboa ez den, eta kanporatzen ez den) autokontzientziaren hor aurrean izate bitartegabekotzat. Izatearen unea, organo hori duena, *beste batentzako izatea* den heinean, hor-izate den heinean, izate hila da, ez da autokontzientziaren hor aurrean izatea. *Bere barnean izate* hori, ordea, bere adigaiaren arabera jariakortasun bat da, non hor jaurtitzen diren zirkuluak bitartegabe desegiten diren, eta ezein bereizketa ez duen adierazten *badenaren gisara*. Hala ere, gogoia bera abstraktuki sinple-dena ez denez, baizik eta higiduren sistema bat, non hori uneetan bereizten den, baina bereizketa horretan aske izaten irauten duen, eta bere gorputza oro har hainbat funtziotan sailkatzen duenez, eta horren zati bakanari *bat* baino ez dion determinatzen, orduan errepresenta dezakegu *bere barnean izatearen izate* jariakorra izate antolatua dela; eta badirudi horrela errepresentatu behar dugula, zeren gogoaren bere baitara islatutako *izatea* garunean berriro bere zerizan hutsaren eta bere gorputz-antolamenduaren erdigunea baino ez baita, horrenbestez bien izaera jaso behar duen erdigunea eta azkenaren aldetik *baden* antolamendua berriro bere baitan izan behar duen erdigunea.

Gogozko izate organikoak aldi berean hor-izate *lasai iraunko* -*rraren* beharrezko alderdia du; hark berbaitarako izatearen mutur gisa atzera egin behar du, eta hori izan behar du beste muturraren aurrean, zeina beraz hark kausa gisa eragiten dion objektua den. Garuna eta bizkarrezurraren muina gogoaren *berbaitarako izate* gorpuztun hura bada, orduan garezurrak eta bizkarrezurrak beste mutur banandua osatzen dute, hots, gauza finko lasaia. - Baina bakoitzak gogoaren hor-izatearen benetako lekuan pentsatzen duen heinean, ez bizkarra baizik eta burua baino ez bazaio bururatzen, orduan eskura duguna bezalako jakitearen azterketan oinarri honekin asebate beharko dugu, batere txarra ez dena, hor-izate hori garezurrera murrizteko. Norbaiti bizkarra bururatuko

balitzaio, horren bidez jakitea eta egitea alde *onartzen* delako eta alde *baztertzen* delako, orduan horrek ez luke frogatuko inolaz ere bizkarrezurraren muina gogoa bizi den lekutzat eta horren hezurra hor-izate islatutzat hartu behar denik, zeren horrek gehiegi frogatuko bailuke; izan ere, era berean gogora ekar daiteke beste kanpoko bide ezagunak badaudela gogoaren egiletasunera iristeko, hori iratzartzeko edo oztopatzeko. - Bizkarrezurra, beraz, alde batera baztertzen da nahi baduzue *arrazoi osoz*; eta garezurrak soilik ez duela barnebiltzen gogoaren *organoa*, hori natur filosofiako beste irakaspenak bezain ongi *eratua* dago. Izan ere, hori lehenago erlazio horren adigaitik baztertu zen, eta horregatik garezurra hor-izatearen alderdian jaso zen; edo gaiaren *adi-gaia* gogora ekarri ezingo balitz, orduan esperientziak irakasten du, bai, ezen begiarekin gertatzen dena, organo gisa ikusita, *ez* dela gertatzen garezurra hiltzen, lapurtzen, asmatzen, eta abar dugunean. - Horregatik, ez dugu erabili behar organo adierazpena orain aipatu behar dugun garezurraren *esanahi* harentzat. Izan ere, esaten den arren gizaki arrazoidunek ez hitzari baizik eta *gaiari* eskaintzen diotela arreta, hortik ez da baimena jasotzen gai bat ez dagokion hitzaren bidez izendatzeko, hori ezgaitasuna eta aldi berean iruzurra delako, *hitz* zuzena ez duela irizten dion eta horren itxurak egiten dituen, eta ezkutatzen duena hari egitatean gaia, hau da, adigaia falta zaiola; hori hor balego, orduan horrek bere hitz zuzena izango luke. - Hasiera batean hemen hau besterik ez da determinatu, garuna buru bizia den bezala, garezurra *caput mortuum* dela.

Izate hil horretan, beraz, eman beharko liokete euren buruari gogoaren higidurek eta garunaren mota determinatuek kanpoko erreallitatearen euren aurkezpena, hala ere indibiduoan bertan dagoena. Horiek horrekin duten erlazioarentzat, izate hil gisa bere barnean gogoa jasotzen ez duenarentzat, lehen ezarri zen kanpoko erlazio mekanikoa eskaintzen da hasiera batean, halako moldez non benetako organoak (eta horiek garunean daude) hemen bete-betean adierazten duten, baina han hedatu edo zapaldu egiten duten, edo aipa daitekeen beste moduren batean eragiten dioten. Organismoaren zati bat izanik, horretan beste edozein hezurretan bezala berezko eraketa bizi bat pentsatu behar da, halako moldez non horrela ikusita garezurrak garuna zapaltzen duen eta horren kanpoko muga ezartzen duen; eta horretarako gaitasuna du, gogorrean delako. Baina hor beti ere erlazio berberak iraungo

luke biek elkarrekin duten egiletasunaren determinazioan; izan ere, garezurra determinatzen duena edo determinatu dena izan arren, horrek ez luke ezer aldatuko kausazko loturan, salbu orduan garezurra auto-kontzientziaren bitartegabeko organo bihurtuko litzatekeela, horretan *kausa* gisa *berbaitarako izatearen* alderdia aurkituko litzatekeelako. Baina *berbaitarako* izatea *bizitasun organikoa* den aldetik *bietan* era berean aurkitzen den heinean, euren arteko kausazko lotura egitatean baztertu egiten da. Bien garapena, ordea, barneko-denean lotuta lego-ke, eta aurretik ezarritako harmonia organikoa litzateke, zeinak elkarri lotzen zaizkion bi alderdiak aske uzten dituen eta bakoitzari bere *tan-ker*a propioa uzten dion, zeinak ez duen behar bestearen tankerari ego-kitzerik; eta, are gehiago, tankera eta nolakotasunari dagokionez, mahatsaren forma eta ardoaren gustua elkarrengandik aske diren moduan. - Baina *berbaitarako izatearen* determinazioa garunaren aldean kokatzen denez, *hor-izatearen* determinazioa, ordea, garezurraren aldean, bada, orduan batasun organikoaren barnean euren kausazko lotura *ere* ezarri behar da; euren arteko beharrezko harremana, elkarre-kiko kanpokoa, hau da, berez kanpokoa den harremana, zeinaren bidez, beraz, euren *tankera* elkar determinatuko luketen.

Baina autokontzientziaren organoa aurreko alderdiaren kausa ekilea gisa determinatzeari dagokionez hainbat gauza esan daitezke; izan ere, kausa baten eraketaz ari gara, bere hor-izate *axolagabearen* arabera, bere tankera eta handieraren arabera aztertzen dena, kausa batez zeinaren barneko-dena eta bere baitarako izatea halakoa izan behar duen non ez baita arduratzen hor-izate bitartegabekoaz. Garezurraren berezko eraketa organikoa hasieran axolagabe da eragin mekani-koaren aurrean, eta bien arteko erlazio hori, hura bere buruari lotzea denez, hain zuzen determinatugabetasun hori eta mugagabetasun hori bera da. Gainera, garunak gogoaren bereizketak badiren bereizketa gisa bere barnean jasoko balitu eta espazio ezberdina betetzen duten barne-ko organoen askotarikotasuna balitz (horrek natura kontraesaten du, adigaiaren uneei hor-izate propioa ematen baitie, eta horregatik bizitza organikoaren *sinpletasun jaria korra alde batean* kokatzen du osorik eta horren *artikulazioa* eta *sailkapena* bere bereizketetan *beste* aldean, halako moldez non horiek hemen atzeman behar diren moduan gauza anatomiko berezi gisa erakusten baitira), orduan determinatugabe lego-ke ea gogoaren uneak, jatorriz indartsuago edo ahulago liratekeen ara-

bera, lehen kasuan *hedatzen den* eta azken kasuan *uzkurtzen den* garunaren organoa izango lukeen, edo agian zehazki alderantzizkoa gertatuko litzatekeen. - Era berean, ea horren *garapenak* organoa handitu edo txikitzen duen, ea baldarrago eta lodiago bihurtzen duen edo finago. Kausa nola eratua dagoen determinatugabe geratzen denez, era berean determinatugabe geratzen da nola gertatzen den garezurrean eragina, ea zabalpena edo estutzea eta hondoraketa den. Eragin hori era *jasoagoan kitzikatze* gisa determinatzen bada, orduan determinatugabe geratzen da ea hori erraulien txaplata baten arabera puztuz gertatzen den edo ozpina bezala uzkuratuz. - Halako ikuspegi guztientzat oinarri onargarriak eman daitezke, zeren horietan guztietan parte hartzen duen harreman organikoak bata zein bestea onartzen baititu, eta axolagabe baita ulermen horren guztiaren aurrean.

Kontzientzia behatzailearen ardura ez da harreman hori determinatu nahi izatea. Izan ere, *animalien* zati gisa alderdi batean dagoena ez da garuna, baizik eta hori *norberaren buruaz jabetzen* den indibidualtasunaren *izate* gisa. - Hori izaera iraunkor gisa eta bere burua higitzen duen eta bere buruaz jabetzen den egite gisa *bere baitarako* eta *bere barnean* da; berbaitarako eta bere barnean izate horren aurrean horren errealitatea eta beste batentzako hor-izatea dugu; berbaitarako izatea eta bere barnean izatea zerizana eta subjektua da, izatea garunean duena, eta *horren menpe* dagoena eta bere balioa barnean daukan esanahiaren bidez baino jasotzen ez duena. Norberaren buruaren jabe den indibidualtasunaren beste alderdia, ordea, horren hor-izatearen alderdia izatea da beregain eta subjektu gisa, edo *gauza* baten gisara, hots, hezur baten gisara; *gizakiaren errealitatea eta hor-izatea bere garezurra da*. - Hori da harreman horren bi alderdiek duten erlazioa eta ulermena horiek behatzen dituen kontzientzian.

Horrek orain alde horien harreman determinatuagoa jorratu behar du; garezurrak badu orokorrean gogoaren bitartegabeko errealitatea izateko esanahia. Baina gogoaren alde-aniztasunak ematen dio bere hor-izateari maila bereko esanahi-aniztasuna; lor daitekeena da hor-izate horren zatien kokapen banakoen esanahiaren determinatutasuna, eta ikusi behar da nola duen haietan esanahi horren iradokizuna.

Garezurra ez da egiletasunaren organoa, ezta higidira hizlaria ere, horrekin ez da lapurtzen, hiltzen, eta abar, eta aurpegierak ez ditu salatzen halako egintzak gutxienean ere, halako moldez non hori keinu

hizlari bihurtuko bailitzateke. - *Baden* horrek ez dauka *zeinu* baten balioa. Aurpegierak eta keinuak, tonuak, uharte huts batean ezarritako habe, makil batek berehala aldarrikatzen dute bitartegabe *direna* ez beste zerbait esan nahi dela horrekin. Euren buruak zeinutzat jotzen dituzte, horietan determinatutasun bat duten heinean, beste zerbait erakusten duen determinatutasuna horri ez dagokiolako propioki. Garezur baten aurrean hainbat gauza burura dakizkigu, Hamlet-i bezala Yorick-en garezurraren aurrean⁹, baina garezurra bere horretan hain gauza axolagabea, simplea da, non horretan bitartegabe bera ez den besterik ezin baitaiteke ikusi eta irudikatu; gogora ekartzen digu garuna eta horren determinatutasuna, beste eraketa duten garezurrak, baina ez bere buruaz jabetzen den higidura, horretan ez delako inprimatu ez aurpegiera ez keinurik ezta bere buruaren jabe den egite batetik datorrela aldarrikatzen duen besterik ere; izan ere, indibidualtasunean beste alderdi bat aurkeztu beharko lukeen errealitatea baita, ez bere baitara islatutako izatea, baizik eta *izate bitartegabekoa* baino izango ez litza-tekeena.

Gainera, bere burua sentitzen ez duenez, badirudi harentzat esanahi determinatuagoa sortu ahal izango litzatekeela honela, alegia, sentsazio jakin batzuek hurbiltasunaren bidez ezagutaraziz hark esan nahi duena; eta gogoak bere buruaz jabetzeko duen mota batek horren kokaleku determinatu batean duenez bere sentimendua, orduan leku horrek hori eta bere berezitasuna erakutsiko dute bere tankeran. Adibidez, batzuk kexu dira gogor pentsatzean edo oro har *pentsatzean* tentsio mingarria sentitzen dutela nonbait buruan, eta baliteke era berean *lapurtzea*, *hiltzea*, *asmatzea* eta abarrek bakoitzak bere sentsazio propioa sortzea, bere kokapen berezia izan beharko lukeen sentsazioa. Garunaren kokaleku horrek, era horretara gehiago higitu edo ekingo lukeenak, itxuraz hezurraren auzoko kokalekua gehiago garatuko luke; edo hori ez litzateke hila izango sinpatiagatik edo kontsentsuagatik, baizik eta handitu edo txikituko litzateke, eta beste eraren batera eratu-ko litzateke. - Baina honek hipotesi horri egiantzekotasuna kentzen dio, hots, sentimendua oro har determinatugabea den zerbait dela, eta sentimendua buruan erdigune gisa jasapen ororen aldean dagoen sentimendu orokorra litzatekeela, halako moldez non lapurraren, hiltzailearen, poetaren buruko kitzikadura eta mina besteekin nahastuko bailirateke, eta euren artean eta gorputzaren sentimendu soilak dei ditzakeguneta-

tik ezingo bailirateke ezberdinduko, buruko minaren sintomatik gaixotasuna determinatu ezin den bezala, buruko minaren esanahia gorpuzdun denera murrizten badugu.

Gaia edozein ikuspegitik begiratzen dugula ere, egitatean elkarrekiko harreman beharrezko oro desagertzen da, baita horren iradokizun argiak ere. Geratzen dena eta beharrezkoa dena, harreman hori izango bagenu, bi alderdien determinazioaren aurretik ezarritako harmonia aske *adigaigabea* da; izan ere, alderdi batek *gogorik gabeko errealitatea*, *gauza soila* izan behar du. - Beraz, alde batean garezurra-
ren kokaleku lasaien multzoa dugu, bestean gogoaren ezaugarrien multzoa, zeinen kopurua eta determinazioa psikologiaren egoeraren menpe egongo den. Gogoaren errepresentazioa txiroagoa den heinean, gaia alde horretatik errazagoa izango da; izan ere, aldeaz, ezaugarriak gutxitu egingo dira, aldeaz bereiziagoak, finkoak, hezurtuagoak eta horrenbestez hezurren determinazioen antzekoagoak eta horiekin alderagarriago bihurtuko dira. Baina gogoaren errepresentazioaren txirotasunaren bidez gaia asko errazten bada ere, bi alderdietan hainbat gauza dago egiteko oraindik; euren arteko harremanaren ausazkotasun osoa geratzen da behaketarentzat. Israelgo haur bakoitzak eurei dagokien itsasbazerreko hondarretik hura ezaugarritzen duen hondar puskatxoa hartuko balu, orduan bakoitzari berea egozten dion axolagabetasun eta arbitrariedade hori arimaren gaitasun bakoitzari, pasioari eta, hemen era berean aztertu behar den izaeraren ñabardurei, psikologia finaren eta gizakien ezagutzaren hizketagai diren horiei euren garezurreko egoitza eta hezur forma egozten diena bezain handia da. Hiltzailearen garezur-
rrak kozkor hau dauka, ez organo edo zeinua; baina hiltzaile horren beste hainbat ezaugarri dauka, eta gainera beste kozkorak, eta horiekin batera zuloak; kozkor eta zuloen artean hauta daiteke. Eta, gainera, hiltzaile joera edozein kozkor edo zulori lot diezaiokegu eta hori gainera edozein ezaugarriari; izan ere, hiltzailea ez da hiltzaile baten abstrakzio hori, eta, gainera, ez dauka kozkor *bat* eta zulo *bat*. Horri buruz egiten diren oharrek, beraz, saltzaileak azokan eta etxekoandreak garbiketan zuten euriak bezain ohiartzun ona behar dute. Saltzaileak eta etxekoandreak oharraraz zezaketen bestalde beti euria egiten duela auzoko hori aurretik igarotzen denean, edo txerriki errean jaten denean. Euria inguruabar horien aurrean bezain axolagabea da behaketarentzat gogoaren determinatutasun *hori* garezurraren izate determinatu *horren* aurrean.

Izan ere, behatze horren bi objektuetatik, bata *berbaitarako izate* lehorra da, gogoaren ezaugarri hezurtua, eta bestea *berbaitan izate* lehorra; biak diren gauza hezurtuak beste guztiaren aurrean erabat axolagabeak dira; kozkor garaia axolagabe zaio ea hiltzailea auzoan badilen eta hiltzaileari era berean axolagabe zaio ea txapaltasuna hurbil duen

Hala ere, kozkor bat ezaugarriren, pasioren, eta abarren batekin lotuta egoteko *aukera* ukaezina hor dago. *Errepresenta daiteke* hiltzaileak kozkor garai bat duela garezurraren leku horretan eta lapurrak beste bat duela hor. Alderdi horretatik garezurraren jakintza asko heda daiteke oraindik; izan ere, itxuraz hasieran kozkor batek ezaugarri batekin *indibiduo batean* duen loturara murrizten da, horrek biak jasotzen dituela. Baina garezurraren berezko jakintzak (halakoak ere izan behar baitu berezko fisionomiarekin batera) muga hori gainditzen du; ez du juzgatzen soilik gizaki azkar batek belarriaren atzean ukabilaren neurriko kozkorra duela, baizik eta errepresentatzen du emazte iruzurtiak ez baizik eta horren bikoteak dituela kozkorrak kopeteen. - Era berean, errerepresenta daiteke hiltzailearen etxean bizi denak, edo bere auzoak, eta gainera hiritarrek, eta abarrek, kozkor garaiak dituztela garezurreko lekuren batean, behi hegalaria *errerepresenta* dezakegun bezala, lehenik astoaren gainean dabilen karramarroak ziriak egiten dizkiola, eta abar. - *Ahalgarritasun* hori, ordea, ez bada hartzen *errerepresentatzearen* ahalgarritasun gisa, baizik eta *barneko* ahalgarritasun gisa edo *adigaiaren* ahalgarritasun gisa hartzen bada, orduan objektua honako errealtatea da, hots, gauza hutsa dena eta halako esanahirik gabe den eta izan behar duena, eta hori errerepresentazioan baino ezin du izan.

Bi alderdien axolagabetasuna ohartu gabe behatzailea harremanak determinatzeko lanean jartzen bada (aldez arrazoimenaren printzipio orokor honek iratzarrita, hots, *kanpoko-dena barneko-denaren adierazpena dela*; aldez, animalien garezurren analogiak babestuta, gizakiarenak baina izaera sinpleagoa izan ei dutenak baina horietaz zailagoa gertatzen delarik esatea zein izaera duten, gizaki bakoitzaren errerepresentazioarentzat hain erraza ezin baitaiteke izan animali baten izaeran sartzea), orduan behatzaileak aurkitu omen dituen legeak ziurtatzerakoan *laguntza ezin hobea* aurkitzen du hemen guri halabeharrez bururatu behar zaigun bereizketa batean. - Gogoaren *izatea* ezin da inolaz ere erabat bihurritugabea eta bihurriezina den zerbait bezala hartu. Gizakia askea da; onartzen da *jatorrizko* izatea *egokerek* osatzen dute-

la, gizakiak horiekin asko egiten duela edo inguruabar egokiak behar dituztenak garatzeko, hau da, gogoaren *jatorrizko* izatea ongi adieraz daiteke izate gisa existitzen ez dela adieraziz. Behaketek, beraz, norbait lege gisa baieztatzea bururatu zaion hori kontraesango balute, eguraldi ona bagenu azokan edo garbiketan, orduan saltzaileak eta etxeko-andreak esan ahal izango lukete *benetan* euria egin *beharko* lukeela, eta hori gertatzeko *egokera eskura dugula*; berdin gazeurra behatzerakotan, indibiduo horrek gazeurrak legearen arabera *benetan* horrela izan *beharko* lukeela esaten duen moduan, eta *jatorrizko egokera* duela, garatu ez dena; nolakotasun hori ez dago hor, baina hor izan beharko luke. - *Legea* eta *beharra* benetako euriaren behatzean oinarritzen dira, eta benetako zentzuan gazeurraren determinatutasunaren kasuan; *erre-alitatea* hor ez badago, orduan *ahalgarritasun hutsalak* berdin balio du. - Aurkitutako legearen ahalgarritasuna, hau da, errealitate eza eta, horrenbestez, hori kontraesaten duten behaketak honen bidez sortzen dira, hots, indibiduoaren askatasuna eta garatzen ari den inguruabarra *izatearen* aurrean erabat axolagabe direla, jatorriz barneko gisa eta kanpoko hezurtu gisa eta, gainera, indibiduo barnean jatorriz dena eta are gehiago hezur gisa dena ez beste gauza bat izan daitekeela.

Gazeurraren kozkor edo zulo hori zerbait erreala edo egokera baino ez izateko aukera jasotzen dugu, beraz, eta gainera hark zerbait ez-erreal izenda dezakeen edozeren aurrean duen jarrera determinatugabea; ikusten dugu aitzakia txar batera jotzen duela beti bezala, eta lagundu beharko liokeen haren aurka erabil daitekeela. Ikusten dugu irizteak, gauzaren izaerak bultzatuta, hark eusten duenaren *aurkakoa* esaten duela, baina *pentsatu gabe*, alegia, hezur horien bidez zerbait iradokitzen da, baina era berean *ezer ere ez*.

Iritziak aitzakia horretan buruan duena egiazko pentsamendua da, oraintxe apurtzen dena, hots, *izatea* izate gisa oro har ez dela gogoaren egia. Egokera *jatorrizko izatea* den bezala, gogoaren egiletasunean parte hartzen ez duena, hezurra ere bere aldetik horrelakoxea da. Gogo-egiletasunik gabe badena gauza bat da kontzientziarentzat, eta ez da inolaz ere kontzientziaren zerizana, baizik horren aurkakoa, eta kontzientzia soilik *erreala* da halako izatearen negazioaren eta baliogabetzearen bidez. - Alderdi horretatik arrazoimenaren ukapen oso gisa ikusi behar da hezur bat kontzientziaren *hor-izate errealtzat* jotzea; eta halakotzat jotzen da, gogoaren kanpoko-dena gisa hartzen den heinean,

kanpoko-dena hain zuzen baden errealitatea baita. Ez du ezer lagutzen esateak kanpoko-den horretatik *beste zerbait* den barneko-denera *soilik* doan *arrazoiketa* egiten dela, kanpoko-dena ez dela barneko-dena bera, baizik eta horren *adierazpena* besterik ez. Izan ere, bien arteko erlazioan barneko-denaren aldean kokatzen da bere burua pentsatzen duenaren eta *pentsatua denaren* determinazioa, kanpoko-denaren aldean kokatzen da *baden errealitatearen* determinazioa. - Beraz, gizaki bati esaten bazaio: zu (zeure barneko-dena) hau zara, zure hezurra horrela eratua dagoelako; horrek hau baino ez du esan nahi: hezur bat ikusten dut zure errealitate gisa. Fisionomian aipatu zen erantzunak, halako judizioari masaileko bat ematen zionak, zati *bigunek* euren ospea galtzea eta duten egoeratik ateratzea dakar, eta erakusten du horiek ez direla egiazko *berbaitana*, gogoaren errealitatea; erantzunak hemen benetan urrunago joan beharko luke, horrela juzgatzen duenari garezurrean zartakoa emateraino, horrela bere jakituria den bezain modu zuzenean erakustearren hezur bat gizakiarentzat ez dela ezer *bere baitan*, askoz gutxiago *horren* egiazko errealitatea.

Bere buruaren jabe den arrazoimenaren sen gordinak halako garezurraren jakintza zuzenean baztertuko du; horren beste sen behatzaileak, *ezagutzearen* susmoa izateraino iritsi denak, ulertu du gogorik gabeko era batean, kanpoko-dena barneko-denaren adierazpen dela. Baina zenbat eta pentsamendua txarragoa izan, orduan eta gutxiago otutzen zaigu batzuetan zertan datzan zehazki horren txartasuna, eta are zailagoa gertatzen da hori analizatzea. Izan ere, pentsamendua txarragoa dela esaten da, horren zerizantzat hartzen den abstrakzioa hutsagoa eta kaskalagoa den heinean. Baina hemen lantzen ari garen aurkakotzak bere atal gisa bere buruaz jabetzen den indibidualtasuna eta guztiz *gauza* bihurtu den kanpokotasunaren abstrakzioa ditu; gogoaren barneko izate hura izate gogogabeko finko gisa ulertuta, hain zuzen halako izateari aurkakotuta. - Horrela, itxuraz, arrazoimen behatzaileak egitatean bere gailurra lortu du, eta hortik bere burua utzi eta gainezka egin behar du; izan ere, guztiz txarra denak baino ez du bere burua iraultzeko bitartegabeko beharrezkotasuna. - Herri juduaz esan daitekeen moduan, salbazioaren atearen aurrean dagoelako hain zuzen herri gaitzetsiena dela eta izan dela; ez da bere baitan eta bere baitarako izan beharko lukeena, ez da norberaren zerizantasun hori, baizik eta bere baitatik haratago bidaltzen du; kanporaketa horren bidez hor-izate

garaiagoa *ahalbidetzen* du, baldin eta bere objektua berriro bere baitara jaso ahal izango balu, izatearen bitartegabekotasunaren barne geratu beharrean; zeren gogoia are handiagoa baita, bere baitarako itzultzeko abiapuntu den aurkakotza handiagoa den heinean; baina aurkakotza hori bere batasun bitartegabekoaren gainditzean eta bere berbaitarako izatearen kanporaketan sortzen du. Baina halako kontzientziak hausnartzen ez badu, kokaleku duen erdigunea hutsune zoritxarrekoa da, horrek bete behar zuena mutur finko bihurtu den heinean. Horrela, arrazoimen behatzailearen azken maila hori txarrena da, baina horregatik da beharrezkoa bere alderanzketa.

Izan ere, orain arte aztertu ditugun eta behaketaren edukia eta objektua osatzen duten erlazioen ilararen ikuskapenak erakusten du bere *lehen moduan*, natura ez-organikoaren erlazioen behaketan, dagoeneko *sentipenezko izatea desagertzen* zaiola; bere erlazioaren uneak abstrakzio huts gisa eta adigai sinple gisa aurkeztzen dira, zeintzuek gauzen izateari finko lotuta izan beharko luketen, baina gertatzen da izate hori galtzen denez unea higidura hutsa eta orokor-dena dela. Bere barnean osatzen den prozesu aske horrek objektibo-denaren esanahia mantentzen du; baina *Bat* bat bezala agertzen da; ez-organiko-denaren prozesuan bata existitzen ez den barneko-dena da; bata gisa existituz, ordea, organiko-dena da. - Bata berbaitarako izate edo zerizan negatibo gisa dago orokor-denaren aurrean, horri ihes egiten dio eta bere kabuz aske dirau, halako moldez non adigaiak, banakotze absolutuaren osagaien egikarituta, ez baitu aurkitzen bere egiazko adierazpena existentzia organikoan, hots, *orokor-den* aldetik hor-izatean, baizik eta kanpo-ko-dena edo, gauza berbera dena, natura organikoaren *barneko-dena* dirau. - Prozesu organikoa *bere baitan* baino ez da aske, baina ez *bere baitarako*; *xedean* agertzen da bere askatasunaren berbaitarako izatea; beste zerizan baten gisara *existitzen* da, bere buruaz jabetzen den jakituria gisa, prozesutik at dagoena. Arrazoimen behatzaileak horrengana jotzen du, gogoarengana, orokortasun gisa existitzen den adigaia edo xede gisa existitzen den xedera, eta aurrerantzean objektua bere zerizan propioa da.

Lehenik bere araztasunari eskaintzen dio arreta; baina arrazoimena bere bereizketetan higitzen den objektuaren ulermena den heinean, baden objektua den aldetik, horren *pentsatzearen legeak* geratzen denak geratzen denarekin duen harreman bihurtzen dira; baina lege

horien edukia uneak baino ez direnez, autokontzientziaren batan biltzen dira. Objektu berri hori era berean *baden* gisa hartuta, autokontzientzia banakoa, *ausazkoa* da; behatzea, horregatik, ustezko gogoaren barne eta bere buruaz jabetzen den eta jabetzen ez den errealitatearen arteko erlazio ausazkoaren barne dago. Bere baitan baino ez da harreman horren beharrezkotasuna; horregatik, behaketa soinera gehiago hurbiltzen zaio, eta nahi duen eta ekiten duen bere errealitatea bere baitara islatutako eta aztertutako errealitatearekin alderatzen du, errealitate objektiboa denarekin. Kanpoko-den hori, indibiduoak bere baitan duen hizkuntza bada ere, aldi berean zeinu gisa izendatu beharko lukeen edukiaren aurrean axolagabe da, norberarentzat zeinua ezartzen duena horren aurrean axolagabe den bezalaxe.

Horregatik, behaketa azkenean hizkuntza aldagarri horretatik *izate finkora* itzultzen da, eta bere adigaiaren arabera adierazten du kanpokotasuna ez dela organo gisa, ezta hizkuntza eta zeinu gisa ere, baizik eta *gauza hila* bezala dela gogoaren kanpoko eta bitartegabeko errealitatea. Natura ez-organikoaren lehen-lehen behaketak gainditu zuena, hain zuzen, adigaiak gauza gisa eskura izan behar duela, azken behaketa mota horrek honela kokatzen du, hots, gogoaren errealitatea bera gauza bihurtuz, edo alderantziz adierazita, izate hilari gogoaren esanahia emanez. - Behaketa horrela iritsi da adieraztera guk hartaz zein adigai genuen, hain zuzen, arrazoimenaren ziurtasunak bere burua errealitate objektibo gisa bilatzen duela. - Ez da esan nahi gogoa, garezur batek errepresentatzen duena, gauza bat dela; pentsamendu horretan ez dugu materialismorik izan behar, deitzen zaionez, baizik eta gogoak hezur horiek ez diren beste zerbait izan behar du; baina gogoa *dela* esateak esan nahi du *gauza* bat dela. *Izatea* halako gisa edo gauza izatea gogoaz predikatzen bada, horren egiazko adierazpena da gogoa halakoa dela *hezur* bat den moduan. Horregatik, oso garrantzitsutzat jo behar da egiazko adierazpena aurkitzea gogoaz besterik gabe esaten denaz, *badela*. Bestelakoan, gogoaz esaten bada *badela*, *izate* bat duela, *gauza* bat dela, *errealitate* banakoa, horrekin ez da *irizten* ikus daitekeela edo eskutan har daitekeela, bultza daitekeela eta abar, baina horrelakoak *esaten* dira, eta egiatan esaten dena honela adierazten da, hots, *gogoa - ren izatea hezur bat dela*.

Emitza horrek esanahi bikoitza du, bata egiazkoa, autokontzientziaren aurreko higiduraren emaitzaren osaketa den heinean. Auto-

kontzientzia zoritxarrekoak bere beregaintasuna kanporatu zuen eta *berberbaitarako izatea gauza* bihurtzeko borrokatu zuen. Horren bidez autokontzientziatik kontzientziara itzuli zen, hau da, objektutzat *izate* bat, *gauza* bat duen kontzientziara; baina hori, gauza dena, autokontzientzia da; beraz, niaren eta izatearen batasuna da, *kategoria*. Objektua kontzientziarentzat horrela determinatuta dagoen heinean, horrek *arrazoimena du*. Kontzientzia nahiz autokontzientzia *euren baitan* benetan arrazoimena *dira*; baina objektua kategoria gisa determinatu zaion kontzientziaz baino ezin da esan arrazoimena *duela*; baina horretatik bereizi behar dugu arrazoimena zer den jakitea. - *Izatearen* eta *berearen* batasun *bitartegabekoa* den kategoriak bi formak zeharkatu behar ditu, eta kontzientzia behatzailea hau da, hain zuzen, kategoria *izatearen* forman aurkezten zaiona. Bere emaitzan kontzientziak esakune gisa adierazten du zerbait zeinaren ziurtasun kontzientziagabekoa duen; arrazoimenaren adigaietan datzan esakunea. Hori *judizio amaigabea* da: norbera gauza bat da, bere burua gainditzen duen judizioa. - Emaitza horren bidez ziur kategoria hau gaineratu zaiola, hots, kategoria bere burua gainditzen duen aurkakotza dela. Kategoria *hutsa*, kontzientziarentzat *izatearen* edo *bitartegabekotasunaren* forman dena, oraindik *bitartekotua* izan *ez* den objektua da, besterik gabe *eskura dagoena*, eta kontzientzia era berean bitartekotua *ez* den jokaera. Judizio amaigabe haren unea *bitartegabekotasunetik* bitartekotzara edo *negatibosunera* doan igarobidea da. Eskura dugun objektua objektu negatibo gisa determinatzen da, beraz, kontzientzia ordea *autokontzientzia* gisa horren aurrean, edo kategoria gisa, zeinak *izatearen* forma behatzean zeharkatu duen, eta orain berberbaitarako izatearen forman ezartzen da; kontzientziak *ez* du nahi gehiago bere burua *bitartegabe aurkitu*, baizik eta bere egiletasunaren bidez bere burua sortu nahi du. *Hori bera* da bere egitearen xedea; behatzean, aitzitik, gauzez baino *ez* zen arduratzen.

Emaitzaren beste esanahia dagoeneko aztertu dugun behatze adigaigabearena da. Horrek ez daki bere burua ulertzen eta adierazten, ez bada lasai-lasai esanez hezurra dela autokontzientziaren *errealitatea*, hori sentipenezko gauza izanik eta aldi berean kontzientziarentzat duen objektibotasuna galdu gabe. Baina esaten duen horretaz *ez* du kontzientziaren argitasunik, eta bere esakunea *ez* du jasotzen bere subjektuaren eta predikatuaren determinatutasunean eta euren harremana

duenean, are gutxiago amaigabeki bere burua desegiten duen judizioaren eta adigaiaren zentzuan. - Hondorago dagoen gogoaren autokontzientziatik, hemen berezko zintzotasun gisa agertzen denetik, ezkutuan gordetzen du pentsamendu gordin adigaigabekoaren zikintasuna, hots, hezur bat hartzea autokontzientziaren errealitatetzat, eta hori estaltzen du kausa eta ondorioaren, zeinuaren, organoaren eta abarren hainbat erlazio, hemen zentzurik ez duten erlazioak, horrekin nahasteko pentsamendu-gabeziaren bidez, eta horietatik hartzen dituen bereizkuntzen bidez esakunearen argi indartsua ezkutatzen du.

Garunaren zuntzak eta halakoak gogoaren izate gisa hartuta errealitate hipotetiko pentsatua baino ez dira, ez *hor dena*, sentitzen dena, ikusten dena, egiazkoa den errealitatea; *hor daudenean*, ikusten direnean, objektu hilak dira, eta ez dute gehiago balio gogoaren izate gisa. Baina benetako objektibotasuna *bitartegabekoa* da, *sentipenez -koa*, halako moldez non gogoa hor hila bezala (hezurra hila dena baita, biziduna denean dagoen heinean) erreal gisa ezartzen baita. - Errepresentazio horren adigaia da arrazoimena *gauzatasun oro* dela, baita *objektiboa* baino ez dena; baina hori *adigaian* da, edo adigaia baino ez da haren egia, eta adigaia zenbat eta hutsagoa, hainbat eta errepresentazio leloagoraino hondoratzen da, bere edukia ez adigai gisa baizik eta errepresentazio gisa denean; bere burua gainditzen duen judizioa bere amaigabetasun horren kontzientziarekin batera ez bada hartzen, baizik eta geratzen den esakune gisa, eta horren subjektuak eta predikatuak euren kabuz balio badute, norbera norbera gisa, gauza gauza gisa finkatuta badago eta, hala ere, batak bestea izan behar badu. - Arrazoimena, zerizanez adigaia, bitartegabe zatituta dago bere baitan eta bere aurkakoa, horrexegatik bitartegabe gainditzen den aurkakotza da. Baina horrela atzematen denean bere burua bezala eta aurkakoa bezala eskainiz, eta zatitze horren guztiz banako uneei eutsiz, era irrazionalean egiten da; eta haren uneak are hutsagoak direnean, are argiagoa da eduki horren agerpena, zeina kontzientziarentzat bakarrik den edo horrek soilik adierazten duen zintzotasunez. - Gogoak barnetik ateratzen duen *sakontasuna* (baina *kontzientzia errepresentatzaile* baino besterik ez, hor uzten duela) eta kontzientzia horrek esaten duen zer denari buruz duen *ezjakintasuna* garaia denaren eta behekoa denaren elkarlotura da, naturak biziduna denean sinpleki adierazten duen elkarlotura berbera bere osake-

ta garaienaren organoa, sorketaren organoa, eta pixaren organoa elkarlotzen dituenean. - Judizio amaigabea amaigabe den aldetik bere burua atzematen duen bizitzaren osaketa litzateke, baina errepresentazioan geratzen den bizitzaren kontzientziak pixa egitean bezala jokatzeko du.

B.

Autokontzientzia arrazoidunaren bere kabuzko egikaritzapena

Norberaren kontzientziak gauza norbera bezala aurkitu zuen eta norbera gauza bezala; hau da, norberaren kontzientziarentzat gauza *bere baitan* errealitate objektiboa da. Ez da gehiago errealitate oso izateaz duen *bitartegabeko* ziurtasuna; baizik eta ziurtasun horrentzat bitartegabe-denak oro har gaingitu-denaren forma dauka, halako molde non horren *objektibotasuna* barneko-den eta zerizantzat *norberaren* kontzientzia duen azala baino ez den. - Positiboki lotzen zaion objektua, beraz, autokontzientzia bat da; gauzatasunaren forman da, hau da, *beregaina* da; baina badu ziurtasuna objektu beregain hori beretzat arrotza ez izateaz; horrenbestez, badaki *bere baitan* hark berrezagutzen duela; bere autokontzientziaren bikoizketan eta bien beregaintasunean bere buruarekin batasuna izateaz ziurtasuna duen *gogoa* da. Ziurtasun hori orain egiara goratu behar du; harentzat balio duenak, *bere baitan* eta bere *barne* ziurtasunean dela, bere kontzientzian sartu behar du, eta *harentzat* bihurtu behar du.

Egikaritzapen horren geldiune orokorrak zein izango diren orain arteko bidearekin egindako alderaketak zehazten du. Hain zuzen, arrazoimen behatzaileak kategoriaren osagaian *kontzientziaren* higidura, hots, sentipenezko ziurtasuna, hautematea eta adimena errepikatzen zuen bezala *autokontzientziaren* higidura bikoitza berriro zeharkatuko du, eta beregaintasunetik bere askatasunera igaroko da. Hasieran arrazoimen ekile hori bere buruaz jabetzen da, baina indibiduo gisa soilik, eta halako den aldetik bere errealitatea bestetan sustatu eta sortu behar du, baina gainera bere kontzientzia orokortasunera goratzen duen heinean arrazoimen *orokor* bihurtzen da, eta bere buruaz jabetzen da arrazoimen gisa, bere baitan eta bere baitarako ezagutzen den kontzientzia

gisa, zeinak bere kontzientzia hutsean autokontzientzia oro bateratzen duen; gogo-zerizan sinplea da, aldi berean kontzientzia bihurtzen den heinean *substantzia erreala* dena, nora aurreko formak itzultzen diren euren oinarriara, halako moldez non horren aldean bere bilakaeraren banako uneak baino ez diren, zeinak askatzen diren eta tankera beregain gisa agertzen diren, baina egitatean haren bizkarrean baino ez duten *hor-izatea* eta *errealitatea*, eta euren *egia* hartan dauden eta geratzen diren heinean baino ez duten.

Helburu hori bere errealitatean hartzen badugu (hots, guri dagoeneko sortu *zaigun adigaia*, alegia, autokontzientzia berrezagutua, zeinak bere buruaren ziurtasuna beste autokontzientzia askean duen eta horietan duen bere egia, edo oraindik barneko-den gogo bere hor-izatera hedatu den substantzia gisa azaltzen badugu), orduan adigai horretan *etikotasunaren erresuma* erakusten da. Izan ere, hori ez da zerizanaren gogoaren *batasun* absolutua baino indibiduen *errealitate* beregainean; bere baitan orokorra den autokontzientzia da, beste kontzientzia batean hain erreala dena, non horrek beregaintasun osoa baitu, edo gauza bat baita harentzat, eta hor horrekin duen *batasunaz* jabetzen da, eta zerizan objektibo horrekin duen batasun horretan da lehenik autokontzientzia. *Substantzia* etiko hori *orokortasunaren abstrakzioan pen-tsaturako* legea baino ez da; baina era berean bitartegabe *autokontzientzia* erreala da edo *ohitura* da. Kontzientzia *banakoa*, aitzitik, baden bat besterik ez da, kontzientzia orokorraz jabetzen den heinean bere banakotasunean bere izate gisa, bere egitea eta hor-izatea ohitura orokorra den neurrian.

Herri baten bizitzan du egitatean bere buruaz jabetzen den arrazoimenaren egikaritzearen adigaiak bere errealitate osatua (*bestearen* beregaintasunean harekiko *batasun* osoa begiestea, edo nik hor topatzen dudana beste baten *gauzatasun* askea, nire negatibo-dena dena, *nire berbaitarako izate* gisa objektutzat izatea). Arrazoimena *substantzia* orokor jariakor gisa, *gauzatasun* sinple aldaezin gisa agertzen da, zeina era berean zerizan beregain osatu askotan zatitzen den argia izarretan bezala berez argizatzen duten puntu zenbatezin gisa, eta horiek ez daude euren berbaitarako izate absolutuan *euren baitan* substantzia beregain sinplean deseginda, baizik *eurentzat*; zerizan beregain banako hori izateaz jabetzen dira banakotasun hori sakrifikatzen dutelako eta substantzia orokor hori euren arima eta zerizana delako; orokor-den

hori berriro euren *egitea* den bezala banako diren aldetik edo eurek sortutako emaitza den aldetik.

Indibiduoaren egite eta aritze *banako huts* hori horrek natur zerizan gisa dituen, hau da, *baden banakotasun* gisa dituen premiei lotzen zaie. Euren funtzio arruntenak ere ez desagitea, baizik eta horiek errealitate izatea, erdigune orokor mantentzailearen bidez gertatzen da, herri osoaren *boterearen* bidez. - Baina ez dauka bere egitearen *iraupenaren forma* hori bakarrik oro har substantzia orokorrean, baizik eta era berean *bere edukia*; egiten duena guztien abilezia eta ohitura *da*. Eduki hori, guztiz banakotzen den heinean, bere errealitatean guztien egiteak mugatzen du. Indibiduoak bere premiak asebetetzeko egiten duen *lan* hori era berean besteen premien asebetetzea da bereak izango balira bezala, eta bere premien asebetetzea besteen lanaren bidez lortzen du. - Banako-denak bere *banako* lanean dagoe-nako *oharkabe*an lan orokorra osatzen duen bezala, lan *orokorra* ere osatzen du horretaz *jabetzen* den objektu gisa. Osokia *osoki den alde-tik* bere emaitza bihurtzen da, eta horregatik sakrifikatzen da, eta horrexegatik hark bizitza itzultzen dio. - Hemen ez dago elkarrekikotasuna ez denik, hor indibiduoaren beregaintasunak bere berbaitarako izatearen desagitean, bere buruaren *negazioan* bere buruari bere baitarako izateko esanahi *positiboa* emango liokeen ezer ez dago. Beste batentzako izatearen edo gauza bihurtzearen eta berbaitarako izatearen arteko batasun hori, substantzia orokor horrek bere *hizkuntza oro-korra* hitz egiten du herri baten ohituretan eta legeetan; baina baden zerizan aldaezin hori ez da horri aurkakotuta agertzen den indibidualtasun banakoaren beraren adierazpena baino; legeek adierazten dute banako bakoitza *dena* eta horrek *egiten duena*; indibiduoak ez ditu ezagutzen bere gauzasun objektibo *orokor* gisa bakarrik, baizik eta bere burua ezagutzen du haietan, edo *banakotu* gisa bere indibidualtasun propioan eta beste hiritar bakoitzean. Gogo orokorrean, beraz, bakoitza bere buruaren ziurtasun hau baino ez da, baden errealitatean euren burua besterik ez aurkitzekoa; besteez bere buruaz bezain ziur dago. - Guztietan begiesten dut horiek euren kabuz zerizan beregain hori baino ez direla, ni neu naizen bezala; besteez bakoitza askea horiengan halako moldez begiesten dut non batasun hori niri esker den moduan besteei esker ere baita. Horiek ni bezala begiesten ditut, ni horiek bezala.

Horregatik arrazoimena egiatan herri aske batean egikaritzen da; hori hor aurrean dagoen gogo bizia da, non indibiduok bere *determinazioa* aurkitzen duen, hau da, bere zerizan orokor eta banakoa, ez soilik adierazia eta gauzatasun gisa hor aurrean dagoena, baizik eta zerizan hori bera dena, eta bere determinazioa ere lortu du. Antzinako gizon jakintsuenek horregatik hau adierazi zuten: *jakitura eta bertutea herriaren ohituren arabera bizitzean datzatela*.

Baina bere determinazioa lortu izanaren eta hor bizitzearen zorion horretatik irten da norberaren kontzientzia, hasiera batean *bitartegabe* soilik eta *adigaiaren arabera* dena gogo; edo hori ez du lortu oraindik; izan ere, biak esan daitezke era berean.

Arrazoimenak zorion horretatik irten behar du; izan ere, soilik bere baitan edo *bitartegabe* da herri aske baten bizitza *etikotasun erreala*, edo hori *badena* da, eta beraz, gogo orokor hori ere banako bat da, ohituren eta legeen osotasuna substantzia etiko *determinatu* bat da, eta horrek une garaienean, hots, *bere zerizanari buruzko kontzientzian* baztertzen du murriztapena, eta ezagutze horretan baino ez du bere egia absolutua, ez ordea bere izatean bitartegabe; hor alde batetik murriztua da, eta bestalde murriztapen absolutua haxe da, gogo *izatearen* forma dela.

Gainera, horregatik, kontzientzia *banakoa*, horrek bitartegabe bere existentzia etikotasun errealean edo herrian duen moduan, konfiantza irmoa da, non gogo ez den desegin bere une *abstraktueta*, eta, beraz, ez dakien *banakotasun huts gisa dela* bere kabuz. Baina pentsamendu horretara iritsi bada, behar duen moduan, orduan gogo-arekiko batasun *bitartegabeko* hori, edo bere *izatea* gogoan, bere konfiantza galtzen da; bere horretan *bakartua*, zerizana da orain, ez da gehiago gogo orokorra. *Autokontzientziaren banakotasun horren unea* gogo orokorrean dago, baina desagertzen ari den handiera gisa besterik ez, bere kabuz agertzen den bezala hor era berean bitartegabe desegiten dena eta kontzientziara datorrena konfiantza gisa soilik. Bere burua horrela finkatzen duen heinean (eta uneoro, zerizanaren unea denez, lortu behar du bere burua zerizan gisa aurkeztea), indibiduok legeei eta ohiturei aurre egiten die; horiek zerizantasan absoluturik ez duten pentsamendu bat baino ez dira, errealiterik ez duen teoria abstraktua; baina indibiduoak egia bizia da beretzat ni hori bezala.

Edo autokontzientziak *zorion hau ez du lortu oraindik*, substantzia etikoa, herriaren gogoa izatea. Izan ere, behaketatik itzuli ondoren, gogoa lehenik ez da egikaritu halako gisa oraindik; *barneko* zerizan gisa edo abstrakzio gisa ezarrita dago. - Edo lehenik *bitartegabe da*; bitartegabe izanik, ordea, *banako* da; kontzientzia praktikoa da, aurrean topatzen duen munduan sartzen dena xede honekin, hots, banako baten determinatutasun horretan bere burua bikoiztea, hor-izate gisa bere baden aurkako irudia sortzea eta bere errealitateak zerizan objektiboarekin duen batasunaz jabetzea. Batasun horren *ziurtasuna* du; batasun hori *bere baitan* hor dagoela edo gauzatasunarekin duen bateratasuna dagoeneko hor dagoela jotzen du, baina *hori* bihurtu behar du bere kabuz, edo horren egitea era berean horren *aurkitzea* dela jotzen du. Batasun horrek *zorion* izena duen heinean, indibiduo hori horrenbestez bere gogoak bidaltzen du mundura bere *zoriona* bilatzera.

Autokontzientzia arrazoidun horren egia, beraz, guretzat substantzia etikoa bada, orduan hemen horrentzat munduko esperientzia etikoa hasten da. Oraindik hori izatera iritsi ez den heinean, higidura horrek horretara bultzatzen du, eta horretan gaingiditzen direnak une banakoak dira, autokontzientziarentzat bakartuta balio dutenak. Bitartegabeko nahi izate baten edo *berezko bultzadaren* forma dute, zeinak bere asebetea lortzen duen beste bultzada baten edukia den horretan. - Bestalde, ordea, autokontzientziak substantzian izateko zoriona galdu duen heinean, berezko bultzada horiek bere xedearekin lotuta daude egiazko determinazio eta zerizantasan gisa; substantzia etikoa nortasunik gabeko predikatu izateraino hondoratu da, zeinaren subjektu biziak euren orokortasuna euren kabuz bete behar duten indibiduoak diren eta euren determinaziorako eurak berak arduratu behar duten. - Esanahi hartan, beraz, tankera haiek substantzia etikoaren bilakaera dira, eta horren aurretik doaz; beste esanahi horretan, haren atzetik doaz eta autokontzientziari azaltzen diote zein den bere determinazioa; kasu hartan bultzaden bitartegabekotasuna edo gordintasuna galtzen da euren egia zein den lortzeko higiduran, eta euren edukia garaiagoa bihurtzen da; beste kasu horretan, ordea, kontzientziaren errepresentazio faltsua galtzen da, bere determinazioa bultzada horietan ezartzen duena. Haren arabera bultzadek lortzen duten *helburua* substantzia etiko bitartegabekoa da, horren arabera horien kontzientzia eta, gainera, bere burua bere zerizan propio dela dakiena; eta horrenbestez, higi-

dura hori moraltasunaren bilakaera litzateke, substantzia etikoa baino tankera garaia goa. Baina tankera horiek aldi berean euren bilakaeraren alderdi *bat* baino ez dute osatzen, hain zuzen, *berbaitarako izatean* kokatzen dena, edo kontzientziak horretan *bere* xedeak gaintitzen ditu; ez moraltasuna substantziazatik sortzen erakusten duen alderdia. Une horiek oraindik esanahi hau izan ezin dutenez, hots, etikotasun galduari aurkakotuz xede bihurtzekoa, orduan hemen euren eduki berezkoaren arabera balio dute, eta lortu nahi duten helburua substantzia etikoa da. Baina gure garai honetan haien forma hura hurbilagoa denez, non haiek kontzientziak bizitza etikoa galdu eta hori bilatzean forma haiek errepikatu ondoren agertzen diren, orduan mota horretako adierazpenean errepresentatu beharko lirateke.

Norberaren kontzientziak, hasieran gogoaren adigaiia baino ez denak, banako gogo gisa zerizana izateko bide hori hartzen du determinatutasunean, eta horren xedea, beraz, banako gisa bere buruari egikaritzapena ematea eta halakotzat hor gozatzea da.

Berbaitarako den gisa zerizana izateko determinazioan hori bestearen *negatibotasuna* da; bere kontzientzian, beraz, halako baten aurrean positibo-dena bezala agertzen da, zeina egiatan *baden* baina horrentzat bere baitan ez den baten esanahia duen; kontzientzia bikoiztua agertzen da hor topatzen dugun errealitatean eta hori gaintutuz betetzen duen *xedean*, haren ordeztu errealitate bihurtzen duena. Horren lehen xedea, ordea, *berbaitarako* izate abstraktu *bitartegabekoa* da, edo bere burua *banako-den hori* bezala beste batean begiestea edo beste autokontzientzia bat bere burua bezala begiestea. Xede horren egia zein ote den esperientziatzeak autokontzientzia gorago kokatzen du, eta hortik aurrera xede da bere buruarentzat, aldi berean *orokorra* den heinean eta *legea bitartegabe* bere baitan duen heinean. Bere *bihotzaren lege* hori betetzean esperientziatzen du, ordea, zerizana *banakoak* hor bere burua ezin duela mantendu, baizik eta ona-dena horren sakrifizioaren bidez baino ezin dela lortu, eta horrela *bertute* bihurtzen da. Egiten duen esperientzia ezin da hau baino izan, bere xedea bere baitan dagoeneko lortu duela, zoriona bitartegabe egitean aurkitzen dela eta egitea bera dela ona-dena. Ere mu horren guztiaren adigaiia, hots, gauzatasuna gogoaren *berbaitarako izatea* dela, autokontzientziarentzat esperientziaren higiduran sortzen da. Hori aurkitu duen heinean, bere burua errealitate da bere burua bitartegabe adierazten duen indibidualtasun

gisa, zeinak aurkakotutako errealitatean ez duen ezein erresistentziarik aurkitzen eta zeinarentzat horren objektua eta xedea adierazte hori baino ez den.

a. ATSEGINA ETA BEHARREZKOTASUNA

Norberaren kontzientziak, bere buruarentzat oro har *errealitatea* denak, bere objektua bere baitan dauka, baina hasiera batean *bere baitarako* izanik eta oraindik badena izan gabe; *izatea* beste errealitate gisa dauka, berea ez dena, hor aurrean, eta bere baitarako izatea betetzearen bidez beste zerizan beregain gisa begiesten saiatzen da. *Lehen xede* hori bere buruaz zerizan banako den aldetik beste autokontzientzian jabetzea da, edo beste hori norbera bihurtzea da; *bere baitan* dagoeneko beste hori izateko ziurtasuna dauka.- Bere burua substantzia etikotik eta pentsatzearen izate lasaitik bere berbaitarako izatera igo den heinean, bere atzean uzten ditu ohituren eta hor-izatearen legea, behaketaren ezagupena eta teoria, desagertzen den itzal lauso gisa, hori bere *berbaitarako izatea* eta errealitatea norberaren kontzientziarena ez beste batena duen halako baten jakitea baita. Horretan jakitearen eta egitearen orokortasunaren itxuraz zerutarra den gogoaren orde, non banakotasunaren sentsazioa eta gozamena isiltzen diren, lurraren gogo sartzten da, zeinarentzat kontzientzia banakoaren errealitateak baino ez duen balio egiazko errealitate bakar gisa.

Adimena eta jakintza mespretxatzen ditu,

Gizakien dohain goren-gorenak;

Deabruaren esku jarri da

Eta hondoratu behar du¹⁰.

Bizitzara jauzi egiten du, beraz, eta indibidualtasun hutsa, hor agertzen baita, garatzen du. Horrek ez du bere zoriona sortzen, baizik eta hori bera bitartegabe hartzen du eta gozatzen du. Jakintza, legeen eta printzipioen itzalak, hori eta bere errealitate propioaren artean daudenak, desagertzen dira, laino bizigabe gisa, bere errealitatearen ziurtasunarekin batera jaso ezin duena; bere bizitza hartzen du fruitu heldua biltzen den moduan, hartzen denean berez eskaintzen den fruitua.

Horren egitea une baten arabera baino ez da *irrikaren* egitea, ez du nahi zerizan objektibo osoaren baliogabetzea, baizik eta bere beste

izatearen forma edo bere beregaintasuna nahi du, zerizangabeko itxura baino ez dena; izan ere, hori *bere baitan* zerizan berberatzat hartzen du, edo bere norberatasuntzat. Irrikak eta bere objektuak elkarrekiko axo-lagabe eta beregain diraute *hor-izate bizian*; irrikaren gozamenak hori gaintitzen du, irrikaren objektuari dagokion heinean. Baina hemen bi errealitate bakartuei errealitatea ematen dien osagai hori kategorია da, zerizanez *errepresentatua* den izate bat; beraz, beregaintasunaren *kontzientzia* da (dela berezko kontzientzia edo legeen sistema bat izatera iritsi den kontzientzia), indibiduoak euren baitarako mantentzen dituen. Banaketa hori ez da bere baitan autokontzientziarentzat, zeinak beste eza gutzen duen *bere norberatasun* propio gisa. Beraz, *atseginaren* gozamena lortzen du, bere egikaritzapenaren kontzientzia lortzen du beregain gisa agertzen den kontzientzian, edo bi autokontzientzia beregainen batasunaren begiespena lortzen du. Bere xedea lortzen du, baina horrela esperientziatzen du horren egia zein den. Bere burua *berbaita-rako den* zerizan *banako* horren gisara aditzen du, baina xede horren egikaritzapena hori gaintitzea da, zeren ez baita bihurtzen objektu bere buruarentzat *banako-den* hori bezala, baizik eta bere burua eta beste autokontzientziaren arteko *batasun* gisa, eta horrenbestez *banako-den* gaintitu gisa edo *orokor-den* gisa.

Gozatutako atseginak badu esanahi positibo hau, hots, *norbera-ren* aurrean autokontzientzia objektibo bihurtzea, baina era berean negatiboa ere bai, hots, *norberaren burua* gaintitzea; eta bere egikaritzapena lehen esanahian aditu zuenez, bere esperientzia kontraesan gisa agertzen da bere kontzientzian, non bere banakotasunaren lortutako errealitateak bere burua ikusten duen *zerizan* negatiboak suntsituta, errealitaterik gabe haren aurrean egonik hura ezabatzen duen boterea denak. Zerizan hori ez da indibidualtasun hori bere baitan denaren *adigaia* baino. Baina oraindik ere bere burua egikaritzen duen gogoaren tankera txiroena da; izan ere, lehenik arrazoimenaren *abstrakzioa* da, edo *berbaitarako izatearen eta berbaitan izatearen arteko batasunaren bitartegabekotasuna*; horren zerizana, beraz, kategorია *abstraktua* baino ez da. Baina orain ez du izate *bitartegabekoaren*, *sinplearen* forma, gogo behatzailearentzat bezala, non hori *izate* abstraktua den edo, arrotza dena bezala ezarrita, *gauzatasuna* den oro har. Hemen gauzatasun horretan berbaitarako izatea eta bitartekotza sartu dira. Horregatik, *zirkulu* gisa agertzen da, zeinaren edukia zerizantasan sinpleen

garatutako harreman hutsa den. Indibidualtasun horren lortutako egikaritzapena ez datza, beraz, honetan baino, horrek kanpora jaurti duela abstrakzioen zirkulu hori autokontzientzia sinplearen itxiduratik *horre - tarako izatearen* edo hedapen objektiboaren osagaira. Autokontzientziari, beraz, atsegin gozagarrian bere zerizan gisa *objektu* bihurtzen zaiona zerizantasan hutsal haien hedapena da, batasun hutsarena, bereizketa hutsarena eta euren harremanarena; horretaz gain objektuak, indibidualtasunak bere *zerizan* gisa esperientziatzen duenak, ez du edukirik. *Beharrezkotasun* deitzen zaiona da; izan ere, beharrezkotasuna, *patua* eta horrelakoei buruz hain zuzen ezin da esan *zer* egiten duten, zein diren euren lege determinatuak eta eduki positiboak, zeren hori *izate* gisa begietsitako adigai absolutu bera baita, *harreman* sinple eta hutsala, baina geraezina eta oztopaezina, zeinaren emaitza banakotasunaren ezereza baino ez den. Harreman hori *lotura finko* hori da, zeren lotuta dagoena zerizantasan hutsak edo abstrakzio hutsalak baitira; batasuna, bereizketa eta harremana kategoriak dira, eta ez dira ezer euren baitan eta euren baitarako, baizik eta soilik aurkakoarekin harremanean, eta horregatik ezin dute elkar banandu. Euren *adigaiaren* bidez lotzen dira elkarrekin, adigai hutsak baitira; eta *harreman abso - lutu* eta higidura abstraktu horrek osatzen dute beharrezkotasuna. Banakoa baino ez den indibidualtasuna, lehenik arrazoimenaren adigai hutsa duena edukizat, teoria hiletik bizitzan erori beharrean norberaren bizigabetasunaren kontzientzian erori da, eta berea jasotzen du beharrezkotasun hutsal eta arrotz gisa, errealitate *hila* bezala.

Igarobidea *bataren* formatik *orokortasunaren* formara doa, abstrakzio absolutu batetik bestera; *berbaitarako izate* hutsaren xedetik, *besteekiko* elkartea baztertzen duenetik, aurkako *hutsera*, horren bidez era berean *berbaitan izate* abstraktu denera. Horrenbestez, hori halako moldez agertzen da non indibidua hondoratu egin baita eta banakotasunaren gogortasun absolutua era berean gogorra baina jarraikorra den errealitatean txikitzen baita. - Kontzientzia gisa bere burua eta bere aurkakoaren arteko batasuna den heinean, hondoratze hori bere xedea eta bere egikaritzapena da, gainera *harentzat* zerizana zenaren kontraesana eta *bere baitan* zerizana denaren kontraesana; egin zuenean zetzan zentzu-bikoiztasuna esperientziatzen du, hain zuzen, bere *bizitza atzema - tea*; bere bizitza atzeman zuen, baina horrela horren ordeztu heriotzari heldu zion.

Iruditzen zaio beharrezkotasun bizigaberantz doan bere izate biziaren *igarobide* hori iraulketa bat dela, ezerk bitartekotzen ez duena. Bitartekariak osatu beharko luke bi alderdien batasuna, une bata bestean ezagutzen duen kontzientzia, bere xedea eta egitea patuan eta bere patua bere xedean eta egitean, *bere zerizan propioa beharrezkotasun* horretan. Baina batasun hori kontzientzia horretzat atsegina bera da, edo sentimendu *sinple*, *banakoa*, eta bere xede horren unetik bere egiazko zerizanaren unera doan igarobidea horrentzat aurkakotu-denera egiten duen jauzia besterik ez da, une horiek ez baitaude sentimenduan jasota eta elkarlotuta, baizik eta norbera hutsean besterik ez, orokor-den bat edo pentsatze bat denean. Kontzientzia, beraz, bere egia aurkitu behar zuen esperientziaren bidez asmakari bat bihurtu da bere buruarentzat, bere ekintzen ondorioak ez dira beretzat bere ekintzak berak; gertatzen zaiona *beretzat* ez da *bere baitan denaren* esperientzia; igarobidea ez da eduki eta zerizan berberaren forma-aldaketa hutsa, behin kontzientziaren eduki eta zerizan gisa errepresentatua, beste behin bere buruaren objektu edo zerizan *begietsi* gisa. *Beharrezkotasun abstraktua* negatibotzat baino ez da jotzen, *orokortasunaren botere* adiezina, non indibidualtasuna zatitan txikitzen den.

Honaino doa norberaren kontzientziaren tankera horren agerpena; horren existentziaren azken unea horren galeraren pentsamendua da beharrezkotasunean, edo horren beraren pentsamendua bere buruarentzat zerizan absolutuki *arrotz* gisa. Norberaren kontzientziak *bere baitan*, ordea, galera hori gainditu du; izan ere, beharrezkotasun hori edo orokortasun huts hori bere zerizan *propioa* da. Kontzientzia bere baitara islatze hori, *bere burua* beharrezkotasun gisa ikusteko, horren tanke-
ra berri bat da.

b. BIHOTZAREN LEGEA ETA HARROPUZKERIAREN EROKERIA

Beharrezkotasuna egiatan norberaren kontzientzian dena bere tankera berrian dena da, non hori beharrezko-den gisara den; *bitarte gabe* daki *orokor-dena* edo *legea* bere baitan dituela; horrek *bihotzaren lege* izena du determinazio honegatik, hots, kontzientziaren berbaitarako izatean *bitartegabeko* delako. Tankera hori *berez* da *banakotasun* gisa zerizan, aurrekoa bezala, baina determinazio bat gehiago dauka, horrentzat *berbaitarako izate* horrek beharrezko edo orokor gisa balio duela.

Bitartegabe norberaren kontzientziaren legea bera dena, beraz, edo bere baitan lege bat duen bihotza, hori egikaritzera doan *xedea* da. Ikusteke dago ea egikaritzapen hori adigai horri egokituko zaion, eta ea horretan bere lege hori zerizan gisa esperientziatuko duen.

Bihotz horri errealitate bat aurkakotzen zaio; izan ere, bihotzaren legea *bere baitarako* baino ez da, oraindik ez da garatu, eta, beraz, adigaia ez *beste* zerbait da. Eta beste hori garatu behar duena ez den errealitate gisa determinatzen da eta, beraz, *legearen* eta *banakotasu-naren kontraesana*. Beraz, alde batetik, banakotasun bakarra zapaltzen duen legea da, bihotzaren legea kontraesaten duen mundu-ordena bortitza eta, bestetik, ordena hori jasaten duen gizateria, eta bihotzaren legeari jarraitzen ez zaiona, baizik eta behar arrotz bati men egiten diona. - Errealitate hori, kontzientziaren egungo tankeraren *aurrean* agertzen dena, ez da, argiki, ikusten denez, banakotasunaren eta horren egian banatuta dagoen aurreko erlazioa baino, banakotasuna zapaltzen duen beharrezkotasun anker baten erlazioa. Horregatik, *guretzat*, aurreko higidura tankera berriari aurkakotzen zaio, zeren hori bere baitan hartatik baitator, eta horren jatorria den unea, beraz, beharrezkoa da harentzat; hari, ordean, aurretik *hor topatu* zuena bezala agertzen zaio, haren *jatorriari* buruzko kontzientziarik ez duelako, eta harentzat zerizana gehiago da *bere baitarako* izatea edo negatiboa izatea berbaitan izate horren positiboaren aurrean.

Bihotzaren legea kontraesaten duen beharrezkotasun hori eta horren bidez gertatzen den jasapena gainditzeko ahalegintzen da indibidualtasuna. Horrenbestez, ez da aurreko tankeraren xalokeria, atsegin banakoa baino nahi ez zuena, baizik eta xede garai baten seriotasuna, zeinak bere atsegina bere zerizan propio *bikainaren* aurkezpean eta *gizatasunaren ongizatea* sortzean bilatzen duen. Horrek egikaritzen duena, legea da, eta horren atsegina, beraz, aldi berean bihotz guztien atsegin orokorra. Horrentzat biak *bananezinak* dira; bere atsegina legearen arabera da, eta gizatasun orokorraren legearen egikaritzapena bere atsegin banakoaren prestakuntza. Izan ere, horren barnean *bitartegabe* indibidualtasuna eta beharrezko-dena bat dira; legea bihotzaren legea da. Indibidualtasuna oraindik ez da higitu bere kokapenetik, eta bien batasuna ez da lortu oraindik indibidualtasunaren higidura bitartekariaren bidez, diziplinaren bidez. Bitartegabeko zerizan *diziplinagabekoaren* egikaritzapena bikainta-

sun baten aurkezpentzat eta gizatasunaren ongizatearen sorkuntzatzat jotzen da.

Bihotzaren legearen aurrean dagoen legea, aitzitik, bihotzetik bananduta dago, eta aske da bere horretan. Horri lotuta dagoen gizatasuna ez dago legearen eta bihotzaren arteko batasun zorionsuan, baizik eta banaketa eta jasapen ankerrean, edo gutxienez *bere* gozamina galdu du *legea betetzen* duelako, eta norberaren bikaintasunaren kontzientziaren gabezia legea *hausten duenean*. Boterea duen ordena jainkotiar eta gizatiar hura bihotzetik banandua dagoenez, horrentzat *itxura* baino ez da, horri egokitzen zaiona galdu beharko lukeena, hain zuzen, boterea eta errealtatea. Bere *edukian* baliteke ausazko eran bihotzaren legearekin bat egitea, eta orduan horren menpe ezar daiteke; baina legearen arabera besterik gabe ez da bere zerizana, baizik eta hor *bere buruaren* kontzientzia izatea, hor asebetetzea. Beharrezkotasun orokorraren edukiak bihotzarekin bat egiten ez duenean, hori bere edukia arabera ez da ezer bere baitan, eta atzera egin behar du bihotzaren legearen aurrean.

Indibiduoa, beraz, bihotzaren legea *betetzen* du; hori *ordena orokor* bihurtzen da, eta atsegina legezko errealtatea bere baitan eta bere baitarako. Baina egikaritzapen horretan legeak indibiduoi ihes egin dio egitatean; bitartegabe gaititu behar zen erlazio baino ez da bihurtzen. Bihotzaren legeak, hain zuzen, bere egikaritzapenaren bidez utzi egiten dio *bihotzaren* lege izateari. Izan ere, hor-izatearen forma jasotzen du eta, orduan, *botere orokor* da, zeinari bihotz *hori* axolagabe zaion, halako moldez non indibiduoa *bere* ordena *propioa ezarri* ez baitu berea bezala aurkitzen gehiago. *Bere* legearen egikaritzapenaren bidez, beraz, ez du bere legea sortzen, baizik eta *bere baitan* berea baina beretzat arrotza den heinean, ordena errealean nahastea baino ez du lortzen; eta, gainera, horretan nahasten da arrotza izateaz gain etsai ere bazaion goi botere gisa. - Bere ekintzaren bidez bere burua baden errealtatearen osagai orokorrean ezartzen du edo, gainera, osagai hori *bezala* ezartzen du bere burua, eta bere ekintzak bere zentzuaren arabera ordena orokor baten balioa izan beharko luke. Baina horrela bere baitatik *askatu* da, hazi egiten da orokortasun gisa eta banakotasuna egozten du bere baitatik; orokortasuna bere bitartegabeko berbaitarako izatearen forman baino ezagutu nahi ez duen indibiduoa bere burua ez du ezagutzen orokortasun askean, baina aldi berean horri dagokio,

horren egitea baita. Egite horrek, beraz, ordena orokorra *kontraesateko* esanahi iraulia dauka, bere egintzak *bere* bihotz banakoaren egintza izan behar baitu, ez errealitate orokor askea; eta aldi berean hori egitatean *berrezagutu* du, egiteak zentzu hau baitu, bere zerizana *errealitate aske* gisa ezartzea, hau da, errealitatea bere zerizan gisa berrezagutzea.

Indibiduoak bere egitearen adigaiaren bidez hura bere baitan jaso duen orokortasun erreala bere aurka bihurtzeko modu zehatzagoa determinatu du. Bere ekintza *errealitate* den aldetik orokor-denari dagokio; bere edukia, ordea, indibidualtasun propioa da, zeinak bere burua *banako* gisa orokor-denari aurkakotuta mantendu nahi duen. Hemen ez gara arduratzen lege determinatu baten ezarpenaz, baizik eta bihotz banakoaren eta orokortasunaren arteko batasun bitartegabekoa da lege izateraino goratzen den eta balio behar duen pentsamendua, hots, *bihotz bakoitzak* bere burua ezagutu behar duela legean. Baina indibiduo horren bihotzak baino ez du ezarri bere errealitatea bere egintzan, zeinak horri bere *berbaitarako izatea* edo bere *atsegina* adierazten dion. Bitartegabe orokor-den gisa balio behar du, hau da, egiatan zerbait berezia da, eta orokortasunaren forma besterik ez du, bere eduki *bereziak berezi* gisa orokortzat balio beharko luke. Horregatik, eduki horretan besteez ez dute euren bihotzaren legea osatuta aurkitzen, baizik eta *beste batena*; eta hain zuzen lege orokorraren arabera, hots, bakoitzak bere bihotza aurkitu behar duela legean, hark ezarri zuen errealitatearen aurka bihurtzen dira, hura haien errealitatearen aurka bihurtu zen bezala. Indibiduoak, beraz, lehen lege zurruna besterik ez bazuen mespretxatzen, orain aurkitzen du gizakien bihotzek bere asmo bikainei aurre egiten diela eta horiek ere mespretxatzen ditu.

Kontzientzia horrek orokortasuna lehen *bitartegabeko* gisa eta beharrezkotasuna bihotzaren beharrezkotasun gisa ezagutzen dituenek, egikaritzapenaren eta eraginkortasunaren izaera ezezaguna zaio, ez du ezagutzen hori *baden* gisa bere egian *bere baitan orokor-dena* dela, non kontzientziaren banakotasuna, horren eskuetan jartzen dena, *banakotasun* bitartegabeko *hori izateko* hondoratzen den; *bere izate* hori lortu beharrean, beraz, izatean *bere baitatik* bestelakotzea baino ez du lortzen. Baina bere burua ezagutzen ez duen toki hori ez da beharrezkotasun hila, baizik eta indibidualtasun orokorrak biziarazten duen beharrezkotasuna. Ordena jainkotiar eta gizatiar hura, aurretik baliodun gisa topatu zuena, errealitate hiltzat jo zuen, non horrek berak bezala (zei-

nari heltzen dion bere baitarako den orokor-denari aurkakotutako bihotz gisa) horri dagozkionek ere euren buruaren kontzientziarik ez luketen edukiko; baina aurkitzen du ordena hori guztien kontzientziek biziarazten dutela, eta bihotz guztien lege gisa. Esperientzia hau egiten du, errealitatea ordena bizia dela, eta egitatean hori egiten du bere bihotzaren legea egikaritzen duen heinean; izan ere, horrek ez du hau besterik esan nahi, indibidualtasuna bere objektu bihurtzen dela orokor-den gisa, baina hor ez duela bere burua ezagutzen.

Autokontzientziaren tankera horri, beraz, bere esperientziatik egia-dena gisa sortzen zaionak *bere baitarako* den hori *kontraesaten* du. Baina bere baitarako denak orokortasun absolutuaren forma du harentzat, eta bihotzaren legea da, zeinak *autokontzientziarekin* bat egiten duen bitartegabe. Aldi berean ordena iraunkor eta bizia era berean horren *zerizan* eta emaitza *propioa* da, ez du hori baino ekoizten; ordena hori era berean autokontzientziarekin batasunean da bitartegabe. Horrek era horretara, zerizantasan aurkakotu bikoitz bati dagokiola, bere baitan bere burua kontraesaten du, eta bere barne-barnean hondatua dago. Bihotz *horren* legea autokontzientziak bere burua ezagutzen duen osagaia baino ez da; baina ordena baliodun orokorra lege haren egikaritzapenaren bidez era berean bere *zerizan* propio eta bere *errea-litate* propio bihurtzen zaio; bere kontzientzian bere burua kontraesaten duenak horrentzat biak ditu, zerizanaren forma eta bere errealitatea propioarena.

Bere hondoratzearen une hori, horretaz jabetzen dela, eta hor bere esperientziaren emaitza adierazten duela, bere burua norberaren iraulketa gisa erakusten du, kontzientziaren bihurriketa gisa, zeinari bere zerizana bitartegabe zerizan eza zaion, eta bere errealitatea bitartegabe errealtate eza. - Ezin da pentsatu bihurriketa hori oro har zerizangabe den zerbait zerizanezkotzat hartzea, errealtaterik gabea den zerbait errealtzat hartzea denik, halako moldez non batentzat zerizanezko edo erreala dena bestearentzat ez bailitzateke, eta errealtatearen eta errealtate ezaren edo zerizantasanaren eta zerizantasan-gabeziaren kontzientzia bereizten baitira. - Zerbait egitatean kontzientziarentzat oro har erreala eta zerizanezkoa bada, baina ez niretzat, orduan nik horren ezereztasanaren kontzientzian aldi berean, oro har kontzientzia naizenez, haren errealtatearen kontzientzia dut, eta biak finkoak diren heinean, orduan hori orokorrean eromena den batasuna da. Baina ego-

era horretan *objektu* bat bihurritu da kontzientziarentzat, ez kontzientzia bera kontzientzia den aldetik eta bere baitarako. Hemen ondorioztatu den esperientziatzearen emaitzan kontzientzia *bere buruaz* jabetzen da bere legean erreal den hori bezala; eta, aldi berean, zerizantagun berbera, errealtate berbera *bestelakotzen* zaion heinean, bere errealtate gabezia jabetzen da autokontzientzia gisa, errealtate absolutu gisa, edo bi alderdiak euren kontraesanean bitartegabe *bere zerizantzat* jotzen ditu, zeina bere barne-barnean, beraz, bihurrituta dagoen.

Gizateriaren ongizatearen aldeko bihotzaren taupadak, beraz, norberaren harropuzkeria bihurrituaren haserre izatera igarotzen dira, kontzientziaren haserre bizi izatera bere deuseztapenaren aurka mantentzeko, eta hori honen bidez, hori bera den bihurritasuna bere baitatik jaurtikiz eta bere burua beste bat bezala ikustea eta adieraztea ahaleginduz. Ordena orokorra adierazten du, beraz, bihotzaren legearen eta bere zorionaren bihurriketa gisa, apaiz fanatikoek, despota irritsen eta horien morroiek (euren umilazioa beherantz umilatu eta zapalduz orekatzen dutenek) asmatu dutena eta gizateria iruzurtuaren miseria izengabea sortu duena. - Kontzientziak bere bihurriketa horretan *indibidualtasuna* bihurritzen duena eta iraulia dena bezala adierazten du, baina *arrotza* eta *ausazkoa* dena. Baina bihotza edo *bitartegabe kontzientziaren oro* - *kor izan nahi duen banakotasuna* bihurritzen duen eta iraulia den hori bera da, eta horren egiteak ekoizten du kontraesan *horretaz* jabetzen dela. Izan ere, egia-dena horrentzat bihotzaren legea da, *iritzia* baino ez den zerbait, indarrean dagoen ordena ez bezala, iraunkortasunik ez duena baizik eta irauten saiatzen denean hondoratzen dena. Bere lege horrek *errealitatea* izan beharko luke; hor legea *errealitate* gisa, *indarrean dagoen ordena* gisa bere xede eta zerizan zaio, baina bitartegabe era berean *errealitatea*, baita legea ere *indarrean dagoen ordena*, ezereza zaio. - Era berean bere errealtate *propioa*, *hori bera* kontzientziaren banakotasun gisa, zerizana zaio; baina bere xede da hori *izaten* ezartzea; bitartegabe, beraz, bere norbera banakoa ez den aldetik zerizana zaio, edo xedea lege gisa, hain zuzen hor orokortasun baten gisara, bere kontzientziarentzat dena. - Bere adigai hori bere egitearen bidez bere objektu bihurtzen da; bere norberak hori, beraz, erreala ez dena bezala esperientziatzen du, eta errealtate gabezia bere errealtate gisa. Ez da, beraz, ausazko indibidualtasun arrotza, baizik eta hain zuzen bihotz hori, alderdi guztien arabera bere barnean iraulia dena eta bihurritzen duena.

Bitartegabeko indibidualtasun orokorra iraulia dena eta iraul-tzen duena den heinean, ordena orokor hori ez da gutxiago bere baitan iraulia dena, *bihotz* guztien legea denez, hau da, iraulia denaren legea denez, bihurritasun erotuak adierazi zuen moduan. Behin hori erakus-ten du bihotz baten legeak beste batean aurkitzen duen erresistentzian, *bihotz* guztien lege izateko erresistentzian. Indarrean dauden legeak indibiduo baten legearen aurka defendatzen dira, horiek ez dutelako beharrezkotasun oharkabea, hutsala eta hila, baizik eta gogoaren oro-kortasuna eta substantzia baitira, eta hor batzuetan bere errealtatea badu, horiek indibiduo gisa biziko dira eta euren buruaz jabetuko dira; halako moldez non, ordena horri buruz kexu badira, bere barneko lege-aren aurka joango balitz bezala, eta bihotzaren iritziak mantentzen badituzte haren aurka, egitatean euren bihotzarekin hari eusten baitiote euren zerizan gisa; eta ordena hori kentzen bazaie, edo horretatik irte-ten badira, dena galtzen dute. Hor datzan heinean ordena publikoaren errealtatea eta boterea, orduan hori agertzen da zerizan orokorki bizi eta bere buruaren berdin gisa, eta indibidualtasuna horren forma beza-la. - Baina ordena hori era berean iraulia dena da.

Izan ere, bihotz guztien legea delako, indibiduo guztiak bitarte-gabe orokor-den hori direlako, *bere baitarako den* indibidualtasunaren edo bihotzaren errealtatea baino ez den errealtate bat da. Bere biho-tzaren legea ezartzen duen kontzientziak besteen erresistentzia espe-rientziatzen du, zeren horrek *era berean banakoak* diren horien biho-tzen legeak kontraesaten baititu, eta horiek erresistentzia horretan ez baitute euren legea ezarri eta defendatzea baino egiten. Eskura dugun *orokor-dena* erresistentzia orokorra da, eta guztien guztien aurkako borroka, non bakoitzak bere banakotasuna defendatzen duen, baina aldi berean ez duen lortzen, zeren horrek erresistentzia berbera experien-tziatzen baitu eta elkar desagiten baitute. *Ordena* publikoa zirudiena, beraz, etsaigo orokor hori da, non bakoitzak bere etxera ekartzen duen ahal duena, justizia besteen banakotasunean aplikatzen duen eta berea finkatzen duen, baina besteek desagertarazten dutela. *Munduaren ibil-bidea* da, bide iraunkor baten itxura, *ustezko orokortasuna* dena eta zei-naren edukia banakotasunen finkapenaren eta desagitearen joko zeri-zangabea baino ez den.

Ordena orokorraren bi alderdiak aurrez aurre aztertzen baditu-gu, azken orokortasunak bere eduki gisa indibidualtasun arduratsua

dauka, zeinarentzat iritzia edo banakotasuna legea den, erreala dena ez erreala, eta erreala ez dena erreal dena. Baina aldi berean ordenaren *errealitatearen alderdia* da, horri indibidualtasunaren *berbaitarako iza- tea* baitagokio. - Beste alderdia *orokor-dena* da zerizan *lasai* gisa, baina horregatik *barneko-dena* gisa besterik ez, zerbait badena baina ezein errealitate ez dena, eta errealitatea izateaz harrotu zen indibidualtasunaren gaindipenaren bidez baino ezin da erreal bihurtu. Kontzientziaren tankera hori *bertutea* da, legean bere burua dakiena, *bere baitan* egia-denean eta ona-denean ez banakotasun gisa, baizik eta *zerizan* gisa besterik ez dakiena, baina indibidualtasuna iraulia dena eta iraultzen duena dela dakiena.

c. BERTUTEA ETA MUNDUAREN IBILBIDEA

Arrazoimen ekilearen lehen tankeran norberaren kontzientzia indibidualtasun hutsa zen, eta horren aurrean orokortasun hutsala zegoen. Bigarren tankeran aurkakotzaren bi alderdiek *bi* uneak zituzten, legea eta indibidualtasuna, euren baitan; bata, ordea, bihotza, haren bitartegabeko batasuna zen, bestea haren aurkakoa. Hemen, bertutearen eta munduaren ibilbidearen arteko erlazioan, biak osagaiak dira, bakoitza batasuna eta une horien aurkakotza, edo legearen eta indibidualtasunaren higidura elkarrengana, baina aurkakotutakoa. Bertutearen kontzientziarentzat *legea* da *zerizanezkoa* eta indibidualtasuna gainditu behar dena, bai bere kontzientzian baita munduaren ibilbidean ere. Hartan norbere indibidualtasuna orokor-denaren diziplinapera ekarri behar da, bere baitan egia-den eta ona-denaren menpe; baina hor kontzientzia pertsonala izaten irauten du; egiazko diziplina pertsonalitate osoaren sakrifizioa baino ez da, egitatean banakotasunetan lotuta geratu ez izanaren egiaztapen gisa. Sakrifizio banako horretan aldi berean *munduaren ibilbideko* indibidualtasuna baliogabetzen da, hori biei komun zaien une sinplea baita.- Horretan indibidualtasunak kontzientzia bertutesuan jokatzeko moduan jokatzeko du, hots, norbera zerizan bihurtuz, eta, aitzitik, *bere baitan* ona-denari eta egia-denari menperatuz. - Munduaren ibilbidea, gainera, bertutearentzat era berean ez da soilik *indibidualtasunaren* bidez *iraulitako* orokor den hori; baizik eta *ordena* absolutua era berean une komuna da, baina munduaren ibilbidean kontzientziak ez du eskura *baden errealitate* gisa, baizik eta horren *barneko zerizan* gisa. Horregatik, hori ezin da bertutearen bidez sortu benetan, zeren sortzea, *egite* gisa, indibidualtasunaren kontzien-

tzia baita, eta indibidualtasuna da gaintitu behar dena; gaintitze ekin-tza horren bidez, baina, munduaren ibilbidearen *berbaitanari* lekua egi-tea baino ez da lortzen, hori berbaitan eta berbaitarako existentzian sar-tzeko.

Munduaren ibilbide errearen *eduki* orokorra dagoenako hor dugu; zehazkiago aztertzen badugu, ez da aurretiko autokontzientzia-ren bi higidurak baino. Horietatik sortu da bertutearen tankera; horiek horren jatorria diren heinean, horiek bere aurrean ditu; baina horren asmoa bere jatorria gaintitzea da, eta bere burua egikaritzea edo *bere baitarako* bihurtzea. Munduaren ibilbidea, beraz, alde batetik indibi-dualtasun banakoa da, bere atsegina eta gozamina bilatzen duena, hor bere hondamena aurkitzen duena eta horrela orokor-dena asebetetzen duena. Baina asebate hori eta erlazio horren gainerako uneak orokor-denaren tankera eta higidura iraulia dira. Errealitatea atseginaren eta gozamenaren banakotasuna baino ez da, baina orokor-dena horri aur-kakotzen zaio; horren tankera hutsala baino ez den beharrezkotasuna, negatiboa baino ez den erreakzioa eta edukirik gabeko egitea. - Mun-duaren ibilbidearen beste unea indibidualtasuna da, bere baitan eta bere baitarako lege izan nahi duen eta bere irudimenean indarrean dagoen ordena zapuzten duena; lege orokorra egitan norberaren iruzur horren aurrean mantentzen da, eta ez da agertzen gehiago kontzientziari aur-kakotzen zaiona eta hutsala dena bezala, ez da agertzen beharrezkota-sun hila bezala, baizik eta *beharrezkotasun gisa kontzientzian bertan*. Baina absolutuki kontraesankorra den errealtatearen bere *buruaz jabe-tzen* den harreman gisa existitzen denean, bihurtasuna da; errealtate *objektibo* bezala denean, iraulketa da oro har. Orokor-dena bi alderdie-tan aurkezten da bere higiduraren botere gisa, baina botere horren *exis-tentzia* iraultze orokorra baino ez da.

Bertutearen eskutik jaso behar du orain bere egiazko errealtatea indibidualtasunaren gaintipenaren bidez, iraultzearen printzipioaren gaintipenaren bidez; horren xedea da horrela munduaren ibilbide irau-lia berriro iraultzea eta horren egiazko zerizana ekoiztea. Egiazko zeri-zan hori munduaren ibilbidean lehenik bere *berbaitana* bezala baino ez da, ez da oraindik erreala; eta bertuteak, horregatik, hori *sinetsi* baino ez du egiten. Bertuteak sinesmen hori argitara ekarri nahi du, baina horren lanaren eta sakrifizioaren fruitua gozatu gabe. Izan ere, bertutea *indibidualtasun* den heinean, munduaren ibilbidearekin duen borroka-

ren *egitea* da; baina horren xedea eta egiazko zerizana munduaren ibilbidearen errealitateari gailentzea da; horren bidez sortzen den onadenaren existentzia, horrenbestez, haren *egitearen* amaiera da, edo indibidualtasunaren *kontzientziarena*. - Borroka horrek zer emaitza izango duen, bertuteak hor zer esperientziatuko duen, ea horrek beregain hartzen duen sakrifizioaren bidez munduaren ibilbideak galduko duen eta bertuteak irabaziko duen, hori guztia borrokalariek dituzten *arma* bizien izaerak erabakiko du. Izan ere, armak ez dira borrokalariaen beraren *zerizana* baino, bi horientzat baino agertzen ez dena. Horien armak zein diren, beraz, bere baitan borroka horretan eskura dugunetik ondorioztatu da dagoeneko.

Orokor-dena kontzientzia bertutetsuarentzat *sinesmenean* da egiazkoa, edo *bere baitan*; ez da oraindik orokortasun erreala, baizik eta *abstraktua*; kontzientzia horretan *xede gisa* dago, munduaren ibilbidean *barneko-dena* bezala. Hain zuzen, determinazio horretan orokor-dena aurkezten da, baita bertutean ere munduaren ibilbidearen aurrean; izan ere, lehenik ona-dena egikaritu *nahi* du, eta ez du bere burua errealitatetzat jotzen. Determinatutasun hori honela ere azter daiteke, hots, ona-denak, munduaren ibilbidearen aurkako borrokan agertzen denez, horrela bere burua aurkezten duela *beste batentzat* izanik; *bere baitan eta bere baitarako* ez den zerbait bezala, bestela ez bailuke nahiko bere buruari egia ematea aurkakoari gailenduz. Lehenik *beste batentzat* baino ez da, eta horrek lehen aurkako azterketan erakutsi zena baino ez du esan nahi, hau da, lehenik *abstrakzio* bat dela, erlazioan baino ez duena errealitatea, ez bere baitan eta bere baitarako.

Ona-dena edo orokor-dena, hemen agertzen den moduan, *dohain*, *gaitasun*, *indar* deitzen den hori da. Gogoaren izateko modu bat da, non hori orokor-den gisa errepresentatzen den, zeinak bizitzeko eta higitzeko indibidualtasunaren printzipioa behar duen, eta horretan bere *errealitatea* duen. Printzipio horrek, bertutearen kontzientzian dagoen heinean, orokor-den hori *ongi aplikatzen* du, baina munduan dagoen heinean *gaizki erabiltzen* du; tresna jasailea, indibidualtasun askearen eskuak gobernatuta, horretaz egiten den erabileraren aurrean axolagabe dena, eta horren suntsipena dakarren errealitate bat sortzeko gaizki erabilia izan daitekeena; materia bizigabea, beregaintasun propiorik ez duena, horrela edo bestela eratua izan daitekeena, baita hura zapuzten duen moduan ere.

Orokor-den hori era berean bertutearen kontzientziaren eta munduaren ibilbidearen esku dagoenez, ezin da ulertu ea horrela hornituta bertutea bizioari gailenduko zaion. Armak berberak dira; gaitasun eta indar horiek dira. Noski, bertuteak bere sinesmena bere xedearen eta munduaren ibilbidearen zerizaren arteko jatorrizko batasunean ezarri du azpijoko moduan, horrela etsaiari borrokan atzetik erasotzeko eta *bere baitan* xede hori betetzeko; halako moldez non egitatean bertutearen zaldunarentzat bere *egite* eta borrokatzea benetan jolas-borroka baita, serio hartu *ezin* duena, zeren hark bere egiazko indarra honetan ezartzen baitu, hots, ona-dena *bere baitan eta bere baitarako* izatean, hau da, horrek bere burua betetzean, eta *ezin* du onartu jolas-borroka hori serio bihurtzea. Izan ere, etsaiaren aurka bihurtzen duena eta bere aurka bihurtuta aurkitzen duena, eta xahutzeko eta kaltetzeko arriskuan jartzen duena bere baitan nahiz bere etsaian, horrek ez du izan behar ona-dena; izan ere, hori gordetzeko eta egikaritzeko borrokatzen du, baizik eta arriskuan jartzen dena dohain eta gaitasun axolagabeak dira. Baina horiek egitatean ez dira indibidualtasunik gabeko orokor-den hura baino, borrokaren bidez mantendu eta egikaritu beharko litzatekeena. - Baina, aldi berean, borrokaren adigaiaren bidez *dagoeneko egi-karitu* da bitartegabe; *berbaitana* da, *orokor-dena*, eta horren egikaritzapenak hau baino ez du esan nahi, *aldi berean beste batentzat* dela. Lehenago aipatu diren bi alderdiak, zeinen arabera bakoitza abstrakzio bat bihurtu zen, *ez daude bananduta*, baizik eta borrokan eta borrokaren bidez ona-dena bi era horietan ezartzen da. - Kontzientzia bertute-tsua, ordea, munduaren ibilbidearen aurkako borrokan sartzen da onadenari aurkakotzen zaiona balitz bezala; borrokak horri eskaintzen diona orokor-dena da, ez orokor-den abstraktua, baizik eta indibidualtasunak bizitzen duen eta beste batentzat den orokor-dena, edo *ona-den erreala*. Bertuteak munduaren ibilbideari heltzen dion lekuan, hark beti ona-denaren existentzia diren kokapenak ukitzen ditu, ona-dena munduaren ibilbidearen agerpen orotan modu bereiztezinean nahastuta dagoela munduaren ibilbidearen *berbaitan* gisa, eta horren errealitatean du bere hor-izatea; bertuteak, beraz, munduaren ibilbidea ezin du zauritu. Ona-denaren halako existentziak eta horrenbestez zauritu ezin den erlazioak bertuteak bere baitan arriskuan jarri eta sakrifikatu behar zituen uneak dira. Borrokatzea, beraz, ezin da izan gordetzearen eta sakrifikatzearen arteko kulunka baino; edo ezin da gertatu ez norberarena denaren sakrifizioa ezta arrotza denaren zauriketa ere. Bertutea ez

da berdintzen borrokan bere ezpata dirdiratsua gordetzeaz baino arduratzen ez den eztabaidatzailearekin, baizik eta borroka abiatu du hain zuzen armak gordetzeko; bere arma propioak ez erabiltzea ez ezik, gainera, etsaiarenak ukitugabe gorde behar ditu eta bere erasoaren aurka gorde behar ditu, guztiak ona-denaren zati nobleak baitira, eta horien-gatik hasi baitzuen borroka.

Etsai horrentzat, ordea, ez da *berbaitana* bere zerizana, baizik eta *indibidualtasuna*; horren indarra, beraz, printzipio negatiboa da, zeinarentzat ezer ez den iraunkorra eta absolutuki santua, baizik eta guztiaren galera arriskatu eta jasan daitekeen. Horrela, arrakasta bere baitan bezain ziurra zaio bere aurkakoak dituen kontraesanen bidez lortzen badu. Bertutearentzat *bere baitan* dena munduaren ibilbidearentzat *bere baitarako* da; azken hori aske dago beste harentzat finko eta lotuta dagoen une orotatik. Horrek halako unea bere eskupean du horrentzat era berean gaingitu eta irauten utz dezakeen zeratzat jotzen duen heinean; eta, horrenbestez, horri lotutako zaldun bertutetsua ere bai. Horrek ezin du horretatik askatu kanpotik ezarria izango lukeen berokia baztertuz eta lurrean utziz; izan ere, horrentzat baztertu ezin duen zerizana da.

Azkenik, azpijokoari dagokionez, zeinaren arabera *berbaitan* onak, iruzurti, munduaren ibilbideari atzetik erasotuko dion, itxaropen hori bere baitan hutsala da. Munduaren ibilbidea bere buruaz ziur dagoen kontzientzia argia da, atzetik harrapatzen uzten ez dena, baizik eta beti aurpegia erakusten duena; izan ere, horrentzat dena *beretzat* da, dena bere *aurrean* dago. *Berbaitan* ona, ordea, bere etsaiarentzat bada, orduan ikusi dugun borrokan parte hartzen du; baina ez *horrentzat* baizik eta *bere baitan* den heinean, dohainen eta gaitasunen tresna jasailea da, materia errealtaterik gabekoa; hor-izate gisa errepresentatuta, lotan dagoen eta han atzean nonbait geratzen den kontzientzia litzateke.

Munduaren ibilbidea bertuteari gailentzen zaio, *zerizan* abstraktu ez-erreala egitatean haren xedea delako, eta errealtateari dagokionez haren egintza *hitzetan* baino ez datzan *bereizketetan* oinarritzen delako. Zera nahi zuen izan, *indibidualtasunaren sakrifizioaren* bidez ona-dena *erreal* bihurtzen duena, baina *errealtatearen* alderdia ez da *indibidualtasunaren* alderdia baino. Ona-denak *bere baitan* dena eta *denari* aurkakotua dena izan beharko luke, baina *berbaitana*, bere errealtatea eta egiaren arabera, *izatea bera* da. *Berbaitana* hasiera batean *zerizanaren*

abstrakzioa da errealtatearen aurka; baina abstrakzioa egiazkoa ez dena, baizik eta *kontzientziarentzat* baino ez dena da; horrek esan nahi du, ordea, *erreal* deitzen zaion hori dela; izan ere, erreala-dena *beste batentzat* zerizanezko-dena da, edo *izatea* da. Bertutearen kontzientzia, baina, *berbaitanaren* eta *izatearen* bereizketa horretan oinarritzen da, egirik ez duen bereizketan. - Munduaren ibilbideak ona-denaren iraulketa izan beharko luke, horrek *indibidualtasuna* zuelako bere printzipio gisa; baina hori *errealitatearen* printzipioa da; izan ere, hain zuzen kontzientzia horren bidez *berbaitan dena* era berean *beste batentzat* da; aldaezina dena iraultzen du, baina egitatean *abstrakzioaren ezerezetik errealtatearen izatera* iraultzen du.

Munduaren ibilbidea, beraz, gailendu egiten zaio bertuteak horren aurkakotzan osatzen duenari; zerizangabeko abstrakzioa den zerizanari gailentzen zaio. Baina ez zaio gailentzen erreala den zerbaiti, baizik eta benetan bereizketak ez direnei, gizatasunaren hoberenari eta horren zapalketaren buruzko, onaren aldeko sakrifizioari eta dohai-nak gaizki erabiltzeari buruzko hizketaldi puztuei; halako zerizan eta xede idealak hondoratu egiten dira hitz hutsalen modura, bihotza goratu eta arrazoimena hustutzen duten hitzen modura; onbideratzen dute, baina ez dute ezer eraikitzen; eduki hau ziur adierazten duten deklama-zioak, hots, xede noble halakoen alde jokatzeko duela dioen eta halako hitzaldi bikainak egiten dituen indibiduoak bere begien aurrean zerizan bikaina dela, eta puztutze horrek norberaren burua eta besteena betetzen ditu, baina aire hutsal bat erabiliz. - Antzinako bertuteak bere esanahi ziur determinatua zuen, herriaren *substantzian* baitzuen bere *oina-rritzapen* edukiz *betea*, eta *dagoeneko existitzen zen* ona-dena zuen bere xede gisa; beraz, ez zen zuzentzen errealtatearen aurka, *iraulketa oro-korra den aldetik*, eta *munduaren ibilbidearen* aurka. Aztertzen ari garen bertutea, ordea, substantziazatik at dago, zerizangabeko bertutea da, errepresentazioaren eta hitzen bertutea, eduki hura falta zaiona. - Munduaren ibilbidearekin borrokatzen duen berriketa horren hustasuna berehala erakutsiko litzateke hitz egiteko modu horiek zer esan nahi duten esango balitz; horregatik, *ezagun gisa aurreuposatzen* dira. Ezaguna den hori esateko eskakizuna hitz egiteko beste moduen zaratarekin betetzen zen edo horri bihotzera jotzea aurkakotu zitzaion, zeinak *barnean* esaten duen zer esan nahi duen, hau da, *egitatean hori esateko* ezintasuna aitortu zen. - Berriketa haren balioeza itxuraz era ohar-

kabean gure garaiko kulturarentzat ere ziurtasun bihurtu da; hitz egiteko modu horien multzo osotik eta horrekin puztutzeko modutik interes orok hanka egin duen heinean; galera hori ageri da berriketa haiek asperkeria baino ez dutelako sortzen.

Aurkakotza horretatik sortzen den emaitza, beraz, honetan datza, hots, kontzientziak *bere baitan* ona-denaren baina oraindik ezein errealitate izango ez lukeenaren errepresentazioa beroki hutsa bezala uztean. Bere borrokan esperientzia hau egin du, munduaren ibilbidea ez dela zirudien bezain txarra; izan ere, horren errealitatea orokor-denaren errealitatea da. Esperientzia horrekin batera baztertu egiten da indibidualtasunaren *sakrifizioaren* bidez ona-dena sortzeko bitartekoa; izan ere, indibidualtasuna da berbaitan denaren *egikaritzapena*; eta iraulketak utzi egiten dio ona-denaren iraulketa gisa ikusia izateari, horren iraulketa baita xede soil den aldetik errealitate bihurtzeko; indibidualtasunaren higidura orokor-denaren errealitatea da.

Horrenbestez, orde, egitatean era berean gailendu egiten da eta desagertu egiten da *munduaren ibilbide* gisa berbaitan denaren kontzientziaren aurrean zegoena. Indibidualtasunaren *berbaitarako izatea* han zerizanari edo orokor-denari aurkakotzen zitzaion, eta *berbaitan izatetik* bereizitako errealitatea zirudien. Baina erakutsi denez errealitatea orokor-denarekin batasun bereiztezinean dagoela, orduan munduaren ibilbidearen *berbaitarako izatea* ez da hori baino gehiago, bertutearen *berbaitana ikuspegi* bat baino ez den bezala¹¹. Munduaren ibilbidearen indibidualtasunak iritz dezake *beretzat* soilik edo *berekoiki* jokatzeko duela; irizten duena baino hobea da, haren egitea aldi berean *berbaitan den* egite orokorra da. Berekoiki jokatzeko badu, ez daki zer egiten duen, eta baieztatzen badu, gizaki guztiek berekoiki jokatzeko dutela, orduan hau besterik ez du baieztatzen, gizaki guztiak ez direla jabetzen egitea denaz. - *Bere alde* jokatzeko badu, orduan hain zuzen *berbaitan* baino ez denari errealitatea ematen dio; *berbaitarako izatea* - *ren* xedea, beraz, berbaitanari aurkakotua dagoela irizten duena, eta bere azkartasun hutsala, baita haren argipen finak ere, berekoikeria edonon erakusten dutenak, desagertu egiten dira *berbaitanaren* xedea eta horren hitzontzikeria bezalaxe.

Beraz, *indibidualtasunaren egitea eta aritzea xede dira euren baitan*; *indarren erabilera, bere adierazpenen jokoa da*, bestela berbaitan hila diren horiei bizitza ematen diena, baina berbaitana ez da oro-

kor-den betegabe, existentziagabe eta abstraktua, baizik eta hori bera da bitartegabe indibidualtasunaren prozesuaren aurrean-izate eta errealtate hori.

C.

Indibidualtasuna, bere baitan eta bere baitarako erreala dena

Norberaren kontzientziak orain bere buruaren adigaia atzeman du, hasiera batean guk hartaz genuena zena, hots, bere buruaren ziurtasunean errealtate osoa izatea; eta xedea eta zerizana harentzat orokor-denaren, dohainen eta ahalmenen, eta indibidualtasunaren zeharkapen higitzailea da. - *Batasunaren aurreko* betetze eta zeharkapen horren une banakoak, hartan bildu direnak, orain arte aztertu diren xedeak dira. Horiek desagertu egin dira absktrakzio eta kimera gisa, zeinak gogoaren autokontzientziaren azalezko lehen tankerei dagozkien eta euren egia bihotzaren, irudimenaren eta hizketaldiaren ustezko izatean duten, ez arrazoimenean; azken horrek, bere errealtateaz bere baitan eta bere baitarako ziur, ez du bilatzen bere burua sortzea *xede* gisa bitartegabe den errealtateari *aurkakotuz*, baizik eta kategorია du bere horretan bere kontzientziaren objektutzat. - Hain zuzen, arrazoimena agertu zen *berbaitarako den* edo *negatibo-den* autokontzientziaren determinazioa gaudituz da; bere buruaren negatiboa litzatekeen *errealitate* batekin egin zuen *topo*, eta horren gauditzearen bidez lortu zuen lehenik bere *xedea* egikaritzea. Baina ondorioztatu den heinean *xedea* eta *berbaitan izatea beste batentzako* izatea eta *aurretik topatutako errealtatea* bera dela, orduan egia ez da ziurtasunetik bereizten; orain xede ezarria bere buruaren ziurtasuntzat hartuko da, eta horren egikaritzapena egiaztat, edo xedea egiaztat, eta errealtatea ziurtasuntzat; baizik eta zerizana eta xedea bere baitan eta bere baitarako dira errealtate bitartegabekoaren ziurtasuna, *berbaitan izatea eta berbaitarako izatea - ren*, orokor-denaren eta indibidualtasunaren arteko elkar zeharkatzea; egitea bere baitan da bere egia eta errealtatea, eta *indibidualtasunaren aurkezpena* edo *adierazpena* xede zaio bere baitan eta bere baitarako.

Adigai horrekin, beraz, autokontzientzia bere baitara itzuli da determinazio aurkakotuetatik abiatuta, kategoriak harentzat eta jokae-

rarentzat zituenak, lehen behatzaile gisa eta ondoren ekile gisa. Kategoria hutsa bera bere objektutzat du, edo bere buruaz jabetu den kategoria da. Kontuak egin ditu, beraz, aurreko tankerekin; atzean geratu dira ahaztuta, ez dira aurrean agertzen eskura dugun mundu gisa, bai-zik eta bere barnean soilik garatzen dira une nabarmen gisa. Baina bere kontzientzian sakabanatzen dira hainbat uneren *higidura* gisa, oraindik bere substantziazko batasunean bildu ez den higidura. Baina une horietan *guztietan* autokontzientziak izatearen eta norberaren batasun sinpleari eusten dio, bere *generoa* denari.

Horrenbestez, kontzientziak bere egitearen aurkakotza oro eta baldintza oro baztertu du; *bere baitatik* abiatzen da garbi, eta ez zaio *beste bati* zuzentzen, baizik eta *norberari*. Indibidualtasuna bere baitan errealitatea den heinean, eragitearen *ekaia* eta egitearen *xedea* egitean bertan dago. Egiteak, horregatik, zirkulu baten higiduraren itxura du, hutsunean aske bere barnean higitzen dena, oztoporik gabe orain hedatzen, gero estutzen dena, eta erabat asebeteta bere barnean eta bere buruaz baino arduratzen ez dena. Indibidualtasunak bere tankera aurkezteko erabiltzen duen osagaiak tankera horren jasotze huts baten esanahia du; eguna da oro har, zeinari kontzientzia aurkeztu nahi zaion. Egiteak ez du ezer aldatzen, eta ez doa ezeren aurka; *ez ikusia izatetik ikusia izatera* doan igarobidearen forma hutsa da, eta argitara ekartzen den eta aurkezten den edukia egite hori dagoeneko bere baitan dena besterik ez da. *Bere baitan* da, hori da bere forma batasun *pentsatu* gisa; eta *erreala* da: hori da bere forma *baden batasun* gisa; hori bera *edukia* da, baina sinpletasunaren determinazio horretan soilik bere igarotzearen eta bere higiduraren determinazioaren aurka.

*a. GOGOZKO ANIMALIEN ERRESUMA ETA IRUZURRA,
EDO GAIA BERA*

Bere baitan erreala den indibidualtasun hori hasiera batean berriro *banakoa* eta *determinatua* da; errealitate absolutua, bere burua badakienez honakoa dela, bere buruaz jabetzen den moduan, *orokor-den abstraktua* da, mamirik eta edukirik gabe, kategoria horren pentsamendu kaskala baino ez dena. - Ikusi behar da bere baitan erreala den indibidualtasunaren adigai hori nola determinatzen den bere uneetan, eta horri nola sartzen zaion kontzientzian bere adigaia.

Indibidualtasunaren adigaia, den horretan berez errealtate osoa izanik, hasiera batean *emaitza* da; bere higidura eta errealtatea oraindik ez ditu aurkeztu, eta hemen *bitartegabe berbaitan izate sinple* gisa ezarrita dago. Negatibotasuna, ordea, higidura gisa agertzen den hori bera dena, *berbaitan sinplean da determinatutasun* gisa; eta *izatea* edo berbaitan sinplea zabalpen determinatu bat bihurtzen da. Horregatik, indibidualtasuna *jatorrizko* izaera determinatu gisa agertzen da, jatorrizko izaera gisa, *bere baitan* delako; jatorrizko eran *determinatu* gisa, negatibo-dena *berbaitanean* dagoelako, eta hori horren bidez nolakotasun bat delako. Izatearen murriztapen horrek, ordea, *ezin* du kontzientziaren *egitea murriztu*, hori hemen *bere buruarekin* harremana izateko ekintza osatua baita; beste batekiko harremana gainditzen da, haren murriztapena bailitzateke. Naturaren jatorrizko determinatutasuna, beraz, printzipio sinplea baino ez da, osogai orokor nabarmena, non indibidualtasuna askea eta bere buruaren berdin den, horren barne bere bereizketak oztoporik gabe garatzen dituen mailan, eta bere egikaritzean bere buruarekiko elkarrekintza hutsa da. Animalien bizitza determinatugabeak, adibidez uraren, airearen, lurraren osagaiari eta horien barnean berriro printzipio determinatuei bere arnasa ematen die, bere une guztiak horietan hondoratzen ditu, baina haiek osagaiaren murriztapena alde batera utziz bere esku eta bera bere batasunean mantentzen ditu, eta antolamendu berezi horren gisara animalien bizitza orokor hura izaten jarraitzen du.

Aske eta oso irauten duen kontzientziaren jatorrizko *izaera* determinatu hori agertzen da indibiduoarentzat xede denaren bitartegabeko eta benetako *eduki* bakar gisa; eduki *determinatua* da, noski, baina oro har *edukia* da, baina *berbaitan* izatea bakartuta aztertze dugun heinean soilik; egiatan, ordea, indibidualtasunak zeharkatzen duen errealtatea da; kontzientziak banako den aldetik bere baitan duen errealtatea hasiera batean *baden gisa* ezartzen da, ez ekile gisa. Egitearentzat, ordea, alde batetik determinatutasun hura ez da gainditu nahiko lukeen murriztapena, baden nolakotasun gisa hartuta higitzen den osagaiaren kolore sinplea delako; bestalde, ordea, negatibotasuna izatean baino ez da *determinatutasuna*; baina *egitea* ez da negatibotasuna baino; indibidualtasun ekilean, beraz, determinatutasuna desegiten da oro harrezko negatibotasunean, edo determinatutasun ororen bilkuran.

Jatorrizko natura sinplea, beraz, orain *egitean* eta egitearen kontzientzian horri dagokion bereizketa bihurtzen da. *Hasiera batean objektu* gisa dago eskura, eta hain zuzen oraindik *kontzientziari* dagokion objektu gisa, *xede* gisa, eta horrenbestez, eskura dagoen errealitate bati aurkakotuta. *Beste* unea lasai bezala errepresentatzen den xedearen *higidura* da, eta egikaritzapena xedeak errealitate erabat formalarekin duen harreman gisa, eta, beraz, *igarobidearen* errepresentazio edo *bitarteko* gisa. *Hirugarren* unea, azkenik, objektua da, egilea bitartegabe *bere* xede izateaz jabetzen ez dena, baizik eta hartatik at eta *bere baitarako beste bat* bezala dena. - Baina desagertzen ari diren alderdi horiek eremu horren adigaiaren arabera honela gorde behar dira, alegia, edukiak horietan berbera izaten irauten duela, eta hor ez da bereizketarik sortzen, ez indibidualtasunaren eta izatearen artekoa oro har, ezta *xedearen* eta *indibidualtasunaren* artekoa ere *jatorrizko izaera* gisa, ezta xedearen eta eskura dugun errealitatearen artekoa ere, ezta *bitartekoaren* eta haren artekoa ere *xede* absolutu gisa, ezta *eragindako erre- alitatearen* eta xedearen edo jatorrizko izaeraren edo bitartekoaren artekoa ere.

Hasiera batean, beraz, indibidualtasunaren jatorrizko eran determinatutako izaera, horren bitartegabeko zerizana, ez dago ekile gisa ezarrita, eta horrela gaitasun, talentu, izaera eta beste hainbat gauza *berezi* deitzen zaio. Gogoaren kolore ezagugarri hori xedearen eduki bakartzat hartu behar da eta errealitate bakartzat. Kontzientzia erre-presentatuko bagenu horretaz gain joan nahi balu bezala eta beste eduki bat egikaritu nahiko balu bezala, orduan *ezerezean* ari den *ezerez* gisa erre-presentatuko genuke. - Jatorrizko zerizan hori, gainera, ez da xedearen edukia soilik, baizik eta bere baitan *errealitatea* da, bestela egitearen ekai *jakina*, *hor topatzen den* eta egitean osatu behar den errealitate izateko itxura duena. Egitea, hain zuzen, oraindik aurkeztu ez den izatearen formatik aurkeztutakora doan igarobidea da; kontzientziari aurkakotzen zaion errealitatearen berbaitan izatea itxura hutsal soila izateraino behehitu da. Kontzientzia hori, ekintzara determinatzen den heinean, ez da nahasten uzten eskura dugun errealitatearen itxuraren eskutik, eta era berean pentsamendu eta xede hutsalekin jolasteari utzi eta bere zerizanaren jatorrizko edukiari eutsi behar dio. - Jatorrizko eduki hori lehenik, noski, kontzientziarentzat da, *horrek hura egikaritu duen heinean*; baina kontzientziarentzat *bere barnean* soilik den edukia

eta horretatik at bere baitan den errealitatearen arteko bereizketa desagertu da. - *Bere baitan* dena *bere baitarako* izateko ekin behar du kontzientziak, edo ekitea hain zuzen gogoaren bilakaera da *kontzientzia* gisa. *Bere baitan* dena, bere errealitatetik daki. Indibiduok, beraz, ezin du jakin *zer* den, harik eta bere burua egitearen bidez errealitate bihurtu arte. - Baina, horrenbestez, badirudi bere egitearen *xedea* ezin duela determinatu, harik eta egin duen arte; baina, aldi berean, kontzientzia den heinean, ekintza aurretik guztiz *berea* bezala, hau da, *xede* gisa bere aurrean izan behar du. Ekintzara zuzentzen den indibidua itxuraz zirkulu batean sartuta dago, non une bakoitzak dagoeneko aurrekoa auresuposatzen duen, eta, horrenbestez, ezin duen abiapunturik aurkitu, zeren bere xede izan behar duen bere jatorrizko zerizana lehenik *ekintzaren bidez* ezagutzen baitu, baina ekiteko *aurretik xedea* izan behar baitu. Horrexegatik, ordea, *bitartegabe* abiatu behar du eta inguruabarrak direnak direla ere beste *hasiera*, *bitarteko* eta *helburuari* buruzko beste eragozpenik gabe egiletasunera egin behar du urratsa; izan ere, bere zerizana eta *berbaitan den* izaera dena batera da, *hasiera*, *bitarteko* eta *helburu*. *Hasiera* gisa ekitearen *inguruabarretan* dago eskura, eta indibiduok zerbaitetan aurkitzen duen *interesa* galdera honi dagoeneko eman zaion erantzuna da: ea ekin behar duen eta zer egin behar duen. Izan ere, itxuraz hor topatutako errealitatea dena, bere baitan bere jatorrizko izaera da, zeinak *izate* baten itxura baino ez duen (bitan banatzen den egitearen adigaian datzan itxura), baina *bere* jatorrizko izaera gisa adierazten den kontzientziak hartan duen *interesa* dela eta. - Era berean, *Nola* edo *bitartekoa* ere bere baitan eta bere baitarako determinatuak daude. *Talentua* ez da era berean jatorrizko indibidualtasun determinatua baino, *barneko bitarteko* gisa begiratuta, edo xedetik errealitatera doan *igarobidea*. Bitarteko *erreala*, ordea, eta igarobide erreala talentuaren batasuna da, eta interesan agertzen den gaiaren izaera; hark bitartekoan egitearen alderdia errepresentatzen du, horrek edukiaren alderdia, biak indibidualtasuna bera dira, izatearen eta egitearen elkar zeharkatze gisa. Eskura duguna, beraz, hor topatu ditugun *inguruabarrak* dira, *bere baitan* indibiduoaren jatorrizko izaera osatzen dutenak; gainera, horiek *bereak* gisa edo *xede* gisa ezartzen dituen interesa; azkenik, aurkakotza horren elkarlotura eta gaindipena *bitartekoan*. Elkarlotura hori oraindik ere kontzientziaren barne kokatzen da, eta oraintxe aztertu dugun osokia aurkakotza baten alderdi bat da. Geratzen den aurkakotzaren itxura hori *igarobidearen* beraren bidez

edo *bitartekoaren* bidez gainditzen da; izan ere, kanpoko-denaren eta barneko-denaren *batasuna* da, hark *barneko* bitarteko gisa duen determinatutasunaren aurkakoa; bere burua gainditzen du, beraz, eta bere burua ezartzen du, egitearen eta izatearen batasun hori era berean *kanpoko-den* gisa, erreal bihurtu den indibidualtasuna bera bezala; hau da, *bere baitarako baden* gisa ezarrita dagoena. Ekintza osoa ez da era horretara bere baitatik irteten *inguruabar* gisa, ez *xede* gisa ez *bitarte* - *ko* gisa ezta *emaitza* gisa ere.

Baina badirudi emaitzarekin batera jatorrizko izaeren bereizketa agertzen dela; emaitza, horrek adierazten duen jatorrizko izaera bezala, emaitza *determinatua* da, egiteak aske utzita *baden errealtate* gisa negatibotasuna nolakotasun gisa baita hartan. Baina kontzientzia horren aurrean determinatzen da determinatutasuna *oro har* negatibotasun gisa, egite gisa, bere baitan duen hori bezala; beraz, orokor-dena da emaitzaren determinatutasun haren aurrean, beste emaitzekin *alde* - *ra* dezake eta hortik abiatuta indibidualtasunak berak *ezberdin* gisa jaso; bere lanean gehiago lortzen duen indibiduoaren energia handiago gisa edo natura aberatsago gisa ikus dezake, hau da, bere jatorrizko determinatutasuna gutxiago murriztua duena; beste bat, aitzitik, izaera ahulago eta behartsuago gisa ikus dezake. *Handieraren* zerizangabeko bereizketa horren aldean *ona-denak* eta *txarra-denak* bereizketa absolutu bat adieraziko lukete; baina hemen ez da hori gertatzen. Era batera edo bestera ulertzen bada ere, era berean egite eta aritze bat da indibidualtasun batek egiten duen bere buruaren aurkezpena eta adierazpena, eta horregatik dena ona da, eta ezingo litzateke esan benetan txarra-dena zer litzatekeen. Emaitza txarra deitu zitzaion hura izaera determinatu baten bizitza indibiduala da, horretan egikaritzen dena; emaitza txar gisa pentsamendu alderatzaille baten bidez baino ez da hondoratzen, baina hori hutsala da, zeren hori emaitzaren zerizangabeko haraindi baitoa, indibidualtasunak egiten duen bere buruaren adierazpenaz haraindi, eta gainera ez dakigu hor zer bilatzen duen eta zer eskatzen duen. - Pentsamendu horrek lehenago aipatutako bereizketa baino ezin du ukitu, baina hori bere baitan, handieraren bereizketa den alde-tik bereizketa zerizangabekoa da, eta hemen determinatzen da hainbat emaitza edo indibidualtasun izango liratekeelako elkarren artean alderatuko liratekeenak; baina horiek ez dute loturarik euren artean; bakoitza bere buruari baino ez zaio lotzen. Jatorrizko izaera baino ez da *ber* -

baitana edo emaitzaren juzgaketarako eredu gisa oinarrian ezar zitekeena, eta alderantziz; biak, ordea, elkar egokitzen dira: ez dago ezer indibidualtasunarentzat *haren bidez* ez bada, edo ez dago *errealiterik* haren izaera eta egitea ez denik, eta ez dago erreala ez den egiterik ezta haren berbaitanik ere, eta une horiek baino ez dira alderatu behar.

Beraz, ez dago *gorespenik*, ez *lantururik* ezta damurik ere; izan ere, horrelako gauza guztiak indibiduoaren jatorrizko izaera eta horrek errealitatean duen aplikazioa ez den beste *eduki* eta beste *berbaitan* bat irudikatzen duen pentsamendutik datoz. Horrek egiten duena edozer izanda ere, eta gertatzen zaiona edozer gauza izanda ere, hori egin du, eta hura egin duen hori da; ezin du *norberaren* igorpen hutsaren kontzientzia baino izan, ahalgarritasunaren gauetik orainaldiaren argitara, *berbaitan abstraktutik* izate *errealaren* garrantzira, eta ziurtasun hau baino ezin du izan, hots, horretan gertatzen zaiona ez dela hartan lotan zegoena baino. Batasun horren kontzientzia, noski, era berean alderaketa bat da, baina alderatzen denak hain zuzen aurkakotzearen *itxura* baino ez du; formaren itxura da, indibidualtasuna bere baitan errealitatea dela onartzen duen arrazoimenaren autokontzientziarentzat itxura baino ez dena. Indibiduoak *ezin du*, beraz, *bere baitan poza* baino bizi, badakienez bere errealitatean bere buruarekin batasuna baino ezin duela aurkitu, edo bere buruaren ziurtasuna bere egian, eta, beraz, beti bere xedea lortzen duela.

Hori da indibidualtasunaren eta izatearen elkar zeharkatze absolutu gisa bere buruaz ziur den kontzientziak bere buruaz sortzen duen adigaia; ikus dezagun ea hark hori esperientziaren bidez baiesten duen, eta bere errealitatea horrekin adosten den. Emaizta kontzientziak bere buruari ematen dion errealitatea da; hor bere baitarako den indibiduo *bere baitan* da, halako moldez non kontzientzia, *horrentzat* indibiduo emaitzan biltzen dela, ez baita kontzientzia berezia, baizik eta kontzientzia *orokorra*; bere emaitzan oro har orokortasunaren osagaira etorri da, izatearen espazio determinatutasungabea. Bere emaitzatik erretiratzen den kontzientzia egitatean kontzientzia orokorra da bere emaitzaren aurrean (zeren hori *negatibotasun absolutua* baita edo egitea baita aurkakotza horretan), azken hori *determinatua* delako, beraz, bere buruaz haraindi doa emaitza gisa, eta espazio determinatutasungabea da, bere emaitzak betetzen ez duena. Lehenago euren batasuna adigaiari mantentzen bazen, hori gertatzen zen emaitza *baden* emaitza gisa gain-

ditua izan zelako. Baina *izan* behar du, eta ikusi behar da nola indibidualtasunak bere *izatean* bere orokortasuna mantentzen duen, eta nola lortuko duen bere burua asebetetzea. - Hasteko sortu den emaitza bere horretan aztertu behar da. Indibidualtasunaren izaera osoa jaso du; horren *izatea* bera, beraz, egite bat da, non bereizketa guztiek elkar zeharkatzen duten eta desagertzen diren; emaitza *irautera* jaurtitzen dute, non jatorrizko izaeraren *determinatutasuna* egitatean beste izaera determinatuen aurka bihurtzen den, horietan sartzen den, beste horiek bere baitan sartzen diren bezala, eta desagertzen den une gisa higadura orokor horretan galtzen den. Bere baitan eta bere baitarako erreala den indibidualtasunaren *adigaiaren barne* une, inguruabar, xede, bitarteko eta egikaritzea euren artean berdinak direnean, eta jatorrizko izaera determinatuak osagai orokor gisa baino balio ez duenean, orduan horren *determinatutasuna* bere horretan emaitzan etortzen da argitara, osagai hori izate objektibo bihurtzen den heinean, eta bere egia jasotzen du bere desagertenean. Zehazkiago desagertzen hori honelakoa da, hots, determinatutasun horretan indibiduo indibiduo *hori* gisa erreal bihurtu da; baina ez errealitatearen edukia soilik, baizik eta era berean horren forma, edo errealitatea bere horretan oro har hain zuzen determinatutasun hori da, hots, autokontzientziari aurkakotua izatea. Alderdi horretatik errealitatea adigaitik desagertu den, *hor topatu* baino egiten ez den errealitate *arrotza* da. Emaita *da*, hau da, beste indibidualtasunentzat da, eta horientzat errealitate arrotza da, eta horren ordeztzearekin *duten* batasunaren kontzientzia emateko; edo jatorrizko izaerak ezarri *dien* interesa emaitza horretan ez da emaitza *horren* interes *propioa*, zeina horren bidez beste gauza bat bihurtzen den. Emaita, beraz, iragankorra den zerbait da, beste indar eta interesen aurkako jokoak suntsitzen duena, eta gehiago aurkezten du indibidualtasunaren errealitatea errealitate desagertkor gisa lortutako errealitate gisa baino.

Kontzientziari bere emaitzan egitearen eta izatearen aurkakotza sortzen zaio; hori kontzientziaren lehen tankeretan egitearen *hasiera* zena, hemen *ondorioa* baino ez da. Baina egitatean era berean oinarrian zegoen, kontzientzia *bere baitan* erreala den indibidualtasun gisa ekite-
ra abiatzen zen heinean; izan ere, ekiteari *jatorrizko izaera determina-
tua* aurreuposatzen zitzaion *berbaitan* gisa, eta horrek osatzeagatik baino egiten ez den osaketa hutsa zuen *edukitzat*. Egite hutsa, ordea,

bere buruaren berdin den forma da, zeina horrenbestez jatorrizko izaeraren *determinatutasunetik* ezberdintzen den. Axolagabe da hemen, gainerakoan bezala, zeini deitu *adigai* eta zeini *errealitate*; jatorrizko izaera *pentsatu-dena* edo *berbaitana* da egitearen aurrean, non hark lehen-lehenik lortzen duen bere errealitatea; edo jatorrizko izaera indibidualtasunaren izatea da halakoa den aldetik eta, gainera, horren izatea emaitza gisa, baina egitea da jatorrizko *adigaia*, igarobide absolutu gisa, edo *bilakaera* gisa. Adigaiaren eta errealitatearen arteko *ezados-tasun* hori, horren zerizanean datzana, kontzientziak bere emaitzan esperientziatzen du; hor bihurtzen da egiatan den bezalakoa, eta bere buruaz duen adigai kaskala desagertzen da.

Emaitzaren oinarrizko kontraesanean, bere baitan erreala den indibidualtasun horren egia denean, horrenbestez horren alderdi guztiak kontraesankor gisa agertzen dira; edo emaitza, indibidualtasun osoaren eduki gisa, batasun negatiboa den eta une guztiak harrapatuta dituen *egitetik* irten eta *izatera* datorrenean, uneak askatzen ditu; eta irautearen osagaian elkarrekiko axolagabe bihurtzen dira. Adigaia eta errealitatea bereizten dira xedea eta *jatorrizko zerizantasuna* dena bezala. Ausazkoa da xedeak egiazko zerizana izatea, edo berbaitana xede bihurtzea. Era berean, adigaia eta errealitatea bereizten dira errealitate-rako *igarobide* eta *xede* gisa; edo ausazkoa da xedea adierazten duen *bitartekoa* hautatzea. Eta azkenik, barneko une horiek guztiak, euren barnean batasuna izan ala ez izan, hots, indibiduoaren *egitea* bere aldetik ausazkoa da oro har *errealitatearen* aurrean; *zoriak* erabakitzen du, era berean, gaizki determinatutako xedearen *alde* eta gaizki hautatutako bitartekoaren alde eta horien aurka.

Baina, horrenbestez, kontzientziari bere emaitzan nahi izatearen eta osatzearen, xedearen eta bitartekoaren arteko aurkakotza eta, gainera, barneko-denaren eta errealitatearen artekoa iristen bazaio, bere barnean *bere egitearen ausazkotasuna* oro har biltzen dituen aurkakotza, beraz, orduan era berean egitearen *batasuna* eta *beharrezkotasuna* hor daude; alderdi hori besteari gainezartzen zaio, eta *egitearen ausazkotasunaren esperientzia* bera *ausazko esperientzia* da. Egitearen *beharrezkotasuna* honetan datza, *xedea errealitateari* baino ez zaiola lotzen, eta batasun hori egitearen batasuna da; ekiten da egitea bere baitan eta bere baitarako errealitatearen zerizana delako. Emaitzan ausazkotasuna dugu, *osatua izatea nahi izatearen* eta *osatzearen* aurrean duena, eta

esperientzia horrek, itxuraz egia gisa balio behar duenak, ekintzaren adigai hura kontraesaten du. Esperientzia horren edukia, ordea, bere osotasunean aztertzen badugu, orduan *desagertzen ari den emaitza* da; *mantentzen* dena ez da *desagertzea*, baizik eta desagertzea bera da erreala, eta emaitzari lotzen zaio, eta horretan desagertzen da; *negatibodena* horren *negazioa den positibo-denarekin* batera *suntsitzen* da.

Desagertzearen desagertze hori bere baitan erreala den indibidualtasunaren adigaian datza; izan ere, emaitza desagertarazten duena edo horretan desagertzen dena eta esperientzia deitzen den horri indibidualtasunak bere buruaz duen adigaiaren gaineko gailentasuna eman behar diona *errealitate objektiboa* da; baina hori une bat da, kontzientzia horretan ere egia gehiagorik ez daukana bere horretan, eta egia hori horrek egitearekin duen batasunean datza, eta *egiazko emaitza egitearen* eta *izatearen*, *nahi izatearen* eta *osatzearen* batasun hura da. Kontzientziari, beraz, bere ekintzaren oinarrian datzan ziurtasuna dela eta, *aurkakotzen* zaion errealitatea bera *harentzat* baino ez dena da; bere baitara itzuli den autokontzientziari, aurkakotza oro desagertu zaionari, aurkakotza ezin zaio izan bere *berbaitarako izatearen* forma hori *errealitatearen* aurka; baizik eta aurkakotzak eta negatibotasunak, emaitzan agertzen direnak, ez dute horrenbestez emaitzaren *edo* kontzientziaren edukia soilik ukitzen, baizik eta errealitatea errealitate den aldetik, eta horrela horren bidez eta horren baitan dagoen aurkakotza eta emaitzaren desagertzea. Era horretara kontzientzia bere baitara islatzen da bere emaitza iragankorretik, eta bere adigaia eta ziurtasuna baieztatzen ditu *badena* eta *irauten duena* bezala, egitearen *ausazkotasunaren* esperientziaren aurrean; bere adigaia esperientziatzen du egiatan, non errealitatea une bat baino ez den, *harentzat* zerbait dena, ez berbaitan eta berbaitarako; desagertzen ari den une gisa esperientziatzen da, eta errealitateak balio dio soilik *izate* gisa oro har, zeinaren orokortasuna bat den egitearekin. Batasun hori da egiazko emaitza; *gaia bera* da, bere burua oro har baieztatzen duena eta irauten duena gisa esperientziatzen dena, egite indibidualaren *ausazkotasuna* den gaiarekin loturarik izan gabe, inguruabarrekin, bitartekoekin eta errealitatearekin loturarik izan gabe.

Gaia bera une horiek aurkakotzen zaie, horiek bakartuta balio beharko luketen heinean, baina zerizanez errealitatearen eta indibidualtasunaren arteko elkar zeharkatze gisa horien batasuna da; era berean, egite bat da, eta egite gisa oro har *egite hutsa*, eta horrela, *era berean*,

indibiduo horren egitea, eta egite hori horri dagokio errealtatearen aurkako aurkakotzan, *xede* gisa; era berean, determinatutasun horretatik aurkakora doan *igarobidea* da; eta azkenik, *kontzientziak eskura duen errealtatea*. *Gaiak berak* horrela gogo-zerizantasuna adierazten du, non une horiek guztiak gaindituak diren euren kabuz baliodun gisa, eta, beraz, orokor gisa baino balio ez duten heinean, eta hor kontzientziari bere buruaz duen ziurtasuna zerizan objektiboa zaio, *gai* bat; autokontzientziatik *berea* gisa jaiotzen den objektua, objektu aske, egiazkoa izateari utzi gabe. - Sentipenezko ziurtasunaren eta hautematearen gauzak autokontzientziarentzat horren bidez baino ez du esanahia; horretan oinarritzen da gauza baten eta gai baten arteko bereizketa. - Hor sentipenezko ziurtasunari eta hautemateari dagokien higidura jariatzen da.

Gai horretan, beraz, indibidualtasunaren eta objektibotasunaren objektibo bihurtu den elkar zeharkatze gisa, autokontzientziari bere buruaz duen egiazko adigaia iritsi zaio, edo bere substantziaren kontzientzia lortu du. Kontzientzia hori aldi berean, hemen den moduan, oraintxe sortu den eta, beraz, *bitartegabeko* den kontzientzia da, eta hori da gogo-zerizana hemen eskura izateko modu determinatua, eta ez da hedatu oraindik egiazko substantzia erreal izatera. *Gaiak berak* bere kontzientzia bitartegabeko horretan *zerizan sinplearen* forma du, zeinak orokor-den aldetik bere hainbat une barnebiltzen dituen eta horiei ematen zaion, baina berriro ere horiekiko axolagabe izanik une determinatu gisa eta aske izanik bere kabuz, eta gai aske, *sinple*, *abstraktu* hori den aldetik, *zerizan gisa balio* du. Jatorrizko determinatutasunaren edo indibiduo *horren gaiaren*, horren xedearen, bitartekoen, egitearen eta errealtatearen une ezberdinak kontzientzia horrentzat alde batetik une banakoak dira, *gaiaren beraren* aldean utzi eta bazter ditzakeenak; bestalde, horiek guztiek gaia bera zerizan gisa dute, baina halako moldez non horien orokor-den *abstraktu* gisa une ezberdin horietan guztietan baitago eta horien *predikatu* izan baitaiteke. Hori bera ez da oraindik subjektua, baizik eta une horiek hartzen dira subjektutzat, horiek oro har *banakotasunaren* aldean kokatzen direlako, baina gaia bera hasieran orokor-den sinplea baino ez da. *Generoa* da, une horietan guztietan horien espezie gisa dagoena, eta era berean horietatik aske dagoena.

Kontzientzia *zintzoa* da *gai bera* adierazten duen idealismora iristen denean alde batetik, eta bestetik gaian orokortasun formal hori bezala egia-dena daukanean; horretaz baino arduratzen ez den kon-

tzientzia, eta, beraz, horren une edo motaz baino aritzen ez dena, eta hura horietako batean edo esanahi batean lortzen ez duen heinean, horregatik beste batean lortzen duena, eta, beraz, kontzientzia horrek bere adigaiaren arabera izan beharko lukeen asebatea beti lortzen duena. Edozer gertatzen dela ere, *gaia bera* bete eta lortu du, genero *orokor* horren gisara une haien guztien predikatu baita.

Kontzientzia horrek *xedea errealtate* bihurtzen ez badu, orduan horrek hala ere *nahi izan* du, hau da, *xedea* xede gisa, ezer egiten ez duen *egite hutsa* *gaia bera* bihurtzen da; eta orduan horrela adieraz dezake eta kontsola daiteke, ezen beti ere zerbait *ekin* duela eta zerbaitetan *aritu* dela. Orokor-denak negatibo-dena edo desagertzea bere baitan barnebiltzen duenez, orduan emaitzan bere burua suntsitzea ere *bere egitea* da; besteak hori egitera akuilatu ditu, eta bere errealtatearen *desagertzean* asebatea ere aurkitzen du, gaztetxo gaiztoek jasotzen duten masailekoan gozatzen duten bezala, hots, horren kausa direlako. Edo *gaia bera* egikaritzea *saia*tu ere egin ez badu, eta *ezer ere egin ez* badu, orduan ez da *gai* izan; horrentzat *gaia bera* hain zuen *erabakia* - *ren* eta *errealtatearen* arteko *batasuna* da; baieztatzen du ezen *errealti* - *tatea* horren egin *ahal izatea* besterik ez litzatekeela. - Zerbait azkenik interesgarri bihurtzen bazaio berak parte hartu gabe, orduan *errealtate* hori *gaia bera* da horretan aurkitzen duen interesagatik, hori horrek sortu ez badu ere; hari zuzenean gertatu zaion zoriona bada, orduan bere *egintza* eta bere *mereximendu* gisa hartzen du; bestela munduko gertaera bada, arduratzen ez duen zerbait, orduan dena den bere bihurtzen du, eta *egintzarik gabeko interesa* horrentzat interes *alderdikoia* da, eta horren alde edo aurka egin du eta hori *borrokatu* edo *defendatu* du.

Kontzientzia horren *zintzotasuna*, eta horrek hainbat eratara bizi duen asebatea, egitatean, argitu denez, honetan datza, hots, gaiaz dituen *pentsamenduak ez elkartzean*. *Gaia bera* hari era berean *gaia bera* zaio eta ezein *emaitza*, edo *egite hutsa* eta *xede kaskala*, edo gainera *errea* - *litate ez-ekilea*; esanahi bat eta beste bat predikatu horren subjektu bihurtzen du, eta bata eta bestea ahazten ditu. Orain *nahi izanean* edo *gai ez izanean* gaiak berak *xede kaskal* baten esanahia du, eta *nahi izatearen* eta osatzearen batasun *pentsatuarena*. Xedearen suntsipenari buruzko kontsolamenduak, *nahi izan* edo *egin baino ez* izanak, edo besteegi egitekorik emateagatik lortutako asebateak bihurtzen dute *egite hutsa* edo emaitza txar osoa zerizan; izan ere, txarra deitu behar zaio

ezein emaitza ez denari. Azkenik, zorionez errealtatea *topatzen* badu, egintzarik gabe bihurtzen da izate hori gaia bera.

Zintzotasun horren egia, ordea, itxuraz den bezain zintzoa ez izatea da. Izan ere, ezin du hain burugabea izan ezen une ezberdin horiek egitatean horrela sakabanatzen uzten baititu, baizik eta euren aurkakotzaren gaineko kontzientzia bitartegabekoa izan behar du, zeren haiek oro har elkarri lotuta baitaude. Egite *hutsa* zerizanez indibiduo *horren* egitea da, eta egite hori berriro ere zerizanez *errealitate* bat edo gai bat da. Alderantziz, *errealitatea* zerizanez *bere* egite gisa soilik da, eta *egite* gisa *oro har*; eta bere egitea aldi berean oro har egite gisa baino ez da, eta gainera errealtatea. Beraz, itxuraz haren ardura *gaia bera* baino ez bada *errealitate abstraktu* gisa, orduan gertatzen da hartaz arduratzen dela *bere* egite gisa. Baina era berean, bere ardura *egitea* eta *aritzea* den heinean, hori ez du serio hartzen, baizik eta *gai batez* arduratzen da eta gai horretaz *berea* den aldetik. Azkenean *bere* gaia eta *bere* egitea nahi dituela dirudienez, berriro *oro har* gaiaz eta bere baitan eta bere baitarako geratzen den errealtateaz arduratzen da.

Gaia bera eta bere uneak hemen *eduki* gisa agertzen diren bezala, era berean beharrezkoak dira kontzientzian dauden *formak bezala*. Eduki gisa agertzen dira, desagertzeko, eta bakoitzak besteari leku egiten dio. Horregatik, determinatutasunean, *gainditu* gisa, egon behar dute hor aurrean; horrela, baina, kontzientziaren alderdiak dira. *Gaia bera berbaitan* gisa edo *bere baitarako islapen* gisa dago hor horren barnean, baina uneen elkar *bazterketa* honela adierazten da, hots, horiek ez direla bere baitan ezarriak, baizik eta bere baitan *beste baten -tzat*. Edukiaren uneetako bat horrek egunaren eguzkitan ezartzen du, eta *besteei* aurkezten die; baina kontzientzia aldi berean hortik bere baitara islatzea da, eta aurkakotu-dena era berean hor aurrean dago; kontzientziak hori berea balitz bezala gordetzen du. Aldi berean, ez da gertatzen horietako bat kanpora ateratzen dela eta bestea barnean gordetzen dela, baizik eta kontzientzia bietaz arduratzen da; izan ere, bata zein bestea beretzat eta besteentzat zerizanezko bihurtu behar ditu. *Osokia* indibidualtasunaren eta orokor-denaren arteko elkar zeharkatze higitzailea da; baina osoki hori kontzientziarentzat *zerizan* sinplea baino ez denez eta, beraz, *gaiaren beraren* abstrakzioa gisa baino ez dagoenez hor aurrean, orduan horren uneak bereizita horretatik at eta bata bestetatik at kokatzen dira; eta *osoki* gisa erakustearen eta bere

baitarako gordetzearen arteko joan-etorri bereizlearen bidez baino ez da xahutzen eta aurkezten. Joan-etorri horretan kontzientziak une *bat* bere baitarako eta zerizanezko gisa duen heinean bere hausnarketan, baina beste bat *bere baitan* kanpotik baino ez duenean edo *besteentzat* duen heinean, horrela indibidualtasunen elkarren arteko jokoak agertzen da, non horiek aurkitzen duten euren buruak eta besteak iruzurtzen dituztela eta iruzurtuak direla.

Indibidualtasun bat, beraz, zerbait egikaritzera doa; itxuraz horrela zerbait bere *gai* bihurtu du; ekiten du, eta hor besteentzat da eta iruditzen zaio *errealitateaz* arduratzen dela. Besteek, beraz, euren egitea gaian bere horretan duten interestzat hartzen dute, eta *gaia bere baitan aplikatua* izateko xedetzat; ez dio axola hori lehen indibidualtasunak egiten duen edo haiek. Horri jarraiki, haiek *gaia* dagoeneko haiek egikarituta erakusten duten heinean edo, hori gertatzen ez denean, euren laguntza eskaini eta ematen duten heinean, kontzientzia hura haien arabera zegoen lekutik irten da; *haren* egitea eta aritzea da gaian interesatzen zaiona, eta jabetzen direnean hori *gaia bera* zela, irizurtuak izan direla aurkitzen dute. - Baina egitatean hura presaka laguntzera abiatzea ez zen haiek *euren* egitea, ez *gaia bera*, ikusteko eta erakusteko nahia baino; hau da, hura iruzurtu nahi zuten eurak euren kexaren arabera iruzurtuak izan ziren modu berean. - Orain ondorioztatzen den heinean, *norbere* egiteak eta *aritzeak*, *bere indarren* jokoak gai beratzat balio duela, orduan badirudi kontzientziak bere zerizana *bere baitara* -ko jorratzen duela, ez besteentzat, eta egiteaz arduratzen dela baina *berea* den aldetik soilik, ez besteena den aldetik, eta badirudi horrela, era berean, besteei uzten diela gaiarekin nahi dutena egiten. Baina hori egitean berriro huts egiten dute; berriro ere irten da hartzen zuela usten zuten lekutik. Ez da arduratzen *gaiaz bere banako* hori den aldetik, baizik eta *gaiaz* orokor-dena bezala, guztientzat dena. Haien egitean eta emaitzan burua sartzen du, eta hori eskuetatik kendu ezin dienean, gutxienez interesatzen da juzgatzearen bidez; bere onespeneren zigilua eta bere goraipamena ematen badio, horrek esan nahi du emaitzan ez duela emaitza soilik goraipatzen, baizik eta aldi berean horren eskuza-baltasuna eta neurria, emaitza ez emaitza gisa ezta bere gaitzespenaren bidez ere zapuztu ez izateagatik. *Emaitzan* interesa erakusten duen heinean, *hori egitean* gozatzen du; era berean, gaitzesten duen *emaitza* hori ongietorria zaio hain zuzen gaitzespen horrek sortzen duen bere

egite propioaren gozamen horregatik. Baina burua sartze horren bidez iruzurtutzat jotzen direnak edo horren itxurak egiten dituztenek era bereko iruzurra egin nahi zuten. Euren egite eta aritzea eurentzat baino ez den zerbait bezala erakusten dute, non haiek *euren burua* eta *euren zerizana* baino ez duten xede gisa. Baina zerbait egiten duten heinean, eta, horrenbestez, euren burua aurkezten duten eta eguneko argitan erakusten duten heinean, bitartegabe egintzaren bidez kontraesaten dute eguna bera, kontzientzia orokorra eta guztien parte-hartzea baztertu nahi izateko asmoa; egikaritzea, aldiz, norberarena osagai orokorrean erakustea da, horren bidez guztien *gai* bihurtuz, horrela behar duelako.

Norberaren burua eta besteak iruzurtzen dira, beraz, ardura *gai hutsa* baino ez denean; gauza bat irekitzen duen kontzientziak esperientzia hau egiten du, alegia, besteak presaka hurbiltzen direla, euliak esne freskora bezala, eta horretaz arduratu nahi dutela; eta hartan aurkitzen dute horri ere, era berean, ez zaiola axola gaia objektu gisa, baizik eta *berea* bezala. Bestalde, *egiteak* izan behar badu soilik, indarren eta ahalmenen erabilera edo indibidualtasun horren adierazpenak, zerizanezkoa denak, orduan guztien aldetik era berean esperientzia hau egiten da, hots, *guztiak* elkar ukitzen dutela eta gonbidatutzat hartzen direla, eta egite *huts* baten ordeztu edo egite bereizgarri *banakoaren* ordeztu era berean *besteentzat* ere badela edo *gaia bera* ireki zela. Bi kasuetan gauza berbera gertatzen da, eta zentzu ezberdina baino ez du onartu zenaren eta balio behar zuenaren aurrean. Kontzientziak bi alderdiak maila berean zerizanezko une gisa esperientziatzen ditu, eta horrela *gaiaren beraren izaera*, hots, ez dela egiteari oro har edo banako egiteari aurkakotzen zaion gaia, ezta iraupenari aurkakotzen zaion eta une horietatik bere *espezie* gisa aske den *generoa* den egitea ere, baizik eta horren *izatea banako* indibiduoaren eta indibiduo guztien *egitea* den zerizana, eta zeinaren *egitea* bitartegabe *besteentzat* den, edo *gai* bat den, eta soilik gaia den *guztien eta bakoitzaren egite* gisa; zerizan guztien zerizana den zerizana, *gogo-zerizana*. Kontzientziak esperientziatzen du une horietako bat ere ez dela *subjektua*, baizik eta *gai orokorrean* desagertzen dela; indibidualtasunaren uneak, kontzientzia horren burugabekotasunarentzat bata bestearen ondoren subjektu zirenak, indibidualtasun sinplean batzen dira, zeina *horiek* bezala bitartegabe orokorra den. Gaiak berak horren bidez predikatuaren erlazioa eta orokortasun abstraktu hilaren determinatutasuna galtzen du; aitzitik, hori

indibidualtasunak zeharkatzen duen substantzia da; subjektu batean, non indibidualtasuna bere *horretan* eta indibiduo *guztiak* bezala dagoen, eta orokor-den bat, zeina guztien eta bakoitzaren egite gisa *izate* bat den, eta errealitatea den kontzientzia *horrek* hori bere errealitate banako eta guztien errealitate gisa ezagutzen duelako. *Gaia bera* lehenago *kategoria* gisa definitu genuena da, nia den izatea edo izatea den nia, baina *pentsatze* gisa, zeina *autokontzientzia errealetik* ezberdintzen den oraindik; baina hemen autokontzientzia errealearen uneak, guk horri edukia, xedea, egitea eta errealitatea deitzen diogun heinean, eta horri forma deitzen diogun heinean, berbaitarako izatea eta beste batentzat izatea, kategoria sinplearekin bat eginez ezartzen dira, eta hori horren bidez aldi berean eduki oro da.

b. ARRAZOIMEN LEGE-EMAILEA

Gogo-zerizana bere izate sinplean *kontzientzia hutsa* eta *auto-kontzientzia hau* da. Indibiduoaren jatorriz *determinatutako* izaerak bere esanahi positiboa galdu du, *bere baitan* bere egiletasunaren osagaia eta xedea izatekoa, alegia, une gaingitua besterik ez da, eta indibiduo *norbere* bat *norbere* orokor gisa. Alderantziz, *gai formalak berak* bere betikotasuna indibidualtasun ekilean, bere baitan ezberdintzen denean lortzen du; izan ere, horren bereizketek orokorki haren *edukia* osatzen dute. Kategoria bere baitan da, *kontzientzia hutsaren* orokor-den gisa; era berean, *bere baitarako* da, kontzientziaren *norbera* bere une bat baita. Izate absolutua da, orokortasun hura *izatearen norbera-rekiko berdintasuna* baita.

Beraz, kontzientziarentzat objektu denak esan nahi du *egia-dena* dela; *bada* eta *balio du berbaitan eta berbaitarako den* eta *balio duen* zentzuan; *gai absolutua* da, zeinak ez duen gehiago pairatzen ziurtasunaren eta bere egiaren arteko aurkakotza, orokor-denaren eta banakodenaren artekoa, xedearen eta horren emaitzaren artekoa, baizik eta horren hor-izatea norberaren kontzientziaren *errealitatea* eta *egitea* da; horregatik, *gai hori substantzia etikoa* da; horren kontzientzia kontzientzia *etikoa*. Horren objektua horrentzat *egia-dena* da, norberaren kontzientzia eta izatea batasun batean biltzen dituelako; *absolutu-dena* gisa hartzen da, norberaren kontzientziak ezin duelako eta ez duelako nahi objektu horretaz haraindi joan, horretan norberarekin baitago; ezin

du, izate eta botere oro delako; ez du *nahi*, *norbera* delako edo *norbera* horren nahimena. Bere baitan objektu *erreal*a da objektu den aldetik, bere baitan baitu kontzientziaren bereizketa; masetan banatzen da, zeriz an absolutuaren *lege determinatu* direnetan. Masa horiek, ordea, ez dute adigaia iluntzen, hor gordeta geratzen baitira izatearen eta kontzientzia hutsaren eta *norberaren* uneak; hori masa horien zerizana osatzen duen eta bereizketa horretan uneak sakabanatzea ekiditen duen batasuna da.

Substantzia etikoaren lege edo masa horiek bitartegabe berrezagutzen dira; ezin da euren jatorriaz eta bermeaz galdetu eta beste bat bilatu, zeren *bere baitan eta bere biatarako* den zerizana autokontzientzia baino ez bailitzateke; baina ez da zerizan hori baino, zeren zerizan horren bere baitarako izatea baita, zeina horrexegatik egia den, kontzientziaren *norbera* eta era berean horren *berbaitana* edo kontzientzia hutsa delako.

Norberaren kontzientziak bere burua substantzia horren *berbaitarako izatearen* une dela dakien heinean, legearen hor-izatea hor halako eran adierazten du non *arrazoimen osasuntsuak* bitartegabe baitaki zer den *zuzena* eta *ona*. Eta *bitartegabe* dakien bezala, bitartegabe *balio* du harentzat, eta bitartegabe esaten du: hori *zuzena* eta *ona da*. Eta gainera *hau*; lege *determinatuak* dira, gai bete, edukiduna bera da.

Hain bitartegabe eskaintzen dena, era berean bitartegabe jaso eta aztertu behar da; sentipenezko ziurtasunak baden gisa adierazten duenaz egiten den moduan, ziurtasun etiko bitartegabeko horrek adierazten duen izatea edo zerizan etikoaren baden masa bitartegabekoa ere nola eratua dagon aztertu behar da. Hori erakutsiko digute lege horietako batzuen adibideek, eta horiek arrazoimen osasuntsu, *jakilearen* adierazpenen forman hartzen ditugun heinean, ez dugu zertan horietan lege etiko *bitartegabeko* gisa hartuta baliodun bihurtu behar den uea sortu.

«*Guztiok esan behar dugu egia*». Baldintzarik gabe adierazten den betebeharrarekin batera baldintza bat jartzen da: *baldin eta* egia badakigu. Aginduak, beraz, orain honela esango du: *guztiok esan behar dugu egia, beti ere horretaz dugun ezagutza eta konbentzimenduaren arabera*. Arrazoimen osasuntsuak, baita bitartegabe ona eta zuena dena dakien kontzientzia etikoak ere, argituko dute ezen, baldintza hori haren adierazpen orokorraren hain lotua zegoela non agindu hark hori

horrela adierazi *nahi* baitzuen. Horrela, ordea, onartu egin du egitatean bitartegabe haren adierazpenean agindua hausten zuela; *esaten* zuen guztiok esan behar dugula egia, baina *esan nahi* zuen guztiok esan behar dugula horretaz dugun ezagupena eta konbentzimenduaren arabera; hau da, *esan nahi zuena ez beste zerbait esaten zuen*; eta esan nahi dena ez beste zerbait esateak egia ez esatea esan nahi du. Ez-egia edo desegokitasun hobetua horrela adierazten da orain: *guztiok esan behar dugu egia uneoro dugun ezagupenaren eta konbentzimenduaren arabera*. - Horrela, *orokorki beharrezko-dena, bere baitan* balio duena, esakuneak adierazi nahi zuen hura, *ausazkotasun* erabatekoan eraldatzen da. Izan ere, egia esatea ausazkoa denaren esku geratzen da, ea ezagutzen dudan eta horretaz konbentzitu naitekeen; eta ez da hau baino esaten, hots, egia dena eta faltsua dena nahastuta ezagutzen, uste izaten edo ulertzen dugun moduan esan beharko litzatekeela. *Edukiaren ausazkotasun* horrek adierazia den *esakune baten forman* baino ez du *orokortasuna*; baina esakune etiko gisa *eduki* orokor eta beharrezkoa agintzen du, eta horrela horren ausazkotasunaren bidez bere burua kontraesaten du. - Azkenean esakunea honela aldatzen bada, ezen ezagupenaren ausazkotasuna eta egiaren konbentzimendua baztertu eta egiaz ere jabetu beharko baikenuke, orduan hori agindua litzateke, hain zuzen abiapuntuan genuena kontraesaten duena. Arrazoimen osasuntsuak hasiera batean bitartegabe egia adierazteko gaitasuna izan beharko luke; baina orain esaten da hark egia *jakin beharko* lukeela, hau da, ez dakiela *bitartegabe* adierazten. - *Edukiaren* aldetik begiratuta, hori baztertu egin da egia *jakin behar* dela eskatzen denean; izan ere, hori *jakiteari* lotzen zaio *oro har*: jakin behar da; eskatzen dena beraz, aitzitik, eduki determinatu orotatik aske dagoena da. Baina hemen kontua eduki *determinatu* bat zen, substantzia etikoan dagoen *bereizketa* bat. Baina horren determinazio *bitartegabekoa* honako edukia da, erabateko ausazkotasun gisa agertzen dena, eta orokortasunera eta beharrezkotasunera goratzen denean, halako moldez non *jakitea* lege gisa adierazten den, bada, desagertu egiten den.

Beste agindu entzutetsua honako hau da: lagun *hurkoa zeure burua bezainbat maite ezazu*. Banako-denari zuzentzen zaio banako-denarekin erlazioan, eta *banako-denak banako-denarekin duen erlazio gisa baieztatzen da*, edo sentsazioaren erlazio gisa. Maitasun ekilea (ekilea ez denak ez baitu izaterik eta, beraz, hemen ez da aipatzen) giza-

ki batetik gaitza-dena kentzen eta ona-dena gaineratzen saiatzen da. Horretarako bereizi egin behar da ea horretan zer den gaitza, gaitza den horren aurrean xedearen arabeko ona zer den, eta zer den oro har haren ongizatea; hau da, hori *adimenarekin* maite behar dut; adimenik gabeko maitasunak kaltetu egingo du, agian gorrotoak baino gehiago. Zerizanezko onegintza adimenduna, baina, bere tankera aberats eta garrantzitsuenean estatuaren egite orokor adimenduna da; egite horrekin alderatuta banako baten egitea banako den aldetik hain gauza hutsa da non ez baitu merezi horri buruz hitz egitea. Egite hark hor hain botere handia du non, baldin eta banako egiteak horri aurkakotzea nahiko balu eta zuzenean krimena izan nahiko balu edo beste baten maitasunagatik orokor-dena eskubideari eta egitean duen parteari dagokienez iruzurtu nahiko balu, hori oro har erabilgarritasunik gabekoa bailitzateke eta suntsitua bailitzateke ezinbestean. Onegintzari, sentsazio bat denari, egite erabat banakoaren esanahia geratzen zaio, beharrezko laguntza, ausazkoa den bezala behin-behinekoa dena. Ausazko egitearen abagunea ez ezik hori ea *emaitza* den ere determinatzen du, ea aldi berean berriro desagertzen den eta gaitz bihurtzen den. Besteen ona bilatzen duen ekite hori, *beharrezko* gisa adierazten dena, honela dago eratua: agian existi daiteke, agian ez; ausaz abagunea egokitzen bada agian emaitza bat izango da, agian ona izango da, agian ez. Lege horrek, horrenbestez, aztertu zen lehenak bezain gutxi du eduki orokor bat, eta ez du adierazten, ohituren lege absolutu gisa egin beharko lukeen moduan, *bere baitan eta bere baitarako* den zerbait. Edo halako legeak *beharrean* baino ez dira geratzen, baina ez dute *errealitaterik*; ez dira *legeak*, *aginduak* besterik ez.

Baina gaiaren izaera bertatik argitzen da egitatean *eduki* absolutu orokor bati uko egin behar zaiola; izan ere, substantzia sinpleari, eta horren zerizana horixe da, sinple izatea, horri ezartzen zaion *determinatutasun* oro *desegokia* zaio. Aginduak bere absolututasun sinplean *bitartegabeko izate* *etikoa* adierazten du; horretan agertzen den bereizketa determinatutasun bat da, eta, beraz, izate sinple horren orokortasun absolutuaren *menpe* dagoen eduki bat. Horren bidez eduki absolutu bati uko egin behar zaion heinean, horri *orokortasun formala* baino ezin zaio egokitu, edo bere burua ez kontraesatea, orokortasun edukigabea orokortasun formala baita, eta eduki absolutua ezein bereizketa ez den bereizketa bezainbat da, edo edukigabekotasuna.

Legeari geratzen zaiona, beraz, *orokortasunaren forma hutsa* da edo egitatean kontzientziaren *tautologia*, zeina edukiaren aurka agertzen den, eta ez den *baden* edo benetako *edukiaren jakitea*, baizik eta *zerizanaren* edo norberaren bururarekiko berdintasunaren jakitea.

Zerizan etikoa, horrenbestez, ez da bitartegabe eduki bat, baizik eta eduki baten lege izateko gai den ala ez den erabakitzeko eredu bat besterik ez, bere burua kontraesaten ez duen heinean. Arrazoimen legeemailea legeak *probatu* baino egiten ez duen arrazoimen izatera behei-titzen da.

c. ARRAZOIMEN LEGE-PROBATZAILEA

Substantzia etiko sinplean dagoen bereizketa bat horrentzat ausazkotasun bat da, zeina guk agindu determinatuetan jakitearen, errealitatearen eta egitearen ausazkotasun gisa agertzen ikusten genuen. Izate sinple haren eta hari ez zegokion determinatutasunaren arteko *alderaketa* gure esku geratzen zen; eta substantzia sinpleak hor bere buruari erakutsi dio orokortasun formala edo *kontzientzia* hutsa dela, edukirik gabe haren aurrean agertzen dena, eta horren *jakitea* dena determinatu gisa. Orokortasun horrek, horrela, *gaia bera* zena izaten irauten du. Baina kontzientzian beste bat da; ez da hain zuzen genero pentsamendugabeko eta bizigabea, baizik eta berezia denari lotzen zaio eta horren botere eta egiazat balio du. - Itxuraz kontzientzia horrek hasiera batean ezin du izan aurretik ginen probatze-ekintza hura bera baino, eta horren egitea lehenago gertatu zena, hots, orokor-dena eta determinatu-denaren arteko alderaketa, zeinak lehen bezala euren arteko desegokitasuna izango lukeen ondorioztat. Baina edukiak orokor-denarekin duen erlazioa hemen beste bat da, horrek beste esanahi bat lortu duen heinean; eduki determinatua lortzeko gai den orokortasun *formala* da, horretan bere buruarekin harremanean baino ez baita ikusten. Gure probatze-ekintza substantzia orokor sendoaren determinatutasunaren aurka zegoen, hori substantzia sartzen zaion kontzientziaren ausazkotasun gisa garatzen baitzen. Hemen alderaketaren mutur bat desagertu da; orokor-dena ez da gehiago *baden* eta *balio duen* substantzia, edo berbaitan eta berbaitarako zuzena dena, baizik eta jakite sinplea edo eduki bat bere buruarekin baino alderatzen ez duen forma eta ikusten duena ea tautologia bat den. Legeak aurrerantzean ez dira ematen, baizik eta *probatu* egiten dira; legeak kontzientzia probatzaileari

dagoeneko eman zaizkio: horrek haien *edukia* jasotzen du, den horretan sinpleki, horren errealitateari itsasten zaion banakotasuna eta ausazkotasuna aztertu gabe, guk egin genuen bezala, baizik eta aginduari eusten dio agindu gisa, eta horren aurrean duen jokaera bere irizpidea izan den bezain sinplea da.

Baina arrazoi horrengatik probatze-ekintza hori ez da urrun iristen; hain zuzen, irizpidea tautologia den eta edukiarekiko axolagabe den heinean, bere barnean hori aurkakoa bezain ongi onartzen du. - Auzia hau da: berbaitan eta berbaitarako lege izan behar al du *jabegoa* egoteak; *berbaitan eta berbaitarako*, ez beste xedeentzat erabilgarri delako; zerizantasan etikoa hain zuzen honetan datza, legea bere buruarekin baino ez dela berdintzen, eta bere buruarekiko berdintasun horren bidez, bere zerizanean oinarrituta, baldintzatua ez izatean. Jabegoak ez du bere burua kontraesaten berbaitan eta berbaitarako; determinatutasun *bakartua* edo soilik bere buruaren berdin ezarria da. Jabego eza, gauzek nagusirik ez izatea edo ondasunen jabego komuna izateak ez du era berean bere burua kontraesaten. Zerbait inoren jabego ez izatea, edo beretzat hartzen duen lehenaren jabego izatea, edo guztion jabego komuna izatea, bakoitzari bere premien arabera edo zati berdinen arabera, *determinatutasun sinple* bat da, *pentsamendu formal* bat, horren aurkakoa bezala, jabegoa. - Nagusirik ez duen gauza bat *premiaren objektu beharrezko* gisa hartzen bada, orduan beharrezkoa da banakoren baten jabego bihurtzea; eta kontraesankorra litzateke, gauzaren askatasuna lege bihurtzea. Gauzak nagusirik ez izateak ez du esan nahi nagusirik ez izate absolutua, baizik eta jabego *bihurtu* behar du, banakoaren *premien* arabera; eta gainera, ez gordetzeko, baizik eta bitartegabe erabiltzeko. Baina horrela ausazko eran premiaz arduratzea kontraesankorra da zerizan kontzientziadunarentzat, hori izaki hizpide bakarra hemen; izan ere, bere premia *orokortasunaren* forman errepresentatu behar du, bere existentzia osoaz arduratu behar du, eta ongi iraunkorra lortu behar du. Beraz, gauza bat norberaren kontzientzia duen lehen bizitzari bere premiaren arabera ausazko eran banatzeko *pentsamendua* ez dator bat bere buruarekin. - Ondasunen jabego komunean, non era orokor eta iraunkor batean horretaz arduratuko litzatekeen, edo bakoitzari *behar duen* bezainbat ematen zaio, eta orduan desberdintasun horrek eta banako-denaren *berdintasuna* printzipiotzat duen kontzientziaren zerizanak elkar kontraesaten dute, edo azken prin-

tzipio horren arabera *berdin* banatuko da, eta horrela banaketa ez zaio lotuko premiari, hori izan arren haren adigaia osatzen duena.

Baina era horretara jabego ezak kontraesankor dirudien arren, hori gertatzen da ez delako utzi determinatutasun *simple* gisa. Berdin gertatzen zaio jabegoari, horren uneetan banatzen bada. Nire jabego zen banako gauza horrenbestez *orokor-den*, *irmo-den*, *iraunkor-den* gisara hartzen da; horrek, ordea, haren izaera kontraesaten du, zeina erabilia izatean eta *desagertzean* datzan. Aldi berean, *nirea* gisa hartzen da, beste guztiek berregutzen dutenez, eta alde batera baztertzen dira. Baina berrezagutua izatean datza, ordea, beste guztiekin dudana berdintasuna, bazterketaren aurkakoa. - Nire jabegoan dudana *gauza* bat da, hau da, besteentzako izatea oro har, eta niretzat baino ez da guztiz orokorki eta era determinatugabea; *nire* jabegoan izateak bere gauzatasun orokorra kontraesaten du. Jabegoak, beraz, alderdi guztien arabera jabego ezak bezainbat kontraesaten du bere burua; bakoitzak bere baitan ditu bi une aurkakotuak, kontraesankorrak, banakotasuna eta orokortasuna. - Baina determinatutasun horietako bakoitza *sinpleki* errepresentatuz gero, jabego edo jabego eza bezala, beste garapenik gabe, bata bestea bezain *sinplea* da, hau da, ez du bere burua kontraesaten. - Arrazoimenak bere baitan duen legearen irizpidea, guztiei ongi egokitzen zaie, eta horrenbestez egitatean ez da irizpide bat. - Bitxia izan beharko luke tautologiak, kontraesanaren esakuneak, egia teoretikoaren ezagutzarako irizpide formal gisa soilik onartzen denak, hau da, egia- ren eta egia ezaren aurrean guztiz axolagabe den zerbait gisa, *egia* praktikokoaren ezagutzarako *gehiago izan beharko balu*.

Lehen kaskala zen gogo-zerizanaren beteketaren oraintxe aztertu ditugun bi uneetan gainditu egin da substantzia etikoan determinatutasun bitartegabekoan ezartzeko ekintza eta, gainera, horietaz jakitea ea legeak diren. Itxuraz emaitza honakoa da, hots, ez lege determinatuak ezta haien jakiterik ere ezin dugula izan. Baina substantzia bere buruaren *kontzientzia* da *zerizantasun* absolutuarena gisa, zeinak horren bidez ez *bereizketa* bere baitan ezta bere buruaren *jakitea* ere ezin dituen baztertu. Lege-ematea eta lege-probatzea ezer ez direla erakustek esanahi hau dauka, hots, biak banaka eta bakarka hartuta kontzientzia etikoaren *une* aldakorrak direla; eta horiek agertzen direneko higidurak zentzu formal hau du, hots, substantzia etikoa horren bidez kontzientzia gisa aurkezten dela.

Bi une horiek *gaiaren beraren* kontzientziaren determinazio zehatzagoak diren heinean, *zintzotasunaren* formatzat har daitezke, zeina bestela ere bere une formalekin egin duen bezala orain ona-denaren eta zuzena-denaren ustezko eduki batez eta egia irmo halakoen probatze batez arduratzen den, eta uste du arrazoimen osasuntsuan eta ulermen ulergarrian duela aginduen indarra eta baliotasuna.

Zintzotasun hori gabe, ordea, legeek ez dute balio *kontzientzia -ren zerizan* gisa, eta probatze-ekintzak ere ez era berean egite gisa horren *barne*; baizik eta une horiek adierazten dute nola agertzen den bakoitza bere kabuz *bitartegabe errealtate* gisa, bata lege errealean baliogabeko azalpen eta izatea eta bestea era berean baliogabe den haie-tatik askapena. Legeak lege determinatu gisa ausazko edukia dauka; horrek hemen esan nahi du eduki erreal baten kontzientzia banako batek duen legea dela lege-emate bitartegabeko hura, beraz, arbitrariotasuna lege bihurtzen duen, eta etikotasuna horren meneko bihurtzen duen harropuzkeria da, lege *besterik ez* diren, aldi berean *agindu ez* diren legeen aurrean. Bigarren uneak, bakartuta dagoen heinean, legeen probatzea, higiezina denaren higitzea eta jakitearen harropuzkeria esan nahi duen bezala, arrazoikerien bidez lege absolutuetatik askatzen dena eta horiek arrotz zaion arbitrariotasuntzat hartzen dituen.

Bi formetan une horiek substantziarekiko edo gogo-zerizan errealekiko erlazio negatiboa dira; edo horietan substantziak oraindik ez dauka bere errealtatea, baizik eta kontzientziak hori bere bitartegabekotasun propioaren forman barnebiltzen du, eta hasieran indibiduo horren *nahi izate* eta *jakite* bat besterik ez da, edo agindu ez-erreal bat egiteko *beharra*, eta orokortasun formalaren jakitea. Baina modu horiek gaindituak diren heinean, kontzientzia orokor-denera itzultzen da, eta aurkakotza haiek desagertzen dira. Gogo-zerizana, horrenbestez, substantzia erreala da, hots, modu horiek ez dute balio banaka, baizik eta gaindituak diren heinean besterik ez, eta batasuna, zeinaren une baino ez diren, kontzientziaren norbera da, zeinak gogo-zerizanean eza-rrita, hori zerizan erreal, bete eta bere buruaz jabe bihurtzen duen.

Gogo-zerizana, horrenbestez, hasteko norberaren kontzientziarentzat *bere baitan* den lege gisa da; probatze-ekintzaren orokortasuna, *bere baitan* ez izate formala zena, gainditu egiten da. Era berean, lege betikoa da, *indibiduo horren nahimenean* oinarria ez duena, baizik eta berbaitan eta berbaitarako dena, bitartegabeko *izatearen* forma duen

guztiaren nahimen huts absolutua. Ez da *agindua* ere, izan *behar* duen zerbait, baizik eta *bada* eta *balio du*; kategoriaren nia orokorra da, bitartegabe errealitatea den nia, eta mundua errealitate hori besterik ez da. Baina *baden lege* horrek orobat balio duen heinean, orduan norberaren kontzientziaren obediencia ez da agindu arbitrarioak ematen dituen (non hark bere burua ez duen ezagutzen) nagusiaren zerbitzura egotea. Baizik eta legeak bere kontzientzia absolutuaren pentsamenduak dira, hark bitartegabe *dituenak*. Ez du haietan *sinesten*, sinestemenak zerizana begietsi bai, baina zerizan arrotza begiesten baitu. *Norberaren* kontzientzia etikoa *norberaren orokortasunaren* bidez *bitartegabe* zerizanarekin bat da; sinestena, ordez, *banako* kontzientziatik abiatzen da, horren higidura da beti batasun horren aldera, baina horren zerizanaren hor aurrean izatea lortu gabe. - Kontzientzia har, ordea, bere burua banako gisa gainditu du, bitartekotza hori osatu da, eta osatu delako da substantzia etikoaren autokontzientzia bitartegabekoa.

Norberaren kontzientziaren eta zerizanaren arteko bereizketa guztiz nabarmena da. Horrenbestez, *zerizanean* dauden *bereizketak* ez dira ausazko determinatutasunak, baizik eta zerizanaren eta norberaren kontzientziaren batasunagatik (azken hori izaki soilik desberdintasunaren jatorria), batasunaren bizitzak zeharkatzen duen atalketaren masak dira, eurentzat gogo banaezin argiak, figura zerutar garbiak, euren bereizketetan euren zerizanaren zapuztugabeko inozotasun eta adostasuna mantentzen dutenak. - Norberaren kontzientzia era berean haieki-ko *erlazio* sinple, argia da. Haiek *dira*, ez dago besterik; horrek osatzen du *erlazio* horren kontzientzia. Horrela, Sofoklesen *Antigonarentzat* jainkoen lege *idatzigabeko* eta *egiazko* gisa balio dute.

Ez da orain jaio, ezta atzo ere, betidanik

bizi da, eta inork ez daki noiz agertu zen¹².

Badira. Haien sorrerari buruz galdetzen badut eta haiek euren jatorriaren tokira mugatzen baditut, orduan haietaz haraindi joan naiz; izan ere, orain hasita orokor-dena naiz, haiek, ordea, baldintzatu-dena eta mugatu-dena. Nire ulermenak haiek bermatu beharko balitu, orduan jadanik haien berbaitan izate zabunkaria higitu dut eta haiek kontuan hartzen ditut niretzat agian egiazko agian egiazko ez diren zerbait bezala. Jarrera etikoa honetan datza, zuzena denari tinko eustean erotu gabe eta hura higitzeari, astintzeari eta eratortzeari uko egitean. - Nire baitan

gordailu bat jasotzen dut; beste baten jabegoa *da*, eta berrezagutzen dut, *horrela delako*, eta erlazio horri eusten diot zalantzarik gabe. Gordailua niretzat gordetzen badut nire probatzearen printzipioaren arabera, tautologiarena, ez dut inolako kontraesanik egiten; izan ere, ez baitut beste baten jabego gisa ikusten; beste baten jabego gisa ikusten ez dudana zerbait gordetzea guztiz kontsekuentea da. *Ikuskeraren* aldaketa ez da ezein kontraesan, kontua ez baita hori ikuskera gisa, baizik eta bere burua kontraesan beharko ez lukeen objektua eta edukia. Nik zerbait nire jabegoa dela dioen ikuskera beste baten ikuskera izatera alda dezakedan bezala, kontraesan bat sortzearen errudun izan gabe, zerbait oparitzen dudanean egiten dudanez, aurkako bidea ere egin dezaket. - Zerbait, beraz, ez da zuzena nik aurkitzen dudalako kontraesankorra ez dela; baizik eta zuzen-dena delako da zuzena. Zerbait beste baten jabego izatea *oinarrian* datza; horri buruz ez dut zertan arrazoitu, ezta zerbait pentsamendu, lotura, ikuspuntu bilatu edo bururatu ere; ezta lege-ematen edo probatzean pentsatu ere; probatzearen bidez pentsatu; nire pentsamenduaren halako higiduren bidez erlazio hura bihurritzen dut, nik egitatean nahierara nire jakite tautologiko determinatugabea aurka-koari egokitua era berean bihur nezakeen eta, beraz, hori lege bihurtu nezakeen heinean. Aitzitik, determinazio hori edo hura zuzena ote den *berbaitan eta berbaitarako* determinatuta dago; nik nire kabuz nahi nukeena bihur nezake lege eta era berean ezingo nuke lege bihurtu, eta probatzen hasten naizen heinean dagoeneko bide ez-etikoan nago. Zuzen-dena niretzat *berbaitan eta berbaitarako* izatearen bidez nago ni substantzia etikoan; horrela, norberaren kontzientzian *zerizana* da; hori, ordea, *haren errealitatea* eta *izatea* da, haren *norbera* eta *nahime* - *na*.

Oharrak

- ¹ San Mateo VIII, 22.
- ² Ekimenak V, 9.
- ³ Izatea (*sein*) eta berea-dena (*Sei -nen*).
- ⁴ *Repräsentieren* eta *vorstellen* aditzak erabiltzen ditu.
- ⁵ Über Physiognomik, 2. argitarapen osatua, Göttingen, 1778, 35. orria.
- ⁶ Aipatutako liburua, 72. orria.
- ⁷ Aipatutako orria, 6. orria.
- ⁸ Platon, *Timaio*.
- ⁹ Buru hila.
- ¹⁰ Shakespeare, *Hamlet*, V, 1.
- ¹¹ Goethe, *Fausto*, lehen zatia, 1851-52 eta 1866-67 lerroak.
- ¹² Berbaitana (*Ansich*) eta ikuspegia (*Ansicht*).
- ¹³ Sofokles, *Antigona*, II 456-457.

Aurkibidea

HITZAURREA	7
OHARRAK	21
BIBLIOGRAFIA	23
EGILEAREN HITZAURREA	25
SARRERA	67
I. SENTIPENEZKO ZIURTASUNA, EDO HAUA ETA IRIZTEA	79
II. HAUTEMAPENA, EDO GAUZA, ETA NAHASKETA	89
III. INDARRA ETA ADIMENA, AGERPENEA ETA SENTIPENETIK HARATAGOKO MUNDUA	101
IV. NORBERAREN BURUAREN ZIURTASUNAREN EGIA	125
A. AUTOKONTZIENTZIAREN BEREGAINITASUNA ETA BEREGAINITASUN EZA; NAGUSITASUNA ETA MORRONTZA	132
B. AUTOKONTZIENTZIAREN ASKATASUNA; ESTOIZISMOA, ESZEPTIZISMOA ETA ZORITXARREKO KONTZIENTZIA	140
V. ARRAZOIMENAREN ZIURTASUNA ETA EGIA	159
A. ARRAZOIMEN BEHATZAILEA	165
B. AUTOKONTZIENTZIA ARRAZOIDUNAREN BERE KABUZKO EGIKARITZAPENA	226
C. INDIBIDUALITASUNA, BERE BAITAN ETA BERE BAITARAKO ERREALA DENA	249
OHARRAK	275

